

Joanes Etxeberri «Ziburukoa»

**MANUAL
DEBOZIONEZKOA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Manual devotioezcoa edo ezperen oren oro
escuetan errabilltçeco liburutchoa*, Joannes Etxeberri
(faksimilea). Hordago, 1978
Azken berrikustea: 2006-06

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00618.htm>

MANUAL DEBOZIONEZKOA, EDO EZPEREN, OREN ORO ESKUETAN ERABILTZEKO LIBURUTXOA

Eskarazko bersutan egiña,
eta guztia bi partetan berezia.

Lehenean irakasten direla
Giristiño komun batek
iakiñ behar dituen gauza gehienak,
berzean errateko lituken
halaber othoitz gehienak.

*Ponite haec verba mea
in cordibus et in animis vestri,
et suspendite capro signo
in manibus, et inter
oculos vestros collocate,
scribes ea super postes
eta ianuas domus tuae.*

Deut. II. 18. 20.

Ene erranak idukitzak bihotzean gorderik
Adimenduak eztuen gogoeta berzerik.
Hartarakotz ingura zak señalearhian
Bethi hautzaz orhoitzeko bizi aizen guztian
Eta pinta zak begien aitziñean enea
Athal gain eta pareta xurietan legea.

BORDELEN.

I. MONGIRON MILLANGES,
Erregeren Inprimatzaillearenean.
MDCLXIX

EXAMINATZAILLEEK

**Iphizpikuaren ordain handiari,
Manual hunez iduritu zaienaz**

launa, ikhusi dugu eta irakurri, bidaldu zinarokun Manual eskarazko hitz itzuliz egiña: eta iduritzen zaiku, jendea progotxa daitekela, eta hartarakotz inprimaturik argitara ilkhi daitekela.

Saran Urriaren 11 Urthe 1626

P. de AXULAR

P. de GUILLENTENA

LICENTIA VICARII GENERALIS

Visa approbatione doctorum Virorum, quibus demandauimus examinationem Manualis, Catanbrico carmine a Ioanne Etcheberri Doctore Theologo compositi, permittimus ut in lucem emittatur. Baionae die 28. Octob. 1626.

M. D'Oiharard,
Vicarius generalis

IOANNES ETXEBERRI
Doktor Teologo eta Manual
hunen egilleari
bere adiskideak

Damurik etzekutsala Anaia medikuak
Hark begia hertsiz gero egin tutzun bersuak
Ezen gehiago zure presa liro artea
Egin ohi zuen baño bizi zela berea.
Harenak gidatzen zuen gorputza indarrera,
Bañan zureak arima hedoiaren gañera.
Oraiñ ere kantatzen tu zure koplak Zeruan,
Bai eta merezi onez nik behere Munduan.
Ezen lainkoa laudatzen dute, eta lainkoak
Zeru lurretan merezi ditu laudorioak.

P. GUILLENTENA
Itsasuko Erretorak

**GRATULATUR IOANNI
Etcheberio meritissimo
in sacris Theologiae litteris
Doctori Condiscipulus**

Sic tua te pietas, sic entheus impulir ardor
Diuinam patriam reddere voce fidem.

Coelica Cantabrico spirasti oracula primus
Pneumate, et intactos ausus es ire lavus.

Hac facis, atque illam quae te foelicibus agris
Extulit, Aethereo germine pascis humum.

Quidni igitur, rumpente iecur Liuore, per orbem
Diceris oh patriae gloria prima tuae?

I. DE HEGUY

IN LAUDEM AUTHORIS

Nuper eras viridi redimitus tempora lauro,
Sed Cedro laurus te veniente fugit.
Nobilis est laurus, sed quantum sydera vincunt
Terras, tam Cedro laurus et ipsa minor.
Aequora qui sulcant debent tibi plurima, naues
Quod tua fecit eis ingeniosa manus,
Quas furor ingentis Neptuni saevius, et quid
In gremiis foueant terra, fretumque simul.
Non hominum lior mordax abolebit: at ipsae
Etcheuerri cum nomine semper erunt.

STEPHANUS HIRIGOYTI

MANUALAREN IKHASTERA IRATZARMENDUA

Bat bedera mela bedi duen ofizioaz,
Eta Giristiño dena, prestu izatekoaz.
Berzela du, Kristauaren gezurtatzen deitzea,
Eta Elizari bere goratzen ohorea.
Begira daudenak ditu edifikatzen gaizki,
Eta jende infidelak ere sortzen gogorki.
Dolu belzez estalzen du korte dohatsuena,
Eta arima damnatzen, nihoiz hillen eztena.
Hauk guztiak, Kristau falsoak ohi ditu obratzen
Noiz ere baita, bekhatu mortalean erortzen.
Hartarakotz nekha zaite, ikhasten Manuala
Eta faltetarik guarda, hura obratzen duzula.

IRAKURTZAILLE DEBOTARI EGILLEAK LIBURU HUNEN MANERAZ ABISUA

Giristiñoa, eman diat eskarazko bersutan,
Katholiko manuala neure asti ordutan,
Ikhusirik nola bainaiz iaiazen eskalduna,
Gure nazioa dela koplamaite duena.
Hartarakotz iakiara diat bersuz ezarri,
Lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri.
Lehenago nonbait urrun Greziako partetan
Herriko legeak eman ohi ituen kantetan,
Nola kantik maiz baitire mundukoan ahoan,
Hala kantez orhoiturik, maiz zituzten gogoan.
Hekin bada kostuma onaz orhoiturik lerroka
Manuala eman diat, den bezala koplaka.
Bañan nihork eztemala beharria hitzera,
Hanbat nola hitz azpian ehorzia denera.
Gehiago ahal bezain humilki aut othoizten
Obratxo hau mesprezia gogorki eztezaken.
Hasteak gaitzak direla errana duk komunki
Hunen gañean egiñen dik zenbait berzek hobeki.

LIBURUAREN ERREPARTIMENDUAZ

Liburu hau guztia duk bi partetan berezten
lakin behar gauzak ditik lehenak irakasten;
Bigarrenak debozionen egiteko othoitzak,
Zeiñak behar bailituzke erran Kristau bakhotxak.
Halaber duk lehenbizi liburua bietan,
Nola baituk ikhusiren erdiratzen partetan.
Lehenbizikoak gauza aiphatzen tik komunak,
Erkhaiñetan bat bederak iakin behar tuenak.
Berzeak gero, Gizonen fin zazpi azkenekoak,
Giristiñoak gau eta egun fuinean itzultzekoak.
Hurren parteak halaber bi gauza tik kondatzen,
Bakhun eta orazione bikhunak irakasten.
Azkenean laburki duk ezarri manuala
Edozeiñek pena gutiz har diroen bezala.
Adiskidea, ikhas etzak othoi debozinez,
Nola nik baitarozkiat eskaintzen gogo onez.
Nekearen golardotzat deus eztiat galdetzen,
Lekhat, gogotik enplega adin haukin ikhasten.

LEHENBIZIKO LIBURUA

Giristiñoak iakin behar dituen gauzez

DEDIKAZIONEA

ENE IAUN CLAUDIUS DE RUEIL,
Baionako Iphizpiku digne, Erregeren
Konseillerari, eta Parisko semeari

O.D.D.L.I.E.D.T.

longoikoak nahi luen, laun prelata, Eskara
Ziñakien, nola Hebreu, Greka, Latin, Erdara,
Presentatzen darotzudan obraren aditzeko,
On lizela, bailitzatzu halaber laudatzeko.
Alabaiñan, guztietara ezin heda burua,
longoikoak berak baizen, eta adimendua.
Kreaturen podoreek bere mugak dituzte
Zeiñ gizonek haratago xitzen ezpaitituzte.
Prinzipalak badakizki, laudatzen da presuna,
Hala ere burua du behar arduraduna.
Hek guztiak mukurruki dakizkitzu, Prelata,
Zure gobernamentuan nola ageri baita.

Zure orde zenbait aphur dakidala Eskara,
Arren permeti ezazu derradan iakiara.
Askotan manatu nauzu, jendetan hausartzera,
Zenbait exortazione probetxoz egitera.
Sujet batzuk presentatzen darozkitzut humilki,
Zein baititut hobe ustez hitz lothutan ebaki.
Arren errezibi zazu arrai begitarteaz,
Gauza xipi eskaña, ona borondateaz.
Ondra baizen eztukezu, laun Prelata arrotzaz,
Entzutea mintzo dena beldurki aharantzaz,
Ezen errefauak dio Erregeen ohorea
Dela, hañitz mihitako sujetak izatea.
Errege baiño neuretzat, zadutzkat gehiago,
Eta ene baitan duzula eskua handiago,
Arren estima ezazu zuk ere ohorea,
Aharantza arrotz batez sujeta mintzatzea.
Hartarakotz obra hunen patroin zaitut hautetsi,
Gaizki errailleak zeren baititutzu gaitzetsi.
Zuri eskaintzen darotzut, othoi guarda ezazun,
Inbidiosen mihiak lizun eztiezazun.
Erregeak behar ditu defendatu jendeak,
Hizkuntza batekoak hain ungi nola berzeak.

LEHENBIZIKO LIBURUAREN LEHEN PARTEA ZEÑA BAITA, DOKTRINA KRISTIANA, EDO KATEXISMA

*Apprehendite disciplinam, nequando irascatur
Dominus, et pereatis de via iusta. Psal. 2.*

Bat bederak ikhas beza, lainkoaren legea
lakin faltaz har eztezan, ezkerreko bidea.

IRAKURTZAILLEARI ABISUA

Katonek ohoratu dik bersuaz Italia,
Pibracquek Franzia eta Beriñek España.
Berriroki minzatu duk, zuhur Ader Gaskoiña,
Guztietarik hauta zak Iesus Kristen gidoiña.
Ea beraz ikhas ezak salbatzeko artea,
Zeina baita gaiñerako zuhurtzien Andrea.
Hirur gauza ziadutzak, erran dudan arteak,
Non enzerratzen baitire Iesus Kristen legeak.

Hauk direla Giristinoa behar duk seguratu
Sinhets, obra, behar dela, longoikoa othoiztu.
Sinhestea aski eztuk, non eztuen obratzen,
Ezen launak obrara dik gehienik behatzen.
Othoitzean lauda ezak lehen eta bizirik,
Eta gero eska akio behar duen gauzarik.
Izan duen faboreaz, gero bihur eskerra,
Aldarearen oiñera goiz eginik lasterra.
Eginbide hauk guztiak nahi baituk ikhasi,
Ikhus etzak nola diren elkharrekin nahasi.
Othoizteko fazoinaren ordean exenplua,
Kristauaren doktriñatik ikhus ezak hartua,
Zeren Kristoren hitzak maiz behar tugun ahoan,
Eta orazioneak gero hekin ondoan,
Ezen ardiastekotzat beharrezko premia,
Sinhetzak, othoizta dela guztiz moian handia.
Gero sarri tuk othoitzak, berehala eskerrak,
launaren ganik fiñean, partiada ederrak.
Katolikoek doktriña hala diat moldatu,
Othoitz egiten duela, gogoan dezan hartu.
Gero zer eska aiteke, gauza hobeagorik,
Manamentuen grazia baiño konplitzekorik?
Ilhabethe oro behin irakurrak guztia,
Iesus Kristok munduari deklaratu egia.

Noizik behingoak ere, heure eginbidera,
Atzarturen au manuen eredu bizitzera.
Baiñan othoitz egiteko, apartean lekhua,
Iduki zak zartzo eta soiñutik urrundua.
Paretean hedaturik, Imajina ederki,
Eta ur benedikatua bazterrean xahuki.
Gogoetak khasaturik, lurreraiño belhauna,
Gero plega eta ezagut, nola aizen ilhauna.
Nahiz uda dela eder, edo aspre negua,
Iainkoaren othoizteko hau duk erremangua.

OTHOITZ GISA SARTZEA

launa khen dietzadatzu gogoetako harrak,
Landa behar alhorrari, nola Kharlolaharrak,
Eta dietzakidatzu xahu falten zikhiñak,
Gero isur preziatu garazien dohaiñak.
Hartarakotz ur sailduaz xahutzen dut belharra,
longoikoa, ikhus azu arren ene beharra.
Gurutzeaz halaber dut armatzen bekhokia,
Gaitzetik defenda zazu arren ene bizia.
Imajina sailduaren oiñera naiz hurbiltzen,
Eta haren aitzinean belhauriko humiltzen.
Ohorea har ezazu arren onen partera,
Eta bisaia aldara etzazula berzera.
Halaber ene othoitzak etzatzula arbuia,
Zeren naizen ezin konda, bekhatuz estalia.

BURU I

Laudorioak lehenik lainko berari berak ordenatu gauzez

Laudatzen dut, longoikoa, zure maiestatea,
Eta aithortzen espiritu mirakulluz bethea.
Laudatzen dut izate bat presuna hiruretan,
Aita, Seme, Espiritu Saindua, deithuetan.
Aita bezain semea zare zuhur, puxant, fingabe,
Baita zu espiritua halaber duda gabe.
Lauda bada eta othoizten zaitut lainko handia,
Presunarik hirur eta izate bat guztia.
Munduari zuk ziñotzan eman, lege hirurak,
Naturazko, skribuzko, graziazko segurak.
Orain dugu Giristiñoek zerbitzatzen azkena,
Eliz ama katolikak besarkatzen duena.
Kristau guztiak egin tutzu obra onetan partale,
Baldin zure manuaren badire guardatzaille.
Lege hunek iraunen du fiña artean mundua,
Eta orduan daiteke azken iuiamendua.
Hauk guztiak zeren tutzun ordenatu hunela,
Orain eta bethiere laudatua zarela.

BURU II

Laudorioak Aitaren presunari

Zeure obrez nahi zaitut, lainko Aita, altxatu;
Zeru lurrak zeren tutzun pena gabe moldatu,
Zeren gizonak dituzun, ezteusetik athera,
Gloriaren emateko zerbitzuen aldera,
Bai halaber gaztigua, baldin eta zureak,
Ahalke gabeki hausten bazituzten legeak.
Laudatzekoa da beraz zure goratasuna,
Zeren erakutsi baitu bere iustutasuna.

Laudatzen da oraiño eman tuen hamar manuez

Zure legeak hautxek dire, Sinaiko mendian
Berze orduz Moiseri emanak Arabian:

longoiko bat onhets ezak eta adora debotki,
Eta haren izenaz ez ziñik egin banoki.
Gehiago begira zak igandea saiñduki,
Eta burasoak ondra, bizi adin luzeki.

Nihor hil eztezakela, ez bihotzez gaitzetsi,
Ezen bengantzen lainkoa ni behar nauk sinhetsi.
Paillardiza higuinari egiokek ihesa,
Gutziz ere ez desira lagunaren esposa.
Berzeren ona hain guti, beharko duk iduki,
Gutziz ere hauzoaren ontasuna ez uki.
Fiñean mihiari emok guardia, ezten gezurti,
Eta aizen falseria irauztera beldurti.

Bi manu prinzipalenak

Hauk bi manamendutara biltzen dituk laburki,
Zeiñak gogoan har ahal baitetzakek erraxki:
longoiko bat onhets ezak gauza guztien gaiñetik,
Eta kristau laguna ez heronez beheretik.
Hauk biak berriz biltzen tuk batetara fiñean,
lakiteko behar dela, bizi Kristau legean.

Hau da bada, lainko Aita, eman duzun legea,
Ontasunez, iustiziaz, zuhurtziaz bethea.
Lege hartan ordenantza hamar tutzu manatu,
Zeñak behar baititugu errespetuz guardatu.
Hek guztiak aiphatu tut, zaradela laudatu,

Ene probetxuagatik zeren tutzun moldatu.

**Laudatzen da oraiño Iainko
Aita bere Manamenduez,
zeiñen kontrako bekhatuak
deitzen baitire
zeruari mendeku eske
dagozkan bekhatuak**

Halaber tut gaiñerako ordenantzak aiphatzen;
Etzaitut ordean hala ere aski laudatzen.

Bat bederak (diuskuzu) begira du hiltzea,
Nahiz Kristau ezaguna edo arrotz ustea.
Haragizko atseginak naturaren kontrara
Har detzana, kondemnatzen diat suko penara.
Atsekabe probeari egitea eztuk gaitz;
Halakoari ordean ni niatzaiok bekhaitz.
Eztezakela tormenta emaxurtz nerhabea,
Ez alhargun, zeñak baitu galdu bere habe.
Langillea pagaturik ioateko duk ohera,
Haren madariziñoa eztathorren etxera.
Bekhatu hauk ziaudezek mendeku eske zerura,
Behaztopa ezadintzat iduki zak ardura.

Iainko Aita, nor dagoke zu laudatu gaberik,
Ordenantza hain iustuak zure ganik harturik?
Laudatua zaradela goiz eta arratsaldean,
Mundu hunek diraukeño gizonen batzarrean.

**Laudatzen da gehiago,
berzerik bekhatutan
ez sarrarazitzeko manuez**

Halaber da, Iainko Aita, zure borondatea,
Berzeri eztiozogun eragin hutsarte,
Baiñan gibela dezagun ahalegin guztiaz,
Hala hitz sailduaz nola tatxa gabe biziaz,
Baita premian dezagun pietoski fabora,
Eta zure gatik gauza hauk obretan athera.
Hartarakotz eman tutzun iustu manamenduak
Arrazoin da gure ahoan maiz diren aipatuak.
Ez eror arazitzeko bekhatutan berzea,
Hau da bada, Iainko Aita, eman duzun legea:

Gehiegi baizen eztuk heronek faltatzea,
Eztezala bekhatutan sararazi berzea,
Nahiz dela konseillatuz, manuz, tarritamenduz,

Lausengu edo lagunduz ezta konsentimenduz.
Eztezakela defenda itsusi den hauzia,
Baiñan gizartean errak den bezala egia,
Ez aditu itxurapen egiten duenari,
Barkhatuko etzioat halako dobleari.
Arrazoiña sostenga zak, dohala ere bizia,
Eta itsu errespetu gizonenei begia.
Hire faltaz ofensatzen nihork banau gaixtoki,
Haren falta pagaturen hik darotak garratzki.
Ni lurrean ondra nazak guztien gaiñekoa,
Ezen ene ganik die erregeek khoroa.
Eztuela ahalkerik ene defendatzera,
Eztikeat nik halaber hire faboratzera.

Hautzaz ere, Iainko Aita, zaradela laudatu,
Zeren tutzun ordenantza hain iustuak manatu.

**Laudatzen da obra
miserikordiaskoen alderako
manuez eta lehenik espiritualenerakoez**

Nahi duzu gehiago, gaizki bizi direnak
Biziotik gibelera detzagun sarrienak.
Gehiago beharrean dagoena konseilluz

Gida zagusun iakintasan geurearen eredu,
Baita konsola dezagun gaitz handiak hartua
Eta pazientki paira etsaien afrontua.
Niholatan mendekurik eztezagun desira,
Gaixtoaren punitzeko zaudezela begira.
Othoitz egin diezazugun hillez eta biziez,
Bai halaber atsekabe guri egin nahiez.

Korporalenerakoez

Hauk dirade arimaren fabore handienak,
Hautxek berriz gorputzaren zazpi aiphatuenak:
Gose gaitzek edo egarrik daramana hobira
Nahi duzu deit dezagun geure barazkarira,
Bai ateko probeari demogun ostatua,
Eta senjoraleari arratseko pausua.
Halaber beztu dezagun probe billuz gorria,
Zeren baita hanbat gusta nola Prinze handia.
Ohatuen utzi duzu ikhusteko kargua,
Baita presuner gaxoen halaber gaztelua.
Fiñean diozu dela gure eginbidea
Ahuku eta frogutara hil denari ioatea.

Hauk guztiak zuk ezarri tutzu, Aita, hunela,
Laudorio eman gabe nor dagoke gibela?

Lauda bada bethiere eta ohoratua
Zaradela, lege saindu haukin ithurburua.

**Laudatzen da arimaren
eta gorputzaren ahalak
ungi enplegatzeko manuez**

Ene manamenduetan enplega zak ahala
Arimarena bezala gorputzaren erbala.
Arimaren enplega zak legean botherea
Memorio, adimendu eta borondatea.
Gehiago gorputzaren bortz kanpoko sensuak
Zein baitire arimaren leiho sare deithuak:
Bista, Aditze, Usain, Gustu, Ukitze banatua,
Hautarik espiritura sarzen duk bekhatua.
Hartarakotz ez begia heda hautzaz athera,
Gutiago beharria kontrarako elhera.
Eztezala okherreko bidera oina mugi,
Ez gaixtoki mintzatzera ahoa ere higi.
Usain onak arbuiatzak, fiñ, killikagarriak,
Edo baratzeak edo Indiek ekharriak.
Eztezakela deus uki kutsatuko auenik,
Eta ezin senda mina emanen daroenik.
Bi begiak idukitzak legean zabalduak,

Eta beharriez adi ene erranen kantuak.
Laster egik manamendu saiñduen urriñean,
Haukin kontra eztukela solasik ezpaiñean.
Eskua ere heda ezak legearen gaiñera,
Ezen kotoña bera duk ahalke hurbiltzera.
Apellesek bere dendan etzien kolorerik,
Ene ordenantzak bezain ikhusteko ederrik,
Ez musika xorienik udan kanpo ferdeak,
Zeña garaitzen eztuen ene ahaire dulzeak.
Arabiak ekhartzen tik usaiñik hoberenak,
Baiñan hek azpiratzen tik ene legearenak.
O ahamen, Ezekiel Saindu profetarena,
Hura uen duda gabe ene erranera.
Zein legun da harrietan marbola legundua,
Are gehiagoa duk ene manamendua.
Hautan bada enplega zak arimaren ahala,
Enplegatzeke hoberen dohaña den bezala.
Hara ere heda etzak gorputzaren sensuak,
Nihon eztituk izanen hala kontentatuak.
Hartan bada pasaiadi mundu enganosoan,
Errepausu aurkhitzeko aingeruen hauzoan.

Benial edo mortal bekhatu ez egiteko manuez

Fiñean arin eta pisu guardadi faltetarik,
Edo dire beniale edo mortaletarik.

Huts xipiaz antsikabe den arima gerora
Antsikabe egiten duk noizbat handiagora.
Hartarakotz begiradi gaizki xipietarik,
Moian hartzaz begiradin handiagoetarik,
Bizitzearen finean hondale khardunera
Handi xipiaren pena ezoan sofritzera.

Laudatzen da azken fiñez orhoitzeko manuez

Ene erranen konplitzeko duken griña gogoan,
Gau eta egun idukitzak hautxek memorioan:
Orhoit adi herioaz, orhoit iuiamenduaz,
Ifernuko doloreez, baita parabisuaz.
Idukitzak gizonaren lau fiñak bihotzean,
Bekhaturik eztagien munduko bizitzean.

Solon batek ifiñi tu Athenesen legeak,
Espartea Gerlarian Licurgusek bereak.
Hekienak zureekin eztire konparatu,
Ezen hek lurrera zuten, zuk zerura behatu.
Hauk direla bada kausa duzula laudorio,
Lurrekoaz gehiago Zeruan bozkario.

BURU III

Iainko semearen laudorioak.

Laudatzen da bere obrez

Laudatzen dut, Iesus Kristo, zure ere izatea,
Zeren zu baitzare Iainko puxantaren semea.
Gure gatik iaio ziñen, gurutzean itzatu,
Eta zuk behar gaitutzu noizbait ere iuiatu.
Lege graziazkoaren ifintzeko eskua
Zuk ziñarokun ekharri, Aita ganik hartua.
Gizonaren ararteko zu ziñen presentatu
Eta ziñotzan Zeruko portaleak zabaldu.
Haukin kausaz orain ere hemen leihor planean
Kantatua zaradela nola hedoi gaiñean.

Laudatzen da hirur

etsai prinzipalen kontra

eman tuen hirur manuez

Hautxek dire, Iesus emea, eman tutzun manuak
Zeiñak baititugu behar iduki guardatuak:

Hirur etsai ezagutzak herra handitakoak,
Eta lausengu garabez ezin baketuzkoak:
Haragia duk lehena, berzea Mundu banoa,
Hirurgarrena itzalean lakhet zaion gaixtoa.
Hauk hirurak idukitzak etsai handienentzat,
Pozoiñezko asikitik begira adientzat.

Laudatzen da eman tuen hirur konseilluez

Gehiago eman tutzun hauk dire konseilluak,
Zeñak baititugu behar iduki guardatuak:

Nahi baduk Zeruetako atseginez gozatu,
Berze ordenantzak ere behar dituk guardatu.
Baiñan baldin nahi baduk baliosen khoroa,
Probezia besarka zak, Kastitate osoa;
Heure borondatearen egin nazak ni iabe,
Khoroarean ematea eztikeat herabe.

Haukin kausaz Aingeruek Zeruan eresiaz
Lauda zaitzatela, nola guk lurrean mihiaz.

Laudatzen da Sakramentuak ordenatuaz

Gehiago Sakramentuak zuk zintuen ezarri Edarateko arima graziaz zena egarri. Hetarik bada zinduen ordenatu grazia lauts zekigun, kanaletik hala nola uria. Esker duzula grazien beraz espensaria Zeren eman darokuzun hain frankia handia.

Sakramentuen alderako manu partikularrez

Erran tugu Sakramentuen manu jeneralak, Orain berriz erratzigun partikularrenak. Baldin bathaiatzen bahaiz iadanik gurendua Erromako Elizetan busti zakek burua. Hire kargutan diraten halaber hau ttipiei Hetan diezekek ura har arazi guztiei. Konfirmarazi detzakek gero saindu fedean Belhauriko daudezela Prelataren oiñean. Ordean faltetan bahaiz esker gabez erori, Absolbitzera hoako nigarrez Aphezari. Urthean behin bedere aithor etzak gaizkiak,

Ahantziez orhoitzeko edirenik astiak.
Gehiago errezibi ezak ene lohia,
Bekhatutan agoela ez ordean sasia.
Gutienean bederen Bazko inguruetan
Aingeruen ogi hura formatu zen mugetan.
Mezan dezakek ordean adora maizkiago
Igande eta iai egun manatzen diren oro.
Ezkontzeko heldu bazaik bihotzera desira,
Konpli ezak Eliz ama sainduaren nahira.
Bañan agradatu bahaiz Aphezkoa sainduaz,
Iphizpikuak beztitu beharko au graduaz.
Fiñean sentitu eta hilzerako pontua,
Prepara dezakek ungi partitzeko burua.
Harrezakek Aphezaren ganik alunzioa,
Eta heure faborera deit Zeruen lainkoa.

Sakramentuen berthuteez

Huneraiño erran tugu Sakramentuen legeak,
Orain errateko tugu hekien berthuteak.
Baptismaz darozkigutzu falten nothak xahutzen,
Eta gloriaren primu gaitutzu eragiten.
Grazian ere gaitutzu konfirmatzen Krisumaz,
Bai eta seguragotzen sainduen erresumaz.

Halaber hazten gaitutzu gorputz preziatuaz,
Eta edaraten zeure odol konsekratuaz.
Baldin bekhatutan bada nihor behaztopatzen,
Urrikituari faltak diotzotzu barkhatzen.
Aphezkoaz deitzen duzu gizona aldarera,
Zerbitzu partikulara zuri errendatzera.
Baita berzea ezkontzaz munduko estatura,
Lagunarekien duen bizi prestuaz gura.

Sakramentuen distinkzioneaz

Ordua da kondatzagun Sakramentu sailduak
Eta gero bereztzagun, diren ezagutuak.
Zazpi Sakramentu dire hil eta bizienak
Graziaren ardiasteko moian propioenak.
Baptismu nigarrak dire hillen Sakramentuak
Eta arimaz bizien berze bortz goitituak.
Sendaturik arimaren heriozko zauria,
Hillen Sakramentuak ematen du bizia.
Biziarenak grazia du lehena berretzen,
Eta falta benialak arimatik khasatzen.
Hillen Sakramentuak du obratzen hura bera
Mortal, benial gathetik libratzen presunera.
Ez ordean ariñenak xahutzen nihoiz ere,

Non ezgaren deskargatzen huts pisuenez ere.
Ea beraz, goazen laster Aphezaren oiñera,
Bietarik libratzeko bide laburrenera.

Absolbitzeko Sakramentuaz

Gehiago Iesus Kristo gure Salbatzalea,
Zuk ekharri duzun hau da legearen partea:
Huts lohienez diozu garenean lizundu,
Konfesio egitera eztugula berandu;
Baptismu saildua dela untzi urreztatua
Eta Penitentzia zur urera etxatua;
Bekhatuen itsasora garenean erori,
Bi eskuez lot gakizkon ur gañeko zurari.
Gehiago ezin bihur gaitezkelak barkhara;
Zur puxkan beraz bizia dezagula enphara;
Bortxa gaiten egitera geure eginbidea,
Eztuzula faltatuko egitera zeurea.

Absolbitzeko puxantzaz

Gehiago diuskuzu, O Errege iustua,
Aphezak duela falten barkhatzeko eskua.
Halaberki diuskuzu orhoit gaiten konjia

Batzuek berzeak bezain eztutela handia.
Handienak ezin barkha detzakela sinpleak,
Hek Elizako Prelatei dagotzala gordeak,
Zergatik deitzen baitire kasu reserbatuak,
Zeren reserbatzen tuzten halako bekhatuak.
Baldin xoil handia bada nihork egin hobena,
Aita Sainduak duela barkhatzeko zuzena;
Baldin faltak ezbadire guztiz hain bereziak,
Iphizpikuak ere barkha detzakela guztiak.
Herriko Aphezei hoben hauk zein diren humilki
Galdetu behar zaiola iakiteko segurki,
Zeren Iphizpikuari goititu hutsarteak
Leku batzuetan diren batzuk, berzean berzeak.
Enganatu gabe beraz iakiteko gertuki
Konfesoretan galdea dezagula iduki,
Ikhasteko ea zenbat den guztien nonbrea
Bai halaber barkhatzeko nork duen podorea;
Egia dela guztiek hiltzeko orenean
Absolbitzeko eskua dutela men menean,
Baiñan eria ohetik altxatu den bezala
Lehen esku zuenari nigarrez doakola.

Urrikimendu eta onherizte gure ahalaren gañekoaz

Bekhatutik ilkhitzeko xoil probetxoz moiana
Sinhets ezak dela orain erratera noana.

Gutziz ere Aphez gabe hiltzerako puntuak
Hari egitea othoi iduki zak kontuan.
Gero ordean sendatu eta erhasunetik
Konfesio egitera begirauk ahantzetik,
Ezen eztuk bekhatuik nihola ere barkhatzen
Aithortzera non presuna ezten deliberatzen;
Baiñan eroriz geroztik bekhatuen lohira
Handik laster ilkhitzeko hau duk bide segura.
Heure ahalaz ardiatsak kontriziona
laun ona ofensatuaz zein baita dolutzea.
Ezperetanikan igan adi karitatera
Kreaturena utzirik laun puxantarenera.
Egia duk hire indar flakoaren guztiak
Hauk errazki dituztela pasatzen mugarriak;
Guztiarekin bortxa zak heure ahal egiña
launak isuriren darok eskaz zaiken dohaiña;
Ezen hautarik bat baduk perfektki ardiasten
Falta eta penetarik osoki aiz libratzen,
Eta gero espirituak gorputza kitatzean,
Errepausu emanen zaik izarren gaiñean.
Hareraiñoko enpatxu et trabak khendurik,
Iakiteko pena eta hobenak barkhatuik,
Ea beraz ardiatzkik ahal egin guztiaz
Konplutuki goza adin erran dugun gloriáz.

Sakramentaliez

Hunerañokoak dire Sakramentu handiez
Orain egin behar dugu hitz Sakramentaliez.

Sakramentuez berze alde borts Sakramentali
Iesus Kristo, Elizari eztiotzotzu estali:

Ur benedikatu sainduz belarra bustitzea,

Bekhatuez orhoiturik bulharra zehatzea,

Konfesio jenerala debotki egitea,

Benedikzione saindu Prelataren hartzea,

Gure Aita Zeruetan fiñean erratea:

Hau da Sakramentalien egiazko nonbrea.

Sakramentaliei hurbiltzen zaiztenez

Ogi bedinkatua da hurbiltzen borts hautara

Zeñak indarra isurtzen baitu arimetara.

Falta arinak osoki hauk dituzte barkhatzen;

Asko berze obrek dute gauza bera egiten;

Nola baita predikua debotki entzutea,

Eta probe gaxoari limosna egitea;

Gehiago debozinez mezaren entzutea,

Eta xahuroki Gorputz Sainduaren hartzea.
Obra hauk barkhatzen tuzte bekhatu benialak,
Handiagoek dituzte handiago ahalak.
Sakramantuek halaber dute podore bera
Eta hura zuk emana gure ontasunera.

Zeren bada begiratu duzun eskaz gurera,
Milla esker ditutzula lehenekin gañera.

Berze I. Kristok ifini usantzak

Gehiago hauk dirade zuk ifini usantzak
Nola ere baitzintuen ifintzeko puxantzak.

Induljenziez

Kontu dagigun diozu saindu Induljeziez,
Tresor handi eta aberats zerutik isuriez;
Dohaiñ aiphatuetara ezen hurbiltzen dena
Segura gaitezen dela Induljenziarena;
Pena labur baten ordain hagitz luzeagoak
Hark barkhatzen dituela eta aspreagoak:
lakitekotzat dolore purgatzeko handiak
Eta mundu hunetako halaber lazeriak;

Elizako Apezaren absoluzioneak,
Hutsak barkhatzen tuela, baiñan ez azoteak;
Bethiko pena duela aldatzen laburrera,
Mundu hunetako edo Purgatoriokora;
Gure bekhatuek behar zuten punimendua
Zure bai sainduen dela mereziz pagatua;
Iainko puxantak duela zuen errespetura
Luzaro sofritu behar kitatzen pena hura,
Bainan hanbat baliatzen direla induljenziak,
Zenbat deklaritzen baitu mandatu egorriak;
Faltak parte edo oso dituela barkhatzen,
Hargatik osoa dela edo parte deihatzen;
Hitz kostumatuz adi dezaguntzat egia,
Denbora bateko edo ezperen plenaria,
Hartarakotz aditzean saindu Induljenzia,
Zenbatekoa den egin dezagula guardia;
Gutziz osoaren presta gaiten irabaztera
Eta manatu den neke aphurra konplitzera.

Iubilioaz

Ordean ezin ziaitek aski atzar mundua
Irabaztera digneki Iubilio Saindua.
Ehun urthetarik uen noizbait ehunetara,
Hogoi eta bortzetarik orain hainberzetara.

Gizonaren adiñari zioat begiratu,
Zeña baita leheneko ephetarik laburtu.
Mundu guztira ontasun hura diat bidaltzen,
Zenak baititu bekhatu eta penak barkhatzen.
Eta hala bathaiatu inzeneko xahura
Iubiliak ekharzen au osoki estatura.
Entzutean bada urthe Sainduaren berria,
Ezen hala deithatzen duk aiphatu den grazia,
Irabazak arimaren ahal egin guztiaz;
Agien duk ikhusiren egun hura begiaz.
Herioa hor heldu duk eskuetan gezia;
Ustekabe ez eramien idukizak guardia.
Denbora den arteraño egik erremedio,
Ezen hura ioanez gero deusik eztuk propio.
Halaberki entzutean ohorezko izena,
Gorago aiphatu dugun Induljenziarena,
Pasatzera eztezakela utz non ez adin balia,
Ez aiz segur ikhusiren duken hurren aldia.
Baldin askotan entzuten baduk mandatu bera,
Behin ere ez aizela alfer irabaztera,
Hañitz aldiz merezitu tuken pena larriak
Hañitzetan kita detzan erran tresor handiak,
Hala hetzaz zerbiturik denbora mugazkoan,
Suak tormenta ez azan heriotze ondoan.

Erromeriez

Estimatzak Erromeria Elizaz laudatuak
Zeren bisitatzin diren lekhu konsekratuak.
Birjina Amak bisitatu zien bere kusiña,
Bidez bide ibillirik portuetan aitziña.
Zelhai eta mendi gorak egin zitien unherik,
Larraiñeko zamariak mana zetzakelarik.
Ni Zerura iganez ere geroztik Kalbaria
Bisitatu zien eta eman nintzen hobia.
Berze gañerako ere maiz zitien lekhuak
Ikhusi, nik presentzia neurez oharatuak.
Bi belhaunak lurrerarik izarrez betheraño
Helzen ituen Amaren othoitzak Zeruraño,
Ezen lekhu berak zien ene Aita noblea
Gonbidatzen laudatzera Birjinaren galdea,
Bai halaber hareraño hartzen zuen nekeak
Oñez egiten unherik zituela bideak.
Amarena ikhusi duk xoil eder exenplua,
Enea orain idukak bihotzean hartua.
Lagun gabe ioan ninduen portuetan barrena,
Garizuma barurtzera ian gabe ahamena.
Ene ganik ikhas ezak, ezen ni nauk egia,

Berthute handia dela Saindu Erromeria,
Ezen gorputz hezgaitza dik handiro hark olhatzen,
Eta bortxaz arimaren uztarrira ekhartzen.
Senjorale ibiltzeaz ondrazten tuk Sainduak
Eta hekin bitartekoz ardiasten donuak,
Bañan egik Aphezaren konseilluaz bidea,
Hierusalem, Erroma, Eta San lakesko luzea.
Ungi baten egiteko milla erhakeria,
Halako orduz igoal duk ez etxetik ilkhia.

Obra buruzagiez

Orazione, Barur eta limosna Erromeriak
Giristiñoaren dituk obra buruzagiak,
Ezen hek borthitzkienik die etsaia izitzen,
Nola baitute prestuek egietan aurkhitzen.
Obra hetan treba adi hi ere gehienik
Giristiño prestuaren nahi baduk izenik.

Promesez

Gauza guztiek ohitik zeñek bere moldeak,
Baita promesek halaber bere iustu legeak.
Promesaren egiteko hau daroat konseillu,
Eta ikhastera nihoiz ez aizela urguillu:

Egiñen duen promesa beharko duk iduki,
Punimendua burura eztathorken iustuki
Eta egik konpli ahal dezaken ontasunaz
Gero orhoit konplitzera gauaz eta egunaz.
Botuaren egiteaz itsusi den fiñeko
Othoitz egin arren deusik eztuk ardiatsiko.
Gauza gora duk botua; hartarakotz abisu
Aphezari galdetzeaz eztuk behar gorritu.
Badariak maizkienik hunela duk egiten
Behar handian dagoen presunak dik formatzen,
Ordean prudenziaren ez hautsteko legeak
Kondaturen dugun moldez egitzik hik heureak.
Saindu guztiek egia duk dutela podorea
Presunari ardiasteko premiazko galdea,
Guztiarekin seguren hik egikek promesa
Zeña gero deusek ere gibela ez baiteza.
Prinzipalki saindu hari dedikatu etxera,
Gauza hura zeren baita ematen orhoitzera
Edo ematen duela asko aldiz frogatuz
Edo hari eternalak beregainki aginduz.
Finean ardiasteko zerbait segur bidea
Sinhetsak dela famosen Sainduei eskatzea.

Relikiez

Ohora detzak reliki saindu dohatsuenak,
Ezen dituk glorioso egoitza arimenak.
Idukitzak ere ezertan hek gauza ukituak
Nahiz tresnak diren nahiz gainerako hatuak.
Ezen hek non diren lekhu Saindutara, lainkoak
Bidaldu ohi tik dohain hagitz frankoagoak,
Zeren Sainduak baitute gehienik othoizten
Lekhu hekintzat gehien non baitire ondratzen,
Bañan egik gehiago estima relikiez,
Hedaturik dauden baño Sainduen iduriez.
Gehiago duk zuhatza baita adar hautsia,
Gibelera itzal baño haritzak egotzia.

Agnus Deiaz

Agnus Dei sakratuak ni niauk presentatzen
Eta bildotsarekin thailuzki konparatzen.
Hartarakotz iratxaki ziotzaat indarrak
Haren moianez gizonen estaltzeko beharrak.
Eliz-Ama noblearen beraz Saindu legea
Eztezakela estima probetxurik gabea,
Ezen ozpin krueletik presuna dik guardatzen

Eta bekhatu benial guztietarik libratzen.
Erre edo ithotzeko halaber perilletik
Guardatzen dik, heriotze nola ustekabetik.
Sathan ere iziturik bidaltzen dik lezera
Eta etsaia erakhartzen nahi dugun menera,
Gogatuak libratzen tik erditzeko miñetik,
Agnus Dei sainduaren hauk dituk berthutetik.
Aiphatuez berze alde badik berzerik ere,
Eta linber batek hanbat nola puskak bothere.
Haren beraz ekhartzeko egin adi propio
Ezen gaitz handientzat duk hura erremedio.
Egikek beraz hain handi dohañaz probetxua
Ez inzela exkusatu gabe abisatua.

Imajinez

Imajinari egiok errespetuz agurra
Zergatik imajina den Sainduaren itxura.
Ene lege bizia duk prediku pensatua
Lege hillaren gorputza pintura kolorsua.
Manu sainduak obrara emanen iduriak
Iarraikitzaera atzartzen tik presuna nagiak.
Hartarakotz ohoratzak orhoitzapen biziak
Eliz-Ama Katholikak begietan utziak.

Mundanoek nahi die egin daiten hekiñak,
Arrozoin duk egitea hobeagoakiñak,
Bañan eztezala altxa figura gizonenik
Eliz-Amak Sainduetan kondatu gaberenik,
Ezen hark iduri likek gaixto idolatria
Zeren gatik azotatu baitut ludu herria.
Nahi diat errespeta detzaken iduriak
Bañan noren baitirade ageri mereziak.
Imajina ondratzean Saindua duk ondratzen
Eta laido ematean halaber desondratzen,
Ezen halakoak ezтик estimatzen Prinzea
Zeiñak baitu arbuiatzen armoria noblea.
Gu titxosak giaudezek urrezko kadiretan
Erakusten ez garela baizen imajinetan.
Pintura duk begiaren zuhurtzia lasterra
Erretaulan kontenpla zak gure bizi ederra.
Berthuteak ere imita, iarraiki oiñ-hatzari,
Faboreak izanen tuk baldin eska bahadi.
Ene aitak ohoratu beharko dik lehenik,
Gero haren ondoan nik, espirituak azkenik.
Gure hurrenean gero kortesano Sainduak,
Zeñek egin baitzituzten gure manu iustuak.
Ordena hau eztuk behar niholatan ahantzi,
Ezen ondrak ziagoztek presunei diferentki.

Elizaz

Hauk guztiak ikhasi tuk. Oraño ene hitza
Entzun ezak, iakiteko ea zer den Eliza.
Eliza duk arbola bat izarrerañokoa
Itzaltzen duela mundu guztiaren kanpoa.
Fautua duk religione neronek ifinia
Eta mami obra onak, azal zeremonia.
Baterere eztezala azala meziprezia
Zeren baita fruituaren leial begiraria.
Edo ezperen Eliza duk untzi berregindua
Ifernuko uriz eta haizez tormentatua.
Hara huna ziabillak haize kontraz luetan
Eztuk ordean sekulan galduko uhiñetan.
Hunetxek dik ardiasten belan Parabisua,
Zeiña baita Kristau onen salbatzeko portua.
Salbamendua duk hemen eta ez untzi berzetan
Zeñak hondatzen baitire hunen inkuntruetan.
Barkha hunen burjesa duk ene Aita eternoa
Ni nauk gero buruzagi haren hurrenekoa.
Espiritu Sakratua itsasoko pillotu
Zeñak tormentetan baitu bide onaz gidatu.
Ama duk gure ondoan lehenbizi parzuner
Apostoluak agintari, laiekoak pasaier,

Lagun aphez eta Fraide munduaz ukhatuak
Eta ene gatik bizi penosa hautatuak.
Soldaduak doktor eta predikari iakiñak
Garaituaz doazela hirur etsai gordiñak:
Heretiko thematsuak arauko presuner
Elizama sainduari zeñak baitzaizko aiher.
Hunelako Eliza duk jendez eskifatua
Onak eta gaiztoak ere badik bere lekhoa,
Bañan komunki Eliza duk aditzen duguna
Giristiño guztien duk Katholiko bilduma.
Apez gobernatzailen egia duk bilkhua
Deitzen dugula Eliza batzuetan Saindua,
Parte prinzipaleneri guztiaren izena
Ematen zaiola zeren den señalatuena.

Elizaren manu jeneralez

Elizaren hautxek dituk manu jeneralenak,
Giristiñoak gogoan hartu behar tuenak:

Ni obedi nazak Iesus Kristen espos leiala
Eta errespeta heure ama ona bezala,
Ezen Iesussek umetzat ezau aboaturen,
Non ez nauken ni lurrean amatzat aithorturen.

Ene hitzak sinhets etzak nahiz eskribatuak
Edo ezperen tradizione eskuz esku hartuak.
Hetan ere emak fede ezen dituk egiak,
Ezin hutsik ziadikek Eliz ama guztiak,
Ezen ni nauk laun puxantzaz beti inspiratua
Eta faltan erortzetik ziñez begiratua.
Hartarakotz ifiñiko nik ditudan legeak,
Giristiñoa sinhetzkik enganiogabeak.
Eta hala besarkatzak ene saindu usantzak
Zeñen osoak baititut ifinzeko puxantzak.

Elizaren manu partikularez

Igande eta bestetan largazakek nekea
Eta Zerukoei eman merezi ohorea.
Meza beraz adizakek egun hekin goizean
Eta gañerako eguna enplega obra onean,
Ezen berze egunak launak eman tik travailluko
Bañan igandeak eta bestak othoitzetako.
Aphezei ekhar diezek behar errespetua
Zeren idukitzen duten lainkoaren lekhua.
Eztiezela iduki zor daroen fioa
Zerbi dezaten bizi az artha gabe lainkoa.
Hik halaber bentzuteko haragi gudutsua

Errespetuz begira zak barur egun Saindua.
Hartarakotz barur ezak garizuma guztia,
Halaber lau denborekin Sainduen bijilia.
Eztezakela haragi ian aiphatu mugetan
Ez hain guti Orzirale eta Larunbatetan.
Gehiago lauda etzak Saindu zeremoniak
Kandelero eguneko nola biztu argiak,
Eta hautsterriz hautsaren burura ematea,
Orhoitzeko hauts bihurtzen dela gorputz maitea.
Baita are arramua eskuan ekhartzea
Herstu denean arramu Sainduko igandea.
Gañerako Elizaren berze Zeremoniak
Lauda etzak eta onhets haren athun guztiak,
Ezen eztik aitziañatzen deusik probetxu gabe
Hekin beraz guardatzera eztukela herabe.

Eskumikuaz

Haren beraz ezadilla altxa kontra deusetan,
Bañan seme onak legez obedi zak hitzetan
Eta faltan baldin bahaiz erori maleziaz,
Berehala doloradi egin duken gaizkiaz.
Iainkoari eska akio barkhamendu humilki
Eta ez berriz itzultzeko promes egik fermuki.

Ez adillala hisia heure falten gañean,
Halakoa erortzen duk Eskumiku dorphean.
O eskumiku arimaren punimendu garratza,
Ezin izenda azaket laztu gabe adatsa.
Nabalaren ahoa duk iduri propioki,
Zeñak mienbroa baitu gorputzetik idoki.
Halaber duk giristiñoa berzetarik berezten,
Bere faltaz zeña baita hire baithan erortzen.
Nihork ezin hauta zirok hire minaz zaurthua,
Bañan largatu behar dik nola izurriztatua;
Ezin ehorts ziaitekek lur benedikatuan,
Baña sepultura hartu behar dik desertuan.
Giristiñoa, apartadi hain gaitz perillosetik,
Zeñak baititu plaga hauk garraiatzen ondotik.

Aita Sainduaz

Baliarazitzekotzat neure erran sainduak
Eta Elizak ituen bere errespetuak,
Neure ordain utzi nien San Piarres nausi,
Batelzain arrantzale zein bainuen ikhusi.
Halaber tuk ene ordain Erromako hirian
Iarri diraden guztiak Piarresen alkhian.
Aita Saindu deitzen duk Zeruaren gakhok

Zeñak eskuan baititu zarra-idikitzeakoak.
Zenbait duda sortzen bada zertan den sinhestea,
Elizako hauziaren huraxe duk iujea.
Duda partikularetan aphez zuhurra gana
Hoa, Aita Sainduaren hura dukek ordaña.
Geldi adi sententzia ematen duenean,
Barrenago sarthu gabe disputaren gañean.
Paganoek denegatu ziteen noizbat Platon,
Delfesko sekretuari sobera etzarraion.
Hark bezanbat hik eztakik, kontentadi heureaz
Eta Elizakoak bere mela beite arteaz.

Predikuez

Fiñean nahi ez baduk gauza gorez dudatu,
Apezaren predikuak al baitetza aditu.
Hek aute iakintsunago laster errendaturen
Eta prestu izatera halaber higituren,
Ezen ene hitz saindua duk kharlo hazia,
Eta haren fruitu ona sekulako bizia.
Predikari iakintsuna duk laboraria,
Zeñak erein ohi baitu hain balios hazia.
Ago beraz bethi erne haren solasetara,
Zerbait ikhasirik itzul adin heure etxera.

Itsusi duk eskolatik etxera itzultzea,
Zerbait hartu gabetarik gogoan ikhaslea.
Predikua duk Kristauen eskolatzat famatu,
Ilkhi adi ikhasirik zenbait erran sakratu.

O Iesus Krist solas saildu haukin formatzaillea
Eta lege hain sailnduen Zerutik ekharlea,
Meditatzen tudanean hain errefau iustuak,
Harritzen naiz zeren diren hain on eta sailnduak.
Alde hunez ere duzu laudorio merezi,
Zeren ez nauzun hauk entzun baño lehen berezi.
Zaradela laudatua beraz lur beherean,
Aire herrietan eta Zeruen garaitean.

BURU IV

Laudorioak Espiritu Sainduari. Laudatzen da bere ontasunez

Bai zu ere adoratzen zaitut, Espiritua,
Lauda eta ohoratzen amudio Saindua.
Zure ganik egun oro munduari graziak
lautsten zaizko lehenbizi egunetik berriak.
Duzun, beraz laudorio zuk ere gureganik,
Hainberze on dugunean guk ere zureganik.

Laudatzen da bere manuez

Beregainki, Espiritua, segurutzen gaitutzu
Zure ontasunaz behar eztugula dudatu.
Handi dela bekhatua, handi itsuskeria,
Alabañan handiago zure miserikordia.
Ordean eztezagula abusa eztitasunaz,
Zerbitzaturen zarella zeure lustutasunaz.
Erho dela, zeñak uste baitu Parabisua,
Aitziñetik obretara eman gabe eskua,
Bai halaber bekhatua dagiena munduan

Berdin izanen duela barkhamendu Zeruan.
Gehiago, Espiritu Karitatez bethea,
Hau da gure alderakotz eman duzun legea:
Erreferta eztezagun egia ezagutua,
Ez berzeren ontasunaz errezibi damua.
Begira gaitezen egin hobenez bantatzetik
Eta eroriz geroztik hisiaz gogortzetik
Fiñean hain handi dela emetasun zurea,
Zeñetzaz gozatu baita dohatsuen partea,
Non barkhatzen baititutzu berze faltak mansoki,
Bañan urrikitu gabe ez hiltzea gogorki.

Orain non da arrazoiña non eztuen laudatzen
Ordenantza saindu hautan zer baituzu manatzen?
Arrazoin da konpli dadin enkargatzen duzuna,
Zeren ezagutzen baita dela lustutasuna.
Zaren beraz laudatua egun eta sekulan
Noraraiño zure izena hedatzen den lekhotan.

BURU V

Othoitzak eta lehenik Iainko berari

Laudaturik longoikoa zure Maiestatea,
Othoiztera hurbiltzen naiz agerturik gabea,
Ezen ni naiz kreatura gauza guztiz beharra,
Mesprezia etzazula arren ene nigarra.
Faboratzen ez banauzu deusik ezin dadiket,
Dakizula beraz, launa, faboratzera lakhet.

Iainko Aitari galdegiten zaizko Gure Aita othoitzeko gauzak

Gure Aita zeruetan glorioso zarena,
Errespetuz aipha bedi lurrean zure izena,
Egiguzu Zeruaaren ardiasteko grazia
Eta bethi konpli bedi zure saindu nahia,
Egun oro behar gara, iguzu mantenua,
Eta guk berzeri legez hutsen barkhamendua,
Eztezazula permeti tenta gaiten borthitzki,
Bañan gaitzatzu kaltetik hastanduak iduki.

Galdegiten zaizko zazpi Berthute prinzipalak

Alzifrea altxatzen da arboletan gorena,
Bañan zuk maitatzen duzu gizonik humillena.
Liberalitatearen handi da kortesia,
Handi Kastitatearen halaber noblezia.
Gaitzik ezta non eztuen pazienziak garaitzen
Eta ez lanik iarraikiak non eztuen pikatzen.
Abstinentak burua du erne egin bidetan
Eta amudioa da xoil eder Kristauetan.

Nilgo Baiak Ejiptuko herria du hezaten,
Gero zazpi uhobiz da itsasora isurtzen,
Halaber du berthuteak bistatzen batbedera
Eta berezten da zazpi prinzipalenetara.
Iainko Aita, badakigu zuk duzula gakhoa
Arren dohain egiguzu zazpi berthutezkoa.

Othoitzak semeari

O Iesus-Krist, gurutzean iuduek itzaturia
Eta patriarkak linbo belzetik altxaturia,
Ene gatik khororatu zinen elhor-arantzez

Eta hillez gero zaurthu lizar finezko lanzez,
Bañan hanbat naizelarik zordun zure aldera,
Gehiago atrebitzen natzaitzu eskatzera.
Zuri agertzen darotzut neure behar handia,
Eta deskargatzen gogoan dudan gauza guztia.
Arren bada adi zazu humillaren othoitza
Eta fabora ezazu othoi haren bihotza.

**Galdegiten zaizko zortzi
dohatsutasunak, edo gauzak,
zeñek dohatsu errendatzen
baizaituzte prinzipalki**

Malezia, trunperia, eta banaloria
Mundu enganatuaren da bano zuhurtzia.
Hautan espirituaren indazu probezia
Eta zure legearen ikhasteko grazia.
Nihor atrebitzen bada zure ofentsatzera,
Egidazu ethor nadin nigarretan urtzera.
Ardiantxu emea baño are emeagoa,
Arren berthute indazu emetasunekoa
Eta bitz diezadazu desira bihotzean,
Arrazoiñak lekhu duen borfidien gañean,
Bai halaber iustiziaz naizen bethi egarri,

Zeña baita erresumen gobernuko ezarri.
Lagunaren ere gaitzaz zuk indazu damua
Eta remediatzera handi khexamendua.
Baketiarren ere indazu berthutea,
Ezen zure eskuan da haren ere ematea.
Ofentsatzen naizenean fiñean garazia
Indakezu pairatzeko bidegabe handia.
Zeruetara igateko hau da bide handia
Eta zuk zeronek, Iesus, egiña da guztia.
Zuk heda diezadazu igateko eskua,
Igan eta itzultzeko milla eskerren kantua.

BURU VI

**Othoitzak Espir. Sainduari.
Galdegiten zaizko hirur
Berthute Theologalak
edo lainkoari ukitzen zaizkonak**

Zeruetako konseilluen hirugarren Presuna,
Parti zazu zuri ere dohain uki zaitzuna.
Misterio fedezkoen indazu sinhestea
Eta Zeruko plazerren gozatzeko ustea.
Halaberki Karitatez berotzatzu bihotzak,
Herraz eta gaitzeristez oraindaño hotzak.

**Galdegiten zaizko lau berthute
Kardinalak**

O iguzki adimendu guztien arraitsua,
Prudentziaz argi zazu arren ene burua.
Idokdazu gutizia plazer soberarena
Eta berthutea eman tenperanziarena.
Halaber iustiziaren indazu ontasuna,
Bai nekeei egiteko buru gogortasuna.

Espiritua, indazitzu aiphatu berthuteak,
Zein baitire gaiñerako berze guztien gondeak.

Galdegiten zaizko bere zazpi dohañak

Aita eta Semeaz ere Espiritu zarena,
Sapienzia indazu ezagutza gorena.
Klara zazu adimendu ilhunbean sarthua
Eta egitekoetan indazu konseillua.
Ene bihotzean finka zazu borthitztasuna,
Adimenduan halaber gauzen iakintasuna.
O Espiritu relijionez oharatu beharra,
Debozione handi baten iratxakdazu kharra.
Zure handitasunaren ere beldurtasuna
Bitz diezadazu, lainko, ahal handi duzuna.

Galdegiten zaizko bere hamabi fruituak

O longoiko amulsua arren karitatea,
Berze berthute guztien zuk indazu xedea.
Alegeranzia bihotz egordazu larrira,
Tristezia da Sathani lakhet zaion kadira
Gerlek Ifernua bera ohi dute iduri,
Zuk nazazu hastandua hetarikan iduki.

Gehiago urrea baiño hobeagorena
Isuri diezadazu dohain Bakearena,
Bai emetasunarekin halaber ontasuna
Eta halaber Iraupen eta eztimasuna.
Eman gabe ere othoi etzaudela Fedea,
Zeña baita arimaren zuzi argitzaillea.
Fiñean berzeen balsan halaber Modestia
Indazu bai Kastitate eta Kontinenzia.
Bide hautzaz gida zazu ene arima lurrean
Salbatua gertha dadin dohatsuen artean.

BURU VII

Eskerrak eta lehenbizirik lainkoari

Esker diot longoikoa zure ontasunari,
Begiratu ez baitio ene ezdeustasunari,
Arerioak itsuturik bañan lehenenera
Isuri darozkidatzu milla ontasun gañera.
Hartarakotz egin nauzu zordun zeure aldeko,
Esker eta laudorio bihotzez emateko.
Ordaiñetan ofrendatzen darotzut bizitzea
Eta halaber zerbitzu leialtatez bethea.
Zure Karitateari diot ihardetsiren
Eta izatu dohaiñak sekulan aiphaturen.
Berze kreaturak ere ditut gonbidaturen,
Ohore eta errespetu eman diezazuten.

Aitari

Arrazoin da zuri ere Aita kreatora,
Esker eta laudorio zordunak ematea,
Ezen ni naiz asko aldiz zordun zure aldera,
Prinzipalki zeren nauzun ezteusetik athera

Eta hura egun batez emateko gloria,
Akhabatu zaitanean obra onetan bizia.
Esker beraz eta aithor duzula bethiere
Eta munduak diraeño kreaturez ohore.

Semeari

O Iesus-Krist ene gatik gurutzean iarria,
Eskerraren itzultzeko ahala dut ttipia.
Neure bizia darotzut eskaintzen ordaiñetan
Eta zure laudatzea biziko egunetan.

Espiritu Sainduari

Halaber dut (Espiritu amudioz khartsua)
Zure gana ezagutzen zordun neure burua.
Zaren beraz laudatua egun eta sekulan
Ezagutza dukedaiño, bizi naizen lekhutan.

Hala biz

Gloria eta laudorio Aita Semearentzat,
Halaber biz, Espiritu amulsua, zuretzat;
Zuek ere dohatsuak duzuela ohore,
Zeren baitarokuzue ardiasten fabore.

LEHENBIZIKO LIBURUAREN BIGARREN PARTEA. GIZONAREN AZKEN FINEZ

*In omnibus operibus tuis memorare novissima
Tua, et in aeternum non peccabis. Eccl. 70. 40.*

Azken fiñez orhoit adi heure lan guztietan
Eta huts egiñen eztuk biziko egunetan.

HASTEA

Gizonaren azken fiñez hartzen dut materia;
longoikoa, gida zazu arren ene mihia.
Ezen gogoan tuenak gizonen azken fiñak
Falta egin gabe ditu eramanez adiñak.
Ea beraz dagigun hitz hain deus probetxosoaz
Eta lehenik has gaiten mintzatzen Herioaz.
Hau doate aitziñean berze guztiei, hunetzaz
Lehen minzatu behar da naturaren ordenaz.

BURU I

Herioaz ea zer den

Herioan aditzen da biziaren galtzea
Eta gorputz eta arimak elkhar bortxaz uztea,
Ezen gauzetan hain ezta maite korapillorik,
Hekien bien artean dena bezalakorik.
Bortxaz apartatzen dire elkhar ganik hek biak,
Elkharren lagun lainkoak berariaz utziak.

Izenaz

Herioa, orhoitzapen hirearen asprea!
Pensatzeak lazten ziok sendoari illea.
O lastima eta ondiko guztien azkenena!
Obra krueletarik duk atheratzen izena.
Omena aditzeaz dituk segurenak izitzen
Eta bihotza daroek transimenduz harritzen.

Fiña

Herioaren fiña da gizona punitzea,
Zeren den longoikoaren kontra esker gabea.
Ungi egiñen sari du ofensatzen itsuski,

Halakotz pena behar du herioaz iustuki
Edo bere bekhatuen kausaz edo Adamen,
Zeren ahoratu zuen debekatu ahamen.

Kausak

Bekhatua, zer darokuk izterbegi mundura,
Gure gana hain krudela zeñak baitu iaidura?
O zierpe itsusia zeñen pena larria
Herioa behar baitzen hain deus izigarria.
Hanbat bada merezi du puni dadin gaizkiak,
Non separa daiten urrun adiskide mamiak?
Gorputz eta arimaren hain lothura hertsia
Lexa dadin eta bilha herrauts gorputz guria?
Bai pena hau merezi du gizon eskergabeak,
Zeren eta hautsi tuen lainkoaren legeak,
Zeren ofensatu duen ungi egille handia,
Hala ere etzaio ematen gaztigu merezia.

Obrez

Ezkurretik ezagun da haritz larraiñekoa,
Bere fruiturik sagarra, bai beretik fikoa.
Halaber da ezagutzen beretik herioa,
Ezen lastimagarria uzaten du hatz ondoa.

Izitzen du

Bihotzean ematen du tristezia larria
Eta izialdurarekin ezin egin handia
Hartarakotz errana da, ala herioa motz,
Tristezia baizen eztu uzten deusik ondokotz.
Izenaren aiphatzea bera ere da hain latza,
Sanson beraren baitzuen non transitu bihotza.
Hersten denean eztaki norat itzul presunak,
Mobimenduaz gabetzen ezen zaizko belhaunak,
Illea ere latzten zaio, lilluratzen begiak,
Ohiko ere galtzen du kolorea bisaia.

Gizonari darraio

Gizonaren ihizian gau eta egun dabilla
Eta sosegurik eztu non eztakusan hilla,
Ezen amaganik haurra denaz gero mundura,
Pausu gaberik darraio oiñ-hatzetik ardura.
Gu non gare hura da han, gizonen nigarrera
Den urratsik ttipiena galdu gabe tristera,
Bañan ondotik darraio hala nola itzala,
Bi ahotako eskuan dakharrela nabala.

Atzematen du

Sarri edo berant ditu atzematen guztiak,
Ezen itzurtzeko dire bide guztiak hertsia.
Mortu zarraturik ezta, non eztezan idoki,
Ez aintzirarik iragan, non eztezan ideki.
Lekhu guztietara du arthikitzen tragaza
Eta urruititik ere azarkatzen bihotza.
Haren gana darauntsagu nola uhiñak kostara,
Berak erakhartzen gaitu nahi duen kozkara.

Hiltzen tu guztiak

Hurbiltzen aiz, Herioa, odolez egarririk,
Bekhokia zimur eta begia bihurrik.
Bistaz ikharatzen dituk buruzagi gogorak
Eta ematen daroztek transimendu agorak.
Gutienik noiz baikare geure hitzaz orhoitzen,
Orduan darokuk bizi maitea atrapatzen.
Alabañan orenaren ez guk iakin berria
Eta paradazkoa hik hautatzen duk astia.

Probe, aberatsak, etc

O kruela odolsua naturaren Burreua,
Araitziña hobiratu uen gure ama Eva.
Geroz eztiok barkatu handi edo ttipiri,
Bañan dituk munduaren kontra armak muthiri.
Hasta duenari diok arthikitzen gezia,
Eta zahar, gazteari idekitzen bizia.
Nola pikatzen baititu segak belhar ferdeak,
Hala azpiratzen dituk puxant eta probeak.
Errege eta arloteek hala ditek frogatzen,
Ezen hi aute nausi beretzat ezagutzen.
Nihork ezin iguriki ziezekek hireei
Bi aldetara ebakitzen duten arma zorrotzei.
Hire tragazaren kontra eztuk erredolarik,
Ez landetan zauriaren sendatzeko belharrik.

Lekhu guztietan hiltzen du

Iguzkiaren azpian nihon eztuk sorhorik
Hire pasioneari gerize dagokanik.
Nahiz dela artzaiñaren etxolatxo xumea
Edo ezperen Erregeren etxe dorrez bethea,
Biak berdin hik ostikoz egotzten tuk lurrera
Eta orain gora dena aurkhi dukek behera.

Jende guztiak

Nahiz altxa dakiela Ezkutari bakharra
Edo ezperen jendetsu Prinzearen armada,
Baten bezain kontra sendo hañitzen duk besoa,
Ezen million gizonen garaitu duk kanpoa;
Eta nola itsasoak barkha miragarriei
Eragiten baitaroe lanzada bai ttipiei,
Halaber tuk, Herioa, azpiratzen ozteak,
Nola zamarira igan bakhar zaldun gazteak.

Entrepresak hautsten

Hi agertu artean tuk gure hitzak handiak,
Baiñan agertu eta hik ixiltzen tuk mihiak.
Arranoa dathorreño xoriak dik kantatzen,
Nabaritu duenean ordean duk ixiltzen.
Hitzaz eta gutzaz berdin duk, herio kruela,
Gure ahoa hersten duk hi agertu bezala.

Arima gorputzetik apartatzen

O dolore eta lastima ezin kondatuzkoa,
Egun zutik eta bihar hillik erortzekoa,

Herioarenak dire halako obratzeak,
Garabek non ez baititu naturaren hain dorpheak.
Gorputz eta arimaren lothura hertsiena
Lexatzen du, launak baizen egin eztezakena.
Gorputza manaiu gabe erortzen da lurrera
Eta hatsean arima hegaldatzen airera.

Arimaren estatua

Gorputzetik separatuz geroz espiritua,
Apartean triste dago nola alhargundua.
Gorputzarekin oraiño iuntatzeko desira
Geldi zaio, harik ekhar dadin bere nahira.
Oihan-zaiñak egotztean lurrera zuhaitz gora,
Altzairuzko hurbildurik oñetara aizkora,
Nola xoriak airatzen baitire berzetara
Tristeki begiratzeko berze ohatzetara,
Gizonaren orobat da arimaz ilkhiz gero
Gorputzari iuntatzeko desira geldi zaio.
Tristezia zenbait badu iunta dadin artean
Eta gloriuz betherik sar dadin gorputzean.
longoikoak emana du halako gutizia,
Zeiña ezin baitezake niholatan ganbia.
Damnatuak eztu nahi gorputzera bihurtu,
Zeren gehiago behar duen pena sofritu.

Gorputzarena

Mianbro guztiak dire gogorturik gelditzen,
Bai halaber podoreak obretarik nagitzen.
Bisaia eta begi urdin Zerura ailtxatuak
Lurrera itzultzen dira guztiz ganbiatuak.
Beharriak eztu aditzen, ezta hitzten ahoa,
Eztu urrindatzen lili sudurrak landakoa.
Esku biak zabaldurik daude eta zangoak,
Leheneko obretarik gelditurik mianbroak.
Fiñean hil gogorak dauntza mobimendu gaberik,
Eztutela zohiaren baizen berze galderik.
Hain laburki bustel dadin larharantza xuria
Eta khirats gaixtoz bethe gorputz ungi hazia,
Mianbroak bazterrean dauden okhelaturik,
Suge eta xixarien bazka bilhakaturik.
Gizonaren gorputza da hazten hobekiena,
Alabañan hil eta du hark usain gaixtoena.
Berehala mudatzen da gizonaren bisaia
Eta lurrera erortzen orraztatu illaia.
Bere aita propia du aborritzen presunak:
Herioak hanbat ditu arrotzten ezagunak.

Zarratzea

Zergatik da aberatsa aziendez bantatzen
Eta gerlaria leihor banatuez prezatzen?
Hek guztiak utziko tu, aski du mihisea,
Eta gerlariak hobi gorputzaren bethea.
Obra iustuak arimak daramatza berekin,
Berze guztiak utzten tu mundu banoarekin.
Ea beraz parti gaiten aphainduak mundutik,
longoikoaren hastandu gabe manamendutik.
Nola edirenen baitu herioak gizona,
Gaztigu emanen zaio edo golardo ona,
Ezen norat ere baita eragotzten zuhaitza,
Han gelditzen da leihorra dela edo uhaitza.
Obra onek daramate arima hedoiera
Eta falta itsusiek Ifernuko lezera.
Ea beraz obretara heda zagun eskua,
Zeñen izanen baitugu sari parabisua.
Sekulako atsegiñez boz dezagun gogoia:
Sariaren aldean ezta deus pena mundukoa.

BURU II

Iuiamendu partikularaz

Iuiamendu partikularaz nahi nuke mintzatu,
Ezen hartaz mintzatzeko orena da hurbildu.
Sentenzia larri hunek heriotzeak baiño,
Neure baitan izitzen nau haiñitzez gehiago.
Ezen herioaren dut hunen gatik beldurra:
Faborezko uste banu eznuke izialdura.
O longoiko iuiamendu iustuen Alkatea!
Arren fabora nazazu, tristeziatz bethea.
Suiet huni zuk indazu indar iarraitzeko,
Baita mihia ere trebe moldez hitz egiteko.

Ea zer den

Iuiamendu berezia edo partikulara,
Zeiñaz ethorri baikare mintzatzeko mugara,
Hura ohi da launaren sentenzia larria,
Hil beharrari menean iustuki egotzia.
Partikulara deitzen da hiltzera doanari,
Zergatik ematen zaion bakharririk presunari.

Kausak

longokikoak ematen du aiphatu den arrasta,
Zeña erregeek ezin baitirote kontrasta.
Iainkoaren agertzeko iustizia aizena,
Sententzia ematen da guztien iustuena.
Kreatura gaxoa da iustuki zeñenera
Sententzia hunek iausti behar baitu gañera.

Proprietateak

Eztu behiñere ematen hain gaztigu garratza,
Nola bekhatoreari bailegokake latza.
Berriz kontra handi eta frankoago saria,
Ematen du hartu baiño gizonak izerdia.
Halako da Iainkoaren bihotz beratasuna,
Berretuz ematen baitu non bethi ontasuna
Eta gutituz hutsari dagokan gaztigua,
Zenbatere baita hagitz gutzaz ofensatua.

Non ematen den sententzia

Arima dela lurrezko gorputzean barrena,
longoikoak ematen du sententzia zuzena.

Nola baitu presunera dagoela karzelan,
Presidentak hitz tristea erraten bere gelan,
Halaber du longoikoak ematen ordenua,
Gorputzetik ilkhi gabe arima izitua.
Gorputza da arimaren presondegi hertsia;
Konbeni da han barrena har dezan sententzia.

Noiz ematen den

Sentenziaren denbora dago seinalatua:
Ezagutza galtzearen azkeneko pontua.
Hareraiñoako arteaz nihor bedi balia,
Orduraino eriak du salbatzeko astia.
Ungi edo gaizkiaren egiteko ephea,
Azken ezagutzaren da galtzerako artea.
Handik hara indiferent dire akzitoneak,
Iakiteko sari, edo punimendu gabeak.

Sententzia hau laudaturen du jeneralak

Sententzia hunen gero konfirmazionetan,
Jenerala emanen da denbora azkenetan
Eta nolako baitaite hitz hau baxhotxarentzat,
Hau berori adituren du orduan beretzat.

Diferenziarik ezta hauk bietan berzerik,
Hau ematen dena baizen solamenki baxharrik.

Iuiamendu hunen manera

Hauk hunela kondaturik heldu zaizu sasoña,
Iuiamendu larri hunen aiphatzeko fazoña.
Giristiñoa ago erne heldu diren hitzetan
Zeñak guztiak baitire, hire ontasunetan.

Eriari hurbiltzen zaizko Espirituak

Erhasunak duenean azpiratu Eria,
Ezin hagoan egonez oherat eroria,
Hersten dire Espiritu onak eta gaixtoak,
Zeñek bere egin nahiz arima mundukoak.
Burrkira hurbiltzen da Aingeru guardaria,
Bai halaber Espiritu Gizonen tentaria.

Ahalegiña egiten dute

Batak eta berzeak dute enplegatzen ahala,
Zeñi geldituren zaion biktoria zabala,
Ezen hartzaz egiteko gudu gehiagorik,
Han hara eztuketela badakite biderik.

Orduan bada penatzen dire ahal guztiaz
Espiritu biak bata berzearen lehiaz.

Aingeruak bururatzen dioena

Aingeruak eriaren diotsa bihotzari,
Bekhatuen kausaz eman diozon nigarrari;
Sekulan urrikitzeko orduan dela muga;
Bere bekhatuak beraz isuriz detzan purga;
Munduaren khasatzala gogoeta banoak,
Eta launa gana altxa gogoeta lanoak;
Ararteko har dezala Birjina Ama Saindua,
Bai San Migel bitarteko guztiei agindua;
Berze titxosoak ere ahal egin guztiaz,
Ertxa detzan othoiztera usatu kortesiaz.

Deabruak gogoratzen dioena

Deabruak pairatzen tu hauk despitkoarekin,
Hark ere nahi du egin, solas arimarekin:
Hanbat bada egin duzu huts, diotsa, Maitea,
Bekhatorea egiteko hanbat buru zeurea?
Hala balitz ere gauza, segur da hillen zaren,

Eta etzaitzula berriz indarra bihurturen?
launak eztu osasuna itzultzeko eskua,
Lizela ere erhasuna barrenago sarthua?
Zenbat ere zu hiltzera baitzare etsitua,
Agien du berreturen zure egunen kontua.
Sendatu eta egiñen duzu egin bidea;
Orain etzazula nekha hanbat buru feblea.
Oraingoa lizela ere zure azken orena,
Beldurtasun hanbat behar duzu lainkoarena,
Jesus-Kristo, Birjina Ama, Saindu Apostoluak,
Ertxatzeko, eta berze gaiñerako lustuak?
lainkoaren ezta handi bethi eztitasuna,
Eta zure faltak guti, handi lustutasuna?
Zergatik penatzen zare hanbat gogoarekin,
Alegia ez bakea zuk laun puxantarekin?
Khasa zatzu pensamendu burutik halakoak,
Eta egitzizu hortik laster iaikitzeoak.

Aingeruak ihardesten duena

Espiritu arthatsua arima urgatztera,
Lehen baiño gehiago permatzen da nekhera.
Gauza guztien gaiñetik diotsa Eriari,
Erremedioak eman diotsan arimari;

Iustuena dela erortzen egun oro zazpitan,
Orhoit dadin zenbat aldiz erori den gaizkitan
Eta ilkhitzera presta dadin mundu baxotik,
Barkhamendu eskaturik bihotzaren ondotik;
Begietan beldurtasun duen lainkoarena
Arima galdua dela beldur eztenarena;
Segurenera itzultzen dela Kristau zuhurra,
Zeña baita izatea lainkoaren beldurra;
Gutziz orhoit dadin zein den luiamendu hertsia,
launak ematen duena faltatzean bizia.

Deabruaren berze gudua

Alde batetik tentatu duenean Etsaiak,
Alabaiñan irabazi ez deus enganariak,
Berze alde batetara itzultzen tu harriak,
Hala nola xoriari nabar ihiztariak:
O sinhets-bera diotsa! o burutik iauzia!
Zeiñak arinki sinhetsi baituk entzun guztiak.
Orain bada, sinhetsten duk, dela puxant lainkorik?
Edo hillez gero pena, ezperen golardorik?
Hala baliz ere gauza obra egin bezala,
Ardiatsiren ez uen saria berehala?
O Ezteusa! o ariña! o ttinplaren pare!

Hitz guztitara itzultzen baituk buru feblea.
Seguradi, Inozenta, eztela longoikorik,
Baizen, entzun dituenen guztiz kontrariorik.

Aingeruaren ihardestea

Aingeruak hautsten dio Etsiari solasa,
Eta honela egiten arimari perpausa:
Eta bada alferrik da arima garastia,
Eliz-Ama, Aita Saindu, eta Predikaria;
Alferrik da longoikoaz hain berze orhoitzapen,
Egietan ez balire hek guztiak aurkhitzen.
Hain garratzki aiphatuak hitz egille iakiñak,
Burleriak dire bada, eta ez solas ziñak.
Sarri bada ikhusiren duzu dela egia,
Eta ni ere ez naizela falso enganaria.
Bekhatuen punimendu, edo sari ungien,
Bizia fiña artean jaunak eztu ematen,
Bañan begiak ikhusi eta azken ordua
Nihori ematen dio merezien pagua
Eta zenbat ohi baitu aitziñatu ephea,
Hanbat sari ematen du, edo pena dorphea.

Hirurgarren ataka

Hirurgarren atakaren ematera gaixtoa,
Armatzen da egin nahiz bere eri gaxoa.
Egia duk diotsa bada, o arima dongea,
Aingeruak huneraño egin perpaus emea.
Egia duk, konfesatzen diat dela egia,
Ezen maiz nauk bortxatua aithortzera egia.
Mundu batetik berzera, o erdutu beharra!
Egia duk, bekhatuez iustu dela nigarra.
Bañan hargatik ez tituk barkhatzen huts larriak,
Gutziz hik egin dituzken bezain izigarriak.
Iesus-Kristok berak ere erran zien egia,
Eztela aski meneko gaixtoen urrikia;
Sendo dela egiteko dela penitenzia,
Hala ere dohatsu dela nork baituke grazia.
Eta gero nolatan duk uste salbamendua,
Iklusirik hire falten zein handi den kontua?
Urriki diat nik ere egin nuen gaizkiaz,
Ez ordean probetxurik, halako urrikiaz.
Bekhatu bat nuelarik xoilki egin Zeruan,
Pairatzen diat bethiko dolorea putzuan.
Ezta bada longoikoa iustu kreaturentzat,
Ene alderako bezain, halaber hirekotzat?

Are gehiago behar eztu eme enera,
Ezen haragizko gizon feble hire aldera?
Ez naiz ni Aingeru sendo indar handitakoa?
Eta hi dakien legez Emakume flakoa?
Nola bada Salbatzeko hartzen duk fidantzia,
Hire falten denaz geroz nonbrea hain handia?

Aingeruaren defenda

Aingeruak ixiltzen du Sathan gezur-untzia,
Eta esportzu hartzera gonbidatzen eria:
O arima diotsa bada, Zerukotz formatua,
Eta lurrean zareino niri gomendatua!
Orainoko alfer dire erran eta egiñak,
Prezaten ez baditutzu presenteko hitz fiñak.
Sinhets azu (o Maitea) hek guztiak gezurrak,
Zer ere erran baitarotzu, Sathan bihotz makhurrak,
Ezen egundaiñoz hunen handi da egartsua,
Bekhatutan egotztea Giristiño prestua.
Karzelean zarratzeko luzatzen tu astiak
Bat banaka pulunpatuz arima garastiak.
Bere probetxua gatik munduaren kaltea,
Bilhatzen du trunpaturik, fermu ezten norbea.
Sinhetsazu bada urriki bekhatuez duena,

Halaber Sakramenduez zerbitzatuko dena,
Errezibituko dela Zeruko erresuman,
Mendea eramateko dohatsuen bilduman.
Zure gatik altxatu zen gurutzera Mesia,
Eta etzen Sathan gatik lurgaiñera iauntsia.
Haren baitan behar duzu esperantza segura,
Zure othoitzaz duela idukiren ardura.
Behin, edo gehiago duzularik faltatu,
Hutsak nahi darozkitzu orain ere barkhatu.
Ea beraz zeure faltez har ezazu damua,
Ardiasteko desira duzun barkhamendua.
Aratekotzat egizu Birjina Ama Saindua,
Bai San Ioseph, Iesus Kristok bere Aita deithua,
Gehiago San Migel, Elizako Patroña;
Zure gatik egiñen dut nik ere othoitz ona.
Zerura iragateko hauxe da zurubia,
Hunat beraz (o Maitea) altxa zazu begia.
Hauk eta aren gehiago berze milla maneraz,
Eritua atakatzen du Sathanek koleraz.
Hunelakoa ere da mintzatzeko fazoña,
Zeñaz zerbitzatzen baita haren guardari ona.

Aingeru eta Deabruaren gudu

Gero Aingeruak eta gaixto tentatzaileak,
Bere artean dituzte guduak xoil aspreak,
Ezen deklaratu eta bere borondatea,
Elkhargana erakusten dute aiherkundera.

Deabruak erraten dioena Aingeruari

Sathan gaixtoak diotsa gero Aingeruari
Arimaren faborera griñaz altxatuari:
Hunen gaiñera hedatu uste uke eskua
Ni saihetsean nauela xoro Espiritua?
Iauna baño gehiago nauela zerbitzatu,
Eztuk askotan heronek egiazki frogatu?
Iraungi eztitu hire inspirazioneak,
Eta eneak sinhetsi persuasioneak?
Enea dela nahi duk orain bada dudatu,
Lurreko ephe guztian nauenean ondratu?
Ez naiz ni hunen posesor, eta iustu gabea,
Zergatik bada alferrik ematen duk nekea?
Bizitzean ni nauenez ohoratu geroztik,
Arrazoin duk enetzat den herioaz ondolik.

Aingeruak ihardesten duena

Aingeru Sainduak dio ihardesten borthizki:
Kreatura guztien duk lainkoa iabe xoilki.
O gaixto eta trunpador, aiherkunder bezhea!
Hunek Zeruan behar dik, hik lezean etxea.
Azken hatsak diraueño, ziadutzak lainkoak,
Arimen rezibitzeko, zabaldurik besoak.
Hunen ere gaiñean dik izanen pietate,
Gaizkiez egiten badu aski dena nigarte.

Deabruak

Sathan gaixtoak orduan hirria gora daidi,
Eta arrola golxhotik atheratzen du goiti.
Bizitzean egin tuen hutsak ditu kondatzen,
Xehe xehe daramatza bat etzaio ahantzten.
Egin duen, eta eztuen erraten du guztia,
Ezen gezur errateko trebea du mihia.

Aingeruak

Aingeruak ihardesten dio hitza egiaz,
Egin dezala zuzenki, eta ez maleziaz.

Bekhatu hetarik haiñitz zitzaiola barkatu,
Apezaren beharrian noiz baitzen konfesatu;
Zenbait ahantzi bazaio, konfesatu gaberik,
longoikoak barkaturen diotzala bertarik.

Deabruak

Sathanek diotsa berriz, hanbatetan faltatu
Duela, zenbat Zeruan baita izar landatu;
Gero falta hain handiak, eta hain itsusiak,
Zeruraiño mendeku eske non baitaude guztiak.
Salbatzeko, zer goiti den esperantza harentzat,
Egin duenaz geroztik, etsai launa beretzat.

Aingeruak

Aingeru Sainduak dio replikatzen egia;
Nahiz biz hala lizela, erran duken guztia,
Eskribuen borratzeko nigar bat duk askia,
Ezen hain duk, lainkoaren Mansotasun handia,
Baiñan kontrarioa duk Aita gezurrarena,
Hain husua dela hunek egin duen hobena,
Obra onak ere egin tik, huna kontu iustua;
Ikhus ezak, asko aldiz iauna zerbitzatua.

Eta gero agertzen du liburu urrezkoa,
Obra onen non baitatza kontu egiazkoa.

Eria hersten da

Hala diardukatela Espiritu Sendoek,
Eria largatzen dute indar lehenekoek.
Haiñitzek desira luke aphaindu konbateko,
Eta fuiña luen erne gaitzei ihardesteko,
Ordean gaitzak daroste podoreak flakutzen,
Zeren kausaz ez baitire hain ungi preparatzen.
Zelatariak hartzen du hura maiz paradatzat,
Lasterrago eritua egiteko beretzat.
Bide hasian sartzen da ahal bezain barrena,
Bai Aingeruak trabatzen ahalik gehiena.
Etsaiaren ezagun da orduan malezia,
Baita Aingeru onaren halaber zuhurtzia.

Atzartzen die Espirituak

Azken fiñak khoroatu ohi du bethi lana;
Zer moldez partituren den daude arima gana;
Biak erne, biak hurbil, biek diote erraten,
Hañitz gauza, ea nola bere egin dezaten.

Bizkitartean flakutzen dire indar harenak,
Señaleak ere agertzen hiltzera prestarenak.
Gehiago traillaatzen dire Espirituak,
Eta dadutzate erne gogo adimenduak.
Pensamendu bethetzen du onez begirailleak,
Eta berriz gogoeta gaixtoz tentatzaillak.
Hunen gaiñean hurbiltzen dire gero flakezak,
Eta ungi hiltzera du exhortatzen Aphezak.
Berriz idekitzen ditu begi indargabeak,
Suspirak ere doblatzen, husutzen hats hartzeak.
Egundaiño ez bezala penatzen da bakhotxa,
Zeiñek bere egin nahiz eriaren bihotza.

Sentenzia ematen da

launak orduan ematen du Arrasta zuzena;
Ezagutza galtzerako pontuan da orena.
Handik hara gehiago ezta batre biderik
Arimari remedio nihoiz egitekorik,
Baiñan zertan galtzen baitu arimak ezagutza,
Edo grazian, edo hiran, han behar du egoitza.

Eria hiltzen da

Ohekoa dago gero penaz eldarnioan,
Lehen bezala solasik eztuela ahoan.
Begiak itzultzen ditu, mianbroak higitzen,
Bai hatsa laburtzen, eta sentimendua galtzen.
Azken hatsarekien du arthikitzen arima,
Zei har gorputza erortzen da, hau da gizonen
fiña.

Deklaratzen da sententzia

Espirituek arima nahi dute beretzat,
Aingeru onak beretzat, bai gaixtoak beretzat:

Aingeru begirailleak obra iustuen gatik,
Zeren gaizki gobernatu den Sathanek hargatik.
longoikoak deklaritzen daroe sententzia,
Ezagutza galtzerako menean egotzia.
Ezen nola presidentak konseilleren artean,
Eman duen ordenantza ohoiñaren gañean,
Deklarazitzen baitu berriz ere ondoan,
Burreu penatzaileari eskuratzerakoan,
Halaber du deklaritzen longoikoak berea,

Gorputzetik ilkhiz gero espiritu tristea.
Hartan gero hauzilari gelditzen da baxhotxa
Edo Aingerua dela edo Sathan borthitza.
Bizitzearen finean zer ere sentenzia
Eman baituke lainkoak ona edo larria,
Hura bera emanen du azkeneko kortetan,
Zeiña baitaiteke hunen konfirmazionetan.
Arimak ditu orduan egietan frogatzen
Gorputzean zegoela zer entzun baitzituen.
Kondemnatu baldin bada sekulako gathera
Begiak itzultzen ditu Aingeruen aldera;
Ordean iragan zaio othoizteko orena
Ezen galdu behar etzen muga obra onarena.

Arrastaren fiña

longoiko handiak bada nola iustu lujeak
Sentenzia ematen du aitzakiagabeak.
Fin gabeko eztirara doan tormentatzera
Edo Purgatoriora zikhiñen xahutzera
Edo ezperen dastatzera plazer eta gozoak,
Prestuentzat aphaindurik dauden sekulakoak.
Heriozko bekhatuan baldin bada partitu,
Oihñhazeen sofritzera behar du abiatu.

Baldin huts lohienetik badoa xahutua
Eta pena tenporala ez badu pagatua,
Barkhatu ere ez bazaio pena benialena
Baiñan osoa gelditu kitatzeko zuena,
Purgatorioan sofritu behar du min handia,
Eta pairatu gabe ezta ilkhiren den guztia;
Ezen hartzaz, Giristiño, ahal aite segura,
Falten kutsuekin nihor eztoala Zerura.

Arrastaren exekuzioea

Arima sekulakotzat kondemnatu gaxoak
Ifernura herrestatzen ditu Sathan sendoak.
Baldin purgatzeko sua behar badu sentitu,
Aingeruak hitz ederraz nahi du konsolatu.
Hareraiño laguntzen du leial begirailleak
Eta han ere ikhusten maiz arduraz bethea.
Arrasta emana bada doan Zeruetara
Bozkarioz Aingeruek daramate gorara;
Kantu ederrez bethetzen dire urdin Zeruak
Eta pagurik ilkhitzen bidera dohatsuak.
Agur egiten diote usatu kortesiaz,
Zeren etsaia bentzutu duen fin on biziaz.

Akhatzea

Asko Sainduk ikhusi tu erran tugun guztiak
launak hala idekirik gure gatik begiak,
Hekin egiazko hitzez orhoiturik geurean
Iuiamendu hunez griña ginduen bihotzean,
Hunez probetxa gintezen azken denboretako
Prinzipalki arimaren triste partiadako.
Ea beraz orhoit adi hunez Giristinoa
Eta bethi solas hautan erabillak gogoan,
Obra onez presta adin iuiamendu latzera
Eta ahalaz esaia hutsa gabe aurkhitzera.

Othoitzza

longikoa, zuk ekhartzu halakoa orena
Zeña ene bizitzeak behar baitu azkena,
Non gertha dadin enetzat eme iuiamendua
Bereziki eman behar darotazun iustua.
Arren fabora zakezu hersturan dabilkena
Eta eritasun berak nahasiko duena,
Ezen hurbil izanen dut etsai herraz bethea,
Bere bazka egin nahiz ene arima tristea.
Aldi hura huts badagi denbora ondokotan

Ene bilha ezin ibil daite nihoizekotan.
Nondik erbalena naizen iadanik du ikhasi
Eta trunpatzeko arte guztien da nausi.
Heda diezadakezu beraz othoi eskuiña
Ene ganik ihesitan doan etsai higuina,
Neure azken hats hartzea hala dudan bakezki
Zure Maiestatearen ikhusteko klaroki.

BURU III

Iujamendu jeneralaz

Iujamendu partikularaz hainberzez naiz mintzatu;
Dudan ea orain aldiz jenerala aipatu
Emeenak hitza darot faltatu, longoikoa;
Garratzenaz nola orhoit daite ene gogoa?
Hartarakotz luje iustu munduratu beharra,
Kontatzeko hantezazu arren ene bulharra,
Nihon hats bahitu gabe Iujamendu larria
Alpha dezadan xehero zuk emanik grazia.

Zer den

Iujamendu handiena uki dugun bezala,
Emanen zaikun guztiei da Arrast jenerala.
Nolakoa baitukegu sententzia hiltzean,
Hura bera entzunen dugu munduaren fiñean.
Beraz orain danik aphain gaiten Korte handira
Eta nihor eztagoen azkeneko begira.
Oren oro arras dugu erortzeko perilla,
Iuiamendu berezia hartarakotz hurbilla.

Hau dagien giristiñoak behin faborezkoa,
Faborezkoa nahi badu mundu fiñatzekoa.

Iujeaz

Jesus izanen dugula segur gare Iujea,
Gizon delarikan bakhoitz lainkoaren Semea,
Ezen konbeni da dugun handiago Iujea
Arkhanjelua den baiño edo gizon sinplea.
Jesus bada gizon eta Aingeruen Prinzea
Izanen da onen eta gaixtoen Iuiatzaillea.
Redemitu gaituenak behar gaitu iuiatu,
Hobekien hala dela launak du deklaratu.
Orain dago Zeruetan guztientzat othoitzez,
Bañan gaixtoei orduan Iustizia bortitzez.
Iuje delarik partida faltan erorientzat,
Egiteko aski duke hoberenak beretzat.

Fiñaz

Sentenzia hunen fiña da gauza xoil bidea
Merezien eredura saria ematea.
Arrazoiñak aditzera ematen du klaroki
Onei sari, gaixtoei pena dagotela iustuki,

Eta nihori dagokan merezien pagua
Oren hartako daduka longoikoak bildua.

Iuiatu beharrez

Mundu largoan bizitu diren gizon guztiak
Konparitu behar dute tristerik bekhokiak.
Hutsez errendatu behar dute kontu hertsia;
Deusik iraganen ezta, non ezten ikhusia.
Gogoetak ereilki behar dute airera
Eta bekhatu ixillek agertu jendartera.

Lekhuaz

Lekhua da losaphatko luze zabal kanpoa,
Olibetko mendiaren kontra datzan sorhoa.
Hara biribillaturen dire sura beharrak,
Bai ikhusiko tuztenak oiñen azpian izarrak.
Olibetko mendiaren gaiñean aserrea
Sentenzia ematean jarriko da lujea.

Denbora

lujamenduaren muga nihork ere eztaki,
Mundu fiñatzean behar dela ordean badaki.

Baiñan muga hura lainko berak adimenduan
Ezagutua daduka eta ez berzek munduan.
Arrasta hau Majestategen erran dugun menea,
laun lujeak emanen du guztien aitziñean.
Orduraino utzi dio gizonari librea
Ungi edo egiteko gaizki borondatea.
Falten remediatzeko handik hara astirik
Utziko eztio lainko launak gehiagorik,
Baiñan deklaratu du sententzia borthitza,
Non gaixtoak bere kontra entzuten baitu hitza.
Bakhotxak du frogaturen haren pazientzia
Hanbat izan dela luze, zenbat pena larria.

Proprietateak

O dolore eta ondiko gaizki bizituena,
Hitza entzun behar dute guztien gogorrena.
Nigar xortez eztukete batere probetxurik,
Ezen bere nigarrean badagozke urthurik.
Ondikoa handi daite eta handi suspira,
Ahalkea ere handi mundu guztia begira.

Ordenaz

Bat bederak ikhas dezan gauza hobekiago,
Zer ordenu izanen den kondatzera prest nago,
Baiñan ondikoak darot atheratzen nigarra;
longoikoa, zuk indazu mintzatzeko indarra.

Señaleez

Eternalak bekhatorea puni dezan artean,
Señaleak bidaltzen tu, on dadin anartean.
Bekhatuen ematen tu doieko gaztiguak
Eta hekin ereduko halaber mehatxuak.
Mehatxuaren berdiñak orobat señaleak
Ezen guztietan launak guardatzen tu legeak.
lautsi bada baiño lehen Iesus Krist iuiatzera,
Merkak bidalduren ditu munduaren gaiñera.
lujamendua da gauza guztiz izigarria,
Señalea halaberqui izanen da larria.

Gerlak

Egun hura baiño lehen gerlak eta guduak
Gizonak ikusiren tu lur guztian biztuak,

Ezen herria iaikiren da kontra berzearen,
Bai seme eskergabea bere burasoaren.
Nahiz etxe barrenean, nahiz dela athean,
Jendeek izanen dute gerla bere artean.
Interesaz hasiko da gudu lehenbizia,
Gero Relijonera iraganen hisia.
Gerlatetan hillen dire gizon koleratsuak,
Non zelhaiak ikhusiren baitire gorrituak.

Hamar errege

Erromako izatu du hiriak ohorea
Bere legeen azpian mundua ikhustea.
Muga hartan inperio hain zabal banatua,
Hamar erresumetara daiteke partitua.
Ezen hanbat izanen da buruzagi nahia,
Non hamarri geldituren baitzaie lur guztia.

Heresiak

Sektek zehaturen dute Eliz-Ama noblea
Eta harizuntzaraño ekharriren Fedea.
Miseriaz betheko da mundu herri guztia
Eta bihotzetan handi sarthuren tristezia.

Askok predikaturen du hura dela Mesia
Eta oraiño etzela Zeruetarik iautsia,
Lekhat harotz baten Seme zela Nazarengoa,
Ez ordean lainko eta gizon haragizkoa.
Hura dela munduaren xuxentzera iautsia
Eta bereei emanen daroela gloria.
Bat baiño gehiago da hunela mintzaturen,
Baiña dohatsua zeña ez baita abusaturen.
Araitziña hasi ziren munduan tronperiak,
Baita Elizaren kontra halaber heresiak.
Orduan izanen dire husu Apostasiak
Iraganen ahantzagarri azkenik ethorriak.

Antekristez

Antekristo noizbait ere berzen gibeldaria
Ethorriren da enganoz guztien nausia.
Gehienik nahasiren du Kristoren fedea
Eta penaturen hari iarraikien nonbrea.
Berze guztietarik duke hekiñaz egarsua,
Odol eta bizitzeaz ezin saziatua.
Giza-kume guztietan fiñean etsaiena
Antekrist enganosa da izanen Iesusena.

Herriaz eta kastaz

Babilonia Kaldeako hirian da sorthuren
Eta Danen Odoletik argira da ilhkiren.
Ohara bat duke ama, aita ere ludua,
Burasoen ere ganik daite desondratua.

Obrez

Obrez señalatuko da zein den gizon gaixtoa
Eta berze bat izatu eztela halakoa.
Obrak bada gaixto eta maleziaz betheak
Ikhusiko tu orduan biziko den jendeak.
Intenzionea duke xoil bide-gabezkoa,
Jesus agindua dela sinhetsaraztekoa.
Halaber du aditzera emanen haren fiñak
Ea nolako izatu diren haren egiñak,
Ezen nola gutizia baituke xoil gaixtoa,
Obra ere izanen du haren berdiñekoa.

Jesus dela du predikaturen

Jesus nobleari zaio lothuren hurbilletik
Eta idekiren dio ahala ohoretik,

Ezen salbatzaillea dela du predikaturen
Eta hitz xuriez asko simple lilluraturen.

Lehenbizian eztuke kreditik

Lehenbizi agertzean eztuke ohorerik,
Ezen gutik emanen du haren baithan federik,
Bañan azkenean zenbat nahi duen ohore
Jendartean izanen du, bai halaber podore.

Arte gaixtoz ardiatsiren du

Artifizio gaixtoz da hanbat baliaturen
Non launtasun handiena baitu ardiatsiren.

Hitz ederrez

Ahoa eznearen pare duke lehen hastean
Alegia Espiritu Saindua ezpañean.
Hañitzek miretsiren du haren mintzo ederra
Eta egiñen du entzun nahiz kexaz lasterra
Hitza urrezkoa duke, urrezkoa mihia,
Eta hitzen eredura erremangu ezta.
Hauk behar tu aphainduak podore eztuenak

Bere egin nahi baitu borondate berzenak.
Molde hartan sarthuren da bihotzetan barrena
Eta urruiti du bere hedaturen izena.

Mehatxuez

Ohoretan sarthu eta falso enganariak
Hagitz mehatxaturen tu ez sinhetsi nahiak.
Hañitz bere eginen du tormentaren beldurrik,
Berzei iarraikiren zaie hekin kontra samurrik.

Rekompensaz

Beretuak betheren tu preziatu sariez,
Ohore eta azienda nahi bezain handiez.
Deusen ere eztukete fiñean gutizia,
Nahi dutenaz gaixto hark non eztetzan sazia.
Hunez erakharriren du hañitz bere aldera,
Nola gizonek baitute gura ontasunera.

Gaztiguaz

Bañan erakusten bada nihor kontra fermurik,
Milla tormenta dadutza hekintzat asmaturik.

Dioklezianek baño are kruelagoak.
Arteak iakinen ditu eta hañitzagoak.
Hetzaz gizonen bihotzak ditu iharrosiren,
Non penaren lotsaz baitu hañitzek ukhaturen.

Majiaz

Arte majiakoetan bat eztuke parerik,
Erresuma zabalduren hartzaz du gehienik,
Sinhetz berak trunpaturen ditu obra falsoez,
Baliaturen da hanbat arte Ifernukoez.

Iuduak irabaziren

Moiseren legearen laudatzeko thailua
Hastetxoan eginen du trunpatzeko Iuduak.
Obstinatu bada kastan Iesus ez sinhetsiak
Laudaturen ditu haren errefau gezurtiak.
Enganatu duenean Abrahamen hazia,
Gero laster emanen du berak lege nahia.

Turkoak

Turkoak ere iarraikiren zaizko handi osteka
Eta sinhetsiren dute dela Saindu Profeta,

Mesias dela lудuek hanbat igurikia
Eta Iesus-Krist etzela baizen enganaria.

Biez gehienik sinhetsia

Gehienik lудuz eta Turkoez Erresuma
Hedaturen du hain handi daite hekin bilduma,
Lasterrenik biek dute onhetsiren legea
On idurian baitaite zein pozoñez bethea.

Giristinoen hirugarren partea

Giristiño zoraturen eztu zenbat berzerik,
Iesus Kristoren legea besarkatu gaberik.
Hautarik bereturen du hirugarren partea
Berzek idukiren dute Iesus Kristen fedea,

Berzeak tormentaturen tu

Haren bada ordenantzak ez sinhetsi nahiei
Gerla eginen daroe handi eta ttipiei,
Milla martirioz ditu nekhaturen prestuak,
Non guztiak ibilliren baitire izituak.

Meza ezta publikoki erranen

Aithortzera Giristiño guti da ausarturen,
Agerriki ere Meza ezta zelebreturen,
Bañan zerbitzu Saindua ixilka zokholutan
Kristauek eginen dute hats hartzeko ordutan.

Azpiratuko ditu hamar Erregeak

Hamar aipatu ditugun fiñean Erregeak
Bere manuen eginen ditu konplizailleak.
Haren ordenantzek baizen eztukete lekhurik,
Berze Prinzeenak dire egonen esdeusturik.

Puxant errendaturen

Artifizio hautzaz da handi errendaturen,
Ipharretik Hegoara non baita famaturen.
Aiphamenik hartzaz baizen eztaiteke lurrean
Eta haren obrez solas berzeen aitziñean.

Sujet idukiren du mundua

Mundua idukiren du hala sujetatua,
Norat puxantza baituke berea hedatua.

Haren legearen kontra gogor egon nahia
Penaturen baitu gaizki Girstino guztia.

Hierusalem erresumaren buru

Hierusalem eginen du Probinzien burua
Eta han du urguillurik ifiñiren Thronua.
Orientean ohi zen xoil famatu hiria,
Zeiñ egiñen baitu berze guztien buruzagia.

Iudu guztiak hara bilduren

Bere bekhatuak gatik araitzina Iuduak
Munduz mundu herri gabe dabilta basatuak,
Bañan orduan bilduren dire hiri Saindura
longoikoak lehenago hautu eman lekhura.

Bere Relijionekoak merkaturen tu

Bereak merkaturen tu zigilluaz buruan
Eta merka batez kontent gabe berriz eskuan.
Trunpatu tuenak hala nahiko tu berezi
Eta berzetarik merka diferentaz hautetsi.

Herstura handian onak

Herstura handia dute Kristauek ikhusiren,
Ezen haren puxantzak du mundua izituren.
Ikharatik egonen da nihor haren beldurrez,
Gutziz ere Giristiñoak hekin kontra samurrez.

Egundaño ez halakorik

Eliz-Amak izatu du eta izanen dolore
Harekien erkhatzeko ez ordean batere.
Antekristen malezia hain gora da iganen
Non onek tormenta hanbat baitute eramanen.

Sathan gathetik laxaturen da

Orduan da largaturen Sathan burdiñetarik
Iesus Kristo hillez gero hertsia egonetarik.
Presunaren nekhatzeko handi duke eskua,
Lehen ez bezala ere du nahasiren mundua.

Miretsiko haren puxantza

Bakhotxak miretsiren du hagitz haren eskua
Eta zenbat duen handi penatzeko mundua,

Ea zenbat atsekabe eman ahal dezaken
Presondegian lainkoak ezbadu idukitzen.

Gehiago miretsiren da lainkoarena

Bañan are gehiago launaren podorea
Miretsiren du idukiz hari labor hedea,
Eta hala Giristiñoek guztien sendoena
Sinhetsiren dute dela lainko munduarena.

Kristauek lainkoa othoizturen

Kristauek egiñen dute Zeura deihadarra
Eta launak adituren du hekien nigarra:
longoikoa arren libra gaitzatzu hersturatik
Eta faboreak bidal zeure Thronu goratik;
Zure ajutarik gabe ezin gaite defenda,
Galdea diezaguzu arren othoi errenda.
Hala formaturen dute penatuek othoitza,
Zelak baitio launari ukituren bihotza.

Iainkoak faboreak bidalduren

longoiko handiak bada aditurik nigarra,
Sokorri bidalduren du damaturik beharra,

Ezen launak eztu nahi tenta dadin gizonik
Indar duen eta ajuta baño gehiagorik.
Bañan tentazionean fabore doiekoa
Muga onaz bidaltzen dio eta frankoagoa,
Ezen haren faltaz ezta nihor faltan erortzen
Bañan peril guztietan puxantki du laguntzen,
Eta zenbatenaz baita handi gure premia
lainkoaren faborea hanbatez da handia.
Lehen ere aitzinetik gintuen abisatu
Antekrist gaixtoak behar zuela munduratu;
Geure buruei guardia hartarakotz ernea
Egin ginezen haren ez sinhesteko artea.
Hurbildu denean ere behar den faborea
Eman gabe eztagoke Aita Kreatzaillea.

Antekristen kontra Henok eta Helias

Bañan mendietan ezta belhar pozoñezkorik
Inguruan non eztuen hurbil kontrariorik;
Halaber du Antekristek kontrario izanen
Ezen Henok eta Helias kontra zaizko ilkhiren.
Profeta eta gizon Saindu oraño hill gabea
Munduaren faborera iauntsiko da pareta.
longoikoak Parabisu lurrekoan dadutza

Antekristo falsoaren kontra egiteko hitza.

Testamendu zaharreko arka agerturen da

Testamendu zaharreko agerturen da kutxa,
Aspaldi iragan zela luduen lege xurtxa,
Bai eta Zeruetarik Mesias lurreratu
Eta gure hutsen gatik dilindaka egotu.

Henok eta Heliasen predikua

Henok bada eta Helias Saindu eta iakiñak
Arbuiaturen dituzte Antekristen egiñak.
Profeta dela falsoa dute predikaturen
Eta Kristotzat eztadin aithor denekaturen;
Araitziña iausti zela lainko Semea Zerutik
Eta dilindaka egon habe gurutzatutik;
Gure zorrak pagaturik igan zela Zerura,
Handik ere dadukala gure gatik ardura;
Mundu guztiaren dela iaustsiko iuiatzera
Eta nori bere obren pagua ematera;
Lege ona dadukala Giristiño gizonak
Handik berze batetara higi eztetzan oñak;

Naturazko eta eskribuzko manuaren testigu
Parabisu lurrekotik diradela bidaldu;
Ia aspaldi akhabatu zela ludu legea
Lekhuko dela egorri Arkaren señailea;
Jesusen legean baizen eztela salbatzerik
Berze gañerakoetan baizen honda lezerik;
Oraingoa Mesiasen dela etsai mortala
Haren ethortzea klarki eskrituran datzala.
Ea beraz bat bedera eztadilla engana
Aitzitik dadukan promes Baptismuan emana.
Majiazko artez baizen eztuela indarririk,
Iduri arazitzeke Kristo dela baxharrik.
Hartarakotz ailtxa zaten launa gana nigarra,
Faboraturen tuela ikhususirik beharra.
Bi profeta onek dute hala predikaturen
Eta Antekristen sekta hagitz gibelaturen.

Hanitz konbertituren da

Trunpaturik hañitz da itzuliren onera
Aitziñean arnegatu zuten lege berera.
Iuduek bere hobena dute ezaguturen
Eta sinhetskor izanaz dire doloraturen.
Hoberentzat aithorturen dute Kristau legea
Eta gaitzetsiren haren kontrako den artea.

Antekrist kruel hekin kontra

Ikusirik Antekristek prestuen ausartzia,
Hil beharrez asma ahal egiñen du guztia.
Hira deskargaturen du hala nola Lehoñak
Eta podore guztiaz tormentaturen onak.
Aserrerik iarraikiren zaie handi ttipiei
Haren izenari agur egin nahi gabeei.
Behiala Elizaren odolezko mendean
Hanbat martirio etzen, ez hain latzik lurrean,
Ohorarazitzekotzat izen laidoz bethea
Zenbat Antekristek baitu asmaturen berea;
Alabañan direlarik handi suplizioak,
Eztu ukhaturen Iesus ona giristiñoak,
Bañan gañeko kargari nola palmak handia
Ahalaz ohi baitio egin resistenzia,
Hala Iesus aithortua tirano berriari
Fermuki egonen zaio Antekrist gaixtoari,
Eta zenbat ere kruel baituke tirania,
Haren kontra hanbat daite Kristaua erakutsia.

Berriz Sathanen puxantza agerturen

Berriz ere agerturen da ahal Sathanena,
Alfer eman etzaiola Prinzearen izena,

Nola espantatzen baitu dragoñak mariñela
Halaber izituren du Antekristek fidela.

Onen resistentzia

Hala ere señaileko da onen iraupena,
Giristiño zahar eta ludu itzuliena,
Ezen askok eskañiren du libroki bizia
Eta garaituko zahar Martirien lehia.
Gutziz ere Abrahamen kasta berantiarrak
Iraganen ordain ditu erakutsiren kharrak,
Azken iuiamendurako denbora anartean
Huts egiñen rekompensa alegia finean.

Henok eta Helias hillen tu

Bañan nola gerlatean soldaduen furiak
Berzetarik hil baititu nahi buruzagiak,
Hala Antekrist iarraikiren zaiei buruzagiei,
Henok Saindu eta Helias lainkoak egorriei.
Berzetarik hei daroe gerla deklaraturen
Eta fiñean krueki ditu hil araziren.

Bitzturen dire

Bañan mirakulluetan mirakullu handia,
Sarri lainkoak daroe bihurturen bizia;
Hirurgarren egunean bere hobietarik
Altxaturen ditu biei bizia bihurturik.

Zerurat iganen

Anda eder batzuetan ohorezki Zerura
Gero altxaturen ditu dohatsuen lekhura.

Munduan ibilliko diren ephea

Hirur urthe eta aphur batez dukete predikatu,
Bizitza zaieneko martirioz fiñatu.

Bitzturen da onen gogoa

Aphurtxo bat biztuko da tristatuen gogoa
Iklusirik hekin alde hari dela lainkoa.
Bi Profetak dituela hilletarik altxatu
Eta mundutik sainduen soillarura aldatu,
Hala rekonpensaturen dituela berzeak
Zeñak baitituzte haren guardaturen legeak.

Hurbiltzen Antekristen fiña

Bizkitartean hersturen da Antekrist ephera,
Zenbat launak permetitu baitioke luzera.
Sarri dohakabeki du mendea fiñaturen
Eta ospea da mundu guztira banaturen.

Mundua tormentaturen du

Damuturik falsoari onen bozkarioa,
Hei egunak laburtzera emanen du gogoia.
Lehen baño gehiago are ahal guztia
Enplegaturen du nola hil Iesus onhetsia;
Hala nola mendietan orkhatz lasterlaria
Iratxakitzean orek lepotik asikia
Egundano ez bezala ioaten baita aitziña,
Zenen berzela dakhusan bizitzearen fiña,
Halaber du Antekristek gehien podorea
Enplagaturen hurbiltzen zaionean epea.

Guztiak azpiraturen

Tormentaren podorez du izituren mundua,
Non ona egonen baita beldurrez ixildua.

Altxatzera ezta nihor ausarturen kontrara,
Milla burreu ez dathozen non haren tormentara.

Antekristen fiña

Hala duenean bada hisia aitziñatu
Eta onei penen lotsaz aharantza tapatu,
Olibetko mendira da urguillurik iganen
Eta Zerura igateko iduri du egiñen.
Enganatu dituenak begiak itzulirik
Begira egonen zaizko mirakullu etsirik.

Jesus Kristok hondaturen du

Gehiago Jesus Kristok eztu suportaturen,
Bañan bere etsaia du lezera etxaturen.
Igan nahiari zaio ethorriren aitziña
Kolerarekin egiten dioela hitz miña.
Begiak suz dituela, isuria bisaia,
Aserre ethorriren da bentzuteko etsaia.
Zaldi xurian igana arnesaz armatua,
Izterrean dakharrela urrezko skribua:
Ni nauk Errege guztien puxant Enperadore,
Enekien erkhatzeko nork du hanbat podore?

Milla Aingeru tuela Ezkutari hautatu,
Hala Kristok nahiko du konbatera khexatu.

San Migelek hondaturen du

Antekristen hurbillera egin eta bidea,
Hitz larriz manaturen du Migel Konestablea,
Hain behera egotz dezan haren kontra iaikia,
Zenbat gora igateko baitu urgulleria,
Ezen eztu bere indarrik nahiko enplegatu,
Bañan Migelen besoaz nahiko du zerbitu.
San Migelek aditurik Iesus Kristen manua
Ezpatara emanen du berehala eskua.
Billuzirik bada harma aho zorrotzekoa,
Behera egotziren du gizon enganozkoa.
Lurrak aho idekiren du hartzaz egarria
Eta hala gaixto hark du egiñen fin larria.
Lehen ere San Migelek munduaren hastean
Luzifer bentzutu zuen sendoki konbatean.
Fiñak hasteari behar dioke ihardatsi
Eta Migelek Antekrist Ifernura iraitzi.

Hari iarraikien fiña

Bizitze gaixtoaz fin gaitz komunki du egiten
Antekristi iarraikiek hala dute egiñen,

Ezen sarri iautsiren da Zerutik oihutia
Ahurraren berdiñeko biribillez harria,
Bai eta sufre idorraz iratxaki mulzoak
Musketak egotzi ohi tuen bezalakoak;
Hala fiñaturen dire ergel eta ariñak
Mesiasen defendako zein ezbaiziren fiñak.
Itzurientzat dagoke gerla eta izurri
Ezen ihes egitea gaitz da longoikoari.
Hala diot fiñaturen dela Antekrist gaixtoa,
Hala ere iarraikiko hari zaion kanpoa.
Fiñak deklaratu ohi du nihoren bizia,
Bai eta Antekristenak haren gaixtakeria.

Antekristen ephea

Hirur urthez eta erdiz longoikoak atiza
Permetituren dioke nekha dezan Eliza;
Handik hara lurak orain erran dugun bezala,
Hurrupaturen du aho idekirik zabala.

Mundu guztia konbertituren da

Iraganak aditurik bazter urrun zerthana
Lehiaka itzuliren da Iesus Kristo gana.

Iainko Semea aithorturen du bizi den guztiak
Eta laudaturen ditu hark lege ifiniak.
Eder izanen da beraz nazionen artean
Begietstea akordu bat Relijionean.
Bat bederak eramanen du bizitze prestua
Ezen hala izanen da Iesus ohoratua.
Hark ere ordañez ditu betheren ontasunez
Mende urrezkoa lehen itzulirik egunez.

Berriz gaixtaturen da

Bañan nola abusatzen baitu nihork frankiaz,
Hala ordukoek ere hain ontasun handiaz.
Doloreak ahantzirik bere plazeretara
Borondateak emanen dituzte banotara,
Ezen eztute izanen longoikoaren ardura,
Bañan itzuliren tuzte gogoetak mundura.

Iujamendua hurbilduren da

Gero sarri izanen da azkhen Iujamendua;
Zer denboraz Zeruan da longoikoaz neurthua.
Apostoluek egin zuten egin haren galdea
Ordean erran zitzairen zela gauza gordea.

Señaleak agerturen dire

Aitzinetik agerturen dirade señaleak
Gorputz arima gabetan handi eta tristeak
Ezen urratu beharko sarri duen munduak
Aitzinean ekharriren ditu bere doluak.
Gizonek ere halaber bihotzetan handia
Ethorri beharrez dute izanen tristezia,
Ezen bere baithan dire hagitz iharrosiren
Abreek ere dituzte marhubiak egiñen.

Zeruaren señaleak

Zeruan dire mudantza handiak agerturen,
Ezen bere kolorea dute ganbiaturen.
Iraziren dire mundu ederraren begiak,
Iguzki, ilhargi eta berze argizagiak.
Bidekoa moment oro da behatztopen
Eta ezta ibiltzera bidetan ausarturen.
Eskripturak famatzen du goibel Ejiptukoa,
Bañan etzen hunekien hura erkhatzekoa.
Señaleak handi ziren Faraon galtzekoak
Bañan ordukoak behar dute handiagoak.

Hurbil eztute gizonen elkhar begietsiren
Eta hunek berak ditu aski iharrosiren.

Gurutze bat zeruan agerturen da

Gurutzearen bandera gero Zeru belzean
Agerturen da aipatu ilhunbeen artean.
Iguzkia iaikitzen etzite lekhuraño
Eta Ipharretik haize bero Hegoaraño
Gehiago klaraturen du ezen Iguzkiak,
Zeña erakusten baitu eder eguraldiak.
Klaroki oñhazturen du munduaren gañean,
Harik eta haren fiña ethor dadin artean.

Mundua izituren da

Gizonetan sarthuren da handi izialdura,
Zeren gatik agertu den gurutzea Zerura.
Nori bere ethorriren zaizko faltak gogora,
Ea zertan eman duen iaioz gero denbora.
Gurutzea misterio gabe eztela agertu,
Ezta Iguzkia ere koloreaz gabetu.
Prinzeek ohi dutela erakharri bandera,
Nahi dutenean gerla egiteko athera;

Hala duela lesusek eragiten berea,
Zeren iautsi nahi duen iuiatzera jendea,
Zeren haren gatik duen herioa pairatu
Eta hura alabañan hain guti porbetsatu.
Sinhetsgorrak gehienik dire ikharaturen,
Zeren Iesus ona baithan fede eman etzuten,
Bañan edozeñek duke larri bere gogoia,
Zeren zerbitzatu ungi eztuen longoikoa.

Hala ere ezta iakiñen, noiz izanen den

Hala ere ezta iakiñen noiz behar den iuiatu,
Ezen lainkoak du bethi idukiren sekretu.
Egunetik egunera bethi dela hurbiltzen,
Aski señale latzez du aditzera emanen,
Ordean deklaraturen eztu azken ordua,
Bethiere dagoentzat bakhotxa prestatua.

Berriz ez-antsiaturen mundua

Ikhusirik mundanoek egun hura gibela
Eta aphaintzeko asti aphur ematen dela,
Pensamenduak dituzte itzuliren mundura
Eta eztute izanen longoikoaz ardura.

Mundukoek hala dute egiñen berehala,
Ikusirik iuiatzera Iesus iautsten eztela.

Sarri berze espantuak

Bañan sarri ethorriren da hekin atzartzera
Espantua berrioki espantuen gañera.
Hauk guztiak presta daiten diraitte abisuak
Eta onera detzaten itzul pensamenduak.

Elementetan señaileak

Begietan ezagun da presunen tristezia,
Baita Zeruan orduko lazeria handia.
Elementa gero sinple lekhu beherekoan
Su, Aire, Itsaso eta lehor zimenduzkoan.
Zeruaren kontra dire agerturen kometak
Eta soldadu koleraz betheen eskuketak.
Haizeek soñu egiñen dute nola trunpetak
Eta Aireak habarrots alegia musketak.
Jendea du harrituren ozpiñen garhasiak,
Bai eta Ililluraturen sismistek bi begiak.
Uri eta babazuzak noiz daitezkeen ahi,
Gerizean egonen da jende guztia geldi.

Itsasoa hala nola ur mendia airera
Aserririk iganen da parterik gorenera.
Erakutsiren du lehen ez bezala kolera
Eta ezta ausarturen nihor itsastatzera.
Lehorrean gutiago eztaiteke zer egin,
Ezen animal mutuek eztukete atsegin.
Mendi gorak higituren dire eta nabeak
Eta abreek dituzte largaturen lezeak.
Gehienik orduan da mundua izituren,
Lastima hauk noiz baitute etxean zerkhaturen.

Oraño mundua sosegaturen da

Hauk guztiak ioanen dire lainkoari eskerra;
Uriaren ondoan da noizbait denbora ederra.
Apurtxo bat bakeaz da mundua gozaturen,
Ezen Señaleak betan eztire konplituren.

Azken suaren señaleara

Hala bada dagoela bat bedera gozoan,
Señaleen azkena da ethorriren ondoan.
Ustekabe harturen du Suak mundu guztia
Eta eztu nihork iakiñen egun haren berria.

Hura da Orientetik laster abiaturen
Eta mundu guztia du errerik biphilduren.
Hareraño iganen da Suaren khar bizia,
Noreraño igan baitzen dilubio handia.
Mundua purgaturen du lizuntasunetarik
Eta bekhatuak utzi kutsu guztietarik.

Su hark erreko du mundu guztia

Su haren erreren ditu iratxaki lanboak
Ilhargiaren azpiko kreatura baxoak:
Animale etxatiar, bai larrean haziak,
Bai halaber arboladi behera eta goitiak.
Berekin eramanen tu lasterretan zikhiñak
Ifernu itsusiaren ondarrerra ariñak.
Gizonari ere dio agerturen indarra
Eta on eta gaixtoei iratxakiren kharra,
Ezen guztiak hillen tu ordean diferentki,
Ona pena gabe, eta gaixtoa dolarezki.
Sentituren du iustuak ere garratztasuna,
Bekhatuen satisfatu ez baldin badu pena,
Edo guti edo aski zorraren arauera,
launak behatzen duela merezi harenera.

Zerua higitzetik geldituren da

Zeru gorak gehiago eztire higituren,
Ezen Aingeruek dute hekin artha utziren.
Ungi egiteko ere ioan daiteke ephea,
Ezen orduraño dugu salbatzeko artea.

Hillak bitzturen dire

Orduan du manaturen lesusek Aingerua,
Hil diren guztiei egin diezela oihua.
Hanturen du bada suge didurien adarra,
Zeñen adituren baitu munduak dehiadarra.
Trunpetak erauntsiren du izigarri kantuan:
Hil guzitak bil zaitezte losafata pontuan.
Zeru, Purgatoriotik, halaber lfernunik
Presaz arimak ilkhiren dire zeuden lekhutik.
Millionka ioanen dire bere herrrautsetara
Gorputzetan agertzeko leheneko gisara.
Guztiak iaikiren dire adin gordiñenean
Eta gizonak indarra gehien duenean.
Haurrak bada men hartara dire aitziñaturen
Eta agureak ere harat gibelaturen.
Hogoi eta hamairur urtheko adiñean

Guztiak iaikiko dire bere oñen gañean,
Muga berean zen Iesus Kristo resusztatatu,
Gaztetasun halakoan behar dute altxatu.
Iosafata eramanen dituzte Aingeruek,
lujearen sententzia entzuteko guztiek.
Bi aldetara dituzte bereziren gaxoak,
Onak eskuñera eta ezkerre gaixtoak.

Beldurtuen ikhara

Zer ikhara eta khexa dukete bihotzean!
Iustuenak ere duke tristura barrenean.
Illea altxaturen zaie zutik eta begiak
Trublaraziko darozte beldurtasun handiak.

Damnatu beharrean errenkura

Ia arima Ifernuko tormenta sentituak
Fazoñ hunetako tuzte altxaturen oihuak:
Mendiak eror zaitezte othoi gure gañera,
Arima eta gorputzaren ezteus bilhakatzerara.
Arren estal detzatzue gure falta handiak,
lujearen aitziñean eztiren ageriak,
Ala madarikatuak iaio giñen egunak,

Baita halaber gatzatu giñeneko ilhunak!
Ifernuko ilhitizat munduratu baikiñen
Eta iaiaizean nihork itho ez baikintuen.
Aita amak zaretela oi madarikatuak
Mianbroak zeren tugun zuetzaz formatuak!
Nolatan goiz hil ez giñen hala nola ilhora,
Eta ezagutza gabe eman hobi zilhora?
Ala gure zoratuak baikinduen pensatzen
Gu zuhurak giñela eta onak erho ziraden!
Begietan dakusagu kontrario egia
Haukien fuñetan zela sarthua zuhurtzia.
Huna non ikhusten tugun eskuñera emanak
Eta ezkerrera berriz gu plazerak edanak.
Horra nola hautetsiak diren lainko semetzat
Eta gu kontra Deabru itsusien laguntzat.
Madarika daitezela ilhargi, iguzkiak,
Zeren ikhusi dituzten gure gaixtakeriak.
Hala dute damnatuek oihua altxaturen
Zeru izarraturaño zeña baita helduren.
Oihuz eta habarrotsez betheko da mundua,
Alabañan ezta izanen gaixtoa urrikaldua.

Salbatu beharrean ihardestea

Gaixtagiñek akhabatu eta bere damua,
Hunelaxe hasiko da hekin kontra iustua:

Egia duk, o gaixtagin damnatuen oztea,
Buru fuña zindutela zoramenduz bethea,
laun puxantaren legeak hainberzetan hautsteaz
Eta gu ungi bizi az trufaz erabiltzeaz.
Gu gaituk gu zuek hanbat noizbat arbuia tuak
Eta zuei atsekabe hainberze pairatuak.
Zuhurtziaz betheentzat ziñeten estimatzen
Eta zoratuentzat gu gintutzuen iuiatzen.
Asko alde z gure ondra zinduten ximikatu
Eta gure ungi egiñak gaixtoki me zprezatu,
Bañan pazientki egon gaituk zuen artean,
Egun hunek noiz zezaken argi bien gañean.
Azkenean ethorri duk desiratu orena,
Nori berea iustuki bihurtzeko zuzena.
Oraintxe agerturen duk ea nor zenz iustua,
Merezien eredura daramatzat pagua.
Hala dute elkharrekin onek ihardetsiren,
Noiz gaixtoek errenkura baitute akhabaturen.

Iujearen iaustea

Hau duzula iaustiren da Iesus Krist hedoiean,
Lainhopeko holtz adarra dirudien batean.
Bi bazterrak argituak dituela kolorez,

Maiestate handirekin iautsiko da ohorez.
Aitzinean ekharriko du Migelek bandera,
Ungi bizitu eztiren guztien izitzera.
Berze Aingeruak batak elhorrizko khoroa,
Berzeak itze zorroztua, berzeak lanza sendoa,
Berzeak bere pasione sainduko armazoinik,
Buruko illeak latztu gabe eztagoke gizonik.
Saihetsa ere eztuke konpania gabea,
Ezen hurbil izanen du Aingeruen oztea.
Eskadroñak ordenantzaz, ordenantzaz pausua,
Beha dagoen guztia handiro transitua.
Zeru lurak ere beldur, beldur laur elementak,
Itsasoak ere tuzke ia largatu tormentak.
Bekhokia izanen du koleraz isuria
Eta aserre podorez begia bihurria.
Pena emateko duke hain lehia handia,
Zenbat luzea baitzuen lehen pazienza.
lujea iausten denean hedoiean iarririk,
Atheak idukiren tu Zeruak idekirik.
Gisa berean zabalik Lehor eta Aireak,
Ezen laun haren eztuke mugarik podoreak.
Iarriko da Olibetko mendiaren gañean
Eta mundua egonen da humil aitzinean.

Lujearen iustutasun hertsia

Hareraño emetasun handiz du usaturen,
Orduan da iustiziaz zuzen baliaturen.
Haren aitziñean deusik eztaite estalirik,
Bañan huts handia bezain ttipia agerririk.
Present ederrez irabaz ezin daite lujea
Eta arte guztien du izanen iakitea.
Exkusarik nihola ere ezta baliaturen,
Bañan gauza den bezala da examinaturen.
Bere ordain ezin bidal berze konparitzera,
Berak agertu behar du Thronuaren oñera.
Adbokatik ezta zeren hautatu ararteko,
Ezen Zerua da falten mendeku eskatuko.
Hain guti da barkhamendu eskatzeko lekhurik
Eta ezta zeren bilhatu handien faborerik.
Nori bere obra onak zaizko baliaturen,
Hala ere dohatsua zein baita salbaturen.
Presidentak emanen du sententzia azkena,
Munduaren othoitzera muda eztaitekena.
Berze Alkateren gana eztaite ihes lekhurik,
Gaixtagiña badagoke nigarrean urthurik.
Hauk guztien ioan daiteke ezin itzul denbora,
Beharriez entzun behar du Arrasta gogorra.

Iuiatu behar guztiei erranen daroena

Hunela lujea zaie guztiei mintzaturen,
Non onei ere illeak baitzaizte altxaturen:
Noizbait ere ethorri da azkeneko ordua,
Bakhotxari galdetzeko bere obren kontua;
Ea zertan iaioz gero eman duzuen denbora,
Zeren ungi bizitzeko baitziñeten mundura
Eta gero ardiasteko merezien saria,
Edo Ifernua edo Parabisu goitia
Ea beraz bat bedera orhoit bedi bizi-
Eta hartan egin duen ungi edo gaizkiaz.
Sarien azkenak dire Zeru eta Lezea,
Hetarik batera egin behar duzue bidea.

Orhoituko dire obra guztiez

Hauk erran tuen bezala gogora bekhatuak
Ethorriren zaizte eta obra egin iustuak.
Huts ttipiak ere zaizte ethorriren gogora,
Zer obra konplitu duten eta noiz zen denbora;
Zer estatutan partitu diren Mundu baxotik
Eta zer merezi duten hekin obrek ondotik.

Bakhotxak iuiaturen du obrez bere burua
Eta gaixtoek dukete ezin konta damua.

Gaixtoei erranen zaiena

Gogoratu zaiztenean zeñi bere eginak,
Gaixtoek entzunen tuzte hunelako hitz minak;
Zuek bada etzarete, o gaixtoak, orhoitzen,
Zeñak baitzaituzte faltek ezkerrera berezten,
Mundura eman ziñetela, ene Aitak berzerik,
Zuek baño asko hobe krea zezakelarik?
Ohora eta zerbitzatu baitzuketen gogotik,
Desondratu baituzue argiratuz geroztik;
Oren oro faboreak bidaldu liberalki
Eta peril guztietarik begiratu maiteki,
Obra onen egiteko aitziñatu atizak
Alabañan arbuiatu hek eta ene hitzak;
Neure odol baliosaz libratu gathetarik,
Bekhatu higuiñen kausaz askotan lothutarik;
Behin barkha gero berriz hanbat pazienza
Alabañan ez emenda bekhatuzko bizia;
Egunetik egunera abusa eztitasunaz,
Sekulan atzartu gabe ene iustutasunaz;
Zeuen gogoetan erran: Eztuk berdin lainkorik,

Atsegiñak har detzagun beldur gabe librorik;
Ene partez mintzo ziren burla predikariez
Eta fiñean berthutea egin gaixtakeriez,
Orain bada zaizkitzue ardiatsiren penak,
Zeñak merezi baititu zuen handi hobenak.

Gaixtoen sententzia

Ene begien bistatik zoazte, o gaixtoak,
Eta Deabruen lagun hagitz hobeagoak.
Ioan madarikatuak, ioan sekulako kharrera,
Ezin hillez fin gabeko mendean penatzera.

Onei erranen zaiena

Bañan zuek, o dohatsu ene eskuñekoak,
Ene Aita sinhetsiak, ene bihotzekoak,
Ene amoreak gatik nekeak sofrituak
Beharrean zeudezenak ere faboratuak
Ea enekin zathozte lekhu atsegintsura
Eta zuek bezalako onei prometatura.
Hunat adiskideak hunat xukatzatzue begiak,
Eta har kontentamendu nekeei egokiak.

Arrastaren exekuzioea

lujea gaixtoei zaie mintzaturen hunela
Zeñen Arrastatik ezin baitaitezke apela.
Tropelaka ioanen dire hala nola dragoña
Urgullu eta paillarta, bai ebatsle ohoña.
Nola baitu gurdiari iratxaki firrilla
Uztarriak aitzinera itzultzen biribilla,
Gaixtoen ere hala da itzuliren tropela,
Hondalera Deabruak buthatzean ergela.
Auhentzatuko dute bihotz urragarria,
Zeren sofritzera doazen bethiko lazera.
Ifernuak idukiren du zabalik ahoa
Eta errezibituren damnatuen kanpoa.
Onak berriz hedoietan gora alegerarik
Aingeruen konpanion ioanen dire bertarik.
Espirituek hartuko tuzte gathanboreak
Eta hekin mintzatuko boza ederren aireak.
Atsegiñez gozatzera ioanen dire kortean,
Disgrazia nihoiz ere izanen eztenean.
Eternalak Zeruairen portaleak zabalik
Idukiren ditu onak ikhustean hurbillik.
Ungi ethorri, ungi ethorri, dioskete milletan,
O arima dohatsuak lekhu saindu hunetan!

Ungi ethorri, fidel eta adiskide maiteak
Eta ene Semearen ordenantzak gordeak!
Ungi ethorri goiz eta arrats guri gomendatuak
Eta urrikariz billuz gorriak beztituak!
Ungi ethorri bihotz sinple malezia gabeak
Eta munduko plazeren oñez zapatzailleak!
Hemen daude sekulakotz zuentzat prestatuak
Zilhar eta metal horiz kadira obratuak.
Huna non diren halaber urrezko buruteak,
Diamant aberats eta perleriaz betheak.
Mundu behereko pena ahantzirik handiak,
Mereziez gehiago hartatzue sariak.
Hunela arraiki ditu Aitak rezibituren,
Zeñi bere iar lekhua gero señalaturen.

Iujamendu ondoko munduaren estatua

Iujamendua akhabatu den bezala Munduak
Berze iduri harturen du kharrez purgatuak.
Zeruko gurutzea da guztia iraungiren
Eta lehengo zuziak dire klar agerturen.
Lehen baño gehiago eredura zazpitan
Klaraturen dute bere lekhu ordenatutan.
Iguzkia egonen da klaro Orientean,

Ilhargia hedoi gabe berriz Okzidentean.
Klaro berze Zeruaren xarho bistagarriak,
Gau egunek ahantziren tuzte bere aldiak.
Argi baizen eztaiteke eta itzalarenik
Lehen bezala izanen ezta iduripenik
Suak ere Zeruaren hurbilleko hauzoak
Argituren du Iguzki nola uztailekoak,
Zeru kolore urdiñak, nola aire meheak,
Eta urak diamanta nola tatxagabeak.
Lurra beiraren pare daite Prinzeenean
Zeña presentatzen baita xahuki mahañean.
Urean ere ezta izanen arrain igelduririk,
Ez lurrean sagar, edo berze fruitu eztirik
Eta Airean eztire hegaturen xoriak,
Ez hain guti larrañetan ibilliren bestiak,
Ezen horiok on ziren lehenago munduan,
Lurrean gizonak egon ohi ziren orduan.
Ezta beraz deus izanen bustel ahal daitenik,
Belhar edo zuhaitzik ez, ez hetzaz bizienik,
Bañan elementak dire izanen xoil argiak
Eta bistak dadutzanak xahu eta garbiak.
Aldapa eta mendi gorak dirade planaturen
Eta puioak elkharren kidera berdinduren.
Fiñean nola Zerua baita guztiz leuna,

Lurraren bisaia hala izanen da berdiña.
Dohatsuak beraz duke handi gozamendua,
Hain estatu ederrean ikhustez mundua.
Behera kontenplaturen ditu izar xahuak,
Elementak akort eta plano lur malkhartsuak.
Gauza hauk egiñen dire onen errespetura
Zergatik izatu duten bizi onaz ardura;
Ezen nola Erregeek soldaduen etxeak
Gerlatetan egin eta handi sendagailleak,
Hagitz ederrarazitzen baitituzte hargiñak
Hetan enplega detzaten manaturik bur fuñak,
Hala longoiko puxantak lur idor eta hotza
Edertaturen du noizbait dohatsuen egoitza,
Zeren seinalatu diren balentiez munduan
Lagunek faltatu zuten aren lege sainduan.
Han hara egonen dire Zeru khexak geldirik
Eta izarrak zein bere ohatzetan iarririk.
Mehakeek ere iasanen eztute ardantzerik,
Ezta ordokiek ere Abuztutan garbarik
Hauk lehenago on ziren bizia luzagarri,
Gehiagorik eztaite nihor gose ez egarri.
Noizbait mundu behereko gauzak busteltzen ziren,
Mende hura ioan daiteke, ezta deus usainduren.

Haur bathaiatu gabeen estatuaz

Haur bathaiatu gabeak luiamendu ondoan
Ohi bezala egonen dire ilhun Linboan.
Egia da batzuz dela xoil ausartki errana
Habitatuko dutela lur planoaren gaña,
Bañan seguragoa da haren kontrarioa,
Begiraturen dutela bethiere Linboa.
Teologo hoberenen hau da opinioea,
Zeñen artean gaitz baita hagitz enganatzea.

Exhortazionea

Ez aiz bada espantatzen bekhatutan sarthua,
Entzutean Iesus Kristen hertsu luiamendua?
Ez aiz beldur gertha adin ezkerrekoetarik
Eta akherrak bezala apartatuetarik?
Hire gana eror dadin sententzia dorphea
Ez aiz beldur, nola ozpin kruelaren kolpea?
Ea orain nigar egik balio duenean,
Ezen eztukek probetxu egitea orduan.
Barkhamendu Zeruari eska akio gaizkiez,
Iaio intzen egunetik orañoeko guztiez.
Hobeagora aldazak leheneko bizia.

Arranoak nola pluma ithurrian bustia.
Oren hura erabillak gau eta egun fuñean,
Zuhurtziaz gida adin eta salba fiñean.

BURU IV

Ifernuaz

Kondaturik luidamendu larriaren manerak
Nola aiphaturen ditut Ifernuko kolerak?
longoikoa oraingoan osoki dut etsitzen
Hats bahituren naizela, ez banauzu laguntzen.
Ea beraz lainko handi hitzaren emaillea,
Arren, fabora ezazu ene mihi feblea.

Ifernua zer den eta haren kausaz

Ifernua deitzen dugu launaren gaztigua
Falten punizionetan zuzen ordenatua.
Lekhuaren izenetik hartzen du aiphamena,
Damnatuek non baitute sofrituren zor-pena.
Giristiñoa, eztezala mirets, launak iustua
Zeren faltari ematen dioen gaztigua,
Ezen nola zelhaietan arriberek bidea,
Halaber nahi dik egin lustiziak berea.
Halakotz launa delarik gaztigura berantkor,
Eztuk zeren enganatu alegia ahantzkor,

Ezen zenbatenaz baitu luze pazientzia,
Hanbatenaz eman ohi dik gaztigu larria.
Hala nola arkuari soka gibelatzean
Urrunago arthikitzen baitu fletxa airean,
Gauza bera duk lainkoaz, zeñaren azoteak
Hanbat handiak baitire zenbat pairu luzeak.

Ifernuaren lekhuaz

Fin gabe pena behar du gaixtagiñak pairatu
Ifernu belza non baitu longoikoak formatu.
Hara bada Deabruek arima daramate,
Kartzela nondik sekulan athera ez baitaite.
Luziferrek desiratu zuen lekhu gorena,
Zeñi eman baitzitzaion Ifernu beherena.
Lezea da munduaren errailetan barrena,
Lurraren bazterretarik berdinki urrun dena.
Gure guztien ahoan deitzen da Ifernua,
Luziferri non baitzaio ematen gaztigua.
Lekhu berean punitzen dire gaixto berzeak,
Zeñek hautsi baitituzte lainkoaren legeak.

Ifernuko atheak

Lekhu hunetako suak asko inhar airera
Munduaren bazterretan bidaltzen du mehera.

Mendi kharrez argituak, leze lanbroz betheak
Munduz mundu ibilli den ikhusi tu ioaleak.
Hauk guztiek ethorkia dute lekhu hartarik,
Hartan iakiñek eztute egin ohi dudarik.
Hetarik Espirituak sarthu ziren labera,
Egotzi zituenean launak buruz behera.
Berekin ekharri zuten su ezin iraungia,
Zeruaren kontrakotik iratxakarazia.
Hartarakotz estirara erortzeko lekhuak
Sartzean utzi zituzten su handiaz bitztuak.
Munduaren lau partetan hetan asko lekhutan
Halako suak ageri dire basa mortutan.
Espiritu kreatuen hirurgarren partea
Damnatu zen hautatuaz Luzifer Erregea.
Nola baitzen Espiritu hañitz egotztekorik,
Halakotz erori ziren hañitz bazterretarik.
Hekien señale dire erran leze, mendiak,
Munduaren komarketan suaz iratxakiak.
Sartzen eta ilkhitzen dire hetarik Deabruak,
Garraiatzen ere tuzte hetarik damnatuak.

Punitzeko lekhu bereziaz

Ifernuan zein hañitz den pena eta dolore,
Aingeruak eztu aski kondatzeko podore.
Bekhatuen eredura punitzeko lekhuak

Leze eta harartetan dire aldaratuak.
Hemen punitzen dirade superbiaz hantuak,
Hemen berriz paillardiza higuñaz lohituak,
Hantxe gero mendekoso eta herraz betheak
Berze partean ohoñak, hara han hiltzailleak.
Baldin hobenduna bada hañitz faltaz kutsatu,
Orain batean, gero berzean behar du tormentatu,
Bihur gero lehenbizi athera zen xilhora
Eta hala eramanen du bethiko denbora.
Lekhuen ere araez dire Espirituak
Arimekin punitzeko ordenaz hautatuak.
Luzifer da buruzagi burreu urguilluena,
Asmodea paillartena, berzea kolerarena.
Abariziosekien da ordean Mammona,
Hark punitzen tu sobera desiratuak ona,
Berzeak partituak dire berze biziotara,
Manuak hedatzen tuzte ttipiagoetara.
Tentatzeko ere dire orobat hautatuak,
Batzuek hunen, berzeak gauza horren Espirituak.

Ifernuratzea

Arima denean bada gorputzetik athera,
Zeña longoikoak baitu kondemnatu lezera,

Bere bekhatuen kausaz han daraman adiña,
Behin ere ikhusiren zeñen ez baitu fiña,
Bere mendean tentatu duten Espirituak
Lotzen zaizko nola lehoñ sukharrez zoratuak.
Ingurura beha dago nork dezaken defenda,
Guztiarekin alferrik hanbat doloratzen da.
Deklaratzen diotzate egin tuen gaizkiak,
Zeñen gatik sofrituren baititu miñ handiak.
Hala nola Meriñoak bere etxetik lehora
Atheratzean ohoña eskua emanik lephora,
Erraten baitio hutsa zerengatik daraman,
Berak eta berzek ere gauza mirets eztezan,
Hala etsaiek diote deklaritzen hobena,
Zeñen gatik sofrituren baitu bethiko pena.
Atzaparka daramate gero khisu labera,
Dolore eta atsekabe fin gabeen hastera;
Eta hura hala nola haztoreak xoria
Behatzez altxatzen baitu airean gora ttipia,
Halaber altxatzen tuzte arima iuiatuak
Espiritu gure kontra aiherkundera sarthuak.

Ifernu berean sartzea

Leze beltz hartaratzean tristetzen da arima,
Ezen doa ikhustera sekulako lastima.
O ene dohakabea! dio doloratuak,

lakiara hautatuaz hunelako putzuak.
Zeren ez nuen konplitu lainkoaren manua,
Golardotzat izateko Parabisu saildua?
O dolore, transimendu, desesperamendua,
Zer lastima egotu da enetzat azkendua!
Halaber marraskaz hasten dire berze guztiak,
Bere hutsen kausaz launak sutara egotziak.
Hunelako moldez dire haren kontra mintzaten,
Zeñen hitz gaixtoek pena baitiote berretzen:
Aizen madarikatua, o fortuna galdua,
Zeñek berreturen baituk damnatuen kontua.
Zeren hanbat munduaren onez intzen egarri,
Gure begien finean ethortzeko mingarri?
Halaber gaizki mintzaten zaizko Espirituak,
Zeñez baitire arima gaxoak punituak:
Oi madarikatua! Zer othe uen pensatzen,
Gure hitzak non arinki baitituen sinhetsten?
Hartu dituen are hagitz handiagoak
Ustez hemen aurkhituren ituela gozoak?
Orain bada dastaturen hik dituk behazunak,
Hiretzat preparaturik iduki ditugunak.
Berehala ematen dute gero iakin lekhan,
Burdin gathe duela zango eta eskuan.
Sarri ardiasten zaio sekulan diraukena

Haren hutsek merezitu duten iustuki pena,
Ezen haren penatzeko burreu ordenatuak
Iratxakitzen diotza atzapar zorroztuak.

Damnatuen nonbre handia

Ifernura damnatuen zein handi den nonbrea
Nihork ezin konda liro, hain da husu oztea.
Prestu baño gehiago dela gaizki bizirik,
Edozeñek begietan daduka ikhusirik.
Mundu guztia ethorri zen egun batez hartara,
Batez berzeak erori non baitziren faltara.
Noe mañadarekien aurkhitu zen prestua,
Berze guztiek launaren hautsi zuten manua.
Hartarakotzat salbatu zuen Noe iustua
Eta uholdeaz itho gañerako mundua,
Ezen eragin zioen untzi bat xoil handia
Eta sarrarazi bera zortzigarren bizia.
Berze presuna guztiak uraz ziren fiñatu
Eta nihon ere etzen baxhotxik eskapatu.
Alfer ihesi egiten zuten mendi gañera
Edo ezperen alzifre altxatuenenera,
Ezen mundu guztian zen mendi gorena baño
Hamabortz besoz igantzen uholdea gorago,

Ezen launak duenean zerbait deliberatu,
Kreaturak haren kontra ezto zeren altxatu;
Hala hek ere salbatu nahiz bere bizia
Mendira egiten zuten alferrik ihesia.
Uholdea iraganez gero jende infidel
Gehiago izatu da lurrean ezen fidel.
Hartarakotz San Mathiu egiaz zen mintzatu,
Hañitz deitzen zela, bañan guti zela hautatu.
Hekien punitzeko da behar lekhu handia,
Halaber du longoikoak ordenatu askia.
Nihor beraz ezta egonen lekhu faltaz kanpoan,
Bañan latzki punituko da leze lurpekoan.

Ifernuaren handitasunaz

Nola bada ifernuak hanbat jende dadukan,
Hañitzek ezarri dute espantaturik dudan,
Bañan ezta deusik behar gauza hartan miretsi,
Baizen damnatu guztiak dadutzala sinhetsi;
Ezen zenbat baita handi eta husu nonbrea,
Nola itsas bazterretan ezin konda sablea,
Hala ere idukitzen tu guztiak erraxki
Batak berzeari traba egin gabe aphurki.
Lekhua da guztiz handi, luze, gora, behera,

Ardiasten hek guztiek non baitu zarratzera,
Ezen nola Itsasoko handi arrain Baleak
Iretsten baititu betan antxo kontu gabeak
Edo nola Zeruaren erraizki inguruak
Lehorraren idukitzen baititu konpasuak,
Ifernuak halaber du idukitzen frankoki
Damnatuena konpañia den guztia largoki.
Hekin bada berretzeko gehiago nonbrea
Deabruak daramate kondemnatu dongea.

Penen dibisioneak

Barrenago sarthu gabe ifernuko penetan,
Iduritzen zait on dela berezteak partetan.

Pena jeneralak eta partikularak

Jeneralak dire batzuk, berzeak partikularak,
Kondaturen tugu lehen bizirik jeneralak,
Ezen hau da guztietan guardatzen den ordena,
Jenerala lehen doan, partikulara azkena;
Bañan hauk biak dirade bi berzetan berezten,
Puxantza guztiei zaitze edo batzuei ematen.
Guk begiratuko tugun hauk dirade ordenak,

Deklaratzean oñhaze damnatu gaxoenak.

Arimaren eta gorputzaren pena jeneralak

Arimaren bada pena eta gorputzarenak
Aiphatzera goazen hauk dire jeneralenak.

Damnatuak ontasun guztiak galtzen tu

Ontasunak galtzen ditu sura kondemnatuak,
Baita orduraño bere eskuko izatuak
Eta hetzaz gozatzeko halaber esparantza
Galtzen du, eta badaki gauzaren segurantzaz.
Halaberki etsitzen du launaren bekhokia
Eztuela ikhusiren, ez onen konpañia,
Ez eta Argizagiak bere oñen azpian,
Kontentez duela hirri alegera begian,
Edo ezperen Iguzkia buruaren gañean,
Bizi lizela bidera egoitza lehenean.
Atsegiñak hartu baitu ezteus eta aphurrak,
Hetzaz kontenta dadilla zirelarik laburrak,
Eta plazer hekin ordain bitztu khisu labeen
Tormentak sofri detzala sekulako mendean.

Ontasunak galtzeaz damnatuak duen damua

Dio bada, longoikoa, zure begitartea
Eztut nihoiz ikhusiren klaritatez bethea?
Zeruko izarrak nihoiz eztitut ikhusiren?
Bethiere ilhunbean sarturik naiz egonen?
Ez naiz bada gozatuko munduko onez bederen,
Lur planoaren gañean bizi nintzela ezperen?
O ni desbenturatua, plazera ez banintzen
Neure faltaz nolakoa gal nezaken orhoitzen.

Gaitz guztiak ardiatsten zaizko

Plaga guztiak zamaka heldu zaizko gañera,
Tormentetan babazuza nola airetik lurrera,
Eta bihotzean sartzen zaio damu handia,
Zeren munduan eraman duen gaizki bizia.
Gero doloreak dio tormentatzen bihotza,
Bai eta galaraziten lehengo ezagutza.
Dolorea du xedetzat, dolorea gogoan,
Gogoeta nahi luke berzetara lioan,
Alabañan penak bethi du orhoitarazitzen
Eta ezin suportatuz heinberze da zoratzen.

Itsusten da lehengo edertasunetik

Aphurtxo baten buruan gero kondemnatua
Agertzen da lehendanik itsuski mudatua.
Illea du xigortua, bethazalak gorriak,
Eta nigar isuriez betheak bi begiak,
Bisaia kolor gabea, bekhoki xixkaldua,
Eta kolpe handiz gorputz guztia herrendua,
Larrua du khe belzaren kolore itsusiko
Eta hautsko hantuaren bulharrak iduriko.
Hatsez ezin aseztu dago ordean doloretan,
Lehengo itxurapenik eztuela guñetan.
Sosegurik ezin duke, bihotza du xoil khexa
Eta barrena sarthua transimendu borthitza.
Sentimenduak ere tu hagitzez miñ berago
Millionetan munduan lehen zituen baño,
Ezen ukitze bera du sentitzen gehiago
Mundu beherean kolpe dardoarena baño.

Arimaren eta gorputzaren pena bereziaz

Gorputz eta arimaren punimendu komunez
Hitz eginik mintza gaiten orain berezienez.

Jeneralak dire eta partikularak

Hautan ere batzuk dire dolore jeneralak,
Berzeak berriz erran dugun legez partikularak.
Arimaren jeneralez daite lehen solasa,
Berzetara aldaturen dugu gero perpausa,
Ezen launak beregainki punitzen tu puxantzak.
Zeñak hautsi baitituzte gaizki haren usantzak.

Arimaren pena jeneralez

Arimaren podoreak Ifernuko etsaiak
Hagitz punituren ditu gorputzari garaiak.
Arima da lohiaren buruzagi handia;
Gaztigu ere behar du, nola den nausia.
Ezta bada solamentki ahaletan zaurthuren,
Substanzian barrena da orobat zehaturen.
Ezin ardiatsiren du nihoiz errepausurik
Apurtxo batez bedere penen ahantztekorik.
Iratxakiren gogorki zaio min jenerala
Eta punituren asma molde guztiz ahala.

Arimaren pena partikularez

Arimaren erratera noa pena bakhotxa,
Zeñak hobeki ukitzen baitaroku bihotza.

Adimenduarenaz

Arimaren ahaletan lehen eta bizia
Ezagutzen dugu dela adimendu argia.
Hura itsuturen dio ilhuntasun handiak,
Nola begi klarak herrauts gañetik egotziak.
Hanbat gauzetarik deusez ezta abisaturen,
Aitzitik du leheneko ezagutza galduren
Eta gogorako zaizko gauza izigarriak,
Arimako podoreen guztiz penagarriak.

Orhoitzapenarena

Zertzaz orhoituren baita dirate tristeziak,
Zeren gatik salbatzeko galdu tuen astiak.
Fuñean egonen zaio orhoitzapen miñbera,
Pausu gabe zeren egon behar duen behera.
Gehiago gogorako zaizko bere lagunak,
Zeñak baitaramatzate dohatsuki egunak

Eta bera dagoela suan pulunpatua
Eta inguru guztian etsaiez zerxhatua.

Borondatearena

Borondatea dagoka gaitz handien peskizan
Eta nahi luke zerbait konsolamendu izan.
O ur xorta bat mihia banu, dio, hozteko,
Zeñak bainuen hanbat on mundua pasatzeko!
Sentimendurik ezbanu hunelako tormenten!
Ilhunbean banintz ere bethiere egonen!
Bañan kontra airearen dudalarik desira,
Egon behar dut dudala sufre bitztuz kadira.

Desesperamendua

Bere ganik irautzten du miñbera doloreak
Eta hitz hauk erakhartzen barreneko nekeak:
Eztukete ene penek bada noizbait mugarik?
Hemen egon beharko dut bethi hagograndurik?
Ehun million urtheez nola orhoit naiteke,
Errabiamendua non eztudan eta neke?
Moment bateko nau penak neure ganik irautzten;
Nola bada sekulako mendetan dut iraunen?

O desesperamendua! errabiamendua!
Zeren gatik ni mundura nintzen titxa galdua?

Beldurtasuna

Hunekin erakhartzen du bere gana beldurrak,
Zeren berze miñ aphaintzen dioen etsai samurrak:
O dolore, dio, eta miñ ezin pairatua,
Hunen ondoan berzea baitagot prestatua.
Oraingoa ez balekit oñhazea ganbia,
Bethi batean bedere banerama bizia.
Suplizio sua banu, ezperen bethi hotza,
Bethi argi, edo ilhun ageri ezten zotza!
Gutiago ets nezake sekulako nekea
Eta doloretan nuke konsolazionea.

Gaitzerizkoa

Madarika dadillala penen asmatzaillea
Eta bekhatuak hunen latzki punitzaillea!
Zuek ere madarika zaitetzela lagunak,
Zeñen balsan eramanen baititut gau ilhunak!
Ni faboratu nauzuen gizon eta bestiak
Madarika zaitetzela, bai ukitu harriak!

Madarika zaitezteela halaber burasoak,
Zeren zuek formatuak ditudan mianbroak!
Fiñean zuek gaitzesten zaituztet handi herraz,
Nork ukitu bainauzue zer nahi den maneraz.

Deskonsolazionea

Konsolatzaille duenak ezte hanbat dolore;
Ifernuan halakorik ezta aurkhitzen batere.
Titxakabeen ohi da konsolazionea
Dohakabe zenbait lagun penetan izatea.
Hondalean kontrara da saihetsetan laguna
Ikhusteaz gehiago penatzen da erthuna.
Deabruek tormentatzen dute kondemnatua
Eta lagunek berretzen errabiamendua.
Gero bata berzearen dire gaizki erraille,
Etsiak eztuketela nihor konsolatzaille.

Konszienziaren harra

Bihotzean bizi dute bethi izialdura
Eta nihoizko mendetan hillen ezten har hura,
Ezen nola gaixtagiña bailegoke lothua
Eta burdiñazko zepo lodietan sarthua,

Estomaka agertutik bele errioiak gibela
Ausikitzen lioela eta altxatzen okhela,
Alabañan ez sekulan konsolazionerik,
Ez bizi penatsuaren halaberki epherik,
Bañan erraiak zaizkola iaiatzen berehala
Eta lastima berretzen oren guztiez hala,
Lezera kondemnatuen hala konszienza
Momentoro da dolore handiz urtharazia.
Sosegurik nihoiz eztu amen baten bakerik,
Oñhaze eta ezin egin baizen eta nekerik.

Gorputzaren penak

Arimaren erran tugu jeneral oñhazeak,
Baita podore bakhotxen halaber doloreak.
Perpausaren aldatzeko ethorri da ordua
Eta gorputzaren miñez mintzatzeko lekhua.

Gorputzaren pena jeneralez

Gorputzaren bada pena hauk dire jeneralak,
Bere denboran erranen tugu partikularak.
Bata dago urkhabetik ezin ithoz dilindan
Eta berzeak desira luke xorta bat edan;

Maillukatzen da berzea, berzea da egosten
Eta berzea du heren sugeak ausikitzen;
Hazpegiak berzeari hautsten zaizko tiraka
Eta zañak apartatzen gorputzetik izpika;
Arroka handi batek du bata hemen lehertzen
Eta berzea da hobi ilhunean erortzen;
Berzeari su datxeka bazter guztietarik
Eta lanboak egotzen tu bephuruetarik.
Beharrietarik ditu arthikitzen inharrak,
Nola sufre iratxaki leze aho meharrak.
Sudurpilletarik ere xinta hori husuak
Eta fiñean ahotik arribera khartsuak.
Haratago hara non den berze dohakabea.
Ematen zaiola berun urthuz aspil bethea,
Erraietan irakitzen dioela dolorez
Eta eztakiela norat itzul penen podorez,
Azkenean egotzen du buru xilloetarik,
Nola ithurriak ura zazpi kanaletarik.
Berzea berriz altxatzen du Sathan herratsuak
Arroka baten gañera pikatzeko saguak;
Behin hara, gero huna burua du itzultzen
Eta dolorea ezin pairatuz da zoratzen.
Fiñean ezin erran daite zenbat den suplizio,
Gehiago giñela ere mintzatzeko propio.

Penatzeko lanabesak han dire aurkhituak
Eta armazoñ guztiak mulkoka prestatuak:
Han dirade burdiñazko maillu eta arrodak,
Zein handirikan itzultzen ohi ez baitu errotak,
Tenaza eta mazoak, soka eta garroteak,
Lanzak, zihi mokodunak, ezten ere luzeak.
Orraze eta xarrantxak baita orratz meheak,
Kobrezko zaluiak eta guphela itzez betheak,
Eragiten daroztela damnatuei husuak
Zaldi arin eta zezen munduaren marruak.
Fiñean ezin konda niro zein hañitz den hunean
Falarisen nuela ere iakitea fuñean,
Ezen ezin asma daite suplizio berririk,
Araitziña eztagoen non hura aurkhiturik:
Su inhar handitakoak eta orma zihiak,
Izotz eta babazuzak, zorta handi uriak,
Sufre, bikhe iratxaki bolbora soñutiak
Eta artifiziozko khar ezin iraungiak.
Pena hauk dire jeneralak damnatu guztientzat,
Edozein itsustasunez hemen lizunduentzat
Hautarik dolore batez bat denean zehatu,
Berze pena batetara behar du aldaratu
Eta penatzen duena berze suplizioak
Hunetara ganbiatzen du Sathan herrosoak

Eta batetik berzera aldatzen direnean
Min gehiago sentitzen dute ezen batean.

Bortz sensuen penez

Lehen eta bizikorik bista zaie penatzen,
Noiz ere bazterretara baitute begiratzen,
Ezen begiak nabari ahal dezan guztia
Gauza xoil itsusia da eta izigarria.
Lekhuaren itsustasun berak ere du aski
Damnaturia tormentatzen, ezen hain da itsusi.
Hartarakotz esaiatzen da burua berzera,
Hekien ez ikhusteko fite aldaratzera,
Bañan alferrik Sathanek zerengatik begiak
Itsustasun guztitara diadukon geldiak,
Milla milla erakhartzen diotzala ehunera
Hañitz zierperen partez eginik aitziñera.
Gutziz heriotzearen izitzen du itxurak
Zeñen beztitzen baititu deabruak iauzkurak.
Hala tranzitzen du ezen herstura halakoan
Non hil baileite launak ez baleduka hagoan.
Ilhunbe gero lodi bat begi tristeenean
Hedoi bat bezala zaio ifintzen aitziñean.
Hune aldean etziren deusik Ejiptukoak

Faraonen punitzeko bidaldurikakoak.
Argia gero bitzten da laster nola xixmixta,
Zeñak klaratzen baitio xoil subituki bista.
Ikhusten tu lehoñ, tigre, eta berze mamuak,
Zeñetara Deabruak baitire mudatuak;
Gogo kontrakorik baizen eztu deusik ikhusten,
Gogoaren ere kontra goibelak du itsutzen.

Beharriarenaz

Beharriak eztu entzuten baizen gathe soñurik
Eta damnatuen baizen nigar eta plañurik;
Aditzen ditu habarrots buru zoragarriak,
Nolakorik ez baitu egin nihoiz iborziriak;
Suge eta animale pozoñtsuen xixtuak,
Bai konfusionez bethe damnatuen oihuak.
Nola uhiñak baititu aserratu denean,
Bazterretara banatzen habarrotsak airean
Edo nola Otsaillean oihanetan otsoak,
Damnatuak entzuten tu handiago zartzoak.

Sudurrarena

Khirats eta urrin gaixto lezeko zikhiñena
Igaten zaio sudurpil meheetan barrena.

Fuña khexatzen dio hark darokan doloreak
Eta eragiten lolo hautsteko urrinteak.
Eztarriaz beherago sartzen zaio khe belza,
Sudurrak ezin baitiro haren paira khiratsa,
Bañan gorputz guztiaren usain penagarriak
Ematen diotza ezin konda ahal martiriak.

Ahoarena edo Gustuarena

Zierpeen herze eta gibeletz ianharia
Sathanek aphaintzen dio hain gozagaitz iakia.
Khelder baño minkhorragoz halaber edaria,
Zeñak larrutzen baitio krueki eztarria.
Iduririk senti badu ezpain zarratzekorik,
Tenazaz ahoa dio idekitzen bertarik.
Askotan hautsten diotza lethagiñak kolpeaz
Eta mihia ere burdin atheratzen meheaz.

Ukitzearena

Gathearen buru batez oñetarik lothurik
Eta zaldi sendoari berzeaz itxikirik,
Harrietan herrestatzen tu Sathanek gorputzak,
Zeñi zathitzen baitzaizte larru eta alkhutsak.

Zamariaren itxura hartzen du Deabruak,
Hala erabiltzekotzat ikhetan damnatuak.

Hala tormentatzen dire gorputzaren sensuak,
Zeñak hautsi baitituzte lainkoaren manuak.
Bortz sensuez atsegiña bozki hartu duena,
Hala matharki lezean penatzen da presuna,
Ezen zeñaz hartu baitu lehen plazer puxantzaz,
Hartzaz dolorea behar du sentitu ordaintzaz.

Pena partikularez

Hunen berzez erran tugu dolore jeneralak,
Orain aldiz erratera goaz partikularak.
Iauna hagoan iduki zazu ene hegatsa,
Egin ohi tutzun legez uso eta belatxa,
Hasi dudan entrepesa ekhartzeko neitzera,
Hartarakotz egor dazu arrai bat bihotzera.

Abisua

Pena partikularentzat hau behar duk notatu,
Zein ohi baitute zuhur guztiek aboatu:
Iaunak punitzen duela hartzaz bekhatorea,

Zertzaz ahalke gabeki hautsi baitu legea;
Edo zertan ere hartu baititu atsegiñak,
Hartan berean sentitu behar tuela miñak,
Ezen kreatzaillearen gañetik kreatura
Onhetsi zien izatu gabe hartzaz ardura,
Hartarakotz zer baitzuen gehiago onhetsi,
Halaber hura behar du penen kausaz gaitzetsi.

Zazpi bekhatu mortalen penez

Urgulleriaren penez

Urgullua altxatzen du Sathan herraz betheak
Haitz buruaren gañera zangoetan gatheak;
Atalaietik egotzten du buruaz behera,
Zain, hezur eta iunturen harrietan hautstera.
Hatsez ezin dagoela asez doloratua
Hala ere iazartzera heldu zaio mindua.

Inbidiaren pena

Inbidiaz betheari hagin zorrotz hazpiak
Aserrerek asikitzen diotza haragiak.
Etsaiaren heldu zaio Belzebut idurian,

Handigoaz ifiñirik bi eskuak gerrian.
Gero milla trufa eta burla begienean
Despitez egiten dio iarririk aitziñean.

Hirarena

Aserre eta gudutsu ezin baketuari
Nano idurian Sathan heldu zaio burlari;
Behatzez arrapaturik egotzten du lurrera
Eta ondagora ematen zintzurraren gañera;
Gero burdin garroteaz hezur xehatzeraño
Kolpea doblatzen dio eta flaka daiteño.

Nola punitzen den abariziosa

Abariziosoentzat bitzten da su handia
Eta bertza gañeratzen lakhua iduria.
Metal horiz bethetzen da ezpaiñ gañetaraño
Eta abariziosa sartzen oñetaraño.
Hain egarri zenaz gero urre zilhar harriaz
Ase dadin doloretsu halako edariaz.
Nola Zirusen Thomirik Erregiñak burua
Pulunparazi baitzuen thiñan koleratsua,
Ezin asezenaz gero odol presunarenaz,

Hillik bedere sazia zedin gerlan hillenaz,
Halaber tu pulunpatzen burreu Ifernukoak
Abariziosoekin gorputz penatzekoak.
Oihuz ere ezin arin detzakete nekeak,
Zeren ahoa tapatzen baitaroe urreak.

Gormantaren pena

Baña ahoa idekirik beharrietaraño,
Gormantari sartzen dio lohi eztarriraño
Apho eta biper gaixtoz eginik ianharia
Eta aspik pozoñtsuen odolez edaria;
Bortxaz galkhatzen badio Deabruak iakia,
Hala nola unhideak haurtxoari ahia.
Hunela du Ifernuan Gormantak othuruntza,
Ematen zaiola gauza xoil iguñez hazkuntza.
Gorale duelarik alabañan sabela
Bethe behar du herabe nahiz handi duela.

Paillartarena

Orain Paillarta darama Asmodea lizunak
Ihinzola eta hararte ikhustera ilhunak.
Nahastatzen du gaxoa apho eta sugekin

Negel bare eta musker gehiago ferdekin.
Ausikika lotzen zaio baxhotxa partetarik
Prinzipalki bekhatua egin duenetarik.

Alfertasunarena

Alferra ernatzen dute ezten eta zihiez
Eta ikhean ioatera bortxatzen iniuriez.
Atsekabe duelarik izan arren asprea,
Egin behar du arinki manatzen den bidea
Eta esaiatu harri handia altxatzera,
Zeña erortzen baitzaio fiñean bere gañera.
Hala laster darabilla nagien manariak
Abietan eragiten diotzala mendiak.

Penen kalitateaz

Orain aditu dituzu zein diren doloreak,
Aditzera aphain zaite hekin kalitateak.
longoikoa hunat ere heda zazu eskua,
Xidorretik ez nabillan kanpora basatua.

Punizionetan lainkoak dadukan ordenaz

longoikoak ordena du begiratzen beretik,
Bañan nahastapen baizen ezta penen aldetik.

Nori bere erredura ematen dio pena
Bekhatore handienei halaber handiena
Bere gain punitzen ditu bizio diferentak:
Urguilluak Gormantetik berzela tu tormentak,
Berze maneraz Paillartak, berzez Lukurariak
Berze thailuz Mendekosak berzez berriz Nagiak.
Aitziñera eman dugu hori ezagutzera
Eta gaizki bakhotxaren tormenta aditzera.
Eskriturak hala zuen ia aspaldi kantatu
Hutsen araez gaixtoa behar zela punitu;
Zertan gozoki sentitu baitzuen atsegiña
Hartan berean sofritu behar zuela miña
Eta bekhatu hañitzez baldin bada kutsatu,
Gaztiguak bat banaka behar ditu pairatu.

Penen aldetik den konfusioenez

Punizioen aldetik ezta ordenantzarik,
Baizen nahastapen eta konfusio handirik,
Ezen gordea daduka naturak erregela,
Zeñetarik ez baitaite nihola errebelatzen,
Kontrario batetarik hain osoki berzera,
Behiñere non ethortzen ez baita saltatzera,
Bañan erditik pasatzen da kontraren xedera

Eta ezariaz igaten gradurik gorenera.
Halako legerik ezta Ifernuan batere,
Konfusione baizen eta nahaste bethiere
Eta hark pena daroe arimei gehiago
Ezen mugara pasatzen balire nekezago;
Zeren nola hotz handiaz garenean penatu
Eta suari eskuak gero khexaz paratu
Leheneko hotzak baño gehiago eskuak
Penatzen baitarozkigu hurbillegiko suak,
Halaber da hondalezeko doloratu gaxoez
Eta bazter batetarik berzera egotziez.
Ezen egotztean sutik ibaia ormatura
Sentitzen dute oñhaze lehenen berretura.
Neguan gauik izatu ezten bezalakoak
Begietan iartzen zaizte tela ilhunbezkoak.
Berehala gero berriz ezin paira argiak,
Milla zierpeen ikhusten tuztela iduriak.
Bethi batez punitzea xoil desiratzen dute,
Ezen hala balitz hanbat dolore ezlukete.
Ganbiatzeak daroe berretzen dolorea
Eta hanbat lastimen da damnatua xedea.

Penen handitasunaz

Pena hain handiak dire eta aspre martiriak,
Kondatzeko ez baitire aski gure mihiak,

Ezen launak deskargatzen ditu bere tragazak,
Zeñen zauriak baitire berzetarik garratzak.
Hekin miñak halaber hain desesperagarriak,
Lurrekoak non solament baitire iduriak.
Zenbat urrun pintatutik baita lanbo bizia,
Lurrekotik hanbat bada hango pena larria,
Edo elkhar ganik zenbat barkha egiazkoak
Diferenzia baitute eta ixenduzkoak,
Hanbat badu fin gabeko doloreak handia
Hemen sofritzen denaren ganik diferenzia.

Sentimendu handiaz

Ezen sentimendua du are samurragoa
Damnatuak bizi zela zuen bañoagoa.
Pairatu hutsez etzaio baterere gutitzen
Bañan estatu berean bethi zaio gelditzen.
Aristoteles handiak erran zuen zuhurki,
Zeña baita frogatua ikhusten egiazki,
Bethiereko pairuak duela haragia
Usatzen ez sentitzera hain dolore handia.
Nilgo bipellatakoek hitzaren entzutea
Ur iauziaren soñuaz galtzen dute berea,
Uraren azantza eta habarrots bethikoak

Boza entzuteko sortzen darozte organoak;
Ezta hala lfernuan doloratzen direnez,
Oraingoz hanbat dute sensu nola lehenez;
Oñhazeak eztaoe sortzen sentimendua,
Bañan dute egundaño bezain minberatsua.

Pen-iraupenez

Fiñean zenbat baitute martirio sofritzen
Leheneko indarretan bethi dire aurkhitzen,
Zeñak eztitu ahitzen bethiereko suak,
Khar biziak direlarik puxantki xixkalduek.
Hezurak xehatu arren laster dire osatzen
Eta zauriaren merka ezta nihon agertzen.
Eta hau da egun eta mende bethiereko
Gehienik arimari gogatarazitzeko.
Hunek ditu prinzipalki desepararazitzen,
Fin gabeko oñhazeak zeren behar dituzten.
Xori batek lehen duke ozeana agortu
Eta Kaukasako haitza bihika aldaratu,
Damnatuena penek luten baño fiñamendua
Hain handi da arimaren galtzeko espantua.
Xoil desira handia du lohitik ilkhitzeko
Hala bedere oñhazeen fiñera ethortzeko;

Tormentatzen du burua aurkhitzeko biderik,
Alabañan hek guztiak egiten tu alferrik,
Ezen mundu beherean baño borthizkiago
Gorputzarekin lothua espiritua dago.
Laster orain partitzen da gorputzetik arima,
Baldin barrena bazaio sartzen zorrotz burdiña.
Ifernuan ezta orobat ezen arma mehea
Sarthuagatikan ezta fiñatzen bizitzea.
O miserablea! dio, hil bedere banendi!
Eta onez gabeturik gaitz ez baneza senti.
Gogortua sentimentu gabe banendi etzin;
Hala bedere balute ene doloreek fin.
Gauza hala izateaz handi nuke plazera,
Ezin ordean arima gorputzetik athera.
Gero deitzen tu Deabru gaixtoak saihetsera
Berak ezin akhabatu bizia fiñatzera.
O gerlariak, dioste, eztuzue indarrik
Ni hiltzeko, gehiago eztagidan nigarrik?
Hunat hunat emazue kolpe ahal guztiaz
Eta gabe nezazue sentimendu biaz.
Deabruak frenesiaz indarrak doblaturik
Pena berretzera heldu zaizko preparaturik.
Badakite ezin gabe daitekela biaz,
Hala ere nahi dute tormentatu lehiatz.

Gero madarikatzen tu Deabru deithatuak
Ikhusirik akhabatu etzaizkola sensuak.
Aizen madarikatua Ifernuko oztea!
Dio, hanbat baitedukan gaitz enetzat gordea.
Hau da bada prometatu atsegiñen gozoa
Eta zerbitzu egiñei agindu golardoa?
Berriz eta berriz ere oi madarikatuak
Zaratela! zehatzaille arimen odolsuak.
Berriz ere lotzen zaizko hisiz eta koleraz
Eta tormentatzen dute asma ahal maneraz.
Eta hunela galduei penak zaizte berritzen
Eta pausurik eztute nihoiz ere aurkhitzen.

Elizako sufrajiak etzaizte zerbitzatzen

Bizkitartean daudezke egokiak othoizten
Eta aldare oñetan froguen atheratzen,
Ezen kondemnatuaren izeneko ungiak
Deusez laburtzen eztitu haren pena handiak.
Alferrik beraz altxatzen tuzte gora bihotzak
Eta alferrik egiten hain aberats emaitzak;
Erromerietan ere alferrik halaberki
Ibil daitezke othoizten dohatsuak debotki,
Ezen nahiz dezatela argal gorputz gizona

Eta hekin faborera deit Sainduen izena,
Bere aziendetarik gabeei parti limosna
Eta gau luzeak argi apart utzirik gosna,
Guztiarekin etzaizte gauza hauk probetxatzen
Aitzitik pena daroe gehiago berretzen,
Orhoiturik ezen baldin ioan balire purgara,
Hauk guztiak lekiztela bihur progotxutara;
Bañan Ilkhiko eztiren diradela lezean
Etsai errabiamenduz betheen podorean;
Biziek ere dutela halaber sinhetstea,
Hetarik baxhotxa zela asko aldez hobea;
Zeruetan daudezela Sainduen batzarrean,
Guztiarekin daudela kharrez gori labean.

Damnatuen errenkurez

Ea nolakoak diren damnatuen nekeak
Aski deklaritzen ditu hekin oihu tristetak,
Ezen ahoa errenkura handiz dute bethea
Eta lainkoaren kontra husu burho dorphea.
Hekin bazterrean ezta plañu baizen aditzen
Eta hargatik etzaie tormentarik gutitzen.

Errenkura ez ungi bizi izanaz

Bañan errenkura dute xoil tristea altxatzen,
Zena ez baitzaie deusik ordean probetxatzen.
Orain zer balio zaiku supherbio izana
Eta hanbat prezatua munduko ontasuna?
Zer probetxu hain aberats buruak ikhusiaz
Eta khexarik ohore banoei iarraikiaz?
Hek guztiak ioan zaizkigu nola airean lanhoa
Eta gu gelditzen gare burdiñetan zangoa.
Martirio handiz gure penatzen da lohia
Eta arima da bere etsaiaren hirria.
Hautsi ginduen ordena lainko puxantarena
Gehiago onhetsirik mundu banoarena,
Bañan enganatu gare munduko bizitzean
Eta pozoña aurkhitu dugu oñen artean.
O gure dohakabeak! ez baitugu sinhetsi
Zer baitzuten hanbat prestu eta Sainduk onhetsi.
Bethiereko lanboak ditugu inguruan,
Amen bat ez gaituztela uzten errepausuan.
O guztiz adimendutik kanpora irauziak!
Zeñak gaixki baititugu enplegatu biziak.

Ezin mundura itzuliaz

Ha zilhegi bailitzaiku mundura itzultzea
Eta egin tugun faltez nigarretan urtzea!
Gehiago ez ginduke plazerez antsiarik,
Aitzitik har giñetzake penak alegerarik;
Onak erabil gintzake oñ azpian urdaraz
Eta probezia maita ginezake ahalaz;
Gure tresnak leratezke herak eta zakhuak
Eta harri gogorrenak etziteko lekhuak;
Konpañia gaixtoetarik urrun ginte aparta
Eta ginduke mortuak habitatzeaz artha;
Belhar zurthiñez gorputzak haz gintzake iuiuski
Eta edaran bidaso mendikoaz gozoki.
O zein handia ginduken konsolazionea!
Hala permis balitzaiku mundura itzultzea.
O dolore balekigu eta pena balia
Eta behiala legez hobenen urrikia!
Nigar egin ginezake fuña xukatzeroño,
Presentean ere isurtzen eztugu gutiago;
Bañan halako zoririk eztukegu batere,
Ezen behar dugu egon kharpean bethiere
Eta probetxurik eztu begien ithurriak,
Ezen akhabatu dire leheneko feriak.

O dolore eta neke ezin fiñatuzkoak,
Ala madarikaturik baikiñen gu iaioak;
Madarika dadillala gure kreatzaillea,
Zeren ematen darokun hain gaztigu luzea.

Zarratzea

Hauk nituen errateko putzu handiko penez,
Hauk halaber damnatuen nigar eta auhenez.
Eztuk bada Giristiñoa nahi hautzaz orhoitu
Eta ez atzaio nahi faltari apartatu?
Sekulako doloreek ez aute espantatzen
Eta bihotza eztarok aiphamenak harritzen?
Hi bezala bizituen errenkura tristeak
Aldaraziren ohiko eztarozkik moldeak?
Den penarik laburrenaz hainberze aiz khillika,
Non ihesitan baitoa sarriz berro potika,
Zer egiñen duk faltetan lephoraño sarthua
Ardiasten zaikenean fin gabe gaztigua?
Nola, sofrituren dituk hain dolore biziak
Doloratzen auenean hain arantze ttipiak?
Harri adi pena haukin aiphamena aditzen
Baldin hire baithan bada sentimendu aurkhitzen.
Zuhur bahaiz Ifernuan sar adi hil gaberik

Hil ondoan ez sartzeko atsekabez betherik.
Xeha etzak heure baithan sekulako nekeak
Bekhatuaz ez hautsteko lainkoaren legeak.
Gau eta egun ifernua hari duk gaitz iruten,
Alabañan segurean bezala aiz bizitzen.
Faltan ez erortzeko duk moianik hoberena
Bihotzean finkatzea penen orhoitzapena.
Hautzaz beraz orhoit adi mundu enganosoan,
Egun batez errepausu duken gloriosoan.

BURU V

Purgatorioaz

Huneraño hitz eginik pena Ifernukoez,
Mintzatzera heldu gare Purgatoriokoez.
launa, othoi altxa zazu ene bihotz eria
Eta hanbat enzuteaz dolore eroria;
Arren zuk iezadazu othoi itzul miñgaña
Zakariasi bezala hitz gabetu zaitana,
Ezen erran nahi nuke Purgatzeko nekea,
Aski dudana indazu arren beraz antzea.

Zer den Purgatorioa eta haren kausez

Purgatorioko pena iakin ezak Kristaua,
Hemen barkhatu kulparen dela pena garaua.
Hala deitzen duk faltaren kutsutik ilkhi gabe
Ezin errenda gaitezken zeren Zeruen iabe,
Ezen presuna ez bada zerbitzatu orenaz,
Falta egiñaren pena barkhatzekoarenaz,
longoikoak punitzen dik mundu hunen ondoan
Khar min-bera eta penos Purgatoriokoan,

Ezen eztik nihoiz uzten bekhatu nabarbena
Eman gabetarik guti edo aski den pena.

Nor sartzen den Purgatorioan

Purgatorioan bada ezta sartzen berzerik
Baizen bekhatuetarik munduan xahaturik,
Hobenari goiti zaion baldin pena ezbadu
Induljenziaz ezperen berze moldez kittatu.
Purgatzean behar ditu sofritu miñ handiak
Eta pairatu artean ezta ilkhiren guztiak.
Gorputzak hartu ohi du lurrean sepultura
Eta baxharrik arima sartzen da erran lekhura,
Ezen launak ordenatu du bere zuhurtziaz
Laguna gabe han pena dadin iñhar biziak.
Arima zen behiala gorputzaren nausi,
Pena prinzipalak ere hark behar tu ikhusi.
Bardariak bat bederak eztu behar pensatu
Purgatorioan dela infidelik pasatu,
Ezen fidelen ohi da xahutzeko lekhua
Edo dela naturazko legea aithortua
Edo ezperetanikan berze eskribatua
Iesus Salbatzaillearen edo graziatsua.
Purgatoriora ezta iragaten berzerik

Lege hautarik batean launa aithortu gaberik,
Bañan hetan fiñatuen punitzeko ganbara
Hura ohi da eta eztoa berze garauik hara.

Zer estatu hartzen duen

Gorputzetik ilkhiz gero arima izitua,
Egiazko hartzen duen hauxe da estatua.
Heriozko faltan bada desditzaz hegaldatu,
Sekulako oñhazeak behar ditu pairatu;
Faltarik ere eztio longoikoak barkhatzen,
Bañan berekien ditu guztiak garraiatzen.
Ariñenez solamentki badoa lizundua,
Hura zaio azkeneko menean barkhatua,
Bañan ordean behar du gaztigua pairatu
Non ere purgatorioa launak baitu formatu.
Dohain hau ordean badu gehiago faltetan
Non eror ezin baitaite ttipi ez handietan,
Zeren konfirmatzen baitu longoikoak graziaz,
Eror eztaidin sekulan faltetan maleziaz,
Ezen nola beherera arbola burdatua
Xardangoaz erortzetik baita sustengatua,
Hala arima doana Purgatorioetara
Eror eztaidin gogortzen du launak faltetara;

Eta kontra hisiatzen da faltan damnatua,
Zeñak baitu maiz ahoan itsusi arnegua,
Ezen launak egozten du bere begietarik,
Obra onik hartarakotz eztaidike iagoitik;
Bañan purgan dagoenak laudatzen du iabea
Eta haren eskuetan utzten borondatea.
Bere hutsez ere badu bihotzean damua,
Zeren gaixki ofensatu duen luje lustua;
Hartarakotz pazientki sofritzen tu nekeak
Nahiz lirela sofritzen dituenen dobleak,
Ezen lainkoaren denaz geroz borondatea,
Halaber da hekiena ez errebel iartzea;
Bañan doloretan izan arren pazientzia,
Laburtzenago etzaie erresumin handia,
Ezen preso daudezela bere libratzekorik
Arima gaxoek ezin daidikete obrarik.
Gaitzari holtz emateko eztire haranean,
Bañan zorren pagatzeko biztu kisu labean.

Arimaren Purgatoriotaratzea

Hil denean Giristiño presuna deithatua,
Zeñi gelditu baitzaio hutsaren gaztigua,
Eta bi espirituen artean sententzia

longoikoak eman eta zeñen den ihizia,
Aingeruek daramate Purgatoriotara,
Deabrurik ezta hersten ofizio hartara;
Hain guti du sarthuz gero punitzen Deabruak
Ezen longoikoaz ditu atzaparrak lothuak.
Eztu nahi puni dadin hain desohoratuki,
Ifernuko non burreuak solament dezan uki,
Bañan aitak nola baitu gaztigatzen umea,
Zeñek behar baitu haren ontasunen iabea,
Berak eskura harturik zehatzeko xiñgana
Zehatzaille deithu gabe burreua beregana,
Halaber du longoikoak gaztigatzen arima
Bekhatu mortaletarik xahu partitu dena,
Ezen batere eztu nahi Sathan koleratsuak
Eman diotzan gañera esku atzapartsuak,
Bañan duenaz geroztik behar igan Zerura,
Berak nahi dio eman aita gaztigu hura.

Aingeruek daramate, erran dugun bezala,
Deabrurik ezta hersten iasatzeko surtara.
Konsolatzen dute bada haraño bidean,
Bai eta maiz bisitatzen han dagoen artean.
Purgatorioko bada sartzen dute lezera,
Lur erraietan dagoen presondegi belzera.

Purgatorioko lekhuaz

Ifernuaren kontra da xahutzeko lekhoa,
Arimekin purgatzeko launak ordenatua.
Ilhun eta penosa da gaztigu faltarena,
Han sofritzen dute hemen kitatu eztutena.
Damnatuena putzuaren hau da hauzo hurbilla,
Nontxe doloratzen baita asko arimen pilla.
Bata barrenetik ilkhi, sar berzea kanpotik,
Hala dabilta arimak mundua egin geroztik.
Akhabatu tueneko batak iakin epheak
Berzeak tristeki hasten tu bere doloreak.
Athea do hirriz eta doluz nahastatua,
Ilkhitzen denak hirria, sartzen denak damua.
Ardiatsi arteraño hala gare Zeruak,
Plazer mingabeak ditu xoilki Parabisuak.

Punitzeko ephea

Zenbateraño koa den punitzeko ephea,
Iuiatzean deklaritzen du lainkoak xedea.
Berzek ezin iakin diro gauza hain ehortzia,
Zer merezi duen faltak berak daki berria,

Ezen zeñ den handi edo ttipitto malezia,
Hauk guztien solamentki berak daki neurria.
Entzunik bada arimak doloreen egunak,
Igurikitzen tu penaz ilkhitzeko orenak,
Ordean konsolatzen da egunetik berzera
Aphurka hurbiltzen dela bere epheen fiñera.
Seguratua da gero pena hekin buruan
Begietsiren duela launa bere Tronuan.

Nolako doloreak diren

Purgatorian direnek handi tuzte nekeak
Eta pena zor tuztenen berdiñak azoteak,
Alabañan eztituzte dolore hain aspreak,
Nola ifernu belzera kondenatu dongeak;
Ezen launak eztu nahi doloratu hangoa
Hanbat nola hondalera desterratu gaixtoa;
Bañan nola Erregeak utzten baitu semea,
Zeren huts egin duen gazteluan gordea,
Zenbait pena diradela iustuki ordenatzen,
Gero bere aitziñera duela erakhartzen,
Halaber lainko puxantak tratatzen du arima
Bekhatu larririk gabe mundutik ilkhi dena;
Purgatorian daduka denbora aphur batez,

Berak ordenatu pena paga dezaken artez;
Hura akhabatu eta bere begitartera
Erakhartzen du gloria handiaz gozatzeraz.

Zeren diren doloreak handi

Ordean eztu presunak behar ezantsiatu
Eta purgatzeko pena deus guti estimatu,
Berdin Zerurako dela noizbait ere fiñean
Eta hala gutiago enplega obra onean;
Ezen hara doana da punitzen hain garratzki,
Non punitu berak ezin baiterrake iustuki.
Hango penek xitzen tuzte mundu hunetakoak,
Asma leitezela ere are handiagoak.
Hanbat etzuen sofritu San Laurendik grisellan
Ezta martiri zaharrek bitztu kisu labetan,
Zenbat arimak ikhusten baitu hutsen goitiaz,
Zeren kittatu eztuen hemen egin ungiuz.
Bizi deño bortxa bedi halakotz bat bedera,
Konfesioan manatu penaren konplitzera;
Elizaren zerbi bedi saindu Induljenziaz
Eta abusa eztezala salbatzeko astiaz;
Ungi egin hutsez paga betza hain zor pisuak,
Purgan iduki eztezan lainkoaren eskuak.

Zertzaz doloratzen diren

Pena handiena dute launa ofensatuaz,
Haren begitarte klaraz gero ez gozatuaz;
Hurrenean gloriaren galdu tuzten graduez,
Berretzera ez bortxatuz ungi egite sainduetz;
Gehiago tormentatzen du hango su goriak,
Baita are desbistatzen khar ezin iraungiak.
Presondegi lurpekoan hertsirik egoteak
Berretzen darozte haukin gañera doloreak.
Hunela dire penatzen purgatoriokoak,
Zeñen ezin baitaitezke deklaratu ondikoak.
Begian dute nigarra bihotzean damua,
Tristezia ere dagote errailetan laundua;
Gutziz ere ikhusirik bere falta dutela
Eta laxoki lainkoa zerbitzatu dutela,
Bekhatu eginaz dute dolore gehiago,
Punimendu arrazoinki eman zaienaz baño.
Damnatuek kontra dute gehien dolorea,
Zeren launaren sentitzen duten beso kolpea.

Ilkhi artean doloreak oso tuzte

Arimak dire hain pena garratzetan khexatzen,
Zerengatik ilkhitzera baitute desiratzen

longoikoak ordinatu probetxos medioez
Sakrifizio saindu eta berze gañerakoez,
Nola baitirade othoitz eta Erromeriak
Eta berze gañerako Giristiñoen ungiak.
Penetarik dute bada desiratzen librantza
Eta primu utzietan dute bere esparantza.
Baldin hetzaz orhoitzapen ez badute egiten,
Doloreak laxotasun hark darozte berretzen.

Purgatoriokoen errenkura

Hargatik altxatzen tuzte errenkurak zerura,
Zeren hain laxoki utzi duten hekin ardura,
Edolere berek utzi eskuetan diruak
Enplegatzen eztituzten atheratzen froguak:
O Ahaide adiskide noizbat hurbillekoak,
Bañan orain, diostee, atze urrunekoak!
Ezbaitzarete urkoez gehiago orhoitzen
Eta ahaikoa gatik laguntzera khexatzen,
Ather dakizkigun zuen obren kausaz nigarrak
Eta iabal martirio emanak su inharrak.
Gau eta egun tormentatzen gaitu lanbo aspreak
Eta ezin konda daiten ematen doloreak.
Lagun gaitzatzue lagun geurok moian utziez,

Ez baduzue gogorik zeuek irabaziez.
Hau da arima gaxoen errenkura tristea,
Galdetzen dutela bethi urkoen faborea.

Berze errenkura

Baldin ez bada odolik faborera atzartzen,
Berriz hunela dituzte errenkurak doblatzen:
O esker gabeko ume! O Ahaide atzeak!
Ezbaitzaizkitzue gure urrikaltzen nekeak.
Zuengatik gintezela hanbatetan izerdi
Eta askotan ez ohera herstu gabe gau erdi?
Zuei ontasun utzteko ahal egin guztiaz,
Bata berzearen hala nekha ginten lehiaz
Eta orain gure penez eztuzuen antsia,
Dakizuelarik arren zenbat dugun premia?
Damugaitzik zuengatik hala gintezen pena,
Gure ez urrikaltzeko gehiago auhena?
Sobera gogoan sarthuz zuen ungi utztea,
Egun tormenta haukien dugu segur partea.

Aingeruei errenkurak eta othoitzak

Mundukoen faboreez dutenean etsitzen,
Aingeru begiraillera begia dute itzultzen:

O Aingeru iaioz gero ene begiratzaillea
Premietan zu izatu zaitut neure habea;
Orain ere zure baithan dut ene esportzu guztia,
Hunen dolore handitan zu zakizkit balia.
Egokiei emotezu othoi bihotzetara
Arren khexa daiten guri fabore egitera,
Debozinez dezaten othoi mugi hartara
Eta limosnak partituz atheko probetara;
Ezbaikaituzte egiñen berak ezen bilduez,
Arren fabora gaitzaten gure ganik hartuez.
O Aingeru agudoa arren dilijenzia,
Othoi urrikal bekizu ene pena handia.

Aingeruen konsolazione eta dilijenzia

Aingeruei hagitz zaizte arimak urrikaltzen,
Hargatik konsolatzera ohi zaizte ethortzen.
Bortxatzen dire ahalaz khentzera tristezia,
Ikhasiak diren legez egiñik hitz ezta.
Hau da ematen daroen konsolazionea,
Damurekin ikhustean doloretan berea:
O Arima lastimoso larrañetik ilkhia
Eta formatuz geroztik niri karguz utzia!
Hala eman duen geroz lainkoak sentenzia,

Hil ondoan pairazazun horren pena handia,
Arren bada sofritzatzu othoi pazienziaz,
Hala libratzeko duzun geroz zorren goitiaz.
Ephe gutitakoa da gloriaren aldean,
Zeñak iraun behar baitu sekulako mendean.
Iaunak behatzen darotzu Aita onaren begiaz
Ezen gozarazi nahi zaitu bere gloriаз.
Karzelatik ilkhitzeko behar duzu fidantza,
Bañan gehiago duda gabeko esparantza.
Sarri libraturen zare oraingo neketarik,
Ni ere banoa zure urkotara bertarik,
Arren athera dezaten balios sufrajiak
Eta hala fiñerazi zure pena handiak.
Othoizturen ere ditut hekin begirailleak,
Arren atzar dietzeten bihotz antsikabeak.

Aingeruen inspirazionea egokiei

Aingeruak hegaldaka gero dire erdutzen
Eta hillaren urkoak dituzte inspiratzen.
Bakhotxaren bihotzari erraten daroena,
Hau da solas sentimendu onaz bethea dena:
Hain laburki zeuen ahantz zatzuen burhasoak,
Zeñen baitadutzatzue eskuetan gozoak?

Hain arinki gogotik utz dezazuen omena
Gehiago urrikaldu gabe hekien pena?
O itsasoko arroka gogorraren pareak
Eta Aita amen aldera Karitate gabeak!
Hain laster ahantz zazuen zeuen eginbidea,
Bizi guztian sailduki gorde behar legea?
Non tutzue Meza Saindu, barur, eta limosnak,
Erromeriak ere non utzirik guri gosnak?
Egizue zuek ere nahiko duzuen;
Laburrarazi zazue obra onez hekin pena,
Zuen faltaz gehiago eztaudezen kharretan,
Baña zerurat iganik othoitz debotenetan.

Egokien Aingeru begirailleei

Gero hitza itzultzen du bere lagunetara,
Erran ditugun Aingeru begirailleetara:
Zuek ere ene lagun trabaillu berekoak,
Arren atzar detzatzue zuen kargutakoak;
Orazione dagiten buraso ohientzat,
Penatik errepausura sarri alda daitentzat;
Egin detzaten debotki saindu erromeriak
Eta launari presenta hautu sakrifiziak;
Barur egunak detzaten halaberki athera,

laun puxanta baketzeko penatuen aldera,
Aserrea ematurik dohatsuen kortea
Sarri erakuts diezen atsegiñez bethea.
Aingeruek bere aldetik deus eztute faltatzen,
Non burura eman gauza hauk eztieta guten.
Gure ganik dire faltak, gu gare antsikabeak,
Zeñak ezbaikaitu latzten hekin pena dorpheak.

Arimen agertzeaz

Deusik egiten ez bada Aingeruen moianez,
Mundanoek antsikabe hain bihotzak izanez,
Asko aldiz lainkoak du permetitu athera
Ilkhi daitezen fabore bereei eskatzera.
Obra onen kausaz gero direnean libratu,
Ungi egillei darozte milla esker bihurtu.
Ordean halako dire xoil bakhotxak aldiak
Nola baitu deklaritzen xoil guti historiak.
Hañitzetan arimaren izenean gaixtoa
Gizonei mintzatu zaie Sathan Ifernukoa.
Eska zaitezke halako aldietan abisu;
Beharko duzu iakiñen erranetan gelditu.

Exort. othoitz egitera hillentzat

Ea beraz Giristiñoa faboratzak heureak
Eta tuken urrikari egokien nekeak.

Orhoit adi hire gatik zenbat duten pairatu
Eta hi aitziañatzeko zenbat diren nekhatu.
Hik ere ordain har ezak zenbait pena hekintzat,
Su lanboko oñhazetik sarri libra daitentzat.
Orhoit adi zenbat duken urrikari presuna
Iustiziak erretzera kondemnatu duena,
Edo ezperen mailluaz mianbroen hautstera
Edo bertz irakituan bizirik egostera.
Hekin oñhazeak baño Purgatoriokoak
Asko aldez, Giristiñoa, dituk aspreagoak.
Hartarakotz ez aizela gogor lehen bezala,
Bañan fabore egiten enplegazak ahala,
Perillean herori ere abillanaz geroztik,
Pena hek senti dietzaken herioaz ondotik;
Hitzaz beraz norbait orhoit dadin bizietarik,
Egokientzat hik ere egik on den obrarik.

BURU VI

Linboez

Bi lurpeko lezez gare unen berzez mintzatu,
Arrazoñ da berze biez dugun zerbait aipatu.
Hartarakotz argi zazu launa ene burua,
Hasi dudana fiñera ekhartzeko kantua.

Zer den Linboa

Linboa da orijinal faltaren azotea;
Adamen ganik gurera egiten du bidea;
Bañan lainkoaren kontra ezta behar altxatu,
Zere berzeren hobena dugun partizipatu,
Ezen eskua bazuen gu obligatzekoa
Buruzagi gañekoan basollo azpikoa.
Hala nola komunera Semeak Aitarena
Estatuarekin baitu poseditzen izena,
Haren ondraz ondra baitu, bai laidoaz laidoa,
Halaber dugu guk ere gaztigu aitazkoa.
Lekhuaren izenetik deitzen dugu Linboa,
Zeren baita lur gañera hurbiltzen den zilhoa.

Lekhuaren izenetik komunera deitzeak
Berze lezek ere tuzte hartu ohi bereak.

Kausak

Adam bada zela kausa formatu zen Linboa,
Zergatik asiki zuen fruitu debekuzkoa.
Presunak ezbadu hartu behar remedioa
Xahutzeko orijinal faltaren propioa,
Edo dela naturazko legean usatua
Ezperen eskribuzkoan ebakitze mintsua,
Edo graziaz bethean urezko bathaioa,
Linbo belzean behar du etxe sekulakoa,
Ezen launak iustizia nahi du erakutsi
Eta punimendu gabe bekhatua ez utzi.

Lekhua

Ifernu saihetsean da Linboaren lekhua.
Argi ederra non baita ilhunki itzaldia.
Kartzela da luze, zabal, gora, eta barrena
Ezin konda ahal gorputz iduki dezakena.
Purgatzeko putzuaren hau ere idurira,
Beheretik hurbiltzen da munduaren hegira.

Arimen estatua

Han denak penarik eztu tristeziar berzerik,
Zeren dagoen kartzela halakoan hertsirik;
Tristezia hark ordean eztu hagitzen penatzen
Zeren baitaki ez dela bere faltaz punitzen.
Haren estatua ordean prestatzekoagoa
Da, ezen purgatorioan beti egotekoa,
Zeren purgan daudezenek pena latzak dituzten
Eta suaren dolore miñak sentitzen tuzten.

Linboetakoan pazientzia

Pazientki suportatzen dute bere kartzela,
Zeren baitakite launak ordenatua dela,
Eta ez tute egiten haren kontra plañurik,
Bañan pazientki daude gloriar etsiturik,
Eta hala daramate ilhunbean denbora
Esportzu ez tute larrik ilkhitzeko lekhora.
Deusik ordean ez tute hargatik merezitzen
Eta horrek gehiago ez ohi tu izitzen.
Merezitzeko denbora da gu gauden lekhuan,
Esparantza behar ezta (izan) berze munduan.

Aita zaharren Linboaz

Bi Linbo dire aiphatu bata Patriarkena,
Remedio hartu gabe berzea haur hillena.
Aita zaharren Linboan sartzen ziren iustuak
Falta orijinalaren narriotik hutstuak
Haur ttipittoak bezala, presuna adintsuak,
Zeñak egin baitzituzten lainkoaren manuak.

Ilkhitzeko zuten desira

lainko Semea zeudezen lurreratu artean
Eta hark Linboetarik alxazetzan ustean,
Desira zuten presunak ezin kondatuzkoa
Salbatzaillea zethorren noizbait ethortzekoa.
Esparantza hartan bada Zeruraño plañua
longoikoari altxatzen zioten dolutsua;
Ezen ungi zeakiten zela prometatua,
Halakotz egiten zuten othoitza hain khartsua.

Linboetako Aiten othoitza

launa, othoi egorrazu egorriko duzuna,
Bidalduko zinduela prometatu duzuna;

Arren othoi ezazula gehiago balia
Preso gaudezen, ikhusi gabetarik argia;
Muga onez idokazu Zeru safirezkoa
Eta isur gure gana ihintz salbatzekoa;
Zabal etzatzu portale noizbait ilhunbekoak,
Dasta detzagun atsegin Zeru gorenekoak.

Aita zaharren librantza

Othoitz hunek iraun zuen harik lainko Semea
Linboetara iaust zedin guztiz bihotz emea.
Gurutzean zuenean bada ondikoz pairatu,
Presondegitik zituen Patriarkak libratu.
Haren arima sainduak athe eta gondeak
Bortxaz irauzi zituen eta hautsi gatheak.
Ifernua nahasi zen, Deabruak izitu
Eta hondale ilhuna habarrotsaz khiritu.
Patriarkak hegaldatu ziren Zeru gañera,
Hanbatetan desiratu plazerezko etxera.
Nola usoa ilkhitzen baita usategitik,
Nahi baño gehiago egon presondegitik,
Abiaduraz bolatzen gero kanpoetara,
Libertaterekin nahi ianhariz bazkatzera,
Aita zaharren arimak hala ziren hegatu

Zarrategia lesusek zuenean bortxatu.
Hedoiera igan ziren asetzeraz gloriar,
Fiñik izanen eztuen nihoiz ere astiaz.
Geroztikan idekia dago Parabisua
Falta gabe hil direnek har dezaten pagua
Eta nihor iautsten ezta Aiten Linbo hartara,
Zeren zabalik dagoen dohatsuen ganbara.

Bathaiatu gabeen Linboaz

Berze Linboa ere bada lehenaren aldean
laun puxantak formatua muduaren hastean.
Ifernuaren kontra da hura ere etziña
Gañera hedatzen dela nola Aitentzat egiña;
Ezen lurraren azpiko daude presondegiak
Non baitaude defuntuen espirituak hertsia.
Ifernuko ingurutan hura da xoil handia
Eta bazterretan ditu Linbo Purgatoria.
Sekulakotzat han daude batahiatu gabeak,
Nola Adamen faltatik ez libratu berzeak.
Jende batzuen egia da ohi dela errana,
Bañan segurantza gabe aitziñera emana,
lujamendua egin eta munduaren gañera
Ilhunbetik ethorriko direla egotera,

Bañan sententzia hunen hagitx kontrarioa
Ilkhiko eztirela da laudatzekoagoa.

Bathaiatu gabeen errenkurak

launaren kontra eztire haurrak errenkuratzen,
Bañan burasoei zaizte arrazoñez khexatzen:
O buraso (diostee) gutzaz antsikabeak,
Zeñen faltaz baititugu ilhunbean etxeak!
Zuen gatik gu gaudezen lezean zarratuak
Eta ditugun launa ez ikhusteko damuak,
Zeruetara iragan gabe Ilhun Linboan
Bethiereko gaudezen argi gabe zilhoan!
Ideki zuenaz geroz Iesus onak Zerua
Hura ethor zeitekeño gakhoaz egotua,
Traburik etzenaz geroz Zerua aldetik,
Baizen antsikabe eta laxo zuen partetik!
O buraso ondra guti gu ganik mereziak,
Zeren tugun zuen kausaz sekulako garriak.

Burasoei mehatxuak

Zer erranen dugu orain burasoen hobenez,
Zeñen kausaz ez baitire haurrak busti uhiñaz,

longoikoak hekientzat pena tormentatsua
Arrazoñki dadukala baizen ordenatua?
Ezen lainkoak egiten tu arimak Zeruko
Eta ez hetzaz lurpeko lezeak bethetzeko,
Alabañan lainkoaren nahiaren gañetik
Hanbat bathaiatu gabe partitzen da lurretik,
Egotekotz bethiere harroki lurpekoan,
Aingeruen desiratu batzarretik kanpoan.
O umeen hiltzailleak! o odolsu Aita-Amak!
Zeñen faltaz ioan baitire hala haurren arimak.
Arrazoñ da lfernuak zuentzat doloreak
Preparaturik dadutzan min eta fin gabeak,
Bai burreu kruelak diren zuen penatzailleak,
Zeren izatu zareten hain axolagabeak.

BURU VII

Parabisuaz

Huneraño ibilli naiz bethi tristezietan.
Noizbat bedere sar nadin alegerantzietan.
Parabisuaren bada aiphatzeak, lainkoa,
Handiroki bozten darot neure triste gogoa.
Hartarakotz Profeta sainduen nausia,
Libra ezazu eskalgaitz othoi ene mihia;
Ezen hain plazer handia nola dirot deklara
Non grazia eztezazun isur ene baithara?
Behiala haur ttipiak Augustiñen mendean
Itsasoa sarthu nahi zuen zilho batean.
Nitzaz ere halaber da, zeñen adimendua
Ezin heda baitaiteke kondatzera Zerua.
Arren bada podoroso Aingeruen lainkoa,
Zuk egidazu fabore ungi mintzatzekoa.
Sujetaren eredura hitz dagidan ederki
Eta ohore dakizun zuri itzul zuzenki.

Zer den Parabisua

Parabisua da sari dohatsuei emana,
Zeren obran eman duten lainkoaren errana.

Sari hura da atsegin ezin kondatuzkoa
Zeñen berdiña ez baita mundu beherekoa.
Parabisua fiñean hunetan da zarratzen:
On guztiak dire eta gaitzik ezta balsatzen.

Nork ematen duen

longoikoak ematen du erran dugun saria,
Ezen berzek ezin diro eman hain on handia.
Nola Errege bailegoke lasterkako lekhu
Zaldundeari begira iustetako orduan,
Azarkatzen duenari emateko saria
Edo erhaztuna bera edo xarpa horia,
Halaber dago lainkoa bethiere begira
Lurrean bizi direnen presunen merezira,
Hats gabetu zainean erhasunaz ahoa
Ungi bizitu direnei emateko gozoa.

Arimaren Zeruetara igatea

Arima ona denean gorputzetik athera,
Hurbiltzen zaio Aingeru guardaria aldera.
Berze Aingeruak ere hersten zaizko pagurik;
Ordean begiraillea du bethi hurbillenik.

Kantaz eta eresiaz daramate zerura,
longoikoak prometatu zioen ostatura;
Aireak ihardasten du kantuaaren aradaz,
Baita Sainduak zerbitzen kantatzeko paradaz.
Eta gero ezariaz Zerura hersten dela,
Iduri zaio izarrak handitzen diradela.
Miretsten du Zeruaaren edertasun handia
Eta hanbat planetaren klaritate argia.
Gutziz hain ederra denaz geroztik lekhorea,
Ederragoa dela du iuiatzen barrenea.
Bozkarioz gero sartzen dute parabisura,
Sekulako atsegiñak gozatzeko lekhura.

Arimaren Parabisuan sartzea

Arima denean bada sarthu Zeruetara,
Dohatsuak heldu zaizko arraiki aitziñera.
Ungi ethorri, erraten diote, iustua,
Zeñak konplitu baituzu lainkoaren manua.
Guk bezala gozatzatzu Zeruko atsegiñak
Eta plazerki eraman fin gabeko adinak.
Jesus berak ere dio agur handi egiten
Eta urrezko alkhian badu iarrarazitzen,
Baita burura altxatzen preziatu khoroa,

Milla harri preziatuz argiturikakoa.
Arrotz orrek itzultzen tu begiak hara huna
Eta handiro miretsten Zeruko ontasuna.

Parabisuko lekhuaz

Sekulako o plazeren gozatzeko lekhua!
Hitaz zerbait errateko denbora duk herstua.
Lau kantoñkara egiña da zerurik gorena
Ungi bizitu presunen ostatu behar dena.
Gañera distiatzen du nola milla iguzkik
Beherera ezta ageri ez mintzeko begirik.
Barrenean da xoil eder noiz ere lekhorea
Zuziz oñhaztua baita itsusien partea.
Bazter batetik berzera hainberze da hedatzen
Arkanjelu berek ere non baitute miresten.
Arima dohatsuak han izanen du parterik
Zenbat erresuma batek baitaduka lehorrik.

Atsegin jeneralez

Deusen ere Zeruetan ezta eskastasunik
Baizen plazer eta ontasun guztien bethetasunik.
Bethiereko bakea, ezta gerlen aiphurik,

Ezen karitatez daude bihotzak gurendurik.
Gehiago atsegiñak eztire higunduren
Ezta gozatzeaz ere puxantzak hebainduren.
Bañan guardaturen ditu indarrak longoikoak
Oren oro sentitzeko plazer fin gabekoak.
Hek gal detzaten Sainduak eztukete beldurrik,
Bañan gozatuko tuzte bozik eta segurik.
Damurik eztu izanen nihork berzeren onaz,
Bañan frankia osoa, zale den ontasunaz.

Arima eta gorputza sariztatzen dire

Gorputz eta arima dire elkharrekin nekhatu,
Elkharrekin ere biek behar dute pagatu.
Bakhotxak sentituren du dagokan ategiña,
Nolakoa puxantzari baitagoka berdina.

Arimaren sariaz edo dohatsutasunaz

Arima da orhoituren iraganez xehero,
Ezen eztu ahantziren deusik adituz gero.
Endelguak iuiaturen du halaber zuzenki
Eta ezta egiatik urrunduren falsoki.
Zuhurtzia ere duke are handiagoa

Zuhur deithu Salomonek zuen bañoagoa.
launa, orain lurrekoek dakusagu ilhunki
Bañan Zeruetan dugu ikhusiren klaroki.
Borondatearen xede ohi da ontasuna
Hartzaz ere ezta izanen arima alharguna.
Ordean longoikoa da on ibarren burua
Eta izanen da hartzaz bethiere ondua.

Gorputzaren donuez

Kopla gutiz arimaren onak ditut laudatu,
Gorputzarenak ditudan orain aldiz kantatu.
Zeruetara iganen gorputz bedinkatuak
Sentituren tu atsegin onhest eta xahuak.
Gutziarik eztuke plazer lehenekoen
late, edate, lo egite, berze gañerakoen.
Fiñean huts egiteko eztuke desirarik
Bañan guztiz egonen da onera itzulirik.
Miñik ezta aiphaturen, gose ez egarririk,
Desplazer edo erhasun eta ez heriotzerik,
Ezen sendo izanen da hara doan presuna
Bethiereko halaber duke gaztetasuna.

Gorputzaren doteez

Laur dote hauk prinzipalki Zeruratuenean
Señale izanen dire handira gorputzean.

Ezen hark onhaztaturen du gehiago zazpitan
Urre izpi iguzkiak baño eguralditan;
Amen batez pasaturen ditu bide luzeenak,
Gora, behera, saihetsera, eskuiñ ezker direnak.
Nola arranoa baita hegaldatzen Zerura,
Eta gero berriz iautsten behereko mortura,
Halaber da higituren iustuaren lohia,
Alegia espiritu haragiez billuzia.
Airea ere eztaite subtil hura bezanbat
Ezen golardo emanen du laun puxantak hanbat.
Marbolarik ere eztaite harrobitan batere
Non arinki pasa eztezan nahi badu hura ere.

Bortz sensuen atsegiñez

O begi gorputz tristen iguzki arraitsua!
Hitaz ere mintzatzeko nahi nitek donua.
Kontenplatuko duk Zeru zabalaren kanpoa,
Baita sentituren plazer ezin kondatuzkoa.
Jesus Krist ikhusiren duk iustuen konpañian
Bortz zauriek distiatzen diotela lohian.
Saindu guztien halaber sakratu konfraria
Merezi arau dutela zeñek bere alkhia.
Iesusek argitaren dik berze guztien artean

Ilhargi betheak nola izar xeheen gañean.
Beharriak izanen tu bere plazer iakiñak
Boza eta instrumenta musikako egiñak;
Urrenak entzunen du aparteko soñua
Hala nola hurbillean kantatzen den tonua.
Gehiago entzunen tu diferente mihiak
Bere eta erdaldunen zenbat diren guztiak.
O usain on Zerukoak! O arrosa liliak!
Nolakorikan iasaten ez baitu uda berriak.
O halaber aire mehe batre ez korrunitua
Bañan maiatzeko lore guztiz urrindatua!
Zutzaz dire gozatzen dohatsuak plazerki
Eta hotztüren belarra daroezu emeki.
Ahoak ere ian gabe izanen du gustua,
Zeruetako sapore onez kontentatua,
Eta hala dohatsuen bortz korporal sensuak
Zein berze eredu dire izanen dohatsuak.

Atsegin partikularez

Huneraño erran tugu atsegin jeneralak.
Guti batez aiphatzagun orain partikularak.
Nolako baitiratezke bakhotxaren egiñak
Hekin eredura zaizko emanen atsegiñak.

Zer obraz salbatu garen iakiñen da orduan
Ezen guztiek izanen tugu merkak buruan.
Martir, birjina, Doktorek guztien ederrenak,
Aureola komunera deithatzen diradenak.

Zarratzea

Ene arima, zer hari aiz enganoso munduan,
Egun oro nahastatzen aizela bekhatuan?
Bekhokia goraturik kontenplazak Zerua
Eta ungiez irabaz Parabisu Saindua.
Bortxa adi arimaren ahal egin guztiaz
Propio errendatzera gozatzeko gloriáz.

Othoitza

Eternala arren othoi egidazu donua,
Egun batez ikhusteko zu zaudezen Thronua.
Aingeruen balsan ene lauda detzan mihiak
Zure maiestatearen perfekzione handiak.
Hartarakotz halakoa gertha zazu orena
Zeña ene bizitzeak behar baitu azkena.
Non enetzat gertha dadin eme luiamendua
Bereziki eman behar darotazun iustua.

Hala biz

Gizonen azken fiñen zarratzea

Hauk nitien gizonaren azken fiñez gogoan
longoikoak duela esker obra guztien ondoan.
Giristiñoa, ago erne azken orenetara,
Hala begira adintzat erortzetik faltara.
launak eztik nahi iakin detzagun azken fiñak
Eginbidean gadutzan hekin orhoitu miñak.
Konpli bedi bethiere haren borondatea
Zeren baitaki guretzat ea zer den hobea.
Gu gaudezen arrosoñ den legez iratzarririk
Ustekabez ez gaitezen aurkhi atrapaturik.
Pentsa zagun moment oro hura dela azkena
Gure bizi lazeriaz bethearen orena.
Etxekoak inguruan senti badu ohoña
Atzarririk beillatzen dik noiz sar dezaken oña.
Guardia egin gabez dik gaitzak hartzen erhoa.
Orhoit adi nola ioan zen bortz Birjinen leloa.
Ikhasia aizen gero eztagien faltarik
lainkoaren aitzinean eztuken mehatxurik.
Neskatoen ahalkeaz egikek probetxua
Eta hekien kalteaz heure salbamendua.
Ezen zuhurra duk zeñak berzearen kalteaz

Aprendizkoa egiten baitu nola bereaz.
Ago beraz bethi erne hitz haukien gañean
Faltetan eror ezadin munduko bizitzean,
Hala ardiats dezaken sekulako gloria,
Halakoa launak egin diezela grazia.

Amen

**BIGARREN LIBURUA,
Giristinoak erran behar
lituzken othoitzez**

Sine intermissione orate. I. Thess. 5.

Gau eta egun egizue othoitz
debozinez, galdetua,
laun puxantak, dizuen gogo onez.

Bordelen,
Iakobe Mongiron Millanges
Erregeren inprimatzaillearenean
MDCLXIX

DEDIKAZIONEA

**laun Migel de Oiharart, bikario jeneral,
ofizial, eta Baionako eliza nausiko,
Kalonge teologari**

Platonek ezarri zuen liburuan ederki,
Zuhurra bersuan zela nekaturen alferki.
Zeren kopla partitzen den fantasia sendotik,
Zein ederrik ezin ethor baitaite ene flakotik.
Hartarakotz beha nago nor dukedan fabore,
Eta zu ikhusten zaitut Eskaldunen ohore.
Arren bada errezibi zazu obra ttipia,
Zure faborearekin didurien handia.
Ezen handia da zure itzala, noiz ere Arzain,
Iphizpikuak hautatu baitzaitu bere ordain.
Erituei zuk aditzen daroezu plañua,
Eta ematen probetxoz den konsolamendua.
Bañan guztiz Laphurtarren arimei egarria,
Hiltzeko zare, hain kargu handian ezarria.
Prestutasunaz altxatzen daroezu Eliza,
Eta milla deskubritzen salbatzeko atiza.
Zuri bada obratxo hau darotzut presentatzen,
Eta zu zaitut, defenda dezazun, suplikatzen.

Ezen zure faboreen ustez, hitz egitera,
Ausartu naiz, ailtxa zaite beraz faboratzera.
Gehiago faborez den obra estimatua,
Ezen berregintzarekin bera eskribatua.

IRAKURTZAILLEARI ABISUA

Huneraiño mintzaturik gauza iakitekoez,
Orain mugaz dagigun hitz othoitz egitekoez.
Ezen hekin moianez laun Zerukoak guztiak,
Esku puxantaz estaltzen tik gizonen premiak.
Ea beraz ikhaz ezak lañkoaren othoizten,
Eta oren guztietan behar denaz ertehatzen.
Hartarakotz hemen diat antzea deklaratu,
Eta haren eredura exenpluak moldatu.
Aski dena ene penek liketek irabazi,
Baldin asti orduetan nahi baituk ikhasi.
Bañan errak astiroki othoitzetan lehenik,
Othoiztea zein baitago hurren plaman etzinik.
Ezen othoizten han diat moldea arrimatu,
Eta lañkoari mintzo natzaiola, moldatu.
Hunek ernaturen darok bihotza othoiztera,
Pensatzean, nolako den, othoizteko manera.
Othoiztekotzat hau dukek preparazionea,
Handik beraz has ezakek heure orazionea.

**OTHOIZTEKO ANTZEA,
OTHOITZ GISA,
OTHOITZ GUZTIEN
AITZIÑEAN
ERRATEKO
PREPARAZIONETZAT**

*Ante orationem praepara animam tuam, &
non sis quasi homo qui tentat at Deum.*

Eccl. 18. 23.

Aphaindurik bethiere ohake othoiztera,
Eztidurien hoala launaren tentatzera.

Othoizteko preparazionea

longoikoa, arren othoi, egidazu grazia,
Othoiztera aphaintzeko arima nahasia.
Ungi kontenpla dezadan ea zer den othoitza,
Eta prepara legeen guardatzera bihotza.
Halakoa egidazu arren, othoi, dohaña,
Ezen eztakit, zurekin mintzatzeko fazoña.

Zer den othoitza

Othoitza da, longoikoa, zure erranen ereduz,
Zerbait zuri galdetzea behar den errespetuz.
Premian gaudeneño da gure egin-bidea,
Deboziona handirekin zure suplikatzea.
Ezin dukegu deus bortxaz zure eskuetarik,
Bañan othoitz onez dugu ardiatsten bertarik.
Zerengatik zu baitzare lanko podoroso,
Zeñak izitzen baituzu bakharrik herioa.
Gizona ere zuk zinduen ezteusetik formatu,
Eta Zerura ailtxatzeko grazia onez dotatu.
Faboreak diotzute ematen aitzinera,
Ezen handik nahi duzu ohorea athera.
Fiñean deusen ere ezta falta zure aldetik,
Bañan hutsak egitentu kreaturak beretik.
Gero gizon biziaren hau da egin-bidea,
Ohore eman diezazun, eta egin eskea,
Haren ordain diotzotzu deus guztiak aithorzen.
Ezen ohoreaz zare hainberze agradatzen.
Baña ordean othoitzaren egiteko bidezki,
Eranen ditudan gauzak behar dire iduki.

Edozein othoitzen kondizioneak

Guri bada mintzatzeko behar da humilltasuna,
Bai halaber arimetan handi aratztasuna.
Ezen etzinduen gizon urgullua aditu,
Bai ordean Publikano humillari barkatu.
Gehiago behar dugu adimendu ernea,
Eta bihotz barrenetik egin geure eskea.
Ezen ezpañez solament ondratzen zaituztenei,
Erantzuki ziñaroen egin iudu batzuei.
Behar dugu gauza bada bidezko esportzua,
Frankoki darokuzula emanen galdetua.
Behingoaz ezbadugu ardiatsi galdea,
Berritz egin behar dugu gauza beraz eskea.
Deusik ezta Zeruetan hain barrena gorderik,
Ematen eztuzun, othoitz onaz agradaturik.
Baldin eta begiratzen baditugu legeak,
Zeñak ifiñi baititu zure Maiestateak.
Akordatzen ez baduzu errekesta gurea,
Hura daite, zeren baita hobe ez aithortzea.

Othoitzaren dibisioneak

Gero zure othoizteko biritxi da moldea,
Bata perfeta da, eta inperfeta berzea.
Perfeta da othoitzaren ordenantza hertsia,

Non begititzen baitire pontuz pontu guztiak.
Inperfeta, non hetarik zeinbait baitu faltatzen,
Nola maizkienik hala bitzaitugu othoizten.
Haukien gero artean bia dire famatu,
Bata jenerala berzea partikular da deithu.
Othoitz jenerala ohi da, non gouzak jeneralki
Galdegiten baititugu, eta ez partikulariki.
Partikulara da berriz, non gauza bereziak,
Galdegiten baititugu aiphaturik premiak.

Othoiz perfetaren legeak sartzeko eta illkhitzeko

Othoitz perfetaren bada hauk dirade legeak,
launa, arren indatzitzu errateko antzeak.
Lehenbizirik kaphaindu behar dugu arima,
Eztirudigun presuna ergel eta ariña,
Gero herstu Imajina Sainduaren oñera,
Geure lagunen artetik illkirik apartera.
Bihotzetik khasaturik gogoeta banoak,
Gero zuregana ailtxa geure bihotz osoak.
Gehiago agur egin behar zaitzu hastean,
Bai halaber othoitzetik illkhitzeko fiñean.
Gurutze sainduaz ere behar gare ziñatu

Bai ur benedikatuaz halaberki hezatu.
Fiñean lurreraturik ahal bezain humillki,
Egin gehar darotzugu orazione debotki.

Othoitz bereko legeak

Othoitzean begiratu behar diren legeak,
Erratera noa, othoi indatzitzu moldeak.
Imajina Sainduaren ethorririk oñera,
Hau da othoitz egiteko behar dudana manera.
Galdegin behar darotzut gauza eskaz dudana,
Gero eskerrak itzuli lehen izatuena.
Behin jeneralez, eta gero partikularez,
Bañan prizipalki ontasun azkenenik emanaz
Errespetuz zu adora, eta lauda debotki,
Eta berze kreaturak gonbida halaberki.
Ethorkizuneko ere egin gerthu agintza,
Eta hastean egiña gero dobla othoitzza.
Gero iaiki behar dugu lur baxotik korteski.
Eta othoitz guztietan hauk guardatu moldezki.

Erran diren legeen berze legeak

Bañan hautan ere berze badirade legeak,
Zeñak baititugu behar, guk iduki gordeak.

Sartze danik behar dugu onzeko gutizia,
Eta othoitzean bethi guardatu khar hankia.
Dohain errezibituez itzul esker frankoa,
Podoreaz orhoitzera bortxaturik gogoia.
Gutziz ere adonatu behar duzu humillki,
Eta perfekzioneerz laudatu handiroki,
Berzeak ere gonbidatu behar tugu hartara,
Zeren zure laudatzeko kreatuak baitira.
Baita halaberki geure eskañi podoreak,
Bai berriz ere doblatu lehen egin galdeak.
Fiñean iaikitzean gorde behar errespetua,
Eta han da othoizteko molde zuk laudatua.

Hauk begiratzen baitugu arrazoin den maneraz,
Rezibituren gaitu zu bekhoki allegeraz,
Hala bada (longoikoa) nahi zaitut othoiztu.
Eta othoitzean lege hauk guztiak guardatu,
Hartarakotz indignerik egiten dut othoizta,
Eznazazula arbuia zeren naizen ezteusa.

**BIGARREN LIBURUAREN
LEHEN PARTEA,**

**OTHOITZ SINPLEEZ,
ETA HETZAZ LEHENIK
OTHOITZ PERFEKT,
ETA JENERALENEZ**

BURU I

Othoitz perfet jeneralki egiñaren, exenplua luzaro

Sartzea

Bihotzari idekirik gogoeta banoak,
longoikoa entzuntzatu ene othoitz lanoak.
Hurbilltzen naiz imajin sainduaren onera,
Ohorea har ezazu arren onen partera.
Zure amoreak gatik agur diot egiten,
Zeren zure izatea darotan iduritzen.
Aithortzen dut ez naizela xahu presentatzeko,
Ur sainduaz xahutzen naiz zure begitarteko.
Belhauriko makhurtzen naiz guztia humildurik,
Ene othoitzza adizazu hobenak barkhaturik.
Gurutzeaz faboratzen duzulako Mundua,
Hel zakizkit Aita, Seme, Espiritu Saindua.

Othoitzza

Bañan nola harturen dut (launa) eskudantzia,
Lehengoaz berze alde orain ere berria?

Galdetzeko dohain eta fabore gehiago,
Izatuez itzultzera esker zordun bainago.
Hanbat ontasunen ordain eztut egin batere,
Eta egin nuelarik ezlizate deusere.
Ezazula othoi beha ene esker gabera,
Ez hain guti ezdeustasun ene baithan denera.
Bañan zeure handitasun xederik eztuena,
Othoi kontenpla dezazu (laun guztien gorena)
Eta eske dagoena emozu beharrari,
Ondra diozula zeure ematen buruari.
Ezen zuk zeronek erran darokuzu, lainkoa,
Galdeturen dugun gauza dukegula osoa.
Ailtxatzen dut bada, launa, zure gana bihotza,
Arren othoi adizazu ene humill othoitza.
Zergatik zuk baitakizu zeren dudan premia,
Hartan bada liberalki zu zakizkit balia.
Presentean aithordazu othoitzten zaitudana,
Eta bethi enetzat on daitekeen dohaña.
Ezen bethi zare puxant, eta aberatz moianez,
Orain aldiz etzaitela unha eskatzen naizenez
Hartarakotz on ibarren isurtzera emana,
Oraingo hau egidazu berzeak berze dohana.

Berrizko othoitza

longoikoa ezta arrazoñ nahi dugun guztia,
Zure ontasuna ganik dugun ardiatsia.

Agien tu desiratzen presuna ez-jakinak,
Kalte baizen ekharriko eztioten dohañak.
Zer nahi den konbeni da ahal handi zurea,
Ager dadin, bai halaber ttipitasun gurea.
Badariak ardiatsi ezbadut galdetua,
Zergatik etzaren aski nitzaz suplikatua.
Hartarakotz berriz ere zaitut, launa othoitzten,
Eta zeure ontasunaz entzutera ertxatzen.
Arren bada isur azu (Monarka liberala)
Lehen eskatu natzaitzun grazia berehala.
Gehiago ezazula froga pazienza,
Gizonena, zeña baita guztiz enea gutia.

Othoitzaren ondoko eginbideak

Eskerrak

Hartarakotz milla esker ditutzula, lainkoa,
Zeren zu baitzare ene kreatzaille goikoa.
Iaioz gero begiratu nauzu perilletarik,
Eta askotan libratu hobenen gathetarik.
Eroz nendin ere nahi zinduen longoikoa,
Bai eta ardiatz nezan plazer sekulakoa.

Ttipidanik sentitut zure dohain handiak,
Zeñak aithortzen baititut zure ganik guztiak.
Kreatura bizi denak deusen eztu faltarik,
Ezen guztiak ditutzu bizi probediturik.
Gehiago iguzkiak lasterretan bideak,
Zure manuz egitentu arratseko luzeak.
Argi-zagi xeheenak ordenantzaz darraitza,
Eta hek eta zeruak gure gatik dabilntza.
Lurak eztu ontasunik non eztiren guretzat,
Ez arranik Itsasoak, bai gizonarentzat.
Finean zure eskua ontasunen bidaltzen,
Behin ere, longoikoa ez ohi da unhatzen.
Esker bada, eta ezagutza darotzut podoreaz,
Zeren faboratu nauzun ontasun fin gabeaz.
Ezen iaio bañan lehen nitzaz ziñen orhoitu,
Eta gurendu orduko ninduzun obligatu.
Hanbat egin darotazu ontasun liberalki,
Non ezin orhoit bainate guztiez hain xeheki.
Gogoa premiatzen dut aurkhitzeko azkena,
Bañan ezin aurkhi dirot ez hain guti lehena.
Ontasunen rezebitzen ioanda ene mendea,
Hartarakotz badagotzu milla eskerren nonbrea.
Millionza beraz, launa, ditutzula eskerrak,
Eta faboratu duzun arenganik aithorrak.

Hala ere pagatzera eznaizela hurbilltzen,
Zure aitzinean (launa) llanoki dut aithortzen.
Kaptibu naiz beraz, eta ezin ninte berzela,
Ezen aithor dut bizia zure ganik dudala.
Arren bada, laun puxanta, haukin guztien aldera,
Ezagutza har ezazu aphurra, onen partera.

Adorazionea

lanko handia, errespetuz burua agerturik,
Eta lur behereraño belhauna makhurturik.
Bi eskuak iuntaturik bulharren aitzinean,
Eta guztiz humilldurik zure begitartean.
Gehiago gorputz, eta arimaz aphaldurik,
Eta zure izatea handi ezagututik.
Fiñean, launa, hondaturik ezteusean barrena,
Adoratzen zaitut lainko laun guztien gorena.
Zuri ekhartzen darotzut ohore handiena,
Nola ere zu baitzare Monarka puxantena.
Ezen zu zarade ene biziaren iabea,
Eta berzek ere dute zure ganik berea.
Zeru eta lurrean ezta halako buruperik,
Kreaturekin gañean zutzaz berze duenik.
Hartarakotzat dagotzu adorazionea,

Zeña baita berzetarik handien ohorea.
Hura da gizon biziak zor darotzun Fioa,
Arren bada ene ganik har ezazu osoa.
Ezen asko aldez duzu ene gañean launtasun,
Eta lehen bizikorik zeren kreatu nauzun.
Zeren begiratu nauzu milla perilletarik,
Hala nola amak haurra errotzekoetarik.
Ezin konda faboreez gero berriz estali,
Gutiena ungi egille aithortzeko baita aski.
Hauk guztiez egin nauzu (launa) zeure azpiko,
Eta obligatu naizen zure Muthill bethiko.
Halarikan utzten nauzu, allegia libroa,
Eta hala nola ez ni guztiz zure esklaboa.
Ezen eztuzu bortxatzen ene libertatea,
Bañan uzten darotazu libro borondatea.
Ordean illki nintela ere zure azpitik,
Borondaterik ez nuke, laun emea, iagoitik.
Zeren den zure azpian hobe muthilltasuna,
Ezen zutzaz lekhorean berzeren launtasuna.
Ezen zure ontasunak dirade hain ioriak,
Itzultzen zaizkitzularik ezagutza urriak.
Zuregana non baitire zordun gizon guztiak
Ematera laudorio ahal bezain handiak.
On hekin bada aldera belhauriko iarririk,

Adoraten zaitut (launa) ahal bezain humillik.
Zeren gatik ene iabe ezten zutzaz berzerik.
Arren bada har ezazu Adorazionea,
laio denak zor darotzun zuzenki ohorea.

Laudoria

Laudatzen zaitut, Iainkoa, neure ahal guztiaz,
Bañan prinzipalki zeure Saindutasun handiaz.
longoiko bat zare, baña gehiago presuna,
Aita, Seme, Espiritu amudios kharduna.
Ailltxatzen dut hedoiara zure izen gotia,
Zerengatik zu baitzare guztiz egiatia,
Ontasun, eta atsegin guztien itsasoa,
Zeñez edaraten baita arima titxosoa.
Lekhu guztietan zare urrun, bai hurbillean,
Egundañotikakoa Zeruen aitziñean.
Nihork etzintuen egin, ezta zeronek ere,
Halaber iraunen duzu zeurenez bethiere.
Hasterik eztuzu: eta finik ere ez izanen,
Egun baten balde duzu mendea estimatzen.
Berzeren ganik eztuzu nihola dependitzen,
Bañan berzeak ditutzu hagoan idukitzen.
Zure izate perfeta ezin daite ganbia,

Ezta niholatan berez partetan Esenzia.
Adimendua ere duzu bethi iratzarria,
Egiten duzula erne gure gañean guardia.
Zure borondatea da amudioz bethea,
Eta gizonei ontasun komunikatzaillea.
Deusik ezta, non eztezan obra zure puxantzak,
Arranoa hain erraxki nola arin illhantzak,
Majeztatez ere zare kiderik gabekoa,
Eta perfekzionetan guztien gañekoa.
Emetasunaren ezin agortu ithurria,
Eta iakintasunaren leiñhurutsu zuzia.
Munduaren egillea baita begiraillea.
Ezin finean aski lauda daite zure izatea.

Berze laudorioa
***Te Deum* eskaraz**

Zu zaitugu, longoikoa, bihotz osoz laudatzen
Eta mundu guztiaren laun puxanta ait-horen.
Iaiotzerik egundañoz eztuzuna bezala,
Lurrak ohoratzen zaitu (Aita zu Eternala).
Zuri bethi dagozkitzu Aingeru Arkanjeluak,
Kerubinak, Serafinak, baita ere Tronuak.
Saindu, Saindu, eta Saindu, munduaren lainkoa.

Zure gloriaz betheak dire zeru, Lur, Itsasoa.
Apostoluen anaiatasun guztiz gloriosoak,
Profetekin konfraria nola laudatzekoak,
Gehiago Martirien armada triumfantak,
Berze sainduekin tuzte erraten zure kantak.
Munduaren bazteretara Eliza da hedatzen,
Zenbat ere baita handi zu ordean aithorzen.
Aita Maiestategaz, eta gloria handiz bethea,
Nola manera berean zure Seme maitea.
Espiritu Saindua du halaber konfesatzen,
Zeruetako konseilluan presuna hirugarren.
Fin gabeko gloriaren, o Iesus Erregea,
Bethiereko Aitaren nola Seme maitea.
Gizonaren libratzeko etziñaden nardatu,
Birjinaren sabelean egitera ostatu.
Bentzuturik herioa berze garratzagoaz,
Eta almaka idekirik lizarrezko dardoaz,
Zure baitan nork baitzuen sinhestea iduki,
Hari ziñotzan Zeruko portalea ideki.
Majestate handiz zaude fin gabeko glorian,
Aita haste gabearen eskuñeko alkhian.
Azkeneko denboretan badugu sinhetstea,
lautsiko zarela zeure iuiatzera jendea.
Belhauriko gagozkitzu isuria begian,

Arren fabora gaitzatzun beharrezko premian.
Bekhatuak gindutzanak zepoan uzkaldurik,
Handik athera gintutzun odola isuririk.
Zure gloria gozaten da asko Saindu aralde,
Egin gaitzatzu gu ere arren hartan partale.
Kaltetik defenda zazu zeure poplu maitea,
Eta zorionez bethe primezazko jendea.
Zuk goberna zazu, eta bai mukurra faborez,
Ezen ezta zuk bezala daidikenik ohorez.
Iguzkiak ez ohi du egun batre klaratzen,
Ohorezki ez baitzare gure ahotan aiphatzen.
Zure izena aiphatzen da eta egiñen sekulan,
Hasta har dezakeguño bizi garen lekhutan.
Egiguzu, longoikoa, egungo egun guztia,
Bekhaturik egin gabe arratsteko grazia.

Arrats aldean laudorio hau erraten baduk. Errakek

Egiguzu, longoikoa, dathorren gau guztia,
Bekhaturik egin gabe pasatzeko grazia.
Duzun othoi urrikari zeure jende gaxoa,
Haren ganik aldaratu gabe begi mansoa.
Esparantza ere badut eztuzula egiñen,
Eta halakotz ahalkek eznauela harturen.

Gonbidatzea berzeak laudatzera

Laudorioak emanik neure antze aphurraz,
Berzeak deitzen tut aharantza laburraz.
Hartarakotz (longoikoa) zuk indazu indarra,
Urruitian ene entzun dadintzat deihadarra.

O gizon egin-bidera alfer eta beranta,
labearen laudatzera ez aizela marranta.
Laster egik kantatzera hik ere podoreaz,
Kreatzaillearen ondrak berak eman antzeaz.
Hogoi eta lau zaharrak ziaudezek zeruan,
Saindu, Saindu, eta Saindu, launa bere Thronuan.
Zazpi puxant Espiritu zutik eskaleretan,
Gorenari laudorio, demogun hañitzetan.
Beherago bederatzi Angeruen herrunka,
Lauda zagun Eternala bethiere kantuka.
Zeru gorek deklaritzen die haren gloria,
Eta berze kreturek eskuaren aldia.
Zuhaitzetan kontenplatzak xori bele guztiak,
Bere kreatzailleari formatzen eresiak.
Ardura duk beharrian oiuhu oilaharrarena,
Atzartzen duela lehoin Prinze animalena.

Lar abreek ziotzatek hari heltzen oihuak.
Baita ureko tormentek ere bere soñuak.
Ondotik ur gañeratuk izurdeak faltatzen,
lainkoaren ohoretan hala dituk dantzatzen.
Laur haizeek ere egin ohi die musika,
Bata kalmatu, eta duk berzeak hasten aldika.
Suak ere harengatik egitentik zarzoak,
Bai halaber gurguraia txirripa mortukoak.
Iauna gatik ziaraunstek dorretarik ezkillik,
Nola muga iakinetan oren mihi gurbillek.
Haren gatik Elizan tuk organoen kantuak,
Baita Aphez kantarien akorduzko tonuak.
Hauk guztiek puxantaren ondra die ailtxatzen.
Zer hari aiz non eztuen hekin balsan laudatzen.
Aire herrietan entzun ezak iborziria,
Hi iratzartzea gatik egiten dik aihia.
Iainkoa laudatzea duk errax gizonarentzat,
Zer hark estimatzen baitu present handiarentzat.
Ea beraz lauda zagun errepikaz Iainkoa,
Eta koplak sainduetan trebarazi mintzoa.
Izarrera ailtxa zagun utzirik berze mañak,
Eta ofizio hartan ahi geure ezpaiñak.
Ohore eta laudorio demogun Iainkoari,
Nola munduaren iabe ezin hillezkoari.

Hunat beraz mendi gorak Liban eta Kaukasa,
Laudoriorz lainkoari egiozue solasa.
Zathoztea zuek ere o Zelhaiak orobat,
Egiozue iaunari laudoriorz khoru bat.
Non zarete oihan, eta alzifredi gorenak?
Eresia eta kopla emotzitzue zuzenak.
Lehenbizi kalitate lanekin harmonia,
Musikazko egizue zerurat aheria.
Zuek ere Maiatzeko xuri gorri iliak,
Emotzitzue iabeari husu koplen aldiak.
Perla bezala airetik iaurtsten aizen ihintza,
Berzeekin konpañian hi ere adi mintza
Hunat lezetako meak, hunat harri biziak,
lainjoaren laudatzera zaikidete guztiak.
Fiñean kreatura mutu, eta are hitztunak,
laun puxantaren laudatzen ematzitzue egunak.

Haukin balsan adizazu ene laudorioa,
Ohore eta Maiestategaz pare gabe lainkoa.
Ezen dago zu ohore guztiez gañekoa,
Bizi den guztia zeren den zure azpikoa.
Hartarakotz gizon, eta Aingeruen iabea,
Arrazoin da lauda dadin zure Majestatea.

Ofrenda

Gehiago ofrendatzen darotzut bizitzea,
Zeña enea ez baita, bañan guztiz zurea.
Bañan eskaintzen darotzut guztiz zeure bezala,
Errendatzeko zerbitzu bethiere leiala.
Hartarakotz har ezazu ene arima zeuretzat,
Eta haren podoreak zeure zerbitzuketzat.
Memorio, adimendu, eta borondatea,
Eta hekin obren zenbat handi baita nonbrea.
Onen partez har etzatzu (laun ona) hek guztiak,
Ontasunez direlarik ezteus, eta gutiak.
Deusik fiñean neuretzat eztut, launa, gordetzen,
Eztarozkitzudan non hek, neurorekin eskaintzen.
Gehiago har etzatzu obra onen partera,
Pena hartuko tudanak hemendik aitziñera.
Gurutzean zegoela nola Seme Sainduak,
Eskani baiterokitzun neke eta travailluak.
Presentatzen darozkitzut nik halaber neureak,
Biziarekin batean izerdi, eta nekeak.
Bañan deuz gutiak dire dagotzun eredura,
Hargatik naiz ez izanez berzerik errenkura.
Neure eskuan nituela munduaren ibarrak,
Elementa, eta argi Zeruetako izarrak.

Guztiak betan nekhazke zure oñen azpira,
Aingeruz inguraturik non zaudezen alkira.
Bañan deusik eztut, eta nerori naiz zurea,
Obrarentzat har ezazu othoi borondatea.

Agintza

Hauk ofrendaturik banu moian handiagoa,
Presenta niezakezu dohain gehiagoa.
Hartarakotz badarotzut sekulako aginza,
Zuri, eta ez berzeri, gordetzeko bihotza.
Zure ganik partituren eznaizela ephetan,
Lurrean bizi nadilla utziko nauzunetan
Zuk onhetsiren duzuna dudala onhetsiren,
Bai gaitzetsiren duzuna, halaber gaitzetsiren.
Zuk manatzen tutzun hitzak nahi ditut obratu,
Eta zure nahiari neurea azpiratu.
Nihoiz galduren etzaitut neure begietarik,
Bañan egonen naiz zure aldera itzulirik.
Fiñean estimaturen zaitut neure gañetik,
Zerengatik bizitzea baitut zure eskutik.
Zure aldean dirade gero gizon flakoak,
Haize sendoaren kontra nola xehe ostoak.
Hargatik zure baithan dut ematen esparantza,

Ez itzultzeko hetara nihoiz neure bihotza.
Beraz lehen ez nadilla orhoit neure buruaz,
Ezen obran emateko neure hitz aginduaz.
Iduzazu othoi, launa, obligazionea,
Zeruetako guthunetan beregainki gordea.
Huneraño izatu naiz promesen hautsaillea,
Bañan izanen naiz orain obrez konplizaillea.
Ahoz ere milla esker darotzut bihurturen,
Eta liberalitate zurea kantaturen.
Har ezazu, othoi, ezin itzul daiten promesa,
Ezen hartan eman nahi dut bizitze ezteusa.

Dobla othoitza

Ea bada (longoikoa) egin bideen aldera,
Ene errekesta zathoz, othoi, aboatzera.
Zeronek nauzu galdean egotera manatzen,
Hargatik natzaizu lehen galdetua eskatzen.
Lehenen gañera othoi indazu Eternala,
Zutzaz ungi errateko okasione zabala.
Ez nazazula arbuia othoi, laun aberatsa,
Bañan indazu frankoki eskatzen naizen gauza.
Ezen dohañik eztuzu bidalduren enetzat,
Hek guztiak halaberki non eztiren zuretzat.

Ea beraz azienda Zerukoen iabea,
Kontentik bidal ezazu kreatura gabea.
Lehen ere zure eskutik aithortzen dut bizia,
Arren orain lauda zazu ez hain gauza handia.
Huneraño egin tutzun dohañez orhoiturik,
Eta dohatsuen obra onez agradaturik.
Zure ontasunen kausaz gehienik ordean,
Ene othoitzza lauda zazu Thronuaren oñean.

Idikitzean

laikitzen naiz beraz, launa, esparantzaz bozturik,
Galdea doratazula aithorturen bertarik.
Zeren agradatzen zaren frankoki emateaz,
Eta gabe den presuna dohañez estaltzeaz.
Hargatik dire probeak othoiztera gurentzen,
Zeren ditutzun ontasun aberatsez bethetzen.
Eta zeren gonbidatzen duzun mundu guztia,
Zuri galde diezazun behar duen premia.
Hartan bada, fidaturik hanbat naiz atrebitu
Neure gabea non zuri baitarotzut agertu,
Arren bada, launa, ene adizazu othoitzza,
Eta bozkarioz bethe ene triste bihotza.
Bethi iduki nazazu zeure esku Saindutik,

Behaztopa ez nadintzat nabillala mundutik.
Ur-benedikatu Sainduz hezaten dut belarra,
longoikoa ikhuzazu arren ene baharra.
Gurutzeaz halaber dut armatzen bekhokia,
Kaltetik defenda zazu othoi ene bizia.

BURU II

Othoiz perfet eta jeneralaren exenplua laburkiago

Sartzea

longoikoa, hurbilltzen naiz zure begitartera,
Milla hutsez kargatua humillki othoiztera.
Lur baxoraño ere naiz belhauriko makhurtzen,
Eta errespaturekin ur sainduaz xahutzen.
Halaber dut gurutzeaz zinatzen bekhokia,
laun puxanta, zu zakizkit arren, othoi, balia.

Othoitza

O longoiko ungi egiten bethi hari zarena,
Libroki aithor ezazu galde humillarena.
Zeronek duzu mundua othoiztera atzartzen,
Eta ematen galdetua ungi bada eskatzen.
Arren bethi indakezu on dukedan dohaña,
Eta beregainki orain galdegiten dudana.

Behingoaz ardiatsten ezpadu berrizko othoitza

Othoiztu zaitudan arren, longoiko indarsua,
Eztatarotazu laudatu ontasun galdetua.
Bekhatoreak zutzaz entzun dadin eztu merezi,
Bete bekhatuen kausaz zeren duzun gaitzetsi.
Hartarakotz faltetarik othoi xahu nazazu,
Eta gero galdetua othoi indakedazu.

Othoitzaren ondoko egin-bideak

Eskerrak

Hartarakotz ontasunen egitera iarria,
Esker itzultzen darotzut iraganez handia.
Lehen eta bizikorik ontasun jeneralez,
Eta manera berean gero partikularez.
Guztiaz ezin orhoit daite ungi ene gogoia,
Bañan bakhotxaz duzula, launa, esker frankoa.

Adorazionea

Berze alde adoratzen zaitut, guztien launa,
Eginbidez lurreraño plegaturik belhauna.
Nola zuri baitagotzu adorazionea,
Hala itzultzen darotzut merezi ohorea.
Arren bada errezibi zazu ene agurra,
Mezprezatu gabe, zeren den emaitza aphurra.

Laudorioa

Laudatzen zaitut halaber neure ahal guztiaz,
Zure perfekzioneak fin gabe ikhusiaz.
Hasterik eztuzu, eta neitzerik ez izanen,
Gehiago zare itsaso ontasun guztiaren.
Izate bat duzu, baña gehiago presuna,
Hargatik laudatzen zaitut, longoiko Hirurkuna.

Gonbidatzea berzeak

Zuek zaituztet halaber gizonak gonbidatzen,
Baita zuek kreatura berzeak iratzartzen,
Iainkoaren laudatzera zathozten bildumaka,

Eta lauda dezazuen elkarrekin koplaka.
Zergatik merezi duen koplak dadin sekulan,
Kreaturak errepausuz iarri diren lekhotan.

Ofrenda

Ofrendatzen darozkitzut on ditudan guztiak,
Eta hetan gorputz, eta arima garastiak.
Gehiago huneraño izan tudan nekeak,
Eta pairatu beharko tudan atsekabeak.
Fiñean neure bizian egin tudan ungiak,
Zeñak obratu baititut zuk emanik graziak.

Agintza

Bañan, launa, deusik egin eztut oraidaraño,
Egiteko non eztudan desira gehiago.
Ezen nola Kristauaren baitut izen goitia,
Obraz halaber nahi dut erakutsi egia.
Promesen konplitzera naiz borxaturen puxantzaz,
Zeru, lurak lekhotzat deiturik segurantzaz.

Othoitzak dobla

Haukin bada ordañetan, longoiko Zerukoa,
Ene othoitza adizazu, eta ikhus ondikoa.

Niholatan ezazula, laun puxanta, permeti,
Nahia ardiatsi gabe hemendik nadin parti.
Hartarakotz, o longoiko, ontasun emaillea,
Presenteko konplizazu arren ene galdea.

laikitzea

Esparantza hartan bada iaikitzen naiz lurretik,
Zure Majestatearen oñen eskabeletik.
Ur benedikatu Sainduz bustirik bekhokia,
Bai formaturik gurutze etsai-izigarria.
Arren bada ene othoitza adizazu Zeruan,
Ta begira nazazu kaltetarik munduan.

BURU III

Edozein Sainduri egiteko othoitz perfet eta jenerala

Sartzea

Saindu handia, indigne naiz mintzatzeko launari,
Hartarakotz zu neuretzat harten zaitut gidari.
Ezen zuri zaitzu eman fabore hain handia,
launa ganik ardiasteko eske zauden grazia.
Arren bada dohatsua nitzaz othoitz egizu,
Eta haran penatsuan zuk fabora nazazu.

Othoitzza

Hartarakotz dohatsua arren Thronu argira,
Ene othoitzza ailtxa zazu launaren beharrira.
Eta insensua ioaten den bezela gañera,
Ene othoitzza ailtxa zazu halaber hedoiera.
Eta ardiatz ezazu galde dudan dohaña,
Haren aithortzeko launak fin gabe du moiana.

Berrizko othoitzza

Dohatsua, aithortzen dut sekulan idekia,
Iduki ohi duzula gure gana begia.
Bai suplikatu duzula enetzat longoikoa,
Bañan eznaizela digne dudan on halakoa.
Hartarakotz, Saindu handia, berriz othoitz egizu,
Eta ene indignetasuna, othoi, istal ezazu.

Othoitzaren ondoko eginbideak

Eskerrak

Milla esker ditutzula orañoko graziez,
Zure faborez launaren ganik ardiatsiez.
Gutziz ere azkenenik inpetratu tutzunez,
Milla esker ditutzula halako ontasunez.
Frogatu dut eznuela othoitz egin banoki,
Zeren galdeak nituen ardiatsi osoki.

Ohorea

Hartarakotz ohoratzen zaitut, Saindu handia,
Ta badut egiteko sekulan gutizia.

Zergatik merezimendu hanbat diren zureak,
Non Elizan baitzaizkitzu ailtxatu aldareak.
Bai halaber imajina suziatuak pintatu,
Zeñak zure kausaz nahi baititut ohoratu.

Laudorioa

Gehiago laudorio gizonpean dagotzu,
Zeña itzala bezala, ondotik baitarraitzu.
Ezen mundu gaixtoaren trebesien artean,
launa bistatik eztuzu galdu bizkitartean.
Ordañez gozaten tutzu Zeruko atseginak,
Eta oñen azpian Zeru begietzten urdinak.

Gonbidatzea

O munduan gorputzetan zauntzatenak,
Aphurtxo bat utzkitzue egiteko gaitzenak.
Mirets etzatzue Saindu handiaren eginak,
Eta laudatzen enplega zeuen ahal eginak.
Ezen munduaz gañetik launa onhetsiari
Arrazoin da derrozuen hitz eder sainduari.

Ofrenda

Gehiago ofrendatzen darotzut zerbitzoa,
Ene podore ttipiak iraun dezañokoa.
Hartarakotz idukazu hala nola zeurea.
Ene ahal eginaren bethiere xedea.
Hitz hauk obretan segurki nahi ditut athera,
Zeren ezagutzen bainaz zordun zure aldera.

Agintza

Halaberki prometatzen darotzut titxosoa,
Zu Saindua zaradela aithor izatekoa.
Bai banaturen dudala zure obren ospea,
Eta zure alde neure emanen bizitzea.
Halaber tudala zure Bestak ohoraturen,
Eta aldare Sainduak maizki bisitaturen.

Othoitza dobla

Hartarakotz dohatsuen batzarrera igana,
Othoi urrikal bekizu beharraren auhena.
Eta ene othoitza launari diozozu presenta,
Pietatez diezadan galdetua errenda.

Hala egizu dohatsu kredit handitakoa,
Eta zeruan zakizkit gertha arartekoa.

laikitzean

Trunpaturen ez naizela sinhetste dut segura
Bañan izanen duzula ene othoitzaz ardura.
Ea beraz gomendioz nihor hartzen duzuna,
Orain aldiz har ezazu premian den presuna.
Eta egizu bedinka zaitzadan hurrenean,
Zurekien mintzatzera itzultzen naizenean.

Halabiz

Othoitz inperfetez

Abisua

Othoitz inperfeta ohi duk, non orazioneak
Ezbaitirade guardatzen guztiz lege zuzenak.
Nola baitugu komunki lurrekoek usantza,
longoikoari premian egiteko othoitzza.
Gañerako othoitzaren zuzen egin bideak,

Esker eta alabantzen gorde gabe legeak.
Othoitz xoillak hartarakotz hemen tiak formatu,
Gañerako iarraikiei eman gabe ostatu.
Lehenik eginen diat hitza jeneralez,
Eta ondoan laburki partikular direnez.
Othoitz inperfetarentzat har ezak konseillua,
Ahalas begiratzeaz perfetaren modua.
Edo ezbaaik hain guztiz gogoratzen antzea.
Berehala konplitzeko eskaz egin bidea:
Eman tudan exenpluez zerbitzadi ordañez,
Perfeta deklaratzeko eskribatu tudanez.
Baldin egin gogo baduk othoitz partikulara,
Jeneralean iduki begirazak manera.
Lehen erratzikek othoitz komunaren puntuak,
Gero partikulararen berret artikuluak.
Galde bakhotxen idukak hala beraz legea,
Aditzera daroagun eman legez gordea.
Othoitzaren egiteko hau duk antze iustua,
Aprendizkoa egiten enplega zak burua.

BURU IV

Othoitz perfet jeneral maizenik ahoan behar direnak

Othoiztxo hauk behar dituk maizkienik ahoan
Artha handirekin beraz har etzakek gogoan.
Lehenik suplika ezak lanko podorotsua,
Galdearen aithortzeko zeren duen eskua.

Iainkoari

Indigneia hurbilltzen naiz humilki othoiztera,
Arren, launa, etzazula burua itzul berzera.
Bañan urrikal bekizu ene triste nigarra,
Eta presenteko handi ikhuz azu beharra.
Faboratzen ezbanauzu deusik ezin dadiket,
Dakizula beraz, launa, faboratzera lakhet.
Hartarakotz presenteko othoi ene galdea,
Lauda zazu hala bada arimaren hobea.
Eta ondra othoi zeure emozu buruari,
Errekesta diozula laudatzen gabeari.

Sainduei

longoikoa othoitzturik bi belhaunen gañean,
Dohatsuak ararteko egitzik hurrenean.
Hire indignetasuna hek die estaliren,
Eta launa ganik nahi gauza ardiatsiren.

Edozein sainduari

Hau duk edozein sainduri errateko othoitza,
Hau erratean Zerura ailtxa zakek bihotza.
O merezi handiz bethe saindu glorioso,
Arren adizazu ene galde premiazkoa.
Belhauriko zaude othoi Tronuaren oñean,
Iainko puxantak fabora nazan behar neurean.
Hartarakotz ertxa zazu ikhusirik beharra,
Eta haren gana ene hel ezazu nigarra.

Saindu gehien othoitztekoei. Othoitzak

Hauk tuk berriz gehienik Saindu othoitztekoak,
Hekin othoitzak ikhuskik behera laburtxoak.

Iesus Kristori

Ararteko lehen dik, Iesus Salbatzaillea,
Hari lehenik egiok beraz heure galdea.
O Iesus Krist gurutzean iuduek hedatua,
Eta Patriarkak linbo belzetik ailtxatua.
Ene gatik khoratu zinen elhor-arantzez,
Bai halaber erdiratu lizar finezko lanzez.
Hareraño naizelarik zordun zure aldera,
Gehiago atrebitzen naitzaitzu eskatzera.
Zuri agertzen darotzut guztiz neure gogoia,
Eta deklaritzen penaz nadukan ondikoa.
Dakizunaz geroz ene hersturaren berria.
Humillaren adizazu arren othoitz larria.

Ama Birjinari salbe

Semearen ondoan tik Amak kredit handiak,
Hari ere egiozik heure othoitz garbiak.
Agur Erregina Ama bihotz emearena,
Eta esparantza Kristau penatu guztiena,
Nigarrezko haranetik zuri auhen tristeak,
Heltzen darozkitzu Eba flakoaren umeak.

Ea beraz lurrekoen Adbokat hautetsia,
Gure gana urrikariz itzul azu begia
Arren partiadan Seme Sainduaren bisaia,
Othoi diezakiguzu erakutsi arraia.
Hala egikezu Andre manso eta ezta,
Ager diezakeguzu zeure esnez hazia.

Abe Maria

Agur Erregiña, agur garaziaz bethea,
Ezen zurekin da lainko gure Salbatzaillea.
Hautatua zu zarade berze emazteen artean,
Nola zure Semea baita gizon guztien gañean.
O Maria, lainkoaren Ama bedinkatua,
Eta Adamen kutsutik garbi konzebitua.
Oren oro zuk dakizu zeren dudan premia,
Orain eta azkenean zu zakizkit balia.

San Iosephi

Hirur garren adbokatzat egik Ioseph prestua,
Jesus Kristok lurrean zela berak Aita deithua.
O San Ioseph Iudeako Seme guztien hautua,
Eta Espiritu Sainduak hala señalatua.

Perillezko itsasoan egiguzu guardia,
Eta Semea othoiztera othoi zaite lehia.

Berzea hari berari

O Iuduen Patriarka guztiz gloriosoa
Ene gatik ertxazazu Seme podorosoa.
Othoiztuko eztuzula badakigu alferrik,
Semeak Aita eztu utzten kontentatu gaberik.

Berze Saindu othoiztekoenei

Laurgarrentzat erxaetzak deitzen tudan Sainduak,
Beharrean bekhatorez asko faboratuak.

Aingeru begirailleari

O aingeru ene gatik bethi gerlan, zarena,
Eta ni iaioz geroztik unhatu etzarena.
Zuk goberna eta guarda nazazu bizitzean,
Ene eskerrak Zeruetan dituzketzun artean.

Patroñ Sainduari

O Glorioso Patroña zeñi ene kargua,
laun puxantak baitarotzu eman berezitua,

Zaren bethi ene gatik arduratsu Kortean,
Dohatsurik non baitzaude hedoi goren partean.

Izeneko Sainduari

Fedez eta leialdabez bethe Aita-bitxia,
Entzuteaz zuk egizu ene othoiz larria,
Eta zeren eske heldu bainaitzatzu premian,
Hura inpetra dezazu, othoi, Zeru argian.

Konfrarietako Sainduei

Zeruetako armadaren, Saindu agintariak,
Konfrariakoen gana itzultzatzue begiak.
Eta urgatz etzatzue zeuen handi ahalaz,
Hautatu direnak zuen banderaren itzalaz.

San Franzesi

O San Franzes elizaren habe sustengaria,
Eta hain ordena debot baten banderaria.
Zeruetan zaren othoi ene arartekoa,
launa ganik ardiasteko gauza premiazkoa.

Santa Barbarari

Ba zu ere orhoit zaite nitzaz Santa Barbara,
Gaitzetarik zuk nazazu othoitz onez aldara,
Eta ardiats diezadazu ontasunen frankia,
Bañan beregainki orain galde dudan grazia.

Bere ofizioko Sainduei

Noren ofizioaz baitut egunoro usatzen,
Zerori zaitut launaren othoiztera behartzen.
Lan berean dihardukat zeñetan zuk munduan,
Enetzat othoitz ezazu, launa bere Thronuan.

Ahaide adiskide salbatuei

Baldin Zeruetan badut ahaide dohatsurik,
Edo adiskide maite hemen ezaguturik,
Zuei nagotzue saildu ahaide adiskideak,
Arren entzun detzatzuen ene othoitz tristekak.

Saindu guztiei

Saindu guztiei balderna ezin kondatuzkoa,
Othoi egiguzu dohain gutzaz orhoitzekoa.
Senioraletasun bat da lurrean gure bizia,
Hartarakotz egiguzu bethiere guardia.
Ardiats diezaguzu Zeruko konpañia,
Gaitzik ezten herriaren ikhusteko grazia,
Egun batez launa, eta zu geroztik lekhuan,
Pagurik lauda zaitzagun zuziz berreginduan.

BURU V

Othoitz inperfet partikularez, eta lehenik ehun oro errateko direnez

Gure Aita Zeruetan glorioso zarena,
Errezpetuz aipha bedi lurrean zure izena.
Egiguzu Zeruaaren ardiasteko grazia,
Eta bethi egin bedi zure saindu nahia.
Egun oro behar gare iguzu mantenua
Eta guk berzeri legez hutsen barkhamendua.
Eztezazula permeti tenta gaiten borthizki,
Bañan gaitzatzu kaltetik hastanduak iduki.

Hau duk Iesus Kristo berak irakatsi othoitzza,
Zeñetan zazpi prinzipal gauza ohi baitauntza,
Berzeak bill ziaitezkek hunetara erraxki,
Hauk gogoan har etzakek ahal bezain debotki.

Orenak iotzean

launa grazia egidazu othoi heldu orena
Hobeki iragatzeko, ezen pasatu dena.

Harran egin tudan hutsak barkha dietzadatzu,
Eta eskerrak bizia luzatuaz hartzatzu.

Berzea

Hanbatetan, laun puxanta, darokitzut eskerrak,
Zenbat moment bizitzean ioan baitzaizkit alferrak,
Ene ephea laburtu da hanbatez gehiago
Zenbat hegaldatu baitzait orenik aitzinago.
Damu eta dolore dut ioanak ezin deithuaz,
Eta zure zerbitzuan ezin enpleguatuaz.
Hartarakotz (laun puxanta) egidazu grazia,
Zein ene bizitzearen baitzare espensaria.
Pasa dezadan heldu den oren hegaldaria,
Iragana nola nuken enpleguatu nahia.

Argi ezkillan

Argitzen da, longoikoa, aditu dut ezkillan,
Gau guztian egotu naiz allegia ni hilla.
Nekera iaiki behar dut eguna da hartako,
Arren ene obrak diren zure ohoretako.
Duzula esker iraganez oraingoez ohore,
Ethorkizunekoetan indakezu fabore.

Egu erdian

Egu-erdia dela hara non darauntsan ezkillak,
laikiz geroko dohañez ditutzun esker pillak.
Egizuzu gehiago hunik arrats artean,
Zure faboreak diren gu gaxoen gañean.
Esker eta laudorio nabartzean illhuna,
Zuri, launa, itzultzeko iraganik eguna.

Arrats ezkillan

Huna non den, longoikoa, arratsaren soñua,
Esker eta laudorio zaitzula bihurtua.
Ezen zuk guardatu nauzu asko perilletarik,
Are nik dakidan baño gehiagoetarik.
Hanbat beraz duzula esker ungi egille handia,
Zenbatetarik guardatu baituzu ene bizia.

laiki ondoko egin bidea

longoikoa barkhamendu eske nago hobenez,
Iragan den gau belzean egin nituzkeenez.
Gutziz barkhamendu eske nagotzu handienaz,

Gehienikan bekhatu doloratzen naizenaz.
Urriki dut eta damu hain itsuski faltatuz,
Eta aithortzen dut hutsa, neronek konsentituz.
Hartarakotz sekulako darotzut hitz segura,
Hartara ez erortzeko ez berze behkhatura.
Klara zazu arren, othoi, ene adimendua,
Iakiteko zein hutsera naizen inklinatua.
Erortzetik guarda nadin hemendik aitzinera,
Baita orobat berzetan ez behaztopatzera,
Dohain hura egidazu munduaren iabea,
Zure grazian bizitze fiña dadin enea.

Gehiago naizelarik indigne eskatzera,
Allabañan ausartzen naiz berzeren galdetzera,
Zure ontasunek naute hartara gonbidatzen,
Zeren izatuez baitut gehiago galdetzen.
Arren bada, longoikoa, indatzitzu graziak,
Ene kalitateari dagotzan bereziak.
Arimari dagotzanak lehen eta bizirik,
Eta gero gorputzaren ontasunak ondotik.
Zeren fiñean bainuke, longoikoa, premia,
Liberalki zuk indazu arren hura guztia.
Gehiago egidazu fabore halakoa,
Ofizio dudanean ungi nekhatzekoa.

Orain danik iguzkia estaldadin artean,
Gaizki enplegatu gabe momentik bitartean.
Fin onera gidatzazu gogoeta eneak,
Hitzak, obrak, bai halaber gorputzaren guneak.

Bizkitartean dituzula milla esker lainkoa,
Zeren grazia darotazun egin iaikitzekoa.
Zeren begiratu nauzun etsai krueletarik,
Bizia eztarotaten arrapatu lotarik.
Baita zeren darotazun luzarazi bizia,
Konfesioz sendatzeko arimaren zauria.
Hauk guztiak aithortzen tut zure esku xoilletik,
Ezen deusik ezta egin hemen ene aldetik.
Zeren sensuen egotu diren ofizioak,
Hala nola sepulturen denaren mianbroak.
Hautzaz era gehiago grazia lehengoaz.
Milla esker ditutzula, launa, ene ahoaz.

Etziterako eginbidea

launa, zuk dietzadatzu othoi barkha hobenak,
laio ninzen egunetik huneraño eginak,
Barkha dietzakidatzu konfesatu gabeak,
Bañan guztiz iaikiz gero hunako huts-arteak.

Ezen hanbat ofensatu zaitut lainko bizia,
Kondatzera non ezin hel baitaite ene mihia.
Ahalaz premiazko orhoit daidin gogoia,
Bihotzera egor dazu arrai bat longoikoa.
Eta gero, o Monarka pietatez bethea,
Ene falta itsusien ahantz azu nonbrea.
Ezen urriki handi dut egin tudan guztiez,
Guztiz egungo eta berze konfesatu gabeez.
Neure falta aithortzen dut zure begitartean,
Bai halaber Zeruetako saildu guztienean.
Konfesio diodala Aphezari eginen,
Zuri darotzut, lainkoa, segurantzaz agintzen.
Bai konplituren tudala hark ordenatu penak:
Eta hobeki biziko eramaneen egunak.
Arren bada ikhusazu ene nigar istilla,
Eta ez nazazula surat egotz nola sukhillia.
Aitzitik dietzadatzu, othoi, barkha gaizkiak,
Bendeku eske Zeruari dagotzan oihutiak.

Gehiago, o izarren higitzaille handia,
Gaua ungi pasatzedo egidazu grazia.
Etsaien guarda nazazu enganioetarik.
Haizatzen tutzula urrun ene bazterretarik.
Espiritu dohatsuez bethe zazu etxea,

Gau guztian nadukaten gomendioz gordea.
Iguzkiak duenean inguratu mundua,
Goiz aldean itzultzeko milla eskerren kantua.
Bañan, launa, oraiñ ere ditutzula eskerrak,
Eta egun izan tudan ontasunen aithorrak.
Ezen goizetik argitu zintuen ene begiak,
Khasaturik munduaren hedoi tristagarriak,
Eskañi darozkidatzu milla milla atiza,
Zure iauntasun handia non nezaken zerbitza.
Beregain esker darotzut neure ahal guztiaz,
Egun egin darotazun prinzipalen ungiatz,
Bai halaber gañerako berze dohain handiez,
Hala nola ohroituez, orobat ahantziez.

Egunaz edozein orduz

O longoiko argiaren izpiz banatzaillea,
Ene othoitzaren arren, zaren entzuntzaillea.
Eta egidazu, launa, egungo egun guztia,
Bekhaturik egin gabe pasatzeko grazia,
Gauaren ondoan duzu erakhartzen eguna,
Obra onetan nekha dadin mundura den persuna.
Arren bada argipean egoitza hautauta,
Othoi argi zazu ene ilhun adimendua.

Gehiago laun puxanta egidazu grazia,
Obra onetan arrasteko egungo egun guztia.

Gauaz iratzartzen deneko

longoikoa, bere gerlak illhunbeko Prinzeak,
Gauaz prinzipalki egin ohi ditu dorpheak.
Arren begira nazazu haren behatzetarik,
Biziaz gabe eznan, prestatu gabetarik.
Ingurutik khasa zazu espiritu herrosa,
Deskarga eztezadan aiherkunde hirosa.
O Iesus, Apostoluak gauaz iratzarria,
Etsai gaixtoari egin ziozoten guardia.
Presunaren haragia zela guztiz flakoa,
Eta espiritu gure etsaia xoill sendoa.
Arren bada egidazu, launa, hanbat fabore,
Etsaiak eztuen ene zauritzeko podore.
Bañan itzul daitekeño munduaren zuzia,
Othoi gathea iduki diozozu hersia.

Lana hastean

longoikoa beha zazu arren ena lanera,
Eta faboreak isur tzaztu ene gañera.

Zure faborea gabe deus ezin dirot egin,
Niri laguntzeaz othoi har ezazu atsegin.

Lana aitzinatu eta

Huneraño ekharri dut lana zure moianez,
Grazia egidazu zure fiñatzeko dohañez.
O entrepresa sailduen xuxen gidatzailea,
Arren othoi fineraño gida zazu enea.

Akhabatu eta

Duzula esker, Eternala, obra akhabatzean,
Zeren hagoan iduki nauzun bizkitartean.
Milla eta gehiago zaitzula esker bihurtu,
Zeren ene lana duzun fiñerano gidatu.

Etzetik illkhitzean

longoikoa gidatzatzu arren ene urratsak,
Ustekabez har eznazan ibill bidean gaitzak.

Bidean harakoan

laun handia, arren othoi zuk indazu grazia,
Nora gogoz illkhi bainaiz noan salbo bizia.

Hara denean

Huneraño gidatuaz ditutzula eskerrak,
Bihurtzeko indatzitzu othoi bide lasterrak.
Eta zeñen gatik illkhi bainaiz othoi grazia,
laun puxanta, egidazu dagidan beharkia.

Etxera bihurtzean

longoikoa hunerano zuk ninduzun gidatu,
Etxerano ere othoi akonpañña nazazu.

Etxera eta

Milla esker ditutzula Zeruaren lainkoa,
Grazia egin darotazu etxera itzultzekoa.

Salutanzia ordinariora

longoikoak dizkitzula muga guztiak hautuak,
Zuri ere dizkitzula halaber dohatsuak.

Inkuntruetan

laun puxantak hel zaitzala helerantza onean,
Baita zu ere halaber zori onez bethean.

Konbersazionean sartzeko

longoikoa hel nazazu prestuen batzarrean,
Eta sartzetik nazazu guarda gaixtoenean.
Ezen prestuen balsan dut bizia hobeturen,
Eta gaixtoen artean halaber gaixtaturen.
Ea beraz sar nazazu prestuen solasean,
Zure izena ofensatzen non ezbaita hitztean.

Othuruntza aitzinean

lainko probeditzaillea iauts zaite mahañera,
Aitzineko ianharien othoi bedinkatzera.
Guarda zazu biandaren perilletik gorputza,
Ontasun haren dizudan frankoki ezagutza.

Othuruntza ondoan

Esker duzula lainkoa asko eta hunetzaz,
Zeren saziatu nauzun bakezki othuruntzaz.
Arren hura konplitzeko egidazu grazia,
Zergaik gorputza baita ianhariaz hazia.
Zuri podoreaz, launa, bihurtzeko ohore,
Arren haren konplitzeko zuk indazu fabore.

BURU VI

Elizan sartze eta illkhitzekoak

Elizarakoan

launa, Elizara gida tzatzu ene urratsak,
Zuri bihotz xahu batez egiteko othoitzak.

Etixerakoan

laun puxanta, Elizatik itzultzen naiz etxera,
Orhoit zaite arren ene othoitza laudatzera.

Elizan sartzean

Ahalkerekin sartzen naiz, launa, zure tenplura,
Arren idukazu ene errekestaz ardura.

Elizatik illkhitzean

Illkhitzen naiz (laun gorena) zure etxe saindutik
Iduki nazazu othoi bethi zeure eskutik.

Illharrietan sartzean eta illkitzean

Defuntu doloratuak purgatzeko kharrean,
Arren, launa, ematzitzu errepausu hotzean.

Ur bedinkatua hartzean

Ur benedikatu sainduz bustitzen dut belarra,
longoikoa, ikhuz azu arren ene beharra.

Zinatzean

Gurutzearan merkak du defendatzen mundua,
Hel zakizkit Aita, Seme, Espiritu Saindua.

Iainkoari agurra

Agur diot longoikoa, zure iauntasunari,
Othoizteko zuk emozu khar ene bihotzari.

Trinitateari

Hirurtasun Sakratua, zuri khurtzen natzaitzu,
Behar guztietan othoi zuk fabora nazazu.

Gorputz sailduari

Zuri egiten darotzut, laun handia agurra,
Errezibi zazu othoi ene ohore aphurra.

Gurutzefikaren aitzinean

Ene gatik gurutzatu ziñen Kristo noblea,
Zure gatik ondratzen dut eman ziñen habea.
Hartarakotz egidazu, lainko Semea grazia,
Zure odol sakratuaz ungi nadin balia.
Eta zeure oñhazeen othoi orhoitzapena,
Sar diezadazu, gaitzets dezandantzat hobena.

Ama Birjinaren imajinari

Zurea dut satutatzen Birjina Ama itxura,
Arren Zeruetan ene idukazu ardura.

Edozein sainduri

O Dohatsu hañitz nekez gloria irabazia!
Ohoratzera naiz zure tenitu iduria.
Bergia arren idukazu ene gatik ernea,
Beharretan othoizteko ontasun fin gabea.

BURU VII

Orenetako othoitzez

Abisua

Othoitzaren egiteko Eliz-Amak denbora,
Ordenatu du, lainkoa noiz dezagun adora.
Denbora da propioa pena prinzipalenak,
Jesus Kristok suportatu zitueneko orenak.
Matutina, prima, tertia, sexta, nona, bespera,
Konpletekin hersten dire zazpi orenen nonbrera,
Davitek zuen lainkoa hanbatetan laudatzen,
Egun oro, eta Elizak lege hura guardatzen.
Lehenago goiz aldetik kondatzen zen orena.
Gau egunekin erditik orain egiten dena.
Oren hetan billtzen dire Aphezak kantorerara,
Zu ere berez zaitezke norabait apartera.
Mundu bazter urrunetan launa dute laudatzen,
Zu ere usa zaitezke koplaxo bat erraten.
Haste eta fiñatzean Jesus Kristo humillik,
Berze dohatsuetarik ararteko eginik.

Errazu Arrosario gero denborakoa,
Galdetzen duzula gauza zeure beharrekoa.
Trabailu da erratea zazpi Arrosario,
Hiruretan pasatzeak eztu guti balio.
Goizean, egu-erdian, arratsean azkena,
Othuruntza aitzinean ordean da hobena.
Gañerako orenetan orenaren soñua
Entzutean, aski daite koplak baten kantua.
Oren bakhotxeko koplak ikhusazu berezia,
Eta buruan hartzera mugaz zaitte lehia.
Ikhuskitzu bada nola dauntzan eskribatuak,
Kantatzera orhoit zaitzan orenaren soñuak.

BURU VIII

Orenen aitziñeko eta ondoko othoitzak

Oren bakhotxaren bada debotki aitziñean,
Ziña zaite egoteko zeure eginbidean.

* * *

Gurutzearen senaleak guardatzen du mundua,
Hel zakizkit Aita, Seme, Espiritu saindua.
*Mintza zakizko Iesusi gero sarri hunela,
Ararteko lainkoari egiten diozula.*

* * *

Billdots emea zure gana allxatzen dut bihotza,
Pazientki adizazu arren ene othoitzza.
Nihola ere eznaiz digne zurekin mintzatzeko,
Faltatik libra nazazu digne errendatzeko.
Eliza da oraiñ billtzen orenen kantatzera,
Haren othoitzaren balsan beha zazu enera.

*Errak gero kopla debot muga hartako dena,
Halaber haren ondoan othoiz Arrosarena.
Eta akhabatu bezain sarri orazionea,
Errateko duen hau duk othoitz labur berzea.*

* * *

Zuk dakizu longoikoa, zeren dudan premia,
Hartarakotz pietatez zu zakizkit balia.
Presentean zuk indazu othoizten zaitudana,
Eta bethi on dukedan liberalki dohaña.

*Gero ahoz deklarazak zeren duen premia,
Eternalak emateko zabal dezan erhia.
Alltxatzean berzetxo hau eztu behar ahantzi,
Heure othoitza akhaba dezakentzat moldezki.*

* * *

Eliz-ama egotu da, launa, zure laudatzen,
Ohala laudoriotan banintz partizipatzen.
Kristiana du Elizaren faboratzen otoitzak,
Arren fabora detzatzu, othoi, gure bihotzak.
Pasione sainduaren egin dut orhoitzapen,
Azkeneko orenean faborera zathozen.

BURU IX

Oren beretako othoitzak aitzinean bethi

Gurutzearen señaileak. Billdots emea

Matutina gau-erditsu inguruan hartua,
Zuhurtzia Aitarena egia ezagutua.
Diszipulu propioek etsaiei largatua,
Eta diruz erosirik lудuek penatua.
Indazu zure ondotik ibilltzeko donua,
Bistatik zu galdu gabe salbatzaille iustua.

*Zuk dakizu eliz-ama
gurutzearen billdots emea*

Prima zela argi alban iujearen etxera,
Ioan zintuzten lekhukoez gaizki akusatzeraz.
Bi eskuak gibelean lothurik zehatzera,
Eta bisaia ederra thuka desbistatzera,
Iesus Kristo, khexa zaite ene faboratzera,
Eta bekhatuen gathe loditik libratzera.

*Zuk dakizu eliz-ama
gurutzearen billdots emea*

Tertia da, zortzi oren luduek oihuari,
Eman zioten zu itza ziñakizkon zurari.
Tresna ederrak ere iauntzi eskarnioz soñari,
Bai arantzezko khoroa buru sakratuari
Salbatzaillea egidazu batre afruntuari.
Eznarraion zu bezala bañan sofritzeari.

*Zuk dakizu eliz-ama
gurutzearen billdots emea*

Sextan hameka orenetan zinen gurutzeratu,
Eta saihetseko ohoiñ bien pare juiatu.
Egarria ere zitzaitzun kheldez miñaz hezatu,
Bekhatuen khentzaillea hala zinen penatu.
Eta zu ziñen munduko atseginez burlatu,
Hek nik ere, laun puxanta, nahitut mezprezatu.

*Zuk dakizu eliz-ama
gurutzearen billdots emea*

Nonan bi orenen mugan bere Aitari arima,
Gomendaturik hill bazen: hauzen bada lastima.
Lanzak erdiratu zuen saiheits iustuarena,
Lurra khiritu zen, eta gau billhatu eguna,
Argiarekin obratzen zuk duzu gau belzena,
Present egidazu othoi fin on baten orena.

*Zuk dakizu eliz-ama
gurutzearen billdots emea*

Besperetan irautsi zen Iesus bade goratik,
Ioseph Arimathiarra konjia eskaturik,
Biziaren emaillea hala ioan zen mundutik,
Eta ahoz gora egon gero sorho gañetik,
Zure gorputzaz izan zen artha zaurthuz geroztik,
Eneaz halaber duen norbaitek hill ondotik.

*Zuk dakizu eliz-ama
gurutzearen billdots emea*

Konpletetan Aromatez gantzuturik hobira,
Ioseph eta Nikodemek eman zuten berrira.
Orduan zen egietan frogatu eskritura,
Historia aiphatzean nork eztuke latztura,

Berzekin diezadazu ontasun hau begira,
Ene gorgutza eraman dadin saindu hobira.

Zuk dakizu eliz-ama.

BURU X

Meza Sainduaren ungi entzuteko abisua

Deusik iakin behar badu giristino presunak
Gutziz Meza sainduaren entzuteko athunak.
Hemen bada irakurtzak hitz gutitan emanak,
Hirur lerroetan hirur misterio dauntzanak.
Aphezaren akziona lehen eta bizirik,
Zer signifikatzen duen gero haren ondotik,
Hirur garrenean gero othoitz ereduakoa,
Ontasunen iabeari humillki egitekoa,
Aldarean egiokek Aphezari guardia,
Edirenen duk dutela xoill akordu handia.
Aksione luzeago bada aphezarena,
Ezen bakhotxeko koplak eskribatua dena,
Bethiere doblazakek Aphezak aldarean,
Misterioa osoki akhabatu artean.
Bakhotxean hala bethi egikek errekesta,
Eta miserioaren eredu adi eska.
Lehenik bada egikek gauza haren galdea,
Eta gero nahi duken dohañaren eskea.

Arrosariokoaren eredura othoitzza,
Denboren araez egin beharko duk bakhotxa.
Meza aitzinean, eta ondoan longoikoa,
Othoizturik, konplitzeko eginbide osoa.
Erran misterioetan ago abertitua,
Begiratu behar dela ia aiphatu modua.
Meza saildua entzuteko debozinez arterik,
Ene ustez aurkhitzea gaitz duk hobeagorik.
Bañan sakrifiziotan bata duk jenerala,
Eta berzea duk berriz meza partikulara.
Jeneralean othoizten duk launa jeneralki,
Eta partikularean berriz partikularki.
Gehiago aurkhitzen duk edozein ordukoa,
Denboraz gobernaturik baita denborazkoa.
Edozein ordukoa duk zerbaiten galdetzeko,
Orduko beharrak zertzaz baitau premiatuko.
Eta meza denboraren ereduko saildua,
Duk denboren eredura othoizteko Zerua.
Berze Meza ere baduk debozinezkoa.
Debozinezko Meza deitzen diat saildua,
Zer nahi den lainkoari galdetzeko donua.
Meza haukin hain duk, handi eta hanitz nonbrea,
Nola gauza zeñez egin baiteiteke galdea.
Obligazionezko deitzen diat sakrifizia,

Gauzen eredu othoitzten noiz baita laun handia.
Nola Bazko egunean hilletarik bitztua,
Ene arima faltatik biz resusztatua.
Meza sailduak ohi tuk obligazionezkoak,
Batzuk Igandetakoak berzeak bestetakoak.
Bi fazoñez gehiago besta burutakoak,
Edo lainkoaren, edo sailduen izenekoak.

BURU XI

**Meza bereko othoitzak bethiko,
Iesus Kristoren biziko
misterioen eredura.
Lehenik Gristino nahien
Mezakoak lainkoari**

Errakek hemen *Sinhetsten dut*

Sakristia barrenetik illkhitzean Apheza.
Orhoitzen naiz iausti zela zure Seme bakoitza,
longoikoa adizazu arren ene othoitza.

**Eskadi hemen nahi duken gauza,
eta egik nahi duken Saindua ararteko**

Aldarera igaten da lagunak aitzinean,
Iesus launa ere igan zen Hierusalema haurrean,
launa, fabora nazazu narraion oñhatzean.

Eskaleren oñean da barkhamendu eskatzen,
Eta Iesus gure gatik tenpluan presentatzen,

Bai legea konplitzeko Ama purifikatzen,
Neure hobenen natzaitzu barkhamendu eskatzen.

Aldarera gero sartzen da respetuz betherik,
Iesus gure gatik hasi zen nekean gazterik.
Grazia egidazu ordain sofritzeko nekerik.

Gero aphezak egiten du gure gatik othoitza,
Baita Iesusek orobat tenpluan, eta ez hotza,
Arren beharraz fabora zazu ene bihotza.

Lekzioak naturazko legea du merkatzen,
Iesus-Krist enplegatu zen haren ere konplitzen,
Iainkoa lagun zakizkit hura obretan ezartzen.

**Erratzik hemen hamar manamenduak,
Edo berze naturazko
legearen manuak, nola
Obra miseriakordiazkoak,
edo berze manu thailuak,
Behin batzuek gero berzeak**

Liburua aldatzen da gero berze partera,
Eta iuduen artetik legea jentillenera,
Iaun puxanta ez nathorren haren arbuizatzer.

Ebanjeliak erran nahi eskribuzko legea,
Graziatzkoarena da orobat señailea,
Haren konplitzeko othoi indazu faborea.

**Erratzik hemen Elizaren manuak,
edo Sakramentuen alderakoak,
edo berze lege graziatzkoaren manuak,
Ebanjelia erraten den bizkitartean**

Pakearen gañetik da Hostia ofrendatzen,
Eta lesusek Aitari bizitzea eskaintzen,
Halaber diot nik ere neurea ofrendatzen.

**Giristinoen Mezako othoitzak
lehen partekoak**

Lababotik per omnia seculara artean,
Erraten da Iesus zela nekhatu barurean,
Iainko ona abstinentzia indazu bizitzean.

Per omniatik sartzen da Apheza Santusera,
Baita Iesus desertutik Hierusalema hilltzera,
Zure gatik zer nahi den nathorren pairatzera.

Santusean ixilldurik *mementoan* da sartzen.
Baita Iesusek tenpluan bere Aita othoizten,
Bizien faboratzeaz zaitut launa ertxatzen.

Bi-garren partekoak

Gero konsekratzen ditu ogi eta arnoa,
Deklaratzen da Kristoren triste afal ondoa,
Eta han edireten da gure arartekoa,
Gaitzetik onera ene truka zazu gogoia.

Bi eskuez Hostia du aireraño altxatzen,
Iesusen Martirioa darozu gogoratzen,
Lagun zakizkit lainkoa lurrari apartatzen.

Beheraturik sarten da bi-garren *mementoan*,
Iesus ere Patriarken libratzera Linboan,
Libratzatzu penatuak labe purgatzekoan.

Tresnek erran nahi dute zerbait bere aldetik,
Burlaz zutela Mesia berregindu soñetik.
Khen ezazu bengantzaren desira bihotzetik.

Hirur garren partekoak

Erakusten du Hostia berriz kalix gañetik,
Erran nahi iaiki zela Iesus hillen artetik,
Indazu othoi grazia illkhitzeko hutsetik.

Errak hemen *Gure Aita Zeruetan zarena*

Hirur zathi egiten du konsekratu Hostia,
Baita Kristok eman zuen hanbatetan ogia,
Sainduen bizien, ene partez har ezazu guztia.

Bi Hostia puskak ditu gero hartzen eskura,
Erran nahi du laun ona igan zela zerura,
Niri ere egikedazu, othoi grazia hura.

Gero launa ez naiz digne dio dolorosoki,
Eta Hostia du hartzen ahal bezain humillki,
Gogoz nik ere hartzen dut ahal bezain xahuki,
Egidazu grazia bethi hurbilltzeko digneki.

Laur garren eta azken partekoak

Itzultzen da liburua gero berze partera,
Iuduak noizbat ethorriren dire konbertitzera,
Ni ere noizbat nathorren bizia hobetzera.

Komunikatu ondojo othoitzza da erraten,
Berriz iaustiko dela du Iesus Krist seÑalaten,
Zuri naitzaitzu, lainkoa, ordukotz komendatzen.

Itzultzen da gero Apehea eskuÑeko partera,
Ebanjelio saildua debotki erratera,
Iesusek eramanen tu onak zero ganera,
Hel nazazu, longoikoa, hetarik izatera.

**Erratzik hemen gizonaren
lau azken fiÑak**

Halabiz

BURU XII

Berze mezeteko othoitzak

Mezarakoan bethi

Debozinez entzutera noa Meza saindua,
Arren zutzaz enea biz othoitza laudatua.

Etxerakoan Mezatik

Meza saindua entzun dut, lainko podoroso,
Zeren galde egin baitut hura indazu osoa.

Edozein orduko mezaren aitzinean

longoikoa hurbilldu naiz indignerik tenplura,
Zure maiestatearen ondartzeko lekhura.
Errezibi zazu ondra emana borondatez,
Eta faboreak isur esku liberal batez.
Zure semearen gorputz sakratuaz lainkoa,
Ohore handia duzu guk probetxu askoa.
Izen goiti bia ditu guztiz laudatzekoak,

Zeñetarik atheratzen baititugu gozoak.
Sakrifizio Sakramendu biak gauza handiak,
Non ezin baitetzakegu doiki itzul graziak.
Sakrifizioz agertzen da handitasun zurea,
Zeñen baituzu laudatzen ordain othoitz gurea.
Sakramendua arimaren da hazteko ogia,
lanhari hartzen dugula Semearen lohia.
Hala nola lehenago Salomonen tenpluan,
Sakrifizio odolsuak eder ziren orduan.
Altxatzen baitzen ohore prinzipalki zurea,
Eta gero ardiasten zeñek bere galdea.
Meza saildua halaber da Kristauen artean,
Zeña presentatzen baita orduko fin berean.
Seme benedikatuaren preziatu lohia,
Eskaintzera goazkitzu guztiz dohain handia.
Egitera ere goaz haren penez aiphamen,
Arren unha etzaitela gure othoitzak entzuten.

Meza berean

launa misterio haukin kontenplazionetan,
Ene othoitzza lauda zazu arraiki Zeruetan.
Zure borondatea da garelarik munduan,
Bizi gaiten ditugula gogoetak Zeruan.

Izanen duzu othoitzen laudatzeko ardura,
Baldin onhetsten badugu bizitze molde hura.
Hartarakotz Zeru lurren Errege aberatsa,
Akorda ezazu arren ene triste othoitza.

Meza ondoko

longoikoa, deus eztela elizak du sinhesten,
Semearen ordañetan non eztuzun ematen.
Ofrendatu darotzugu haren lohi saildua,
Bai halaber presentatu odol baliotsua,
Memorio egin dugu gurutzeko ofrendaz,
Sakrifizio odolsua figuraturik Mezaz.
Hill beharrek emaitzatik batre handiagorik
Ezin egin dezakete, hartan ezta dudarik.
Ea beraz Semearen merezira, lainkoa,
Beha zazu, eta entzun gure othoitz lana,
Gloria biz eta ohore Aita Seme bientzat,
Bai halaber Espiritu graziatsuarentzat.

Ordu iakin Mezetako abisua

Ordu heronek iakiñen Meza berezientzat,
Erregela ematea xoill gaitz duk hanbatentzat.

Hartarakotz molda zakek othoitzza halakoa,
Egun berari egonen zaion bezalakoa.
Ezen prtikularen duk ematea kontua,
Xoill gaitz bortxaturik ere nihork bere burua.

BURU XIII

Obligazionezko mezetako othoitzak. Eta lehenik igandetakoak Meza aitzinean

Prestatzen naiz, longoikoa, entzun behar Mezara,
Ethorririk Parropia neureko Elizara.

Bai halaber entzutera pregario Sainduak,
Baita ikhastera barur, eta Besta buruak.

Hartarakotz zuk indazu konplitzeko grazia,
Zeren gatik hartu baitut ethortzeko astia.

Aithortzen dut handiroki naizela tenitua,
Baldin exkusa ezbadut ona eta iustua,

Besta eta Igandetean hunat bide egitera,
Eta gorputz Sainduaren Bazkoz rezebitzera.

Baita eri naizenean Apheza abisatzera,
Sakramendu menekoak dathordan ematera.

Hilltzen bainaiz ere hemen behar dut sepultura,
Sortzen denak ere hemen hartu behar du ura.

Ea beraz zuk indazu, longoikoa, grazia,
Eginbideen konplitzeko behar dudan guztia.

Guxtiz ere presentean entzuteko donua,

Zure semeak ordenatu Sakrifizio saindua.
Prinzipalki gertha dadin zure ohoretako,
Eta gero arimaren probetxu handitako.

Meza berean

O longoiko beregainki gizonaz arthatsua!
Eta sei egunez nekha dadilla manatua,
Zazpi garrenean gero aurkhi dezan astia.
Faboreez itzultzeko zuri esker handia.
Hartarakotz bada, launa, egun zuk berezian,
Ene eskerrak entzuntzatzu glorioso alkhian.
Galdetzen darotzudana halaberki indazu,
Eta izandun zarela, othoi erakuts azu,

Meza ondoko

longoikoa, konplitu dut ustez eginbidea,
Zeña baita Igandean Mezaren entzutea.
Ene ganik falta dena, othoi estal ezazu,
Eta eskatu dohaña grazioski emazu.
Gehiago egun hemen eman dudan ordua,
Othoi estima ezazu ungi enplegatua.
Eta meza entzunaren berthutez gaitzetarik,

Guarda nazazu etsaiak preparatuetarik.
Eta gehiago zeren egun baitut galdea,
Arren eztadukazula eman gabe gordea.

Prozesioneko

Gurutzeraren bandera aitzindari harturik,
Eta zure izen saindua faborera deithurik,
Kantaz eta eresiaz Aphezak hurrenean,
Laiekoak oñhatzetik goaz Prozesionean.
Dorretikan darauntsala errepikaz ezkillak,
Gogoz bedere gurekin diren presunen pillak.
Aithortzen gare xahuki zerbitzari zureak,
Eta zure ordenantzen konplitzeko erneak.
Hala nola armadetan soldaduak fixorik,
Pasaiatzen baitirade ordenantzan bildurik.
Trunpeta klarak duela habarrotsa ailtxatzen,
Eta haizeak bandera hara huna banatzen.
Aire eta mendi gorek ihardasten aradaz,
Eta mundua izitzen gerlazale armadaz.
Buruzagiei zerbitzu daroela fidela,
Soldaduek prometatzen ez ioateko gibela.
Hala, laun puxanta, gare billdurik pasaiatzen,
Eta zure defendako ezkutari aithortzen.

Segurantzaz darotzugu agintzen zerbitzua,
Gure gorputz eta arimak iraun ahalekoa.
Egun eta ez sekulan zathitzeko legeak
Ifiñi darozkigunak zure Majestateak.
Hekin kontra altxaturen diren rebel guztiei,
Halaberki egiteko gerla borthitz gaixtoei.
Iguzkitzu beraz, launa, arma bentzutzekoak,
Guztiz ere hirur etsai herra handitakoak.
Bañan lehengo graziez ditutzula eskerrak,
Eta guztiz azken eman ditutzunen aithorrak.
Orain galdetzen tugunak halberki igutzu,
Eta gehiago zordun othoi egin gaitzatu.

BURU XIV

Iainkoaren bestetako mezen othoitzak

Meza aitzineko

longoikoa, partitu naiz debotki elizara,
Zure besta egunean entzun behar Mezara.
Hartarakotz egidazu grazia halakoa,
Misterioen araez zure othoiztekoa.

Prozesioneko

Zerengatik launa egun baitzare ohoratzen,
Haren mantenatzeko dut bizia ofrendatzen.
Gurutzeari halakotz arrastotik narraio,
Ene zerbitzua othoi har ezazu bethiko.

Meza bereko

O Iainko, zeñak baituzu fin gabeko moiana,
Halakoa egidazu arren othoi dohaña.

Zeren kausaz egun baita besta solemnizatzen,
Neure aldetik esaia nadin haren obratzen.

Meza ondoko

Adiu launa, aditua othoi gertha nazazu.
Eta Besta sainduaren fiña obran emazu.
Elizak eztezan deusik debotki solemnisa,
Ardiatsi gabe gauza desira duen gisa.

BURU XV

Iainkoaren debozinezko Mezetako Meza aitzinean

longoikoa, Meza noa entzutera Saindua,
Eta deboziño dudan galdetzera donua.
Arren bada ene othoitza Zeruan adizazu,
Eta eske nagoena liberalki indazu.

Meza berean

longoikoa, orain bada galdetzen dut dohaña,
Egun hunat egin dudan urratsaren ordaña.
Arren bada Meza Saindu hunen errespetura,
Damutu gabe indazu eskatu gauza hura.

Meza ondoko

O Errege noble eta Prinze aberatsena,
Magnifikoki indazu on eskatzen naizena.
Ezen hanbat eztuzu eman, non are gehiago
Eztuzun on emateko, eta frankokiago.

Hartarakotz liberalki usazazu dohañez,
Humilltasun handirekin galdegiten tudanez.

BURU XVI

Sainduen mezetako othoitzak

Meza entzutera tenitu garen bestetako Meza aitzinean

Saindu handia zure Mezan noa ediretera,
Eta zu berzetaritan ararteko hartzera.
Emetasun usatuaz othoi entzun nazazu,
Eta galdea ardiats othoi diezadazu.

Prozesioneko

Kortesano onhetsia zure iai egunean,
Eliza illharrietan noa Prozesionean.
Hiltzerano aithortzen naiz zure zerbitzaria,
Zeruetan zaren othoi ene defendaria.

Meza berean

O Dohatsu zeñen baita egun Besta Saindua,
lainkoaren baithan duzu egun kredit hautua.

Haren gana bitarteko zu zakizkit balia,
Mezan galdegin diodan othoi didan grazia.

Meza ondoko

O fortuna onezkoa aldare aitzinean,
Meza entzun dut humillik zure iai egunean.
Arren bethi ene gatik, launa, othoitz ezazu,
Eta fabore egitera othoi ertxa ezazu.

BURU XVII

Sainduen debozinezko Mezetako othoitzak

Meza aitzinean

O dohatsua zu zaitut adbokatzat hautatu,
Eta hartarakotz zure Mezara naiz prestatu.
Ardiats diezadazu arren othoi grazia,
Zerengatik binaitzatzu ethorri othoiztia.

Meza berean

launak ungi behatua othoi entzun nazazu,
Eta nik bezala launa zuk ere ertxa zazu.
Eztagizula batere othoiztera dudarik,
Premiazko gauza aithor diezadan bertarik.
Ezen ezin dirokezu inportuna lainkoa
Zeren bethi aithortzera baitagotzu libroa.

Meza ondoko

O Gomendioz presuna hartzen duzun titxosa,
Eztezazula guphida doblatzera othoitza
Bañan bozkariorekin bihur nadin etxera,
Berriz ere hurbill zaite launaren othoiztera.

Meza berriko

launa errezibi zazu borondatezkiago,
Sakrifizio hau ezen Salamonena baño.
Egun presentatzen zaitzu guztietako lehena,
Eliz-Amaz ordenatu Aphez gaztearena.
Hunen ordain egiozu egun eta sekulan,
Karguaren arauera bizian dagien lan.
Eta guri halaberki saildu induljenziak,
Irabazteko xahuki igutzitzu graziak.

Ebanjelio leheneko

O Iesus, apostoluak mundura bidaldia,
Jentillei prekikatzeko Ebanjelio saildua.
Presentekoari arren egiozu grazia,
Dignei irakurtzeko saildu Ebanjelia

Zure legetik guk ere zer baitugu entzunen,
Obretara emateko dohain iguzu arren.
Hala egizu, o lainko adoratu beharra,
Eta urrikal begizu lurrekoen nigarra.

Epistola leheneko

Ontasunetik hobera o Inspiratzaillea,
Onera inspira zazu lekzio erraillea.
Eta gauza epistolan irakurtzen duena,
Konpli dezan egiozu arren othoi dohaña.
Eta guri ere othoi egiguzu grazia.
Imitatzeko eginen duen ungi guztia.

Meza entzuten ezten orduetako. Abisua

Adiskidea, sinhetsak nik eman konseillua,
Nondik atheraren baituk gustoso probetxua.
Nahiz Elizan dezala entzun Meza saindua,
Edo nahiz eztezala, kausa trabamendua.
Barazkaldu baño lehen hik errakek debotki,
Meza sainduaren forma zeña baituk ikhusi.
longoikoak errezibi dezan borondatea,
Ezin ikhusi duenaz geroztik aldarea.

Hartarakotz othoiztxo hauk hemen tiat zarri,
Meza ez entzuna gatik hura gogoragarri.

BURU XVIII

Mezan gerthatezn diren gauza batzuetako othoitzak

Ura bedinkatzerakoan

O Kreatura guztien benekikatzaillea,
Arren benedika zazu ur element sinplea.
Haragiaren iraungi detzan xinta biziak,
Eta xahu bekhatuek zikhin iratxakiak.
Gehiago odolaren emarazitzailea,
Entzun ezazu othoitzez dagotzun nerhabea.

Gatza bedinkatzean

Zure maiestatea da belhauriko othoizten,
Eta benedikatzera gatz bihia erxtatzen,
Iratxaki diozozun berthute hain handia,
Non batbederari demon desiratu grazia.
Ezen nola Israelen Elisea Profetak,
Zure manuz etxaturik urera gatz pillotak.
Hala khendu baitzioen lehen zuen pozoña,

Eta eman ithurriek zuten gustu pikaña.
Hala eman diozozu berthute hure ere,
Zeñak ez baituzu orain gutiago bothere.
Indar espiritualaz garait detzan Furiak,
Ezin baketu Sathanek deskargatu nahiak.
Gehiago garaiturik haren krueltasuna,
Bekhatuen xahu zazu othoi likitstasuna.

Ura bera bedinkatzean

O longoiko, ur hotzean guztiz miragarria,
Eta hartan sakramendu lehena ezarria.
Arren bada zuk emozu urari berthutea,
Urrutira khasatzeko ifernuko ostea.
Eta norat egotziren baita sinhetsterekin,
Arren balia dakigun zure faboreekin.

Ura gatzarekin nahastean

Orain ura nahasten da gatzarekin batean,
longoikoa, zuk emazu indar elementean.
Zertara ere ur saindua baita aplikaturen,
Gauza bereko balia othoi dakigun arren.

Ur bedinkatuaz zerbitzatzean

Ur benedikatuaren Deabruak berthutez,
Eternala, khasatzatzu hala nola azotez.
Iratxaki diezezu ezin iraungi sua,
Bazterrera egotztean ur benedikatua.
Eta Purgatorioan dauntza Espirituak,
Ihintzaz bezala freska tzatzu suz penatuak.
Bizien ere arima xahutzatzu lohiak,
Eta egititzu elhur luma bezain xuriak.
Gehiago hezaturen den hunetzaz lekhua,
Lejione belzetaryk biz, othoi, purgatua.
Hunen beraren berthutez khentzatzu erhasunak.
Hunek bustiak bedinka gauzak eta presunak.
Gibela dezazu etsai herrosen entrepresa,
Eta biziaren kontra den airea ere khasa.
Zer bailizate fiñean gauza kontrariorik,
Hunen moianez gaitzatzu othoi guarda hetarik.

Ogia bedinkatzean

O Iesus-Krist Aingeruen mana saporetsua,
Eta desertuan ogi borzak bedinkatua.
Arren benedika zazu presenteko ogia,

Hartzen duenari demon osasuna handia.
Gorputzarena bezala espirituarena,
Hala egizu, longoiko bethi puxant zarena.

Ogi bedinkatua hartzean

Zure gorputz sailduaren ez naiz digne hartzeko,
Ogi bedindatuaren ez errezibitzeko.
Badariak ausartzen naiz Mana haren lekhuari,
Othuruntza egitera ogi bedinkatuan.
Gorputz eta arimari emotzitzu indarrak,
Ikhusirik kreatura gaxoaren beharrak.

Prediku aitzinean

launa, prepara ezazu arren ene bihotza,
Errezebitzeko behar legez zure hitzkuntza.
Irakatsiren hark darot neure eginbidea,
Eta zertan behar dudan eraman bizitzea.
Hartarakotz (longoikoa) nola landa bihiko,
Ene arima presta zazu zeure solaz eztiko.

Prediku ondoan

longoiko puxanta arren prediku adituak,
Ene ganik khasa betza bizio ohituak.

Eta nola soñu gorek Hierikoren harriak,
Hala othoi etxa betza usantza gaizkitiak.
Eztezazula permeti predikuen hazia,
Alferrik den kadiratik aphezaz egotzia.
Bañan hala mobi zazu ene bihotz barrena,
Non geldi dakion hazi zure solasarena.

Eskumikua aiphatzean edo Elizatik egotztean

Batasuna Eliz-Aman desiratzen duzuna,
Permeti eztezazula, othoi, hanitztasuna.
Gutziz ere Elizatik eznaizen egotzia,
Hala nola arropatik ihetzetu horria.
Hartarakotz othoi hastan nazazu hobenetik,
Eskumiku odolsura egotz nazakenetik.

BURU XIX

Edozein ordux elizan erran daitezken othoitzak

lainkoari othoitzza

O longoikoa asmalekhu guztietan zarena,
Eta guztiz elizetan ohoratzen zarena.
Gizonek zor darotzuten iustuki ohoreaz,
Suplikatzen zaitut ene othoitzza entzuteaz.
Arren bada libra zazu munduaren, lainkoa,
Zeren eske baitagotzu tristearen gogoia.

Edozein sainduaren imajinaren aitzinean

O dohatsu,ni bezala lurrean ibillia,
Zeñen presentatzen baitzait begira iduria.
Zure kausaz baizen eztut imajina ondratzen,
Zergatik darotan zure itxura presentatzen.
Sala urrezkoan zaren ene arartekoa,
launak aithor diezadan galde premiazkoa.

Aldareko sakramenduaren aitzinean

O sakramendu gustien Sakramentu handia,
Ogiaren iduriaz Iesus Krist estalia.
Arren othoi har nazazu zeure gomendioan,
Zu ikhusi gabetarik nagokeño hagoan.
Iainko, eta Gizonaren Iesus baketzaillea,
Adizazu othoiztera ethorri eskalea.

Reliki sainduen aitzinean

O Kortesano dohatsu Iainkoak onhetsiak,
Eta mundu indigneak handiro gaitzetsiak.
Zeñen ordean hezurak haren probidenziaz,
Ohoratzen baitirade ohore bereziaz.
Zeuen Reliki Sainduz zaituztegu ertxatzen,
Iainkoaren othoiztera arren khexa zaitezten.
Zuek ardiats azue pare gabe kortean,
Zeren eske Relikien baizaude aitziñean.

Agnuz Deiaren othoitza

Agnuz Deiak zu zaitu Iesus Krist deklaritzen,
Eta bildotsarekien iustuki konparatzen.

Arren sinhetste ematen dudanaren amorez,
Gaitzetik guarda nazazu zeure handi podore.
Eta ondikoan zuri altxatzean auhena,
Khexa zaitezke fabore egitera lehena.

BURU XX

Ordu iakin eta propian Elizan errateko othoitzak

Kandeleroz edo Elizan argiak iratzakitzen direnean

O adimendu guztien argitzaille zuzia,
Nola kandelak argitzen baitu sala handia.
Arren hala argizazu ene adimendua,
lakiteko ea zein den eginbide saildua.
Eta fiñean Simoni bihotza argitua,
Arren ene ere hala argizazu burua.

Hautsterriz hautsa hartzean

longoikoa, huneraño izatu naiz urgullu,
Eta deithu nauzunean eznatzaitzu hurbilldu.
Gehiago sinhetsi dut neure borondatea,
Neure kreatzaillearen ezen Saindu zurea.
Damu eta dolore dut hala gobernatuaz,
Eta zegotzun bezala, ez zu zerbitzatuaz.

Gehiago kofesetzen dut naizela ezteusa,
Eta ene balde dela oñ azpiko herrautsa.
Hartarakotz gantzutzen zait hauts xehez bekhokia,
Ezagutzeko zein baxo den ene ethorkia.
Datorken egunetan dut zehaturen gorputza,
Bai eta barur sainduz argalduren ahutza.
Hauk guztiak hartzaketu othoi hutsen aldera,
Hala nola Ninibarrei noizbat bereenera.

Arramuz

O Iesus Hierusalamen triunfantki sarthua,
Diszipuluen ondotik zerraitzula zaldua.
Eta palmek zituela eskuetan jendeak,
Bozki errezibitua karriketan xeheak.
Ahoan ere zuela xoil eder kantikoa,
Ungi ethorri zarela Mesiaz mundukoa.
Niri ere egidazu Iesus ona grazia,
Rezebitzeko digneki Bazkoz zure lohia.

BURU XXI

Induljenzietako othoitzak

Induljenzia irabazteko egin behar den obraren Aitzinean

O longoiko, bethiere faboratzen nauzuna,
Eta niri dagotanik ahantzten eztuzuna.
Berze dohañen artean saildu Induljenzia,
Aldaretik publikoki maiz da irakatsia.
Pena gutiaren ordain hañitzez latzagoa,
Barkhatzekotz mundu, edo purgatoriokoa.
Obra haren konplitzeko egidazu dohana,
Irabazteko erraxki orain Thresor errana.
Eta ezazula egin pasa dadin arratsa,
Irabazi gabetarik hain dohain aberatsa.
Barkha dietzakidatzu aitzitik gaztiguak,
Mundu hunetako edo Purgako goitituak.

Obra haren ondian

launa, errezibi zazu othoi obra ttipia,
Eta hanbat huts larrien pagamendu gutia.

Jesus Kristo emearen satisfakzioeak,
Eta Saindu dohatsuek suportatu nekeak.
Arren othoi har etzatzu guti haukin gañera,
Eta zorren kitamendu osoaren aldera.
Haukin bada mereziez egidazu grazia,
Irabazteko eman den saindu Induljenzia.

BURU XXII

Konfrarietako othoitzak

Iainkoaren izenetako Konfrarietan sartzean othoitzak

longoikoa, errezibi nazazu konpañian,
Zure majestatearen ondako ifinian.
Dohatsuen liburuan pintazazu izena,
Hemen balderna Sainduen eskribatuko dena.
Gehiago egidazu, laun puxanta, grazia
Konplitzeko erregelez manatzen den guztia.

Bethi

laun puxanta, egidazu fobore berezia,
Konfrarian irauteko neure mende guztia.
Etsai furiosen kontra zu harturik begian,
Konbati nadin Gurutze sainduaren azpian.
Gehiago, longoikoa, egidazu grazia,
Handik atheratu gabe fiñatzeko bizia.

Sainduen konfrarietako. Sartzean

O Saindu Zeruetara dohatsuki igana,
Arren othoi itzultzatzu begiak enegana.
Eta arraiki rezebi nazazu Konfrarian,
Zure izenean gizon debotek ifinian.
Ardiats diezadazu halaberki grazia,
Konplitzeko obligatzen naizen gauza guztia,
Baita are konfrarian irauteko sainduki,
Niholako estakuruz illkhi gabe arinki.

Bethi

Saindu handi dohatsuen batzarrean zarena,
Eztezazula arbuia othoitz humillarena.
Bañan zure zerbitzeko berrizatzu handiak,
Baldernan sartzerakoan nituen gutitiak.
Eta fabora nazazu bethiere graziez
Othoitz debotez launaren ganik ardiatsiez.

BURU XXIII

Lekhu sainduak erromeriaz lekhora bisitatze direneko othoitzak

Iainkoa ohoratzen den lekhu sainduetako

O longoiko puxant, zeñek Zeruen hurrenean,
Egoitza baituzu lekhu sainduen barrenean.
Othoi har ezazu ene ondra onen partera,
Zeña baita ethortzea zure saindu etxera.
Hunekien, laun puxanta, zuk indazu grazia,
Lurrean eramateko ungi neure bizia.
Eta orain berzetarik zuk indazu dohaña,
Neure beharraren kausaz galdegiten dudana.

Sainduen lekhuak bisitatzean

Saindu handi lekhu hunetan ohoratzen zarena,
Arren othoi adizazu ene hats beherena.
Eta zeren galde baitu ene gogo tristean,
Ardiats beza Zeruan zure othoitz digneak.

Othoiztuko zaituena ezen debozionez,
Faboratzeko kredita baduzu dohain onez.

BURU XXIV

Sakramenduetako othoitzak lehenik Baptismukoak

Haurra bathaiatzean iasaten dutenek

O Iesus-Krist lordaingo uraz bathaiatua,
laun doni Ioannes Baptistak hezaturik burua.
Arren haurxoari urak, egiozu grazia,
Khen diozon hobenari narrio iarraikia.
Guri ere egiguzu grazia iasaleei,
Ibillbideei guardia emateko hunenei.

Lagunek

longokoa haurxoari nola uraz burua,
Arren arima graziaz egiozu xahua.
Eta guri iasaleek ez badute berea,
Hunen aldera konplitzen zuzen eginbidea.
laun puxanta, egiguzu arre othoi dohaña,
Gekin eginbidearen konplitzeko ordaña,
Gloria ardiasteko ikhas dezan bidea,
Zeña baita zure Lege sainduaren moldea.

Berze ikhusten dutenek

O Iesus-Krist Sakramendu zazpi ordenatua,
Hanbat bidetarik zure iausts zekigun donua.
Haurtxo iaio berriari bekhatu sortzekoa,
Arren xahu diozozu Adamenikakoa.
Eta guri halaberki egiguzu dohaña,
Bethiere konplitzeko zure saindu errana.

BURU XXV

Konfirmazioneko othoitzak

Haurrak berak

longoikoa, laudatzen dut Baptismu urezkoa,
Ezagutza nuen baño are lehenekoa.
Milla esker darozkitzut grazia halakoaz,
Debozinez ertxatzen zaitut gehiagoaz.
Hartarakotz, laun puxanta, konfirmazioneaz,
Gogor nazazu, zalduna nola harnes dobleaz.

Presentatzen duenak

Lehen ere iaio eta zeuretzat hautatua,
Othoi merka zazu (launa) haurtxo presentatua.
Eta nola soldaduak Erregeren libraia,
launtzen baitu, berezteko bere ganik etsaia.
Othoi hala berez zazu haurtxoaren arima,
Eta zeure banderaren itzalean arrima.
Berret diotzotzu ere leheneko graziak,
Etsai herraz bethearen bentzutzeko furiak.

Lehen bezitu baduzu Baptismuaren tresnaz,
Arren orain iauntz ezazu harnez Krisumarenaz.

Berzeek

longoikoa, arren othoi Zeruko landarea,
Zeña lehen arrosatu baituzu haur gaztea.
Othoi hasi duzun legez iadanik Baptismuaz,
Gogorrazu Krisumaren handi Sakramenduaz.
Eta begira ezazu Ifernuko airetik,
Nihoiz athera extezan bere eginbidetik.
Aitzitik laborariak nola haritz gaztea,
Graziaz gogor ezazu haur gaztea.

BURU XXVI

Ordenetako othoitzak ordenatzen ikhustean

longoikoa, zutzaz dire puxantzak ifiniak,
Eta zure ganik tuzte guztiek ethorkiak.
Nahi duzunaz geroztik estatu gorenera,
Presentekoa altxatu Aphezekienera.
Arren bada egiozu, laun puxanta, grazia,
Ontasunez argi dezan biziko den herria.
Eta nola ezkaratza holtzean den argiak
Klaratzen baitu, bai eta han diraden guztiak.
Hala huni berthuteen emozu Iguzkia,
Klaratzeko gerthaturen non baita konpania.

Berze othoitza

O Aaron aphez handi luduek altxatua,
Halaber biz beretarik hau ere hautatua.
Zure izen sainduaren laudatzeko digneki,
Eta zure othoizteko gure gatik debotki.
Arren bada (longoikoa) egiozu grazia,
Bere eginbide ungi konplitzeko hertsia.

BURU XXVII

Ezkontzako othoitzak

Ezkontzen direnek berek

longoikoa, zuk zinduen ezkontza ordenatu,
Eta Edengo baratzean lehenak esposatu.
Gure Ezkontza lauda zazu hala nola hekiña,
Bakez eta amudioz daramagun adiña.
Hainberze on egiguzu, laun guztien gorena,
Zeruetan lauda zazu hemen konplitzen dena.

Lagunek

Eternala, zu zaitugu debozionez othoizten,
Nor baizare Ezkontzaren ohorera deithatzen.
Arren bedinka dezatzun ezteiak Zeruetan,
Zeñak konplitzen baitire lur behere hunetan.
Eta nola lehenago Sara Tobiasenak,
Orobat arren bedinka detzatzun haukienak.

Berze ikhusten tuztenek

Ezkontzako Sakramendu saindura hurbillduei,
lainkoa, egitezu arren grazia biei.

Eztiozoten elkharri desplazerik erakuts,

Bañan mendea dezaten bakearekin ikhus.

Ontasunez bethe zazu othoi heukin etxea,

Nola Iakob sarthuz geroz Laban baitharenea.

BURU XXVIII

Penitenziatzko Sakramenduko othoitzak

Bekhatu egin bezain sarri othoitzza

launa, zuk diezadazu othoi barkha gaizkia,
Esker gabez zure kontra egin dudan handia.
Zeren ez nintzen lehen hill heriotze kruelaz,
Eta milla penarekin zathikatu okhelaz,
Ezen ez zu ofensatu neure kreatzaillea,
Eta behar guztietan onez estaltzaillea.
Aithortzen dut (laun puxanta) ene dela hobena,
Eta merezi dudala neurri gabeko pena,
Damu eta dolore dut neure bihotz guztiaz,
Ahalke gabeki zure ordenantza hautsiaz.
Arren, launa, neure falta barkha diezadazu,
Eta bekhokia ene gana itzul ezazu.
Sekulan iraunen duen zuri darotzut hitza,
Zure kontra gehiago ez egiteko hutsa.
Apezari ere diot aithorturen hobena,
Eta bozik konplituren hark ordenatu pena.

Arren bada, longoikoa, zuk nauzun urrikari.
Eta barkha diozozu falta nigartsuari.

Bekhatutan dagoenak edozein orduz

Ofensatu zaitudala aithor dut nabarbenki,
Baita zure kontra dela bekhatua xuxenki.
Zeren bada egin dudan bekhatu hain itsuski,
Ene gana ezazula gorrotoa iduki.
Bañan hobenen nazazu libra zepoetarik,
Nola gaixtagin hartua burdin gatheetarik.
Ezen zuk duzu faltaren barkhatzeko puxantza,
Arren hekien indazu, longoikoa, kitantza.
Urrikariz ikhuz azu othoi ene nigarra,
Eta eznazazula egotz nola suhill iharra.

Konfesiara preparatzeko othoitza

longoikoa, ezteusetik eman nauzu mundura.
Eta dendent idukitzen duzu ene ardura.
Prinzipalki egin nauzu zeure onherizteko,
Hitzez laudatzeko eta obrez ohoratzeko.
Hauk hirurak baldin baitut behar legez konplitzen,
Sekulako bizitzea darotazu agintzen.

Bañan egiten ezpadut kontu zure legeaz,
Mehatxatzen nauzu pena fiñamendu gabeaz.
Men hartan naiz (longoikoa) huts egin dut legean,
Eta begiratu eztut behar zen fazoñean.
Inozenziazko barkha urrezkotik urtara,
Erori naiz, herstu nahi nuke puxkara.
Sakramendua da hura Penitenziazkoa,
Zeñetan xahutzen baita notha bekhatuzkoa.
Hara bada hurbilltzeko dut desira handia,
Arren ungi hurbilltzeko egidazu grazia.
Neura hobenez indazu urriki dolutsua,
Eta hekien xehero aithortzeko donua.
Sekulan ez itzultzeko darotzut hitz segura,
Eta izanen dudala hobetzeko ardura.
Bañan (longoiko puxanta) zuk indazu dolore
Berzeren gatik ere bai, hunetzaz guztiz ere.
Zeren largatu zaitudan, ontasun fin gabea,
Eta kreaturetara eman gogo neurea.
Gero launa halaberki indatzitzu graziak,
Bekhatuen errateko ungi zirkunstanziak.
Aphezak ezagut dezan ene erhasun handia,
Eta demon remedio faltari egokia.
Ezen ezagutuz gero medikuak zauria,
Berze deusik egin gabe sendatu da erdia.

Hartarakotz bada, launa, egidazu dohaña,
Hauk guztiak errateko aithortzean hobena.
Nork, zer, eta norekien, zer finez, eta moldez,
Noiz, non, eta zenbat aldiz, alla berzeren oldez.
Hitz hauk erratera noa are klarokiago,
Ene desira dezazun ikhus hobekiago.
Eta zer estatutara, launa, nauzun deithatu,
Gero zertan zu gaixtoki, zaitudan ofensatu,
Ea lagunik banuenz, haren ofizioa,
Eta falta egitean, non zens ene gogoia,
Edo ene fiña zer zens, zeren ardiastea,
Eta nolako zens hutsa, egiteko moldea.
Zer denbora, edo muga illhun, edo argia,
Erran behar dut halaber, lekhuaren berria,
Nork ninduen bekhatutan lizuntzera buthatu,
Ala neure buruz nintzen xoillki lohian sarthu.
Bederatzi gauza hautzaz orhoitzeko dohaña,
longoikoa, egidazu aithortzeko hobena.
Ezen baldin uzten badut zenbait zirkunstanzia,
Konfesatzen naizen legez barkhatzen zait gaizkia.
Hartarakotz aphurtxo bat gorritzeko beldurrez,
Zure kontra egin tudan billuztean hobenez.
laun puxanta, liberalki egidazu grazia,
Konfesatu gabe mutu eztakidan mihia.

Eta gehiago zertan bainaiz akusaturen,
Bihurturen ez naizela, eta prometaturen,
Promesaren konplitzeko indazu faborea,
Edo lehen dadillala fiña ene bizitzea.
Satisfakzionaeren egiteko astia,
Arren utz diezadazu denboren nausia.
Fiñean zuk egidazu faborea, lainkoa,
Ardiatsteko hobenen barkhamendu osoa.

Aphezaren oñetarakoan

longoikoa, aphezaren oñetara debotki,
Hurbilltzen naiz barkhamendu eskatzera humillki.
Aithorzen dut dadukala hemen zure lekhua,
Baita hobenen duela barkhatzeko eskua.
Arren bada lur baxoan, launa, hunek bezala,
Zeruetan zuk indazu barkhamendua hala.
Usazazu longoikoa, eztitasun lehenaz,
Eta etzaitela orhoit egin dudan hobenez.
Aitzitik xahu nazazu nola elhurra mendian,
Eta hutsak barkhaturik har nazazu grazian.
Orain apart nadukazu higuindutzat utzirik,
Eta grazia sainduaz gaxoa billuzirik.
Hunen kausa hobena da zure izterbegia,
Zuk barkha diezadazu othoi neure gaizkia.

Damua

Atsekabe handi bat dut faltetan eroriaz,
Eta zuri ohorea gaixtoki idekia.
Bañan guztiz dolore dut zureaz beregainki,
Zeren abusatu dudan ontasunaz laxoki.
Ezen zu zare ontasun guztien ithurria,
Zeñez asetzen baituzu egarri den guztia.
Dolore dut haren kontra zeren dudan faltatu,
Eta zergatik eztudan gehiago prezatu.

Aithorra

Aithortzen dut neure falta, falta ere handia,
Neronek ezin baitirot zeña erremedia.
Hartarakotz Aphezaren belhaunetan iarririk,
Orhoitzen naizenak ditut kondaturen xeherik.
Guztiz azken kofesatuz geroz hunañoakoak,
Zeñak baitire itsusi, eta gaitzestekoak.

Emendatzeko promesa

Gehiago badarotzut sekulako promesa,
Heriozko bekhatuei egiteko ihesa.

Bai eta ganbiatzeko leheneko moldeak,
Lothua bainadukate zeñek, nola gatheak.
Ihes eginen daroet bekhatusko paradei,
Eta ungi egiteko iarraikiko atizei.
Aldaturen dut bizia berze hobe batera,
Bizitzeko zure manu Sainduen arauera.
Eta hetan emanen dut neure neke guztia,
Harik eta zarra dadin ene triste begia.

Satisfakzionearen egiteko promesa

Anartean luzazazu biziaren hedea,
Ezen zure eskuan da gizonaren mendea.
Egun daraño ditudan egin falten aldera,
Zenbait obra aphurtxoren nathorren konplitzera.
Ezen satisfakzione egiteko askirik,
Aithortzen dut eztudala xahuki podorerik.
Zergatik zu zaren ene kreatzaille goikoa,
Eta basoillo ni zure sujekzionatekoa.
Badarik konplituren dut eman penitenzia,
Bekhatuen eredura zeña baita ttipia.
Ordean satisfatzeko osoki gutitia
Badut, obran albaneza eman neure nahia.
Ea beraz lainko puxant ezin satisfatua,
Arren ene biziaren luza zazu ordua.

Konfesioneko falten estaltzeko

Konfesionean falta dena ene aldetik,
Estal ezazu, Iesus krist, arren othoi zuretik.
Aithortzen dut Aphezaren absoluzonea,
Deus eztela falta bazait dispozizioea.
Othoi hura zuk indazu behar bezain konplia,
Konfesionea ungi dakidantzat balia.
Arren bada, laun emea, indatzitzu graziak,
Haren bidez egiteko eskas tudan guztiak.

Absolbitzen denean

Magdalena andreari hobenak barkhatua,
Niri egidazu neure halaber bekhatua.
Eta Aphezak baitarot nola ematen berea,
Zeruan zeure indazu absoluzonea.
Eta barkhatu zifnoen legez ohoñ onari,
Hobenak dietzadatzu barkha dolutuari.

Absolbitu eta

Milla darozkitzut esker, Iainko barkhatzaillea,
Zeren eman darotazun benedikzioea.

Aphezak darotanean bekhatua barkhatzen,
Barkhatzen darotazula halaber dut sinhesten.
Arren bada ahantzkitzu egin tudan hobenak,
Eta indatzitzu dohain zeure graziarenak.
Gehiago eznathorren bekhatutan sartzera,
Nola urde lohitsua illkhi den istillera.
Promesaren konplitzeko egidazu grazia,
Iustuki iragateko goiti zaitan bizia.

Berzea konfesatzen ikhustean

O longoiko Salmistari hobena barkhatua,
Eta Publikanoari othoitza laudatua.
Konfesatzen denari zuk emozu othoi arraia,
Bekhatuak aithortzean eztadintzat barraia.
Elkharrentzat othoiztera zuk manatzen gaitutzu,
Beraz falten aithortzeko dohaña egiozu.
Eta niri ere neurez indazu urrikia,
Magdalena damutuak zuen bezain handia.

Penitenzia konplitzerakoan

laun handia, bekhatuen satisfakzionetan,
Eman penitenzia dut konplitzen ordañetan.

Arren errezibizazu begitarte emeaz,
Gauza aphur eskaña ona borondateaz.
Aithortzen dut hondalean ninzela ere erretzen,
Ez narokizula ondra idekia bihurtzen.
Zure handitasunari ttipitasun eneak,
Ezin itzul diotzoke ideki ohoreak.
Hartarakotz konplitzen dut manatuak bezala,
Dakidalarik satisfa ezin zaitzakedala.
Halarikan errezibi zazu, laun amulsua,
Obra ttipi gaitz handien ordain ofrendatua.

Penitentzia konplitu eta

O longoiko obretara begira zaudezena,
Eta hitzak konplitzagun desiratzen duzuña.
Obretara athera dut eman penitentzia,
Zeña bainuen agindu konplitzeko guztia.
Ene hitzak eta obrak deus eztire ordean,
Zure kontra egin tudan bekhatuen aldean.
Hartarakotz huneraño sofritu traillaik,
Eta zure gatik egin tudan obra iustuak.
Gehiago Iesus Kristen fin gabe mereziak,
Eta saindu dohatsuen neke eta izerdiak.

Bekhatuen har etzatzu satisfakzionetan,
Eta eneganik eskas denaren ordañetan.

BURU XXIX

Gorputz sainduaren alderako othoitzak

Errezibitzerakoan

O longoiko kraturen buraso hazzaillea,
Eskaintzen darokuzu ogi Mana baño hobe.
Zure Seme mansoaren gorputz preziatua,
Zeña baitago Hostian beloz gerizatua.
Perfekzionerik ezta non eztuen berekin,
Gizonaren bidaltzeko hazkuntza onarekin.
Bekhatuen sendatzen tu eritasun goitiak,
Eta arimaren bizten podore eroriak.
Bañan, launa, ezninteke nihola ere atrebi,
Nintzela ere heriotze krueleraño eri,
Hurbilltzera aphaindurik dadukazun iatera,
Asuerusena baño asko aldez hobera.
Baldin eta ezbazindu manamendua egin,
Ahalik dignekiena ni ere hurbill nendin.
Zeren eta nintzela ere perla bezain xahua,
Baso ez bainaiz, ni baithan dagizun ostatua.

Orain are gutiago zein doidoia basatik.
Bekhatuen ilkhi bainaiz urrin gaixtoz bethetik.
Alabañan zure manu sainduaren indarrak,
Eta neure arimaren presenteko beharrak.
Bortxatzen nau hurbiltzera mahain saindu zurera,
Paretik eztuen ogi hartzaz saziatzera.
Arren bada, lainko puxant banketaren iabea.
lanharitzat zure Semea non baitago gordea.
Ene bekhatuen, othoi, sendazazu zauria,
Eta etsaiaren kontra indazu khar handia.
Zertako fiñean baita ifiñia mahaña,
Arren haren ardiasteko egidazu dohaña.
Eta zuk Iesus Krist dohain guztien ithurria.
Ene baithan isur azu othoi zeure grazia.
Ez naiz digne nihola ere, ene baithan sarzaiten,
Aiziñetikan zeronek non ez nauzun ikhuzten.
Hartarakotz ene arima othoi xahu ezazu,
Eta gero ene baithan ostatu har ezazu.
Aitzitik egizu zeure sekulako etxea,
Bethiere aurkhi nadin ontasunez bethea.
lainko Semea adizazu arren ene hitzkuntza,
Iudizio eztakidan billha zure gorputza.

Errezibitu ondoan

Esker darotzut (longoiko) gosen asetzaillea,
Zeren eman darotazun hain hazkuntza noblea.
Zure Seme bakhotxaren gorputz preziatua,
Ene arima hazteko ogi ordenatua.
Parabisu lurrekoan fruitu biziarena
Laudatzen zen, hunekien ezin erkha zaitena.
Gorputzari hark luzatzen zioen bizitzea,
Bañan hunek arimari hobeago berzea.
Nola ganbiatzen baita bianda odolera,
Biziotik othoi alda nazazu berthutera.
Jesus Kristo ene baithan presentean zarena,
Othoi ganbia nazazu guztia zeure gana.
Egundanik aitzinera egiazki derradan,
Ez ni baiñan zaradela zu bizi ene baithan.
Amudio propioa khen ezazu errotik,
Zure manu sakratuei narraien arrastotik.
Gehiago, Jesus dulze ene Errege noblea,
Eta lanharitzat zeure gorputza emaillea.
Arren othoi berriroki bianda iretsia,
Egizu den fedearen burdin tresna lodia.
Borondate fermuaren erredola gogorra,
Eta ihintz xahutzeko arimaren alhorra.

Haragiaren desira guztien desterrua,
Eta karitatearen barrena zimendua.
Etsai errabiatuen kontrako matxitea,
Zeñak ikhara diezen bihotz herraz bethea.
Fiñean (Jesus-Krist eme berthuten exenplua)
Eta ene bazkatzeko ianhari bihurtua,
Nola lurrean baitzare beloaz estalia,
Hala erakuts zaitezke Zeruan ageria.

Berzeek sakramendua hartzean

O Jesus-Krist guztientzat ianhari aphaindua,
Eta ahitu gaberik guztiei zabaldua.
Banket saindura hurbilldu nahiari grazia
Egiozu, xahuki har dezan zure lohia.
Niri ere halberki egidazu dohaña,
Borondatez dastatzeko hain preziatu Mana.

Gorputz Saindua ageririk dagoeneko San Thomasen rhima gure eskarara itzulia

Adoratzen zaitut, lainko beloz gerizatua,
Eta ogiaren formaz gañetik itzaldua.

Hala zuri zaitzu ene bihotza beheratzen,
Kontenplatzean indarra non baitzaio flakatzen.

Bixta eta ukitzea hagitz zaitkit nahasten
Eta beharriz dut xoillki hor zarela sinhitsten.
Bañan hala sinhetsten tut, launa zure erranak,
Non egiten ez baititut hanbat gizonen lanak.

Gurutzean ehortzi zen xoillki lainkotasuna,
Bañan harekin batean hemen gizatasuna.
Biak sinhetsten tudala, eta aithortzen xahuki,
Ohoñ onak galdetua, aldetzen dut humillki.

Thomasek bezala eztut orbanik begietzten,
Alabañan neure lainko, zu zaitut kofesatzen.
Egidazu berretuaz doatan sinhetstea,
Eta esparentzarekin zure onheriztea.

O hilltze launarenaren orhoitzapen argia!
Orhe gozo, eta ezti emaillea bizia.
Arren ene arimari egiozu dohaña
Zutzaz bizi dadin, eta billha eztezan ordaña.

O hegatztin, Pelikano, Iesus maitatzekoa,
Zeure odolaz xahu zazu hutsez lohi gaxoa.
Ezen zure odolaren xortarik gutienak,
Xahutzake munduaren bekhatu zikhiñenak.

O Iesus Krist estalirik ikhusten zaitudana,
Konplizazu arren hanbat desiratzen dudana.
Bekhokia agertua egun batez Zeruan,
Ikhus zaitzadan klaroki izarrez bistatuan.

BURU XXX

**Penitenziatzko Sakramenduaren
othoitzak erietako denaz
bezanbatean. Eta lehenik osasuna
ardiasteko othoitzak**

Eriak berak beretzat

O longoiko, Esekiaz Erregeri bizia,
Lehenetarik hamabortz urthez luzarazia.
Arren enea orobat heda zazu orena,
Baldin bada arimaren hala probetxuena.
Bizi behar dudan neure mende gañerakoan,
Arthatsukiago ibill nadin zure ondoan.

Eriarentzat berzeek

O Iesus-Krist hillen ere bitz arazitzailea,
Gorputzetik khien ezazu eritasun dorphea.
Eta sendatu zinduen legez ema erbala,
Zeren ukitu zarotzun arroparen pertala.
Huni ere zeren duen zure baithan fedea,
Othoi bihur diozazu osasuna maitea.

Medikua sartzean eriak

longoikoa nahi duzu presuna ohatua,
Den sarri erremedio onez sokorritua.
Hartarakotz Salamonez gintutzun abisatu,
Behar zela medikua premiakotz ondratu.
Arren bada zuk emozu antzea, longoikoa,
Deusetan trunpatu gabe ene sendatzekoa.

Medikua sartzean berak

O mediku hoberenen, laun ahalkatzaillea,
Eriaren sendatzeko indazu iakitea,
Edo ezperen faltari othoi ezten enetik,
Gaitzari erremedio ematea artetik.
Arren bada egidazu fabore halakoa,
Erremedio demodan behar bezalakoa.

Biziaz dudatzean medikuak berak

Iainko handi Salomoni xuxen irakatsia,
Alzifretik hisopara belhar guztien berria.
Ea senda dezakedan eztakit erhasuna,

Arima konfesioenez senda zazu lehena.
Gero niri egidazu faborea, lainkoa,
Gorputzari emateko behar remedioa.

Biziaz dudatzean eriak berak

laun Zeruko hillen eta bizien Erregea,
Arren othoi adizazu ene othoitz tristea.
Baldin hala ordenatzen baduzu oraingotik,
Ene arima hegaldan dedin erhasunetik.
Bethiere konpli bedi zure borondatea,
Eta nik obedi zeren bainaiz sehi zurea.
Badariak egidazu aitziñetik grazia,
Arimaren aphaintzeko dudan ephe askia.
Hutsen ardiats dezadan absoluzioea,
Eta Apezaren ganik benedikzioea.
Zure banket sakratura hurbill nadin ohorez,
Eta han ene arima gizen dadin faborez.

Biziaz dudatzean berzeek

O erhasun eta indar guztiaren iabea,
Dohain hura berzetarik dadukazu gordea.
Osasunarena arren egiozu dohaña,

Sendaturik diezazun bihur esker ordaña.
Baldin eta orain bada parti dadin hobeia,
Arimaren prestatzeko emozu hatshartzea.

BURU XXXI

Penitenziako Sakramenduaren Erietako denaz bezanbatean othoitzak

Apheza kofesatzeko etxean sartzean eriak berak

Zure manua dut, lainko puxanta, ezagutu,
Arimaren miña lehen behar dela sendatu.
Hartarakotz arimaren deithu dut medikua,
Konplitzeko hark emanen darotan ordenua.
Arren bada egidazu, lainko fin gabekoa,
Erremedio beharren grazia hartzekoa.

Apheza sartzean berzeek

Medikua sartzean da bozten mundu guztia,
Eta Apheza ikhustean larritzen du begia.
Hala, launa, gaitzenari darraio mundanoa,
Hala nola haranetan higoari galgoa.
Alabañan manua da ia aspaldi emana,

Gogo onez errezi bi dadin zure ordaña.
Zeren duen arimaren ematen osasuna,
Handiroki zeñak xitzen baitu gorputzarena,
Hala konbeni bazaio are zuk gorputzari,
Osasuna bihurturen diozu hurrenari.
Arren bada eriarri egiozu grazia,
Senda dakion lehenik arimako zauria.
Gero gorputz febleari emozu osasuna,
Baldin halako konbeni bazaio ontasuna.

Konfesatu aitzinean eriak

longoikoa itzul nadin zu gana noizbat ere,
Zeren hobeago baita ezen ez nihoiz ere.
Hala nola su handitik illkhitzea bizirik,
Parte nobleak oraño kharrak erre gaberik.
Halaber naiz longoikoa itzultzen zure gana,
Perill hurbilletik salba nazakenaren gana.
Damu eta urriki dut hunembat beranduaz,
Eta zure ontasunaz hanbat abusatuaz.
Falta hura aithortzen dut baita berze guztiak,
Barkha dietzakidatzu othoi neure gaizkiak.
Eta eskributzat ene har ezazu hitzkuntza,
Hobeagora dudala aldaturen hazkuntza.

Bai konplituren dudala eman Penitenzia,
Egiten badarotazu Sendatzeko grazia.
Bekhatuez orhoitzeko egidazu dohaña
Eta gañerako ikhus azu behar dudana.

Konfesatu aitzinean berzeek

Azkenak khorroatzen du berze obra guztia,
Bai azken fiñak halaber presunaren bizia.
Gure fiñ onaren gatik zinen (Jesus) nekhatu,
Eta hari giñarraizkon giñitutzun manatu.
Arren bada egiozu mugara herstuari.
Falten ungi aithortzeko dohaña eriarri.
Moian hartzaz parti dadin bake onez mundutik,
Arrasta eman baduzu hala zeure Thronutik.

Konfesatu ondoan Eriak

Iauna, ene bekhatuen deklarazionea,
Ontzat errezibi zazu othoi antza kabea.
Eta zertan erhasuna kausaz baitut faltatu,
Emetasun usatuaz othoi estal ezazu.
Oraiñ konfesatutudan faltak hobekiago,
Deklaratuko tudala eta xeheroago.

Promez segura egiten darotzut (longoikoa)
Egiten badarotazu dohain altxatzekoa.
Barkha dietzakidatzu, ordean huts guztiak,
Ezen agien orain du fiña ene biziak.
Hartarakotz bada (lainko) pietatez bethea,
Egin darotzudan othoi ahantzazu kaltea.

Kofesatu eta berzeek

O longoiko gehiago desira eztuzuna,
Baizen ahal egiñera bortxa dadin presuna,
Ontzat errezibi zazu aithor bekhatuena,
Indar eta denboraren aran egiña dena.
Eta urrikal bekizu, ezin egin handia,
Barkhatzen diozula huts egin duen guztia.

BURU XXXII

Aldareko Sakramenduaren othoitzak erietako denaz bezanbatean

Gorputz Sainduaren ezkillak aditzean, eriak berak

Laboraria oilarrak eztu hala atzartzen,
Bekhatorea nola zuk baituzu iratzartzen.
Bere beharrean egin diezazun othoitza,
Ezen gauza aithortzeko prest duzula bihotza.
Hala nauzu ezkillaren iratzarri soñuaz,
Zuri othoitz egiteko neure flako buruaz.
Arren bada egidazu (longoikoa) grazia,
Banket saindura hersteke aurkhi nadin garbia.

Gorputz sainduari darraionak erran behar duen othoitza

Arrazoin da, Iesus-Kristo, den adbertimendua,
Elizatik illkhitzeko noiz baituzu ordua.

Asti duena daraitzun errespetuz ondotik,
Zure handitasunaren aithortzeko gogotik.
Eriari egiozu halako faborea,
Zure presenziak demon probetxoz ondorea.
Etsai erne daudezenen garaitzeko furiak,
Hill beharren kontra zeñak baitituzte handiak.

Eztoanak errateko duen othoitza

Zeru lehorrek bezate (launa) entzun soñua,
Gehiago zuri zaitzun eman errespetua.
Arren eriari heda diozozu hazkuntza,
Manaz ez bezalako har dezantzat othuruntza.

Bidean inkuntratzen dutenek

Zurekiko, Iesus-Kristo, arren biz inkuntrua,
Arima beharrarentzat on, eta dohatsua.
Eta noreraño hartu zuk baituzu bidea,
Zure presenziaren biz arrai Sainduz bethea.

Laguntzen dutenek bidean

Arrazoin da (Iesus-Kristo) illkhitzen zarenean,
Konpañiatua zaren bethiere bidean.

Hala nola lauregitik illkhitzean Prinzea,
Zaldundearen duela gibeletik oztea.
Halaberki arrazoin da, zuri ere ondotik,
Gizonen oztea hurbill darraitzun arrastotik,
Eriari egiozu dohaña halakoa,
Zure gorputz sailduaren xahuki hartzekoa.
Gu ere garatenean herstu azken fiñera,
Egigukezu halaber othoi grazia bera.

Eriak athetan xilintxa aditzean

Salbatzaille ene gatik Elizatik illkhia,
Eta ene bazkatzeko beloaz estalia,
Damu eta dolore dut bidera ezin illkhia,
Errezibi zazu othoi obrarentzat nahia.

Konpaiñatzen dutenek athean

O longoiko puxant, eta aziendez bethea,
Hemen egizu dohañez bethetzeko sartzea,
Nola Arkak lehenago Obed prestuarena,
Ontasunez bethe zazu etxe hunen barrena.
Bai halakoa egizu laun puxanta sartzea,
Zure obrez senti dadin non sekulan etxea.

Gelan sartzean berzeek

O Iesus Apostoluen erdira agertua,
Athea zegoelarik barrenetik herstua
Fin gabeko emateko benedikzioeak,
Eta allegeratzeko hekin gogo tristeak.
Bere falten kausaz balu arimaren athea
Zarratua, berantzeko eriak zure sartzea.
Arren poxeluetarik othoi libra ezazu,
Gero abundantki zeure graziaz bethezazu.

Gelan sartzean eriak berak

Ungi sarthua zarela milla, eta milletan,
longoiko eta gizona, egun ene athetan.
Zure sartzeari eman badiot enpatxua,
Hura khendurik ni baithan egizu ostatua.
Baña nihola eznaiz digne bekhatorez handia,
Ene gana zure noble hers dadin prezencia.
Alabañan nahi nauzu zeronek bisitatu,
Eta neure beharrean graziaz faboratu.
Arren bada (lainko eta Aingeruen ogia)
Ene baithan isur azu othoi zeure graria.

Gorputz saildua hartzean eriak

Iainko handi, Mana dulcez ludutarrak hazia,
Harik ardiatsi zuten zuk agindu herria.
Mana hura baño hobez haz nazazu gaxoa,
Zure Semearen gorputz sailduaz ohekoa.
Eta baldin akhabatu behar bazait bizia,
Arren ungi fiñatzeko egidazu grazia.

Gorputz saildua hartzean berzeek

O longoiko, Eliasi belea egorria,
Bai Daniel Profetari Abakusez ogia,
Goseak zeramatzanak muga gabe hilltzera,
Zu orhoitu zinen hekin bien faboratzera.
Arren othoi haz ezazu ohean den eria,
Bianda Sailduarekin bidaldurik grazia.

Gorputz saildua hartu eta, eriak

Milla esker darozkitzut (longoiko gizondua)
Zeren ene gatik zaren ianhari bihurtua.
Milla esker, zeren iausti zaren ene baithara,

Kreatura gaxoaren hanbat faboratzera.
Arren bada hill beharrak faboratu nahia,
Ene arima puxantki senda zazu eria.

Gorputz saildua hartu eta, berzeek

Bizitzearen fruitua Edenen laudatua,
Eriaren arimari emozu konfortua.
Horren gana gertha eztadin alferrik deithatua,
Seme bedinkatuaren gorputz preziatua.
Ungi egille ezin aski gizonek laudatua,
Ene othoitzza zure gana biz arren altxatua.

Illkhitzean gelatik eriak berak

Adiu beraz (Jesus-Kristo) kanpora zoazena,
Eta halarikan ere ene baithan zaudena.
longoikoaren indarrak egin eztezakenik,
Mirakulluetan ezta mirakullu gorenik.
Bat delarik eman diro bi lekhutan presuna,
Eta hori muga batez hain da puxantzaduna.
Ezin konda ostietan eriaren golkhoan,
Nola manera berean zero gorenekoan.
Adiu ene haz-Aita ona bethi zeure graziaz,
Ene baithan geldi zaite, baldin ez presentiaz.

Illkhitzean berzeek

Iesus-Kristo, gure artean hostian zaudezena,
Eta Iudizioraño illkhiko etzarena.
Etxe hunetarik illkhi arren saindu lohiaz,
Arren bethi egon zaite lainkotasun handiaz,
Gure faltentzat osoki Iesus satisfatua,
Arren othoi adizazu gure debot plañua.

Bidean itzultzean berzeek

O longoiko aski ungi ezin konpañatua,
Erituari emozu galde duen donua.
Guri ere egiguzu iarraikiei grazia,
Zeruetan aurkhitzeko errepausu nahia.

Eriak berak

Iainko Seme Ejiptutik herrira bihurtua,
Zure graziaren naizen bethiere Tenplua.
Elizarakoan ere duzun nitzaz antsia,
Eta eznazazula utz bethiko ahantzia.

Elizara itzuli denean eta bethiko eriak

O longoiko, iauregitzat Eliza hautatua,
Handik gaztelutik legez laguntzeko mundua.
Zuk eztehadazula, launa, eman hain handia,
Non bethikotz ni utzirik parti zaiten gladia.
Bañan ene baithan geldi zaite amudioaz,
Lehen ere gurutzean erakutsi osoaz.

Elizara itzuli eta konpañatu dutenek

O Iesus Krist, Elizari aziendak utzia,
Eta berzeren artean saildu Induljenzia.
Zuri iarraikiei othoi egiguzu grazia,
Irabazteko digneki erran Thresor handia.
Halaberki eriarri egiozu dohaña,
Probetxu handitan gertha dakion hartu Mana.

BURU XXXIII

Alunzio edo oliadurako othoitzak biltzera

Etsitzean eriak berak

launa hala denaz geroz zure borondatea,
Gorputzetik parti dadin ene arima tritea.
Arren bada partidan, egiozu grazia,
Azken Kristauaren armaz aurkhi dadin iauntzia.
Gehiago Elizako zenbait gizon hautatu,
Hain bide gaitzean duen Zeruraño pillotu.

Hiltzera etsitzean berzeek

Zure kontra altxatzea orobat da lainkoa,
Gigantari ondartzea nola hebain flakoa.
Bethiere egin bedi zure borondatea,
Ezen berdin gizonaren bizia da zurea.
Manatzen duzunaz geroz alda dadin mundutik,
Arren azken faborea egiozu Zerutik.
Olioaz gantzuturik zarra dezan begia,

Konbatean bentzutzeko etsaiaren furia.
Alunzioa hartzeko egiozu donua,
Ixurba dakion baño lehen adimendua.
Eta hartzean begira dezan errespetua,
Guarda dezala Eliza Amak desideratua.

Alunzioko ezkillak iotzean eriak

longoikoa, aditu dut ezkillaren soñua,
Azken armaz bezi nadin dut adbertimendua.
Ene arima prepara zazu bekhatoresa,
Konbatitzeko soñera dezan saindu harnessa.

Ezkillak aditzean ezin doanak

O longoiko lob prestua hanbat faboratua,
Adiskide mamienez zelarik laidatua.
Arren bada eriarri egiozu donua,
Zeñen gatik iotzen baita ezkillak soñutsua.
Dohatsuki iauntzi dezan arimako harnessa,
Etsai gaxtoari bere hautsteko entrepresa.
launa, othoi adizazu ene othoiz garbia,
Eta fabora ezazu hanbat gaxo eria.
Eta exkusa nazazu zure arma saindua
Zeren laguntzen eztudan, izanez ezindua.

Ezkillia aditzean ioanen denak

laun ona, bekhatorea ezta hain goiz iaikia,
Atzartzeko non etzaren lehen iratzarria.
Aditzen dut premietan dela Kristau laguna,
Arren fabora ezazu behar duen adiña.
Niri ere egidazu othoi, launa, fabore,
Alunzioari ekhar diozadan ohore.

Alunzioa konpañatzean

Handi dire (longoikoa) zure Misterioak,
Arrazoin da ondra detzan zaldu gizonezkoak,
Hartarakotz errezpetuz arka gidarazia,
Eta beldur etzirenak lurrerat egotzia.
Egidazu liberalki arren othoi donua,
Ohorez konpañatzeko Alunzio Saindua.
Eta eriarri ere emozu berthutea,
Garaitzeko Belzeburen furia aserrea.
Halaber egikedazu niri ere fiñean,
Arma hunen beztitzeko grazia azkenean.

Alunzioarekin batean direnek

O Iesus Krist mansoago are ezen bitiña,
Eta olioan handi misterio egiña.
Zori onez naizen othoi bathu sainduarekin,
Ustekabetarik egun alunzioarekin.
Gehiago eriari egiozu dohaña,
Olio sakratuz gorputz gantzu dakion gaña.
Eta arimari ere halaberki donua,
Alunzioaren senti dezan fruitu Saindua.

Alunzioa hartzean eriak berak

O Erregeen Monarka, ezta kontent zurea,
Ungi baten egiteaz xoillki borondatea.
Bañan bazkatu ninduzun legez Gorputz sainduaz
Orain olio borthizten nauzu bedinkatuaz.
Ea beraz, o armada guztien kapitaña,
Lehenen gañera berze egidazu dohaña.
Non ene arima gantzu zazun zeure graziaz,
Nola gorputzaren gaña olibaren uriaz.
Armatuarekin Kristauaren azken arma sainduaz,
Zaurthu gabe parti nadin mundutik Deabruaz.

Alunziatean berzeek

launa, fabora ezazu premian dagoena,
Eta sarri bere etsaiez atakatuko dena,
Arma zazu Alunzio sakratuaz eria,
Olioaz, konbateko nola borrokaria.
Errotik khen diotzotzu bekhatuen kutsuak,
Etsi gaixtoak dituen bideak zarratuak.
Ezen azken garaiak du khoroatzen gudua,
Othoi bada garaitzeko zuk emozu donua.

Alunzioa bihurtzean eriak

longoikoa, egin nauzu Ezkutari armatu,
Ezen burutik oñera armaz nauzu gogortu.
Hartarakotz (laun puxanta) zuk indazu grazia,
Berthutezki non etsaien kontra nadin balia.

Alunzioa bihurtzean berzeek

O longoiko, premietan faltatzen eztuzuna,
Arren herstuaren gan zaren faboreduna.
Eta olioaz gantzutu den bezala lohian,
Arren fabora dezazu arima beldurtian.

Elizan Olio saindua gordetzean

O longoiko, arma saindu Zerukoen iabea,
Arrazoin da zerbitzatu ondoan itzultzea.
Nola soldaduek armak, gerlatik bihurtzean,
Gaztelutara itzultzen baitituzte soñean.
Bozkarioz darraiela jendetzea ondotik,
Eta laudatzen tuztela senda gailleen gatik.
Halaber itzuli tugu, zure arma Sainduak,
Bere lekhu egokira ungi konpañatuak.
Eliza da zure armen arsenal, lainkoa,
Huna bada konpañatu dugu Alunzioa.
Bethi othoi zaudezke prest gure defendatzera,
Eta orain perdonantza Sainduen ematera.

BURU XXXIV

Hiltzerako pontuko othoitzak

Hiltzera doanak berak

O longoiko, zeñen baita ezagun bihotz bera,
Bekhatorea mundutik doanean berzera.
Arren errezibi zazu triste ene arima,
Eta lustuen dezazu konpañian arrima.
Hura zuri gomendatzen darotzut, longoikoa,
Urrun haiza diozozun bele Ifernukoa.
O longoiko gurutzetik ohoña salbatua,
Arren errezibi zazu ene espiritua.

Hiltzerakoan berzeek

Egun eta sekulako handienen premia,
Hiltzen denak presentean du laun bihotz eztia.
Arren fabora ezazu othoi zeure graziaz,
Hobeago baten gatik gabe dadin biziaz,
Hartarakotz, kreaturen Aita formatzaillea,
Zeruraño zaren othoi horren gidatzaillea.

Ezagutza galtzerakoan eriak berak

O longoiko ene gatik Semea egorria,
Arren othoi ikhus azu ene behar handia.
Sentitzen dut flakatuaz doatala burua,
Eta lehen ezagutza hagitz lilluratua.
Arren bada othoitz egin dezakedana.
Ene boza adizazu zeru urrunenean.
Barkhamendu eske nago egin tudan hobenez,
Arren barkha dietzadatzu zeure eztimasunez,
Esparantza hartan zure eskuetan neurea,
Gomendatzen dut arima beldurkunder bez bethea.

Ezagutza galtzerakoan berzeek

Adimendua dueño egiozu grazia,
Arima erremedia dezan hutsez eria.
Ezen hura galdu behar dugun azken pontuan,
Ordena ematen duzu glorioso Thronuan.
Handik hara emana da sekulako Arrasta,
Anartean beraz zure dohañak detzan dasta.
Hartarakotz, o longoiko, pietatez bethea,
Bere bekhatuez othoi emozu dolorea.

Arimak egitean berzeek

launa khasa diozozu arren heren Sugea,
Inguruan dabillkona pozoin miñez bethea.
Eta zertan ere baitu iduki sinhetstea,
Zertzaz halaber baitzuen gozatzeko ustea.
Hura bera, laun puxanta, diozozu erakuts,
Eta salbaiaren gisan othoi ezazula utz.
O longoiko Elizaren gobernari segura,
Othoi gloria emozu sinhetsi duen hura.

Ezin hillez penatzean

longoikoa, ezin hillez tormentan den eria,
Arre fabora ezazu doloretan iarria.
Eta duenaz geroztik medikuak etsia,
Sarri partitzeko othoi egiozu grazia.
Eta zeure diozozu erakuts bekhokia,
Heriotzea manatzen duzun, lainko handia.

Berzea sujet bereko

O longoiko, iustu eta pietatez bethea,
Presenteko eriaren ikhus azu nekea.

Biziaren diozozu lixa korapilloa,
Zure begitarte ikhus dezan gloriosoa.
Ezen hiltzea delarik gaitz guztien azkhena,
Luzaroki hiltzea da ordean azkenena.
Hartarakotz hirur haurrak sutarik libratua,
Zeure gana deit ezazu arima nekhatua.

Othoitz haukin zarratzea

Othoitz eman ditugunak hemen eriarentzat.
Gaitz duk berak erratea erbal hurrenarentzat.
Haren partez erratzikek hik presuna sendoa,
Agertzen dukela haren gana amudioa.
Ezen launak errana duk batak berzearentzat,
Othoitz dagigun fiñean Zerura gaitezentzat.
Eriaren inguruan asko jende tristerik,
Beha ziagok hark duen penaz damu harturik.
Othoitz hauk irakurtzakek halako orduz debotki,
Ahalaz faboratzeko arima amulsuki.

BURU XXXV

Hilletako othoitzak

Arimak egin bezain sarri

laun puxanta, arren othoi illkhi zaite bidera,
Palazio miragarri zeurearen athera.
Eta errezibi zazu ungi espiritua,
Gorputz erbalaren ganik doidoia erdutua.
Arren barkha diozotzu hutsen pena goitiak,
Sarri eman dietzatzun kantiko mereziak.
Eta ezazula beha gaztigu faltenera,
Bañan zeure klemenzia fiñik eztuenera.
Bengatzaille etzarela gaxoaren gañean,
Bañan barkha diotzotzu penak orai berean.
Purgatorioetara ezazula desterra,
Aitzitik erakuts ozu zeure korte ederra.
Zuek ere, o dohatsu mundutik partituak,
Bai eta zuek Aingeru eta Arkanjeluak.
Arima izituaren zatozte aitziañera,
Eta ertxa zazue, launa, penaren kitzazera.
Hala egizue bada gu bezala izanak,
Faboratzatzue othoi gure artetik ioanak.

Hill ezkilletan

longoikoa aditzen dut hillarentzat ezkill,
Haren gatik adizazu ene othoitz humilla.
Arren bada penaz baliz purgatzeko labean,
Zuk emozu lekhu plazent dohatsuen artean.

Ahukuetara billtzean

O longoiko botheretsu, zeñen baita manua,
Bizi denak ondra dezan mundutik faltatua.
Hill denaren ariaz da osatzen ahukua,
Zure Maiestatearen othoitzeko husua.
Arren zabal diezezu othoitzei beharria,
Eta zaite defuntua libratzera lehia.

Gorputza Elizaratzean

Ejiptutik atheratik lehor ia agindua,
Itsasoak iraganik luduei libratua.
Hobira iasaten dugun gorputz hillarenari,
Errepausua Zeruan emozu arimari.
Eta faltak egin baitu bere erbaltasunaz,

Barkha diotzotzu othoi zeure mansotasunaz.
Iainko handi eta Iesus Kristauen Erregea,
Arren othoi lauda zazu gure orazionea.

Elizako obsekioetan

longoikoa, aphezaren obsekioekien,
Gure othoitz adizazu bildu garen guztien.
Arren bada altxa zazu othoi leze baxotik,
Defuntuaren arima Purgatoriokotik.
Eta egiozu lekhu sehiekin artean,
Aire guztia iraganik Zeruaren gaiñean.

Meza erratean

launa, othoi errezibi zazu Sakrifizia,
Hillarentzat presentean debotki eskaña.
Eta hunen ordain, suak doloratzen duena,
Zeruetara ganbia zazu othoi arima.
Hanbatenaz zure gana den zordun gehiago,
Zenbat sutik baitukezu athera sarriago.

Ehortzteko insensatzean

Elizak insendatzen tu launa hillen gorputzak,
Errespetu handirekim direlarik lur hutsak.

Arima urgatz ezazu nekez bada kharrean,
Nola ohoratzen baita gorputza hillohean.
Arren zure gana igan bedi gure auhena,
Airean gora bezala khe insensuarena,
Eta Purgatoriotik libra zazu arima,
Zeñak kharrean ikhusten baitu handi lastima.

Gorputza ehortztean

O longoiko, Aita Adam lurretik formatua,
Eta Eva haren saihetz hezurrez moldatua
Lur zohitik illkhi dena gero ere lurrera,
Epheak iragan eta bihurtzen da berera.
Azken luamenduraño lurraren bihotzean,
Egon gehar du trunpetak io dezaken artean.
Bañan arimari othoi egiozu grazia,
Sarriago purgatzeko labetik den illkhia.
O longoiko zenen baithan baitugu esparantza,
Arren surtako emozu penetarik librantza.

Hill egunean

longoikoa zurea da egundanoz kostuma,
Erorkorrei barkhatzea bekhatuen bilduma.

Arren ezazula agin pena dadin labean,
Defuntuaren arima khar handiaz bethean.
Bañan zure baithan zeren eman duen fedea,
Zabal diozozu othoi Zeruaren athea.

Bederatzi urrenean

O longoiko, Espiritu guztietako hautua,
Zeure gana alda zazu defuntu penatua.
Eta mana zazu othoi Migel arkanjelua,
Surtarik delira dezan kharrez inguratua.
Hala egizu laun Zeru eta Itsasokoa,
Eta fabora ezazu penetan den gaxoa.

Urtha buruetan

longoikoa zuri zaitzu podorea emana,
Surtarik atheratzeko penak daramatzana.
Arren bada libra zazu zeñen urthaburua,
Haren egokiez baita Elizan orhoitua.
Zeure emetasunaren isur azu ihintza,
Bethi zure laudatzeko darotzugu agintza.

Bethiere

Bethiere da denbora zure othoiztekoa,
Oñhazetik libra zazun arima miñpekoa.
Azken luidamenduraño dolorek eztirauten,
Arimentzat gure othoitzak entzun etzatzu aurthen.
Beregainki adizazu laun ona oraingoa,
Eta sutik libra zazu handi duen mengoa.

Sepulturen gañean

O longiko, zeñen guztiz manamendu hertsiaz,
Defuntuak ohoratzen baitire lur zohiaz.
Lar abre edo xorien ahotarik gorderik,
Eta arrañei apasta ere eman gaberik.
Arren bada gorputzari sepultura bezala,
Arimari ere emon Parabisu zabala.

Edozein lekhan ehortzientzat

Zenbat arimekin lagun gorputz, lur idorrean,
Egortzirik baita edo itsaso zabalean.
Arren gogora bekizu hekin ohoitzapena,
Eta labur diezezu doloratuei pena.

Athera ditutzun legez gorputzaren zepotik,
Hala othoi egizitzu presondegi sukotik.
Barkha diezezu pena hobenei egokia,
Eta urrikariz eman fin gabeko gloria.

Bidetan hill direnen gurutzeak inkuntratzean

Noren heriotzearen orhoit garri habea,
Hemen ifiñia baita Iesus Kristen noblea.
Arren haren arimari baldin bada penetan,
Errepausu, laun puxanta, emozu sainduetan.
Eta gurutzean eman zenaren othoitzera,
Tormentatik altxa zazu dohatsuen artera.

BURU XXXVI

Haur ttipientzat othoitzak

Haurra eri denean

Iesus Kristo, karitatez araitziña errana,
Haur ttipiak utzkitzue dathozen ene gana.
Arren bada eriarri emozu osasuna,
Eskerraren bihurtzeko ikhus dezan eguna.
O longoiko, Eliseaz haur ttipia bitztua
Eta ama tristeari sendorik bihurtua.
Indarrera itzul azu haur gazte hill-hurrena,
Noiz bait diezazun itzul esker ungi hunena.

Haur ttipientzat eskerrak sendatu denean

Ana desolatuari Samuel aithortua
Eta ordain milla esker Tenpluan izatua.
Milla eta gehiago ditutzula eskerrak,
Zeren haurrari itzuli diotzotzun indarrak.
Berak ere lauda egun gatean zaitzakela,
Zeren guardatu zinduen hilltzetik haurtxo zela.

Haur ttipia hill denean othoitzza

launa, zuk hautetsi duzu haur ttipia mundutik,
Nigar ta miseria baizen ezten lekhutik.
Eta sarrarazi duzu Sainduen iauregira,
Hekin balsan emateko urreztatu kadira.
Maleziak gaixtarazi etziozan bizia,
Zeure gana deithu duzu hain laburki ttipia.
Orain bada sentitzen tu plazer sekulakoak,
Agien baititukeen pena ifernukoak.
Hala bada laudorio duzula neurri gabe,
Zeren erakutsi zaren hain arduradun iabe.
Sinhetsteaz segur gare batre gabe ageru,
Tronuaren aitzinean dagoela Aingeru.
Baita dohatsuen balsan eresien kantari,
Eta zure fin gabeko ontasunen koplari.
Garazia egiguzu salbatuen artean,
Gure amoreak gatik dagoen othoitzean.
Fin gabeko nola baitu ardiatsi gloria,
Han gu ere hel gaitezen faltatzean bizia.

BURU XXXVII

Estatu gaixtoan eri direnentzat edo direla eskumiku, Pagano, Iudu, Infidel edo Giristiño gaixto

Eztiat nik honda dadin nahi bekhatorea,
Bañan urrikirik itzul dakidan erraillea.
Arren estatu txarrean gaitzak atzemanari,
Bihur dadin egiozu grazia eriar.
Osasuna ere emozu itzultzeko grazien,
Eta leheneko ordain egiteko ungien.
Baldin Zeruetan eman baduzu sententzia,
Herioarekin alda dezan maite bizia.
Hillen bada ere othoi egiozu grazia,
Goatzeko atseginez bethea den gloria.
Zeren hobeago baita noizbait ezen sekulan,
Zure gana itzul dadin nigar eta dolutan.
Ea beraz bethiere besoak zabaldua,
Arren egin diozozu itzultzeko donua.

Sendatzen bada konbertiturik

Milla esker ditutzula lainko dohaingillea,
Zeren erauki diozun osasuna doblea.

Lehenikan arimari itzultzeko grazia,
Eta gero gorputzari sendatzeko zoria.
Bata eta berzearen ahal egin guztiaz,
Zaradela laudatua egin duzun graziaz.

Sendatzen bada konbertitu gabe

O longoiko, kreatura guztien gidaria,
Nihork ezin neurt lezake zure iakin handia.
Milla esker ditutzula itzuli osasunaz,
Eta hobe dadin egin diozun ontasunaz.
Eriz, eta sendatuez zaradela laudatu,
Eta dagotzun bezala munduaz ohoratu.

Hiltzen bada konbertiturik

Hanbat nuela ere mihi zenbat konstan harea,
Oihanetan ostu, eta Itsasoan balea.
Ezin nietzakiketzu itzul doiki eskerrak,
Zeren eman diotzotzun hain partitze ederrak.
Zeruetan dizkitzula berak laudorioak,
Guk eman darozkitzugin baño gehiagoak.

Hiltzen bada konbertitu gabe

Zure lustizia (lainko puxanta) da garratza,
Nola miserikordia eme eta malhatsa.

Arren bada zuk begira gaitzatzu perilletik,
Ezin zerura gaitezken gisan partitzekotik.

Nola baita presenteko defuntua erdutu,
Zure ontasuna gana zein ez baita bihurtu.

Hargatik zaio gorputza ehorsten berropean,
Nola arima dongea Deabruen artean.

Arren bada Eternala, zuk gaitzatzu begira,
Molde hartan ezgoazen astru gaizki hobira.

BURU XXXVIII

Polizako othoitzak

Edozein polizentzat othoitzza

O Komarka, eta estatu mundukoen burua,
Hek guztiek zure ganik dute mobimendua,
Arren hala gidatzatzu aitzinera polizak,
Non mirailtatzat har detzaten zure ahoko hitzak.
Gizon pillen azkhen fiña den iustutasuna,
Bethiere ondra dakin zure goratasuna.

Poliza espiritualarentzat edo elizarentzat

O longoiko, Elizama Sainduaren xedea,
Zure ganako irakats diozozu bidea.
Konpliturik ordenantza eman tutzun iustuak,
Zeruan eraman detzan sekula dohatsuak.
Dohain egiozu hala bizi dadin lurrean,
Rekompensa non handia duen Zeru gañean.

Aita Sainduarentzat

longoikoa, zeure ordain lur baxoan utzia,
Arren fabora ezazu Aita Saindu bizia.
Iustuki erabill detzan munduaren hedeak,
Nola desiratzen baitu zure Saindu legeak.
Hartarakotz zuhurtzia guztien ithurria,
Arimen gobernatzeko egiozu grazia.
Ezen mundu Beherean dabillan gizondiaz
Kontu bihurtu behar du nola bere elhiaz.
Arren bada kreatorre legeen iankitsuna,
Egiozu karguaren komplitzeko ontasuna.

Kardinal eta Prelatentzat

longoikoa, argitzatzu elizaren begiak,
Zein baitire Kardinale eta Prelat guztiak.
Zuhurtzia eta konseilluz zure lekhukoari,
Lagun dakitzon buraso Giristiñoenari.
Eta mugaz orhoit zaite hekien batzarreaz,
Eta abisu beharrak fuñera emateaz.

Geure Prelat propioarentzat

Berze Prelatei ere bai, longoikoa grazia,
Gutziz ere gureari emozu berezia.

Diozesa guztiaren ungi gobernatzeko,
Eta zure hitz Sainduaz jendea bazkatzeko.
Konpliturik obra onez zure borondatea,
Ediren dezan Zeruan rekompensa noblea.

Prelata errezibitzeana

Zure izen sakratuan ungi dela ethorri,
Nor baituzu arimekin gobernuko egorri.
Ezen ezagutzen dugu dela zure ordaña,
Eta ardien onera gidatzeko arzaña.
Milla esker ditutzula Iainko arduraria,
Zeren egin darokuzun hain fabore handia.
Gehiago agin beza zure Majestateak,
Gure alderako konpli detzan eginbideak.
Guk halaber errespeta dezagun ohorezki,
Eta zure lekhukoa den bezala obedi.

BURU XXXIX

Poliza Tenporalekoentzat

O longoiko, erresumen lehen buruzagia,
Arren gurera zabalik idukazu begia.
Iustizia administra dadin behar maneraz,
Eta deus egin eztadin herraz eta koleraz.
Zeru eta lehorraren indartsu longoikoa,
Dohain ere egiguzu ungi bizitzekoa.
Garelarik miseriaz betheko larrañean,
Bizi gaiten Aingeruak nola zure kortean.

Erregerentzat

O longoiko, Prinze eta Erregeen lehena,
Arren goberna dezazu bihotz Erregerena.
Eta ungi burutzeko emozu zuhurtzia,
Bere azpiko diozun eman jende guztia.
Eta nola lehenago Salomoni antzea,
Ungi gidatzeko eman baitzinoen jendea.
Arren hala gureari emozu iakitea,
Gobernatzeko behar den legez proplu xehea.

Erresumek darauntsaten gida gaitzan fiñera,
Zure ohorea eta geure arteko bakera.

Konseillariantzat

Konseillari eta zuhur guztien nausia,
Gure erresumakoei emotezu argia.
Ifin detzaten kostuma eta Saindu legeak,
Behar moldez bizi daiten gañerako jendeak.
Hartarakotz emotezu burura prudenzia,
Urrundanik ikhusteko heldu den gaitz handia.
Eta nolako fiñean Moiseri lagunak,
Eman baitzinotzan gizon konseillu handi dunak.
Gure Erregeri ere konseillari bereak,
Emotzitzu adimendu handiaren iabeak.

Gobernadorearentzat

Beregainki kargudunak faboretzen tutzuna,
Arren fabore ezazu gobernari duguna.
Trabailuen eredura emozu berthutea,
Eta egitekoetan adimendu ernea.
Eta fiñean losue, eta Kaleb bezala,
Fabora ezazu gure gobernaria hala.

Gobernadorea errezibiztean

Zure amoreagatik gutzaz dela laudatu,
Gure gobernatzekotzat nor baituzu bidaldu.
Egiozu horren diren manamendu iustuak,
Eta hekin konplitzeko gu garen prestatuak.
Gaizki zerbitza eztadin eman zaion puxantzatz,
Eta gu ere ez Samur zuzen den ordenantzaz.
Bietarik illkhi dadin harmonia ederra,
Eta on haren dakizun zuri itzul eskerra.

.

Herriarentzat

longoikoa, adizazu arren gure othoitza,
Eta fabora ezazu othoi gure egoitza.
Hemen duzunaz geroztik ordenatu geurea,
Daramagun bizi pena eta nekez bethea.
Arren bada bethe zazu ontasun mundukoez,
Halaberki aberatsten duzula Zerukoez.
Iustizia behar legez bethi dadin balia,
Zeña berthute guztien baita andre handia.

Ziñ egotzientzat edo iuratuentzat bethi

O longoiko, Erregea eta launen laudatzaillea,
Zeru eta lehorreko puxantza da zurea.
Arren egizu othoi kargudunei grazia,
Gobernatzeko zuzenki karguz duten herria.
Berek lehenbizikorik emanik exenplua,
Onera mobi dezaten gañerako mundua.

Iuratuak egiterakoan

Saul eta David onaren Prinze hautatzaillea,
Egiguzu karguduntzat prestuen bereztea.
Bere manuz eta exenpluz gañerako berzeak,
Ertxa detzaten prestuki bizitzera jendeak.
Eta gaboreak othoi berzeri ez bezala,
Isur dietzatzu launa behar tuzten bezala.

Iuratuak hautatu eta

Eternala, lauda zazu karguendunen hautua,
Eta berret diezezu othoi Espiritua.
Hala nola Moiseri berze guztienetik,
Adimendua berretu baitzinoen artetik.

Hala berret diezezu, laun ona, zuhurtzia,
Kargura deithuei ungi gidatzeko herria.

Iuratu hautatuek berek

O longoiko, zeñen ganik baitirade puxantzak,
Irakats dietzagutzu iustu diren usantzak.
Gu ezgaren bezalako zirelarik guztiak,
Halarik itzuli tutzu gure gana begiak.
Milla esker ditutzula hargatik bereziaz,
Berzetarik guri egin darokuzun graziaz.
Arren bada argizazu othoi gure burua,
Arrazoñez konplitzeko eman zaikun kargua.

Batzarre egiterakoan

O adimendu guztien zuzi argitzaillea,
Presenteko argizazu gizonen batzarrea.
Irakts diezaguzu gauza bidezkoena,
Hartan gelditurik lege demagun hoberena.
Deusik egin eztezagun herratsu banderizaz,
Bañan gauzak nola diren ordenatu Elizaz.
Pasione odolsuak khen etzatzu burutik,
Gure obrez glorifika zaiten baxo mundutik.

Batzarrea egin eta

Lege guztien zu zare, launa, laudatzaillea,
Eta nahi ditutzunen halaber hautsaillea.
Arren othoi lauda zazu orain eman duguna,
Zein progotxatzeko baita gure ustez komuna.
Hartarakotz, laun, puxanta egiguzu grazia,
Hura begietz dezagun obretara illkia.
Prinzipalki lauda dadin zure izen altoa,
Eta gero edifika ungi Giristiñoa.

BURU XL

Okasione siñalatuetao othoitzak

Prosperitatean

O Iesus-Krist, deus gutiaz kontentatu ziñena,
Indazu grazia gutiz kontentatzearena.
Hartan iduki nazazu neure oso mendean,
Alfer errenda ez nadin zure Saindu legean.
Deusek eztu nihor galtzen hala nola aisiak,
Ezen agudo zirenak egidazu grazia,
Doiaz baño gehiagoz ez nadin gutizia.

Tribulazionetan

Iesus Kristo, gazte danik trailla lutan hazia,
Tribulatuaren gana itzul azu begia.
Eta nauzun urrikari gaitzez nahastatua,
Gogotik darotazula khentzen triste dolua.
Ea konsoladorea othoi hiragarria.
Ideki diezadazu bihotzetik garria.

Edozein ontasun galdetzeko

O longoiko guztiz ona, zeñen on izateak,
Pasatzen baititu berze atributu nobleak.
Arren bada iguzkitzu frankoki ontasunak,
Parabisu sainduraño traba eztitugunak.
Hartarakotz bethe zazu hetzaz gure alzoa,
Eske gaudezen guztia aithorturik frankoa.

Gaitzen gibelatzeko

launa abhorritzen duzu gaitz guztien billduma,
Eta hetarik guardatzen maite duzun presuna.
Zuk dakizu nondik ethor ahal dakigun gaitza,
Traba diozozu gure ganako iragaitza.
Erraix gare bentzuzeko nekeak frogatzean,
Eztezazula permeti nahaz gaiten bahean.

Bakearentzat

O Iesus bakea hanbat aldiz gomendatua,
Apostoluei halaber hura desiratua.
Egiguzu bake handiz bizi gaiten lurrean,
Harik eta gure egunek fiña duten artean.

Zeruetan altxatzeko zure izen Saindua,
Zeren eman ziñarokun hain ontasun hautua.

Gerla deneko

laun puxanta, boz detzazu arren gure bihotzak,
Eta eskutarik etxa tzatzu arma zorrotzak.
Izialdura gaberik daramagun bizia,
Bethiere laudatzeko zure izen handia.
Eztezazula permeti dakuskigun zelhaiak,
Koloraturik odolez ez hain guti ibaiak.

Osasunarentzat

longoikoa, arren othoi iguzu osasuna,
Gure gorputzen zein baita prinzipal ontasuna.
Zure ondratzeko aurkhi gaitezen batzarretan,
Edo Elizako edo munduko onhestetan.
Arren bada laudazazu gure khartsu othoitza,
Eta gibela dezazu eritasun borthitza.

Eritasunetako

longoikoa ikhus azu arren flakotasuna,
Eta gorputzari arin bere eritasuna.

Othoi urrikal bekizu dolorez zerkhatusa,
Eta adi zazu haren auhen suspiratsua.
Ezen zu zare erhasun guztien sendaria,
Arren bada senda zazu penaz datzan eria.

Mantenuarentzat

Mana ezti ludutarrei mortuan fornituia,
Eta ethentzetik tresnak oso begiratuia.
Guri ere biziaren iguzu mantenua,
Ahoko eta soñeko behar dugun iustua.
Gañerako berze deusak plazer duzun bezala,
Zuk ordenatzen duzuna bethiere biz hala.

Miseriakotzat

O longoiko, lob sinduaz pietate hartua,
Zure begietan othoi naizen urrikaldua.
Eta ikhutsazu ene miseria handia,
Eta ezazula egin noan billuz gorria.
Bañan fabora nazazu behar dudan guztiaz,
Lazeriatuen gana usatu kortesiaz.

Lurreko fruituentzat

O longoiko belhar eta arboladiz lehorra,
Berregintza handirekin biztatua idorra.
Arren bada guardatzazu lurreko ontasunak,
Gure bizi probearen mantenuko lagunak.
Sasoñera ekhartzitu belhar eta fruituak,
Eta iguzkitzu othoi Abustu konplituak.

Berze denbora gaitzetako, tormenta deneko, edo kalerna, etc.

longoikoa, denboraren afruntutik fruituak,
Arren begira etzatzu ia erdi umatuak.
Hartarakotz guardatzatzu bero soberetarik,
Bai halaber izotz haize, eta hotz aspretarik.
Ematzatzu Soñulari airearen tormentak,
Bethiere baketurik daudezen elementak.
Lar abreak ere egin eztezaten dañurik,
Iduki etzatzu othoi, laun ona, hastandurik.
Fruituak ekhar etzazu billtzeko sasoñera,
Elezara bozik goazen milla esker itzultzera.

BURU XLI

Denboraren ereduko othoitzak

Hedoia ikhustean

O longoiko, hedoiaren gidarazitzailea,
Ene gañean iduki zazu begi ernea.
Xuxen ibill nadin zure manuen xidorrean,
Faltetan erori gabe munduko batzarrean.

Xixmixta ikhustean

O longoiko, xixmixtaren bitzarazitzailea,
Arren eznadukazula beldurkunder bezhea.
Bañan begira nazazu gañerako kaltetik,
Gutz ere subituki biziaren galtzetik.

Ibortzeria aditzean

Iainko iborziriari oihu eragillea,
Othoi urrikal bekizu ene auhen tritea.
Ezen habarrotsak darot ikharatzen bihotza,
Arren gibela ezazu lethorken gaitz borthitza.

Ozpiña erortzean

O laun, Prinzeak ozpiñaz lotsarazitzailea,
Nondik zure handi baita ezagun podorea.
Arren begira nazazu haren zauri dorphetik,
Biziaz eznazan gabe preparatu gaberik.

Dragoña ikustean

O longoiko, dragoñaren bararazitzailea,
Arren kalte egitetik idukozu hede.
Puxantza duzun bezala aldazazu partera,
Nihori kalterik ekhar eztiozokenera.

Kometa ikhustean

O laun puxant, Kometaren, iratxakitzailea,
Hobe daiten emateko gizonei señailea.
Arren bada hobetzeko egidazu grazia,
Mehatxuaren pena iaunts ezakidan larria.

Iguzkia edo Illhargia illhuntzean

O longoiko, zeñen baita handi probidenziaz,
Argizagia gabetu kostumatu argiaz.

Eta hura aditzera emateko jendeei,
Bere bekhatuetarik illkhi daiten gaixtoei.
Ezperen darostetzula kolerazko tragazak,
Gañera deskargaturen borthitz eta garratzak.
Arren bada, laun puxanta, egiguzu grazia,
Zuk nahi duzun bezala hobetzeko bizia.
Ethor eztakigun kalte halakorik gañera,
Bañan bizi gaiten zure manuen arauera.

Holz-adarra ikhustean

O longoiko, holtz-adarra Noeri iraikia,
Ez han hara bidaltzeko dilubio handia.
Arren begira gaitzatzu uri soberetarik,
Haize babazuz, bai berze tormenta gaitzetarik.

Iguzkia ikhustean

O longoiko, egunazkotz iguzkia egiña,
Orduan gizonak obra dezan bere iakiña.
Hanbat dohain egidazu non deithu nauzunean,
Osasunarekin nekha nadin ungi artean.

Illhargia ikhustean

launa, zuk gauazkotz duzu illhargia formatu,
Zertzaz baituzu gizona handiro faboratu.
Hartarakotz hanbat esker duzula ene mihian,
Zenbat inguru egiten baitu Zeru goitian.

Izarrak ikhustean

O longoiko, izar klarez Zerua bistatua,
Eta gorago egina zeure Parabisua.
Egin diezakedazu egun batez grazia,
Oñ azpian ikhusteko hekin nonbre handia.

Halabiz

BURU XLII

Biaietako othoitzak, eta lehenik Erromeria Sainduetako

Abisua

Erromeria egiten duk, Giristiñoa, bi moldez,
Bata esker itzultzeko, berzea zerbaiten galdez.
Esker itzultzekoa duk saindu Erromeria,
Dohain ardiatsiaren bihurtzeko grazia.
Ontasun izatuaren noiz ere ordañetan,
Esker itzultzera ioaten baikare orthutsetan.
Othoitz egitekoa duk dohatsuen etxera,
Noiz baikoaz dohain eta fabore eskatzera.
Gehiago erromeria bietan duk berezten,
Bata launari, ziajok berzea Sainduei egiten.

BURU XLIII

Iainkoaren etxetarako Erromeriako othoitzak

Erromeria othoiztekoaren promesa

laun zerukoa, ikhus azu desolatu presuna,
Eta urrikal bekizu mintzo zaitzun erthuna.
Zuk othoi indakedazu gauza hura etxean,
Halakoak non ematen baititutzu Zeurean.
Pagurik harerañoko harturen tut nekeak,
Arren lauda detzaketzu ene plañu tristeak.

Eskerrak itzultzekoarena

Etsiturik longoikoa, munduko faboreez,
Zure gana itzultzen naiz nigar eta suspirez.
Arren ikhus azu ene ezin egin handia,
Eta eskua emateaz idukazu antsia.
Milla darozkitzut esker itzuliren etxean,
Erromerietan ioanik urruiti datzanean.

Partiadan konfesioz purgaturik arima,
longoikoa ikhus azu arren ene lastima.

Promesa konfirmatzeko

O Iesus Krist, Palestinan desertura igana,
Eta Garizuma othoitz handitan iragana.
Zeruetan lauda zazu arren othoi botua,
Kreatura ezteusenak lurrean formatua.
Ezen Erromerietan ioateko dut gogoia,
Bihotza diezadazu othoi eman beroa.
Eta nekean iragan zinduena bizia,
Arren aitzina ezazu entrepresa ttipia.

Partitzerakoan

Iesus Kristo Nazaretik tenplura partitua,
Arren fabora nazazu bideko prestatua.
Eta ene oñ urratsez idukazu ardura,
Aitzinera emateko unheari ioaidura.
Eta oñez ibillia sinpleena bezala,
Ene saihetsetik othoi aldara etzaitela.

Harakoan bethi bidean

Jesus Kristo obra onen exenplu berezia,
Eragin diezadazu arren urrats bizia.
Deliberatu lekhura heldu gabe, nihola
Bidean eznaidin geldi ezin ioanez gibela.
Bañan eskunetik gida nazazu aldarera,
Erronomia sainduan ioan gogo dudanera.

Erromeriako lekhura eta

Laudoriak ditutzula, eta esker guztiak,
Zeñak ahal baitetzake forma ene mihiak.
Desiratu lekhuraño zeren nauzun gidatu,
Eta bidetako perill handitarik guardatu.
Milla ditutzula esker bai eta gehiago.
Zeren eznauzun kitatu ioan gogo lekhuraño.

Othoitza zerbait galdetzeko

O Iainko lekhu guztiak bethetzen ditutzuna,
Eta guztiz Elizetan ostatua duzuna.
Arren Zeruetan adi zazu ene othoitza,
Zein egiten baitut menak khexaturik bihotza.

Zeren gatik huneraño egin baitut bidea,
Eztezazula iduki dohain hura gordea.
Bañan indazu frankoki eskatzen natzaitzuna,
Eta aspaldion dudan desira ontasuna.
Kontenplaturik travaillu hunat ethortzekoak,
Nola manera berean etxera itzultzekoak.
Halaber zuri darotzut laun puxanta promesa,
Hemendik partitu gabe entzutekoa Meza.
Bai eta gogoan tudan falten aithortzekoa,
Eta Gorputz sainduaren humillki hartzekoa.
Gehiago hobeturen dudala bizitzea,
Eta gaitzetsiren bihotz guztiz bidegabea.
Arren bada adizazu, launa, ene othoitza,
Eta indazu zergatik egin baitut urratsa.

Eskerrak itzultzeko

longoikoa, kreatura baxoenak eskerrak,
Ahal bezanbat itzultzen darozkitzut ederrak.
Zeren aditu ninduzun beharrezko premian,
Zure dejez nengoela isuria begian.
Ordañez promes narotzun bide egitekoa,
Erromerietan ioanik zure etxerañokoa.
Hararik bada darotzut itzultzen ezagutza,

Egiteko nola emen bainarotzun agintza.
Ditutzula beraz hanbat esker, nola harea,
Kostan baita, urtan hola, eta lurrean mea.
Zeren aditu zinduen ene auhen tristea,
Eta zeren zinarotan eman neure galdea.
Zure ontasunek dute laudorio merezi,
Hartarakotz behar zaitzu bethi etiesker.

Handik partitzerakoan

Adiu beraz laun zeruko hemen ohoratua,
Ene deboziona arren biz laudatua.
Hunerañoko bidean egin nauzun bezala,
Etxerañokoan othoi lagun nazazu hala.
Handik ere kantatzeko zure esker handiak
Ioan ethorri guztiaren ditutzuntzak graziak.

Itzultzean bethi bidean

O Iainko, sejouraleen kargu dadukazuna.
Arren adizazu ene othoitz suspiraduna.
Eta begira nazazu bideko gaitzetarik,
Senjorale nabillala etxetik kanporarik.
Egin dietzakidatzu zelhai eta mendiak,
Eta ur eta zubien pasatzeko graziak.

Etxera eta eskerrak

lainko puxanta, zaitzula esker hanitz, itzuli,
Zeren nauzun etxeraño zeure eskutik iduki.
Ezin ordean zaitzaket aski erremerzia,
Zeren egin darotazun hain fabore handia.
Badariak laudorio duzula gizartean,
Gomendioan iduki zeren nauzun bidean.

BURU XLIV

Sainduen Erromerietako othoitzak

Erromeria othoiztekoaren promesa

O Dohatsu plazerezko iauregira igana,
Arren othoi itzultzatzu begiak ene gana.
Eta makhur zaite lainko onaren aitzinean,
Bere graziez fabora nazan behar neurean.
Ezen haren ganik duzu dohain ardiatsia,
Eskuratzeko beharrei eske dauden grazia.
Ordañez partituren naiz zure Saindu etxera,
Ahalzaitzakedan bezain humillki othoiztera,
Arren entzun ezakezu ene othoitz tristea,
Eta ardiats egiñen zeren baitut galdea.

Eskerrak itzultzerakoarena

Munduaren enganio gaitxtoei itzuria,
Pietatez adizazu ene othoitz larria.
Eta, longoiko puxanta, ertxa zazu humillki,
Eske nagoena aithor diezadan emeki.

Ezen laudatzen darotzte Kortekoei Prinzeak,
Adiskideenzat egin ohituzten galdeak.
Zure etxera nik ordañez egiñen dut lasterra,
Dohain ardiatsiaren itzultzeko eskerra.
Arren bada dohatsua nitzaz othoitz egizu,
Eta eskea ardiats othoi diezazu.

Promesa konfirmatzeko

Saindu handia lauda zazu arren ene botua,
Zure etxera partitzeko zein baita formatua.
Eta gida zazu ene gutizia fiñera,
Orhoiturik ohi nola fabore ardiastera.
Kargutan duzun bezala gizonen interesa,
Arren enea ezazu aitziña entrepresa.

Partitzerakoan

Hutsen nothak xahuturik konfesio sainduaz,
Eta arima bazkaturik ogi konsekratuaz.
Zure faboreen ustez o Saindu dohatsua,
Bide luzeari lotzen natzaio izitua.
Arren othoi zuk begira nazazu perilletik,
Bide luzean inkuntra ahal nezakenetik.

Bidean bethi harakoan

Thronuaren aitzinean zaudezen dohatsua,
Arren othoi gida zazu etxetik partitua.
Eta urrun diozotzu biderako trabuak,
Ematen diotzotzula inkuntru dohatsuak.
Fiñean konpli artean desideratzen duena,
Etxeraño egiozu othoi bide xuxena.

Hara denean

Milla esker zaizkitzula, Sandu handia, bihurtu,
Erromeroa zergatik baituzu faboratu.
Eta zerengatik duzun guardatu gaitzetarik,
Bide urrunak presenta ziotzakenetarik.
Esker bada eta ezagutza duzula ontasunaz,
Kortesia handirekin erauki diozunaz.

Othoitza

Saindu handi ararteko lurrean biziena,
Arren othoi adizazu othoitz unhearena.
Zeren launari egiten baitiot errekesta,

Ardiasteko fabore diezadazu presta.
Huneraño hartu tudan travailluen aldera.
Arren ertxa zazu ene othoitzza laudatzera.
Zure zordun aithorturen naiz neure bizitzean,
Eta onez aiphaturen zaitut jende artean.
Ea beraz zori onez iaio ziñen Saindua,
Ardiats diezadazu galde dudan donua.

Eskerrak

longoikoaren adiskide Zerura pasatua,
Milla eskerren duzula ene ganik kantua.
Zuk faboratu ninduzun neure behar handian,
laun puxanta, othoitzturik bere Thronu argian.
Eskerrekin itzultzeko promesen eredura,
Arrazoin zeu ethor nendin zure etxe saindura.
Hunerañoko nekeak ezagutzaren gatik,
Hartarakotz hartu ditut bozik eta gogotik
Bizi naizen egunetan izanen dut aithorra,
Zeruetan othoi zaren ene habe gothorra.

Itzultzean etxera

O Glorioso Saindua fidaturik zurean,
Itzultzen naiz ilkhi nintzen lekhura faborean.

Arren bada orhoit zaite Zeruetan izenaz,
Zure kausaz bere etxetik kanpora zenarenaz.
Eta idukazu othoi bethi haren ardura,
Izultzean eztezantzat kalte handik ingura.

Bidean itzultzean bethi

Hedoi gorak oñen azpian ikhusten ditutzuna,
Etxeraño bethiere zaren ene laguna.
Laudorio ehunetan dizudan gehiago,
Zeren gidatu naukezun egoitza nerureraño.
Arren bada ararteko neuretzat hautatua,
Ene soñkide egizu itzultzean pausua.

Etxera eta eskerrak

Dohatsua milla esker zaizkitzula kantatu,
Bideko perilletarik zeren nauzun guardatu,
Biaiazen konplitzeko launa ganik nahia,
Zuk frankoki ardiatsi darotazu grazia.
Zure bada ohoretan biz erromeria,
Zein halaber baitzen zure izenean hasia.

Halabiz

BURU XLV

Biaia lehorretako othoitzak

Biaia ungi egiteko

O longoiko arkanjelu Raphaelez Tobia,
Bidetako kaltetarik ungi guardarazia.
Hala ni ere begira nazazu perilletik,
Behin ere apartatu gabe ene bidetik.

Bideari lotzean

longoikoa, gidatzatzu arren ene oñhatzak.
Eta urrun dietzadatzu titxa kabe helantzak.
Bidea irakats dazu behar dudan lekhura,
Esker darotzut emanen ahalen eredura.

Ostaturatzean

Hanbat esker ditutzula longoikoa munduan,
Zenbat tornu egin baitu Iguzkiak Zeruan.
Zergatik gidatu nauzun salborik ostatura,
Hanbat duzula esker zenbat lurrak baitu berdura.

Ostatutik partitzean

longoikoa huneraño gidatu nauzunean,
Arren konpañña nazazu gañerako bidean.
Bide luzean neroni ez nabillan bakharrik,
Aitzitik zu zaitudala saihetsean hurbillik.

Lekhu hartara denean

Esker eta laudorio duzula longoikoa,
Zergatik gidatu nauzun oso eta salboa.
Hunat zeren gatik egin baitut urrats ariña,
Arren haren konplitzeko egidazu dohaña.

Itzultzean

launa egin nauzun legez nahi nuen portura,
Halaber gida nazazu othoi neure lekhura.
Zure maiesteari itzultzeko graziak,
Zeren iduki tuzkeen ene gañean guardiak.

Itzuli eta etxera

O longoiko, bidezkoen guardatzaille segura,
Zure nahiz itzuli naiz illkhi nintzen lekhura.

Hanbat beraz ezagutza zaitzula bihurtua,
Egin ditudan urratsen zenbait baita kontua.

BURU LXVI

Bidean gerhatzen diren gaitzen gibelatzeko othoitzak

Unhatu denean

O Iesus, Kalbariara unhaturik igana,
Arren urrikal begizu nekhatuz ezin ioana.
Eta egidazu othoi liberalki grazia,
Aiseki akhabatzeko bidearen goitia.

Berotetan

O longoiko, ludutarrei eragiña gerize,
Bero handitan hedoiaz iragateko aise.
Egidazu niri ere fabore longoikoa,
Suportatzeko iguzki beroaren gaizkoa.
Bai lainkoa arren othoi ematzatzu arraiak,
Ene indar flakoari asko aldez garaiak.

Hotz handietan

launa othoi khen etzatzu bidetako trabuak,
Ormak, haize hotzak, eta elhur mukurratuak.

Gorputzean nihon ere hartu gabe kalterik,
Biaia konpli dezadan sendo eta salborik.

Bide gaitzetan

launa iduki nazazu othoi zeure eskutik,
Eta begira nazazu linburtzeko dañutik.
Bañan guardatu zintuen bezala ludutarrak,
Pasatzen zituztenean Sinaiko malkharrak.
Hala ni ere begira nazazu longoikoa,
Itzul diezazudantzat laudorio frankoa.

Gau illhunean ioatean

O longoko gau belzean Abrahamen hazia,
Gidatua hedoipera bidaldurik zuzia.
Arren othoi bazterrera aldatzatzu brumaiak,
Illhunbean izar klaren argi nazan arraiak.

Tormenta denean

O longoiko uriaren xukarazitzailea,
Eta halaber haizeen bararazitzailea.
Arren hekin eta harri husuaren kaltekik,
Begira gaitzatzu eta ozpiñaren kolpeti.

Zubi batetik iragatean

Itsas gorrian luduak idorrik iragana,
Zubiaren pasatzeko egidazu dohaña.
Kaltek hartu gabe berze iraganik partera,
Ungi haren itzultzeko eskerrak ordañera.

Iragan denean

launa kontu gabe esker zaitzula itzulia,
Zeren eman darotazun iragaitza nahia.
Zaradela laudatua uraren bazterrean,
Eta irletan bezala fruitutsu zerthanean.

Ura batelez iragatean

O lainko lehor idorra uraz inguratua,
Eta milla lore ederrez gañerik bistatua.
Arren othoi liberalki egidazu grazia,
Ibaiaren ukitzeko salbo berze hegia.

Iragan ondoan

Zenbat esker ludutarrek pasaturik lordana,
Itzuli baizarotzuten guztien laun zarena.

Hanbat itzultzen darotzut nik ere esker graziaz,
Ura pasatzeko egin darotazun handiaz.

Ikhe eta iautstegietan

Mendi eta desertuan lakhet zitzaitzun, launa,
Arren othoi adi zazu kreatura illhauna.
Iñdazu iautstegi eta ikheetan indarra,
Dohatsuki egiteko bide egin beharra.

Erebalatzen bada

Xori errebelatuen emaillea bidera,
Arren othoi makhur zaite ene othoitz emera.
Eta itzul nazazu huts egin dudan bidera,
Basatua eznabillan lersunen arauera.

Bidera itzuli eta

Milla eta gehiago duzula esker, lainkoa,
Zeren entzun duzun ene othoitz ondikozkoa.
Ezen bidera itzuli nauzu zeure ontasunaz,
Esker duzula fabore egin darotazunaz.

Oihan batean sartzean

O longoiko arboladiz desertuak bethea,
Bethi lore othez nola landu gabe larrea.
Arren oihaneko guarda nazazu perilletik
Eto ohoin, edo zierpe kruelen botheretik.

Oihanetik salbo illkhi eta

longoikoa ene eskerrak othoi entzun etzatzu,
Zeren fabore handia egin baitarotazu.
Ezen oihaneko nauzu guardatu perilletik,
Laudorio ditutzula milla mihi enetik.

Ohoñetara erortzean

O Iesus-Krist bi ohoñen artean itzatu,
Kaltetik begira zazu ohoñekin bathua.
Eta onera haukien muda zazu gogo,
Desplazarik egin gabe utz nazaten libroa.

Itzuri denean

O laun gorde zinduen Elias soldadutik,
Akaz errege gaixtoak hilltzera bidaltutik.

Zenbat esker baitzarotzun eman mendi ganean,
lainko puxanta, duzula hanbat mihi enean.

BURU LXVII

Bideko ontasunez eskerrak

Bide ona gerthatzean

Zure izena biz, lainko puxanta, laudatua,
Eta zaitzula graziez eskerra bihurtua.
Beregainki behar duzu, Eternala, aithorra,
Zeren eman darotazun gogorako xidorra.

Eguraldi ederra denean

lainkoa zuk bitzten tutzu egunoro zuziak,
Gizonekin gidatzeko Zeruetako argiak.
Hartarakotz milion bat duzula laudorio,
Zeren eman darotazun hain egun propio.

Berzea

Zure maiestatea biz launa bedinkatua,
Zeren eman darotazun eguraldi hautua.
Ikhusten duten guztiek zaitzatela ohora,
Eta dohatsuen pillak errespetuz adora.

Bidean sendo doanean

longoikoa gizonaren pena handietarik,
Bidetan da ibiltzea etxetik kanporarik.
Milla ditutzula esker beraz ene mihian,
Zeren aitziña higitzen naizen neure aisian.

Halabiz

ITSASOKO BIAIETAKO OTHOITZEN ARALDEA

**Dedikazione partikulara
erran den laun Migel Oiharart
Bikario Jeneral Ofizial
eta Kalonge Theological berari**

Eskaldunen ozpea da lur guztira hedatzen,
Eta itsasturi ontzat munduak tu laudatzen.
Ezen hain behera eztu Ozeanak ondarra,
Nondik athera berunaz eztezaten legarra.
Eta eztu urbazterrik erresakak hezaten,
Norat bidea xuxenkin ez baitute aurkhitzen.
Norte eta Hegoako hartak dire lekhuko,
Pribilegio tuztenak sobera ere froguko.
Hekin komarka bateko zu zarade artzaña,
Eta mende hunetako launak utzi ordaña.
Hekin ona aitzinatzen duzu ahal guztiaz,
Hala doktriñazko hitzaz nola prestu bizi az.
Asko aldiz zure ahotik entzun dut hitz zuhurra,
Othoitz egin behar dela premien eredura.
Hemen bada formatutut othoitz batzuk ureko,

Behar aldi orduetan debotki errateko,
Zure jendea iuiaturik daitekela zerbitza,
Baldin eta badezazu zeure itzalaz geriza.
Hartarakotz presentatzen darozkitzut humillki,
Zeure gomendio onean har etzatzu arraiki.
Prestutasun ezagunak hauts dezan inbidia,
Eta ahoko hitz batek ixill hitzkin mihia.

ITSASTURI IRAKURTZAILLEARI ABISUA

Ea zer den ez badaki nor deboziona,
Itsasora parti bedi ikhasteko moldea.
Errefauak hala zien araitziña kantatu,
Zeren urtan ohi diren gaitz handiak gerthatu.
Han dabillanak xoill maiz dik ahoan longoikoa,
Illkhi eta badu ere ahantzten ondikoa.
Hemen tiat bada othoitz batzuk hangotz formatu,
Mariñel behar duenak gogoan detzan hartu.
Ezen moment oro dituk xoll handi hirriskuak,
Non handiro baitabilltza jendeak izituak.
Mariñelen emazteak goizean tuk senhardun,
Eta titxa aldaturik, arratsean alhargun.
Orain aberatz burjesa, aurkhi moian gabea,
Zeren ureko ona den haizearen parea.
Ofizio gaitzena duk ere Itsasokoa,
Zeñak erraxki ahatzten baitu lehorrekoa.
Nekeez berze alde duk herioa hurbilla,
Zenbat lodi baita untzi belariaren gilla.
Hartarakotz, mariñela, suplikazak lainkoa,
Egiten dukela othoitz gaitzen eredukoa.

Arren begira diezan perilletik bizia,
Eta segura izerdiz moian irabazia.
Baita travaillu handiak heure hobenenera,
Pietoski errezibi dietzaken aldera.
Eta hala longoikoak Itsasoarenetik,
Guardatuko an puxantza bereaz perilletik.

BURU I

Itsasoko jende guztiaren othoitzak

Biaia ona egiteko

Untziketak benedika detzatzu longoikoa,
Urtan ibiltzeko gure hotz eztakin gogoia.
Aitzitik irabazteko egiguzu grazia,
Gure bizitzeak behar duen gauza guztia.
Arrotzei ere emotezu othoi amudioa,
Tratuaren bitartekoz gure alderakoa.
Eta guri ere iguzu bihotz handiagoa,
Ezen trailla eta neke Itsasokoa.
Fiñean biaia ona egiteko grazia,
Egiguzu, uhiñaren Manatzaille handia.

Biaia ona egin dutenean

launa eskerra duzula bihotzaren ondotik,
Zeren guardatu gaitutzun perill Itsasokotik.
Eta zeren darokuzun eman irabazia,
Mantenatzeko onhetski geure probe bizia.

Hartarakotz bada, lainko ontasun egillea,
Gure ganikan duzula milla eskerren nonbrea.

Biaia gaixtoa egitean

longoikoa konpli bedi zure borondatea,
Ontasun idekitzean eta ematen berzea.
Ezen Zeru, lurrak zure dire eta Airean,
Nola manera berean lur bihotzeko mea.
Hartarakotz bihur ahal zure borondate Saindua.
Arren bada, laun puxanta, orain galdu duguna,
Berze aldi batez itzul akezu ontasuna.
Eta gehiago berret ezakezu doblea,
Hala konsola dadintzat gure gogo tritea.
Aitziñera eztezagun guztiz gal esperantza,
Zeren urean itzatu dugun gaixto helantza.
Hala egikezu lainko munduaren handia,
Itzultzen darokuzula galdu dugun guztia.

BURU II

Partikularen othoitzak eta lehenik Burjesarenak

launa, benedikatzazu othoi Itsasoketak,
Eta Burjesak ditudan fuñean gogoetak.
Ene desira darautsan gidazazu fiñera,
Untzian eman ditudan moianen berretzera.
Ene eta adiskideei enpruntatu diruak,
Eztezazula permeti diren urtan galduak.
Bañan berret diezezu othoi irabazia,
Fortuna gaixtoetarik guardaturik untzia.
Nori bere itzultzeko berreturik moiana,
Nik bezala untziaren gilla gañean emana.
Huk guztiak prinzipalki diren zure ohoreko,
Eta gero gaitzez bethe bizia pasatzeko.
Hala egizu lehor eta uraren longoikoa,
Eskerra itzul dakizun, eta laudorioa.

Agintarien othoitza

Grazia egiguzu othoi, munduaren labea,
Zordun legez konplitzeko geure egin bidea.

Desohora ezgaitzaten hartu tugun karguek,
Zeren hotztu gaituzketen untziko traillauek.
Bañan gehien den legez gure egin bidea,
launa, othoi eredura iguzu berthutea.

Maistruaren othoitza

longoikoa zuk indazu arren buru ernea,
Itsasoan egiteko neure egin bidea.
Bi lagunak manatzeko behar den orenean,
Ene faltaz deus gibela eztadin biaiean.
Kurajatzeko halaber indazu animoa,
Betan hurbilltzen denean gaitz ustekabekoa.
Fiñean othoi grazia egidazu, lainkoa,
Hitzez baño gehiago obraz manatzekoa.

Pillotuaren othoitzak

O longoiko Elizaren iakintsun pillotua,
Zeruetan lauda zazu nitzaz egin hautua.
Eta urak pasatzeko egidazu donua,
Nihola ibilli gabe bidetik basatua.

Berzea

longoikoa, ene gain da untzi eta jendea,
Merka gabeko lekhuan egidazu bidea.
Eta ene buruari egiozu argia,
Nihon hutsik egin gabe gidatzeko untzia.
Othoiztera naizen legez gehien tenitua,
Esker ere itzultzera naiteke prestatua.

Arruta ematean

lainkoa zu etzarela hoberen pillotua,
Gauza hartan nihork hautsi behar eztu burua.
Hartarakotz zuk emozu untziari arruta,
Eta behar guztietan zuk ezazu aiuta.
Xidorrik ezten lekhuan orratzaren menean,
Lehorra bistatik ioanik gida zazu urean.
Eta airean gidatzen duzun legez xoria,
Hala xuxen gida zazu othoi urtan untzia.

Bideko kontua hartzean

longoikoa, eginbide neure hertsienean,
Othoi fabora nazazu kontuaren hartzean

Eta izarrez klaratzen duzun legez Zerua,
Arren othoi argi zazu ene adimendua.

Haltura hartzean

Neurriz eta ordenantzaz gauzak egin tutzuna,
Arren bada zuk indazu eskatzen natzaitzuna.
Zeiñ baita grazia, ungi hartzekotzat haltura,
Konpañia ene kontra eztadin errenkura.
Eta segurena duzun legez adimendua,
Arren segura ezazu ene iujamendua.

Karta miratzean

laun puxanta, gauza duzu gidatzen huntz itsua,
Eta itsasoan arrain bidetik basatua.
Irakats diezadazu niri ere xidorra,
Nola ardiatsi behar dudan zerthan idorra.
Irakats diezadazu guztiz orain neurea,
Kartan egiñ behar dudan dudoz eginbidea.
Eta izarren ditutzun legez egin bideak,
Halaber xuxenak othoi egitzitzu gureak.
Basatuak ez gabiltzan izialdurarekin,
Geure, eta asko berze jenden kaltearekin.

Lemakoak bethiere

O longoiko, kheñu batez zeñak Arkanjeluei,
Baitaroztezu manuak eragiten guztiei.
Niri ere egidazu othoi, launa, grazia,
Ungi gidatzeko untzi Itsasora illkhia.
Itzul dietzakitzudan bozkarioz graziak,
Zeren darozkikedatzun eman bide nahiak.
O longoiko, San Lazaro, eta arreba Mariak,
Bazterrera gidatua salbo alof utziak.
Hala othoi gidazazu, launa untzi gurea,
Huts egin gabe iduki dezan xuxen bidea.
Zure maiesteari itzultzeko eskerrak,
Zergatik darozkitutzun emen bide lasterrak.

Lematik illkhitzean

longoikoa, duzula esker hañitz ene mihian,
Zeren gobernatu duzun untzia ene aldian.
Ezen zuk gidatu duzu bide zabaletarik,
Othoi hala gida zazu bethi seguretari.
Berze lanik eztuguntzat geure oso mendean,
Baizen zuri itzultzea esker jende artean.

Lagunen othoitzza

longoikoa, iguzkitzu arren erhi zaulhiak,
Agintariekin manu konplitzeko guztiak.
Nihork eztiezaguntzat egin erantzukirik
Ogia eman merezi zitzaikula gaberik.
Ea beraz bele kumen longoiko hazzaillea,
Arren aithor diezaguzu presenteko galdea.

BURU III

Untziaren gatik guztiek egiteko othoitzak

Gilla ematean

launa zure izenean gilla biz ifiñia,
Gero zurean o Saindu patroñtzat hautetsia.
Egizu othoi untzia den urean belari,
Eta puxantki gibela diozozu gaitzari.
Gehiago, launa, egizu tuen zori handiak,
Hemen ibilli beharko duen itsasturiak.
Eta hemen hartzen duen legez zurik lehena,
Zaharturik bihur dadin largatzera azkena.

Untzia zaharturik hautstean

O longoiko zortzi garren Noe begiratua,
Gauza ungi gordea da zuk kargutan hartua.
Ezen zenbat harea baita Libia sabletsuan,
Edo maiatzean ostoa oihan zuhamutsuan.
Hanbat jendek dadukaten gauza begiraturik,
Hala begiratua ezta, nola zuk guardaturik.
Exenplua begietan dakusagu argia,

Zeren hanbat aldiz duzun begiratu untzia.
Errege eta prinzeek galdu tuzte armadak,
Ezin garaituz muthiri Itsasoen lanzadak.
Ezen urak ezagutza eztu presunarenik,
Antonio, edo Xerxes zehatzaillearenik.
Zure hitza aditzen du solamentki mareak,
Eta eztitu berzeren obeditzen legeak.
Zuk baxharrik duzu bada begiratu untzia,
Harik eta zaharturik urra dadin guztia.
Hanbat beraz duzula esker zenbat handietarik,
Itsasoan begiratu baituzu kaltetarik.

Untzia salborik heldu denean

Zenbat mendi ferdeetan baita belhar husua,
Husuagoa dagotzu eskerrezko kantua.
Zeren elzaurraren pare delarikan untzia,
Guardatu baituzu oso eta salbo guztia.
Hanbat beraz duzula esker zenbat handietarik,
Itsasoan begiratu baituzu kaltetarik.

Untzia galtzen bada

O longoiko tristetuak esportzatzen tutzuna,
Arren konsola ezazu doloratu presuna.
Ezen gure bihotza da triste eta larria,

Zeren itsasoan galdu dugun geure untzia.
Hartarakotz bada hartu dugun kalte handiaz,
Pazienzia iguzu arren zeure graziaz.
Eta egizu gaitza den arimaren onetan,
Ontasuna nola zure esker eta kantetan.

Untzia buthatzean

launa egorrazu ungi barkha istillerotik,
Nola bethi dohatsuki illkhiko den portutik.
Itsasoko o Patroñak, Birjina dohatsua,
San Piarrez, eta Andrez, eta Elmu Saindua.
Egiozue longoiko puxantari eskea,
Kaltiarro gertha eztadin buthatzen den barkhea.

Untzia zaharturik enkallatzean

launa untzi zahartua uraren bazterrera,
Itzultzen dugu egin zen istillero berera.
Hartarakotz laudorio zaitzula errendatu,
Perill hanbaten artean zeren duzun guardatu.

BURU IV

Biaia bereko othoitzak

Enbargatzean

O Iainko, zeure maiteen defendari handia,
Eta hartarakotz Noe Arkan sararazia.
Eta animal fuerte guztietarik bia,
Munduaren sumatzeko guarda zedin hazia.
Hek begiratu zintuen bezala uholdetik,
Eta Zerutik iautsten zen itheizura husutik.
Halaber gu ere guarda gaitzatzu kaltetarik,
Itsaso zabalean har ginetzakenetarik.
Ardiatsirik desira dugun portu urruna,
Belhauriko itzultzeko asko eskerren ehuna.

Desenbargatzean

launa, ditutzula esker eta laudorioak,
Zeren guardatu gaitutzun itsasturi gaxoak.
Zuek ere duzuela esker Saindu Patroñak,
Zeren egin ditutzuen guretzat othoitz onak.

Egun eta bethiere zaretela laudatu,
Zeren gure faborera baitzarete khexatu.
Guardatu darokuzue bizitze maiteena,
Thresor guztietarik zein baita aberatsena.
Orain bozik iausten gare gizonen ostatura,
Hemen ere idukazue kostumatu ardura.
Bizitze guztian dugun materia frankorik,
Behin eta berriz ere zuen laudatzekorik.

Aingurak altxatzean

launa, alxatu geroztik kable eta aingurak,
Arren iduki etzazu gure gañean ardurak.
Eta ezazula egin urhobitik athera,
Barkha illkhi dadin perill handik inguratzerara.
Bañan benedika zazu hunen kanporatzea,
Egin ohi duzun legez arrañen higitzea.

Aingura egotztean

longoikoa, zure baithan fidaturik aingura,
Urtara egotzten dugu duzun gure ardura.
Eze hunen baithan baño gehiago zurean,
Esparantza dugu, lainko puxanta, faborean.

Arren ona gertha zazu gelditzeko helantza.
Nola ere zure baitan baitugu esparantza.
Alfer gertha eztakigun orañoeko nekerik,
Itsaso holaz bethean hartu tugunetarik.

Belak hedatzean

O longoiko hegastinen plumez bestitzaillea,
Alde batetik berzera pasatzeko airea.
Haize onez hant etzatzu othoi bela gureak,
Untziari daragizten khexaz bide luzeak.
Eta begira ezazu gabiara doana,
Nola zubi beherean lanean hari dena.

Belak hartzean

longoikoa untziaren hegatzeko hegalak,
Itsasoak iraganik hartzen ditugu belak.
Arren benedika zazu hekien plegatzea,
Eta gure ganik milla eskerren har nonbrea.
Billtzaillea ere guarda zazu perilletarik,
Baita zubi ganekoa kalte handietarik.

Partiadan higitzean

longoikoa, orain dugu partitzeko pontua,
Egiguzu portuaren ardiasteko donua.
Milla eskerren darotzugu itzuliren billgura,
Erakhartzen bagaitutzu illkhi garen lekhura.
Zuei Sainduak gomendatu partiadan untzia,
Eta barrenean doan konpañia guztia.
Itsasoko o Patroñak Birjiña ama Saindua,
San Pierrez, Elmu eta Xabier famatua.
Gure gañean zaudete bethi iratzarriak,
Itsasoan har ezgaitzan kalte izigarriak.

Untzia bihurturik gelditzean

Gure biaiaren fiña zen hunerañokoa,
longoikoa, duzula esker eta laudorioa.
Hemen bada hartzen dugu nekhatuek pausua,
Egiguzu dañu gabe gelditzeko donua.
Tristezia hanbatenaz eztugun gehiago,
Zenbat ikhusi baitugu travaillu borthitzago.

Herriko portutik illkhitzean

Titxoski illkhitzea da bidearen erdia,
Arren egiguzu hala illkhitzeko grazia.

Zeren untzia illkhi den kanpora penaturik,
Goiti diren bidetako ez gauden iziturik.
Hartarakotz khen etzatzu bideko enpatxuak,
Eta guztiz ur mugatik illkhitzeko trabuak.

Portu berera itzultzean

longoikoa, mariñelak sartze eta illkhitzean,
Trabailu gehiena du uhiñaren gañean.
Hartarakotz, laun puxanta, zuk iguzu sartzea,
Traba guztiak khendurik zori onez bethea.
Gure nekeek diote oren huni erauntsi,
Arren bada orain, launa, ezgaitzatzula suntzi.
Hanbatenaz behazuna eztugun handiago,
Zenbatenaz neke izan baitugu gehiago.
Bañan lainko fineraño gauen gidatzaillea,
Porturaño gidazazu xuxen gure barkhea.

Lehorra estaltzean

longoikoa aitzina goazela gogorra,
Aphurra estali zaiku begietarik lehorra.
Nihon ere ezta ageri baizen uhin hartarik,
Nihon ere baizen hedoi eta Zeru gorarik.

Gehiago urak eztu malkharrik gelditzeko,
Ez zuhaitz edo adarrik bizia salbatzeko.
Zure baithan dugu, launa, esparantza guztia,
Arren begira ezazu perilletik untzia.

Berze lehorra agertzean

longoikoa duzula esker, ageri da lehorra,
Baita zure Amak ere gure ganik aithorra.
Zuek ere Itsasoko Patroñ begirailleak,
Eta zuek Arkanjelu holen baketzailleak.
Gure ganik duzuela milla eskerren nonbrea,
Zeren othoiztu duzuen guretzat laun emea.
Oraño egiozue arren othoitz khartsua,
Digun lehorrera laster illkhitzeko donua.

Itsasoan edozein orduz

launa begira gaitzatzu armatu hiratutik,
Nola manera berean infidelen eskutik.
Halaber guarda gaitzatzu tormenta aserretik,
Eta gauaz baxo, edo lehorra ukitzetik.
Gutzaz othoiz egizue Patroñ Itsasokoak,
Birjina Ama eta berze Saindu gloriosoak.

Berze untziarekin batzean

launak guarda zaitzatela perill guztietarik,
Zuek ere zaitzatela helantza gaixtotarik.
Biaia on bat egiteko dizuela grazia,
Bai zuei ardiasteko kontentik urhegia.
Oñhatz gabeko lekhuana zeren gaituen bathu,
Orain eta bethi dela Iesus Kristo laudatu.
Bai zu ere Birjina Ama haren eskuñekoa,
Eta San Piarrez, eta Andrez gloriosoa.
Bai zuek Ignazio, eta Franzez Xabierkoa,
Bata eta berzea ere mihi eskarazkoa.

Bidean zenbait portutara ezkeretzean

Perill handiagoaren laun puxanta, ihesi,
Bide xuxenetik gare bazterrera berezi,
Portuaren egiguzu ardiasteko grazia,
Zeñen gatik bide utzi baitugu ia hasia.
Eta ezazula agin are handiagoak,
Kalteak, launa, har gaitzan, ezen ez lehengoak.

Portu hartarik illkhitzean

Ea bada, longoikoa, gidazazu untzia,
Gañerako bideari ekhiteko illkhia.
Eta illkhitzean othoi permeti ezazula,
Kalte handiak harturik hemen geldi dadilla.
Bañan egitzu porturik illkhitzeko bidea,
Zeure ontasunak gatik zabal eta libreak.

Portu norako illkhi baitzen, han sartzean

longoikoa, portu hunen ardiasteko geuretik,
Zure esparantzan giñen kanpora illkhi etxetik.
Arren bada gida zazu barrenera untzia,
Eta aitzina ioatean egiozu guardia.
Ardiatsi dezan kaltek hartu gabe portua,
Zeñen gatik baita bere lekhutik partitua.

Portu hartarik bihurtzean

Huna giñen Eternala etxera itzultzeko,
Eta deliberatuak pontuan partitzeko.
Egiguzu bada othoi haiñ fabore handia,

Kaltek harturik non geldieztakigun untzia.
Bañan gidatu gaitutzun bezala huneraño,
Halaber egin gaitzatzu geure etxetaraño.

BURU V

Guardiako othoitzez

Abisua

Gerletako usantza duk guardia aldatzea,
Hirur oren osotarik hirurera berzea.
Halaber diat nik ere aspaldi entzutea,
Lege bera dadukala mariñelak gordea.
Hemen bada edirenen dituk eskribatuak,
Muga eta erran behar tuken othoitz sailduak.
Eta nola gau egunek dituztela zarratzen,
Hogoi eta lau erraxki baita oren frogatzen.
Eta oren hek direla partitzen zortzitara,
Nihork aurkhituko duen legez guardietara.
Halaber edirenen tuk hemen ordenatuak,
Bakhotxean erran behar tuken othoitz sailduak.
Sartze eta illkhitzean erratzikek debotki,
Paperean eztaudezen pintatuak banoki.

Sartzeko lehena

longoikoa, ez bazaude gizonentzat guardian,
Alferrik ahal daudezke bere bizi guztian.
Hartarakotz bada egizu gure gañean guardia,
Eta begira ezazu kaltetarik untzia.
Eta nola arranoa bere umeenean,
Halaber zu ere zaude othoi gure gañean.

Illkhitzeko lehena

launa begira gaitzatzu pausura goazenak,
Lotan ingura ezgaitzan perill biziarenak.
Bañan iduki gaitzatzu kalteen gerizean,
Zeure faborezko hegal handien itzalean.
Ezen bizi az doaku, eta geure moianez,
Arren fabora gaitzatzu kostumatu dohañez.

Bigarren guardiakoak

O longoiko uholdetik Noe begiratua,
Zeren bakharririk munduan aurkhitu zen iustua.
Eta ez berriz punitzeko hain garratzki mundua,
Holtz adarra lekhukotzat emanik agindua.

Arren bada zuk begira gaitzatzu kaltetarik,
Itsasoak presentatu ohi tuenetarik.

O longoiko puxanta, eta Zeruko dohatsuak,
Pausatzera goaz zuen arduen fidatuak.
Arren bada egizue gure orde guardia,
Zuen fabore handien senti dadin untzia.
Itzultzean gero berriz zubiaren gañera,
Borondate hobe dugun eskerren ematera.

Hirur garrenekoak

Beilla zazu, longiokoa, gurekien batean,
Kaltiarro gertha ezgaiten uraren bizkarrean.
Ezen gure ganik hanbat da urrun herioa,
Untziaren zenbat baita lodi oholatxoa.
Arren bada hala zaude erne gure gañean,
Hurbill aurkhi baitzaitezke non gu kaltek hartzean.

Iainko handi, eta zuek patroñ begirariak,
Gure gañean zaudete bethi iratzarriak.
Khasa dietzagutzue othoi traba guztiak,
Desiratu porturaño bide luzagarriak.
Zuen faboreak ather eztaitezen guganik,
Porturagaiten artean uhiñak iraganik.

Laugarrenekoak

O longoiko podoroso uraren manaria,
Eta zu o untziaren patroñ begiraria.
Zuek ere untzikoen Aingeru guardariak,
Elhkarrekin iuntaturik egitzizue guardiak.
Baita zuek ere gure izeneko Sainduak,
Zeuen Seme-bitxien har etzatzue karguak.
Eta nola baititugu hartu zuen izenak,
Premian zuek deitzeko faborera lehenak.
Zuek egizue othoitz guretzat gehienik,
Eztiezagun lainkoak ukha eske gaudenik.

O longoiko kreatura guztien burasoa,
Perilletik guarda zazu itsasturi gaxoa.
Eta hedea urari idukozu hertsia,
Peril eta kaltetarik salbo doan untzia.
Ezen zure esparantzan illkhi gare kanpora,
Arren eraman gaitzatzu perilletik lekhora.

Bortzgarrena

launa begira gaitzatzu ustekabe hilltzetik,
Eta guztiz subituki urea ithotzetik.

Baita zuk ere halaber Ama tatxagabea,
Duzun othoi urrikari konpañia tristea.
Geure buruz ezin guarda gaitezke kaltetarik,
Arren bada zuk gaitzatzu guarda guztietarik.

longoikoa, itzultzatzu guregana begiak,
Eta gibela etzatzu lethozken lazeriak.
Zuek ere gutzaz othoitz egizue Sainduak,
Eta ardiatskitzue bide desideratuak.
Iustuak egititzue othoizak gure gatik,
Eskerrak kanta detzagun grazia haren gatik.

Seigarrena

Iainko Aita, Seme Iesus Kristo noblea,
Erakutz ezazu gure gana pietatea.
Eztezazula permeti Itsaso urdiñean,
Gure gorputzak dabililtzan uhiñen merxedean.
Sepulturatzat eztugun arrain ezkatatsua,
Bañan herrietararik Eliza lur saindua.

Iaun puxanta, idukazu othoi gure kargua,
Itsasoan eztezagun ikhus azken ordua.
Gure aziendak ere guardatzatzu galzetik,

Eta unzia halaber urez ondoratzetik.
Bañan Itsasoan zaren legez baketzaillea,
Othoi holei emotezu gure gatik bakea.

Zazpigarrena

launa Itsasoan dire zure obrak agerri,
Diren bada presentean zure aldera ageri.
Lehorrekoek uste arren basatuak garela,
Alabañan bide onaz gidatzen gaitutzula.
Eta begira gaitzatzu ioateik ondarrera,
Miseria handirekin bizia fiñatzera.

Hanbat arrain Itsasoan hazten duzun lainkoa,
Izurde, eta Balea, baita kume Antxoa.
Gure ere Itsasoan luza zazu bizia,
Non ikhusten ez baitugu baizen zero goitia.
Hanbat gehiago lauda zagun zure puxantza,
Zenbat gutia baitugu lehorren esparantza.

Zortzigarrena

launa zuk egiten duzu itze eta marea,
Aboa diezaguzu othoi geure eskea.

Itsasoan igutzitzu iragaite xuxenak,
Laster begiets dezagun hegi lehorrarenak.
Hartarakotz, o Norteko izarraren iabea,
Iguzu desira dugun bezalako haizea.

Itsasoak aditzen du, launa, zure manua,
Arren bada idukazu emeki baketua.
Haize muthiriei ere emotezu neurria,
Altxarazi eztezaten hola jauzilaria.
Gaua halaber egizu klara eta argia
Ikhusteko nola dugun xuxentzeko xarxia.

BURU VI

Edozein ordutako othoitzak

Egunaz

longoikoa Mariñela egunazko gaitzari,
Lehen itzur dakikeo, ezen gauazkoari.
Ezen nihon behar bada begietan argia,
Urean behar da ungi gidatzeko untzia
Hura dugularik guti da ure jakitea,
Gure gañean egoten ez bazare ernea.
Hartarakotz lehor eta uraren longoikoa,
Arren gibela zazu gaitz ezin itzurizkoa.
Orhoitzen garela egin dukezun faboreaz,
Milla esker itzulzeko kantuzko ahaireaz.

Gauaz

launa, begira etzatzu gizon itsasturiak,
Gau belzean har eztetzan kalte izigarriak.
Zarraturik idukozu tormentari ahoa,
Eta aparta ezazu fortuna kaltezkoa.

Ezen Mariñelak ditu trabatzen ilhunbeak,
Eta erraxkiagotu hartzen handi kalteak.
Hartarakotz bada, launa, othoi guarda gaitzatzu,
Eta Zeruaren izar klarak ager etzatzu.

BURU VII

Premiazko othoitzak kalman

laun puxanta, eztakigu norat itzul begiak,
Zure Majestatearen gana baizen larriak.
Leku batea gadutza kalmak hagogandurik,
Bai eta porturañoko bideak zarraturik.
Arren bada, laun puxanta, mana zazu haizea,
Abietan aitzina daragigun bidea.

Kontinuatzen badu

O lauko gure premien estaltzaille handia,
Ikhus azu presenteko arren othoi premia.
Ezen gose gaitzez gare fiñatzeko menean,
Arren bada bitz ezazu airea beharrean.
Eta urrikaldurikan penatuen nigarra,
Arren beletara egor azu haize azkarra.

Haize kontrakoa denean

longoikoa haize kontrak garabiltza luetan,
Ezin ardiatsiz portu nahia doloretan.

Arren bada, laun puxanta, altxa zazu hobia,
Eragin diezaguntzat aitzina bidea.
Lehen baño lehenago itzultzeko eskerrak,
Zeren darozkiguketzun eman aire lasterrak.

Uria deneko

launa nahi duzunean duzu isurtzen uria,
Eta nahi duzunean athertzen ia hasia.
Zure nahiz ere ehotzen du urezko errotak,
Eta zure nahiz tuzte ithurriek zorrotak.
Arren bada xuka zazu othoi husu uria,
Mariñela eztabillan Itsasoan bustia.

Goibel deneko

laun puxanta, arren manatzatzu illhun hedojak,
Bazter urruitikotara parti daiten urgojak.
Zeruaren ikhusteko dugun bozkarioa,
Galdu dugunaz geroztik bista lehorrekoa.
Kontenplaten ditugula argizagi klaroak,
Zuri egiteko othoitz khar handiagokoak.

Tormenta denean

O longoiko haizeari bide eragillea,
Arren tormentari ather diozozu kolpea.
Eta urrikal bekizu jende tribulatua,
Khentzen diozula sarri beldurtasun sarthua.
Plazerkiago dagitzan tormentatu untziak,
Portu desiraturaño bide zaizkon goitiak.

Irauten badu

O Iesus Apostoluak holatik salbatua,
Tormentari geldi zedin egotzirik manua.
Itsasoa dakusagu harta handiz bethea,
Eta bela ezin ekhar daiteken da haizea.
Arren ather diozozu uhiñari joaidura,
Eta haizeari ere bere abiadura.

Promesa lainkoari

longoikoa ikhus azu arren gure perilla,
Eta faborera duzun othoi esku hurbilla.
Prometatzen darotzugu bizia hobetzeaz,
Eta premia handian dena faboratzeaz.

Zure ontasunak ere ditugu laudaturen,
Eta Meza darotzugu saindua ofrendaturen.
Hartarakotz bada, lainko manso eta emea,
Arren ema zazu uhin pietate gabea.
Haizeari ere bake diozozu furia,
Altxarazi eztezantzatzat hola arrapotia.
Miserableki eztadin fiña bizi gurea.
Uhin hautsiek ondora egotzirik barkhea.
Hanbat dohain egiguzu, longoiko, bihotz bera,
Eta beha zazu othoi gure auhen tristera.

Untziaren Patroñari

O Untzi penatuaren patroñ bedinkatua
Fabore egiteko da orain muga herstua.
Arren bada ertxa zazu, lainko podoroso,
Perilletik libra dezan untzi uhinpekoa.
Zure izenean dugu Meza atheraturen,
Eta darotzugu esker ordaña buhurturen.

Itsasoko berze Patroñei

Zuek ere berze patroñ Saindu Itsasokoak,
Birjina, Piarrez, eta berze gañerakoak.
Othoi kontenpla zazue gaxoen ondikoa,

Eta othoitz ezazue guretzat longoikoa.
Zuek ere zaituztegu ordañez laudaturen,
Eta zuen ohorea dugu defendaturen.

Promesaren konplitzeko

longoikoa heldu gare promesen konplitzera,
Deboziona onen har ezazu partera.
Meza saindu hunez esker darotzugu itzultzen,
Zergatik faboratzera mugaz khexatu ziñen.
Eskerrak ditutzuela zuek ere Sainduak,
Birjina, Piarres, eta berze patroñ hautuak.
Zeren othoitztu zinduten muga onez longoikoa,
Arren urrikal zekion flakoen ondikoa.
Gehiago zu zaitugu, laun puxanta, othoizten,
Eta zeure ontasunaz entzutera ertxatzen.
Arren adi dezakezun gure auhen tristea,
Noiz ere baitzaiku handi hurbillduren kaltea.
Eta zuek ere Saindu ja lehen othoitztuak,
Arren aditzaketzue gure triste plañuak.
Lasterra egikezue Thronuaren oñera,
laun puxantak perilletik arren gaitzan athera.
Bethi zuen alderakotz geldi gaiten zordunak,
Itzultzera esker eta alabantzen ehunak.

Urez ondoratzeko perillean

launa ikhus azu gure ezin egin handia,
Nola doakun ondora ura hartuz untzia,
Arren fabora gaitzatzu zolara ezgoazen,
Eta subituki itho urean ezgaitezen.
Ezen Itsasoa zure agortzen da manuan,
Arren ajuta gaitzatzu hel gaitezen portuan.

Khasatzen duenean

longoikoa, ethorririk lehorraren bistara,
Etzazula untzia utz herrest doan kostara.
Aingura eta kabletan ginduen esparantza,
Bañan seguragoa da zu baithako fidantza.
Arren bada gelditzatzu goaia eta haizea.
Lehorrera eztezaten butha samur barkhea.

Untziak iotzen duenean edo enkaillatzen denean

launa othoi altxa zazu gure untzia flotera,
Enkaillatua eztadin ethor porroskatzera.

Bañan mortuetan ezten legez mendi gorarik,
Berze partera aldara zuk eztezakezunik.
Hala othoi gure untzia alda zazu partera,
Urta dadin baño lehen Itsasoarenera.

Untzilo deusak egotztean

launa, mojan gehiago irabazi ustean,
Huna non garen bizia galtzeko orenean.
Urera etxatzen tugu aziendak nigarrez,
Bizitza alde guztiz enpharatu beharrez.
Noiz nahi den itzul ahal dezakezu mojana,
Orain eskatzen gaizkitzu biziaren dohaña.
Hortarakotz bada, launa, gehien ontasunaz,
Arren fabora gaitzatzu zeure emetasunaz.

Ezin portua hartuz penatzean

longoikoa iraganik Zerurañoko holak,
Portua ezin ardiats dezake untzi xoillak.
Hartarakotz, launa, zure behartu faboreak,
Ardiatsiren baditu portuaren atheak.
Arren bada nekhatuak gidatzatzu portura,
Ematurik haize eta Itsasoen jaidura.

Etsiturik kostaratzean

Zure esparantzan (lainko puxanta) lehorrera,
Partitzen gare bizitze geureen salbatzera.
Arren bada ikhus azu gure handi beharra,
Eta urrikal bekizu penatuen nigarra.
Zure baithan solamentki da gure esportzua,
Faborera beraz othoi khexa zazu pausua.
Zeure ontasunaz bizi salbaturik Maitea,
Errenda diezazugun milla eskerren nonbrea.

Zur puxkan lehorrera benturatzean

longoiko puxanta, othoi egidazu grazia,
Salborik iragateko aserre uhindia.
Untziarena galdurik, taulan dut esportzua,
Bazterra ardiasteko egidazu donua.
Hala zinduen San Paule ithotzetik guardatu,
launa ni ere halaber othoi guarda nazazu.
Ikhus azu othoi behar ezin konparatua,
Eta ene faborera heka zazu eskua.

Biziaz etsitzerako menean

O Eternal Baleatik Ionaz atheratua,
Eta Iesus uhin-petik Piarrez altxatua.
Orain aldiz libra zazu premian den gaxoa,
Salbaturik lauda dezan zure izen altoa.
Egidazu longoikoa arren grazia hura,
Lehorrean hillik dudan Elizan sepultura.

Biziaz etsitu eta

launa, begiez dakusat neure azken ordua,
Arren othoi salba zazu ene espiritua.
Barkha dietzakidatzu othoi gaixtakeriak.
Zure Maiestatearen kontra egin guztiak.
Eta penitenziatatzat, laun ona, garaztiaz,
Othoi kontenta zaitezke urtan galdu biziaz.

Untzitik nihor erori denean barrenekoek

O longoiko Krespin eta Krespinian urtarik,
Altxatua harri bana lephotan zutelarik.
Egiguzu guri ere, laun puxanta, grazia,
Itsasotik altxatzeko untzitik eroria,

Eta nola baita zure bihotz beratasuna,
Gañerako berthuteen gañean eskuduna.
Arren bada haren kausaz urtara eroria,
laun puxanta, egiguzu altxatzeko grazia.

**Untzia bera galtzeko
perillean dabillanean
jendeak salborik promesa**

launa urrikal bekizu othoi gure suspira,
Eta untzia ezazu xehatzetik begira.
Geure nekez eta izerdiz irabazi mojanak,
Begira dietzagutzu hor barrena emanak.
Eta hala egiguzu grazia longoikoa,
Perill handitik untzia salbo ikhustekoa.
Hartara othoitz egizu zuk ere o Birjina,
Baita zuk ere halaber untziaren Patroña.
Orobat zuk ere egizu Xabier famatua,
Perilletik dakusagun unzia guardatua.
Eta zuk lainkoa hekin laudatzatzu othoitzak,
Eta alegeratzatzu gure triste bihotzak.
Egiten badorokuzu eske gauden dohaña,
Bozik darotzugu esker itzuliren ordaña.

Promesaren konplitzekoa

Milla esker ditutzula podoroso lainkoa,
Zeren kaltetik guardatu duzu untzi flakoa.
Zuek ere esker hañitz duzuela Sainduak,
Premia handian gure othoitz adituak.
Iduki gaitzaketzue zeuen gomendioan,
Behar dukeguño zuen fabore lur baxoan.

BURU VIII

Arrantzale guztientzat otoitzak

Arrain atzemateko

launa zuk eman ziñoen Adami launtasuna,
Lar abrea manatzeko bai arraiñ hegatz duna.
Gizonari orain zaizko muthiriki ondartzen,
Zerengatik zure kontra duen hain maiz faltatzen.
Alabañan eztiozu leheneko eskua,
Idekitzen guztiz, badu bere faltez dolua.
Bañan hetarik athera dezala zerbitzua,
Utzten diozu launtasun hekien ganekoa.
Eta animale ttipi eta handiarenik,
Hanbat ardura eztuzu nola gizonarenik.
Ezen perill handitarik hura duzu guardatzen,
Eta behar duten gauza guztiez probeditzen.
Arren bada orhoit zaite kostumatu usantzaz.
Eta kaltetarik guarda zazu zeure puxantzaz.
Gehiago egiguzu, laun puxanta, dohaña,
Urari idekitzeko igelduri arraña.
Zergatik arrantzaleak duen bere bizia,

Mantenatzen, itsaspetik atheraz arraindia.
Emaguzu beraz, launa, othoi hartzaz frankia,
Lauda dezagun bihotzez zure izen goitia.

Atzematen badute

Million esker duzula o longoiko handia,
Zeren eman darokuzun arrañezko frankia.
Zuk gizonei baliatzen daroezu nekea,
Eta dohaña ematen zure ganik ustea.
Hala ere gehiago heldu da ontasuna,
Nahiz azienda dela ezperen osasuna,
Zure esku zabal eta ontasunez bethetik,
Ezen gizonaren pena eta handi neketik.
Hala launa ezagun da oraingo dohañean,
Emateko baitzegoen zeña esku zurean.
Hartarakotz zaizkitzula milla esker kantatu,
Zeure liberaltasunaz zeren duzun usatu.
Ene ganik beregainki ditutzula graziak,
Zeren baitarozkidatzu eman dohain nahiak.
Eta zenbat kreatura baita lehor baxoan,
Hek ere laudorioa dizutela gogoan.

Atzematen ez badute

longoikoa zurei egin arren othoitz handia,
Eztarokuzu aithortzen bethi gauza nahia.
Zerengatik zuk zeronek dakizu sekretua,
Eta berzek misterio eztaki hain saindua.
Agien da gure arima zeren den indignea
Aithor diozozun, zeren egin baitu eskea.
Edo zeren gauza duen galdetzen halakoa,
Zeñaren kontra harentzat baita hobeagoa.
Eta hala eztakigu maiz nolakoarena,
Buthoiki egiten dugun galde dohañarena.
Hartarakotz othoi faltak barkha dietzagutzu,
Eta zer galdetu behar dugun irakatsguzu.
Gero hura, laun puxanta, igukezu aseki,
Gure othoitzak entzuten ditutzula emeki.
Oraingo izatu dugu titxa kabe aldia,
Hurrenean igukezu hobeago zoria.
Ezen arrantzaz hagoan dadukagu bizia.
Eta berzela zarratu behar zaitzu begia.
Arren bada ekharkezu arrain peita zalea,
Itsasoko ontasunez berret dadin gabea.
Zuri itzultzeko esker hanbatez gehiago,
Zenbat orain tristezia baitugu handiago.

BURU IX

Arrantzale partikularen othoitzak

Arrain ttipi zaleentzat othoitzak

O Iesus-Krist Piaresi eragiña xaudea,
Lehen ezin zukelarik, gero arrañez bethea.
Guri ere egiguzu liberalki dohaña,
Itsaspetik ekhartzeko kontugabe arraña.
Hanbat ordain emateko zuri laudoriorik,
Zenbat har artetan arrain baitago ehortzirik.

Balea zaleentzat

O laun Tobias gaztea ungi begiratu,
Guardaritzat bidalduzik Arkangelu Saindua.
Eta kostara arraña erakharrarazia,
Haren hilltzeko egiten ziñoela grazia.
Guri ere ekharguzu hurbillera Balea,
Segurkiago armaren landatzeko kolpea.
Biziaren gatik dugu hurriskatzen bizia,
Arren egiguzu haren gelditzeko grazia.

Balea kolpatu eta

launa geure arte baño gehiago zureaz,
Balea zauritu dugu arpoñaren kolpeaz.
Arren bada egiguzu (laun puxanta) grazia,
Sarri gelditzeko arrain itsasoko handia.
Gutarik garabik zaurtxu gabe bere indarraz,
Segadetan dabillala buztan edo bulharraz.
Edo xalupa irauli gabe gillaz gañera,
Edo berekin eraman gabe urtan behera.
Arren begira gaitzatzu gaitz hauk guztietarik,
Eskerra diezazugun itzul lehorrerarik.
Irabazia da handi, perilla ere handia,
Begira diezazugu prinzipalki bizia.

Balea hill ondoko eskerrak

launa, dututzula esker, eta laudorioa,
Million eta million baño gehiagoak.
Zeren egiñ darokuzun liberalki grazia,
Idekitzeko handien arrañari bizia.
Gure indarrak etziren deus hunenen aldean,
Zure faborea dugu sentitu konbatean.

Ezen zure baithan turroñ batek etsajak,
Urrutik izi dezan nahiz dela han gaja.
Hala guri ere egin darokuzu dohaña,
Bentzutzeko Itsasoan den sendoen arraña.
Lehorrera dakharkegu egiñik sarraskia,
Bizi zela aztaparraz zebillan ihizia.
Hala dugu naturaren mirakulluz bazterra,
Ohoratzen (longoikoa) zuk duzula eskerra.

BURU X

Itsasoko biaietan hiltzen direnentzat othoitzak

Edozein biaietan hiltzen denarentzat

Heriotzea delarik bethiere tristea,
Guztietako tristeena da kanpoan hiltzea.
Ezen nihor konsolatzen da erhasun miñean,
Hatsa faltatzen bazaio bereekin artean.
laun puxanta, hala etzen hunentzat ordenatu,
Zeñi baitzaio bizia lekhorean fiñatu.
Damu haren bada aldera othoi, laun Zerukoa,
Konsolamendu emozu othoi sekulakoa.

Ithotzen eztirenentzat

longoikoa, badakigu eztela begitetik,
Nihor ete eskapatzen herioarenetik.
Sagar asikiak zuen garraiatu mundura,
Onhatzetik baitarraiku non geroztik ardura.
Itsasoan egiten tu masakre kruelenak,

Eta lurrea bentzutzen Monarka handienak.
Gero ere eskerra du itzultzeko presunak,
Zenak ez baitutu urtan akhabatzen eginak.
Hartarakotz errendatzen darotzugu eskerra,
Zergatik egin diozun hain grazia ederra.
Ordean da non nahi den hillik ere dolore,
Ez bakiozu egiten armari fabore.
Hartarakotz baldin baliz purgatzeko penetan,
Errepausua emozu othoi dohatsuetan.

Lur bedinkatu gabean ehorztean

laun puxanta, nahi duzu Giristiñoak Elizan,
Ehortz daiten, lege gabe ez infidelen gisan.
Baldin ordean faltatzen bagare komarketan,
Zure izen sakratua laudatzen eztenetan.
Lekhuaren eredura hartzen dugu zohia,
Eta ez damu dugula bedinkatu hobia.
Damu haren bada aldera hill denari gloria,
Parabisuan emozu othoi, lainko handia.

Untzian hillik urera etxatzean

launa, eremurik ezta hurbill edo urrunik,
Fin gabeko presentziaz bethetzen eztuzunik.

Eta hartaakotz ezta munduaren parterik,
Othoitz onak eztitutzun non entzuten emerik.
Eliza da beraz, launa, zu zaudezen lekhoa,
Nahiz lurra dela, edo nahiz Itsas hantua.
Halarikan nahi duzu etxe bedinkatuan,
Lauda zaiten beregainki, gero zabal munduan.
Presenteko defuntua halakotz ondarrera,
Damurik etxatzen dugu Itsasorenera.
Zeren lehorra urrun den bazter guztietarik,
Lur sainduan emateko berze sepulturarik.
Eta zeren eztagigun noiz porturako garen,
Ez eta gero fin bera etzaikun gerthaturen.
Arren bada hartu luken damuaren aldera,
Zeren etzuen irautsi behar thonba hobera.
Adiskideen ondotik zerraiola hustua,
Etxetik Elizaraño ohorez ahukua.
Eta gero zeudezela Aphezak eresiaz,
Insensuaz hiruretan insensatu khetiaz.
Eta sepultura eman gero bedinkatura,
Nola Kristauen artean baita usantza hura.
Damu haren ordain barkha diotzotzu hobenak,
Bai manera berean hek merezi tuzten penak.
Esparantza hartan bada zure izen sainduan,
Urera etxatzen dugu ez izanez portuan.

Itsasoan ithoentzat

O longoiko uraz eta suaz zerbitzatu,
Bekhatoreei emateko punimendu iustua.
Eztezazula permeti urtan ithoarena,
Arima surtan tormenta dadin gaxoarena.
Bañan, laun puxanta, othoi falta handienera,
Urean fiñatzea har diozozu aldera.
Gorputza hagitz penatu den legez uhinean,
Arima nekha eztadin bitztu khisu labean.
Hala egizu, longoiko guztiz bihotz emea,
Laudatzen darokuzula geure othoitz tristea.

Ur bazterrean aurkhituenzat

O Iainko herio, eta biziaren iabea,
Othoi adizazu ene othoitz antzakabea.
Eta pietate duzun arimaren gañean,
Zenen ediren baitugu gorputza bazterrean.
Eta arrokak itsustu baldin badu larruan,
Ordañez bista ezazu othoi espirituan.
Eta uretik diozun legez egin grazia,
Illkhitzeko lur sainduan har dezantzat hobia;

Arren arimari ere egiozu dohaña,
Khar handitik atherarik dakusan Zeru gaña.

Aurkitzen eztirenentzat

O longoiko zenen baita handi probidenzia,
Berze atributak legez guztiz miragarria.
Zeronek dakizu zerengatik ezten ageri,
Itho denaren gorputza lehorrera igeri.
Konsolatuak giñate handiroki gogoan,
Uhin hartek balekharte bazterrera hagoan.
Bañan, launa, konpli bedi bethi borondatea,
Berze gauzetan bezala hemen ere zurea.
Eta arimari othoi egiozu grazia,
Purgatoriotarik den sarriago illkhia.

Elizan ehorzten direnentzat

launa zuk ifiñi tutzu Elizako legeak,
Guztiz ere ohorezki gizonen ehorzteak.
Presunak eztuen zuri iarraikiaz dolore,
Hanbat diozu hill eta errendatzen ohore.
Hargatik esker diogu zure Aitasunari,
Defuntua bazterrera zeren duzun ekharri.

Elizako lur sainduan har dezantzat hobia,
Nola berze gañerako ohoreen frankia.
Halakotz bada gorputza nola uraren hegira,
Zeure graziaz baituzu erakharri xurira.
Arren arima halaber Zeruaren gañera,
Surtarik alda ezazu dohatsuen artera.

Itsasoko othoitzen zarratzea

Othoitz hauk xehero tiat ordenatu hunela,
Haukin erratera orhoit dadintzat mariñela.
Perill izigarriari itzurtzeko bezala,
Esker itzultzeko ere minzatu nauk ahala.
Hartarakotz itsasotik illkhi eta salboa,
Esker milla itzul etzak gizon itsas hauzoa.
Orhoit adi zenbat aldiz launak auen guardatu,
Merezitu dukelarik Itsasoan hondatu.
Gogotik utz eztezala iragan den perilla,
Bergiratu auenari eman gabe esker pilla.
Nekez irabazi tuken halaberki diruak,
Eztetzakela despenda nola aise billduak.
Eta abusa eztezala ontasun ethorriez,
Bañan zerbi adi ungi lainkoaren graziez.
Berzela duk mereziren Itsasoan sartzean,

Lehen baño gehiago nekha adin bertzean.
Othoitz hauk beraz ikhaskik perillei itzurtzeko,
Bai eta are porturarik eskerren itzultzeko.
Borondate hobeagoz longoikoak graziak,
Emen dietzaken, haren thresoretik graziak,
Eta hala eramatzik goiz eta arrats aldeak,
Harik launak dietzaken zarra bethuruzteak.

Halabiz

**BIGARREN LIBURUAREN
AZKEN PARTEA:
OTHOITZ DOBLEEZ
JENERALKI**

BURU I

Huneraño mintzatu gare othoitz sinpleez edo bakhunez hitz itzulitan: oraiñ mintzatzera goaz prosan edo hitz lanoetan othoitz dobleez: zeren ezin bezanbat baita hekin bersutan ezartzea, gauza hetan adituak iuiatuko duen bezala.

Othoitz doblea bada, hitzak berak aditzera ematen duen bezala, da othoitz behin baño gehiagotan egiña.

Hunelako othoitzak lainkoa gehienik ertxatzen du.

Bi othoitz mota hunean dire. Bata da kontu iustu bat begiratzen dela, eta berzea begiratu gabe.

Kontua begiratzen dena, da Arrosarioa: eta begiratzen eztena, Litaniak.

Lehenik mintzatzeko gare Arrosarioaz, gero ondoan Litaniez.

BURU II

Arrosarioaz eta haren errateko antzeaz

Arrosarioa da othoitz doblatu bat, kontu iustu bat begiratzeko dela.

Arrosarioa bada hala deitzen da Arrosaren izenetik, zeren ederra baita berze othoitz artean, nola arrosa baita berze loreen gañean.

Arrosarioaren Patroña da Birjina saildua.

Arrosarioan bi othoitz mota dire, batzuk prinzipalak eta berzeak ez hain prinzipalak.

Prinzipalak hamaboz dire, eta ez hain prinzipalak ehun eta berrogi eta hamar.

Othoitz guztiak dire ehun eta hirur ogoi eta bostz.

Othoitz prinzipalak aitzinean erraten dire, eta xeheak ondoan.

Othoitz prinzipalak baten ondoan hamar xeheagoak.

Othoitz hautan ez barraiatzeko, instrument bihizko bat asmatu izatu da, zein deitzen baita Arrosarioa, othoitzaren izena gelditzen zaiola.

Instrument hartan ehun eta hiruogoi eta bortz bihi dire, othoitz den bezanbat.

Bihi larri bat doa aitzinean, eta gero ondotik hamar xehe, eta fiñeraño hala.

Guztiak soka batean sarthuak dire.

Othoitz prinzipalak erraten dire bihi larrien gañean, eta xeheak berze xeheen gañean.

Othoitzak erraten diren bezala, bihiak aldazten dire. Arrosarioan bi gauza kontutan iduki behar dire, misterioak kontenpla, eta othoitzak egin.

Misterioa perfekzione, eta berthuteen gañean hartu behar da.

Othoitza da misterioen ereduzko edo debozio-nezko.

Bihi larrian misterioa bietan erraten da, eta othoitza behin: eta bihi xehean othoitza behin, eta misterioa orobat behin.

Bihi larrian othoitza erdian da, eta misterioa lehen, eta gero. Bihi xehean misterioa lehen, eta othoitza ondotik.

Arrosarioa akhabaturik gelditzean, azkeneko bihi xehean, aitzinean erran diren misterio, eta othoitz guztiak laburki erran behar dire.

Haste eta akhabatzean othoiztxo bat antze hobeagatik erran behar da.

BURU III

Arrosarioaren dibisionea errateko maneoaren ereduz

Arrosarioa da osoa edo partea.

Arrosario osoa da noiz ere erraten baitire ehun, eta hirur hogoi, eta bortz othoitzak.

Arrosario partea da, noiz ere ez baitire hanbat erraten: hirur partetan berezten dela Arrosario osoa.

Parte bakhotxak berrogoi eta hamabortz othoiz dadutza.

Othoitz hetan dire bortz prinzipal, eta berrogoi eta hamar xehe, prinzipal bakhotxarentzat hamar xehe.

Arrosarioa da oraño edo bihi guztietan misterioa aldatzen dela edo solament larrietan.

Bihi guztietan aldatzen dela erratea xoill da gaitz baldin ez badire aitziñetik guztiak eskribuz xehero ezarriak, eta hala ere travaillu xoill handia izan arren gauza xoill ederra.

Hartarakotz hunetzaz ez naiz gehiago mintzaturen, eta bai bihi larrietan solament misterioak aldatzen direnaz, nola edozeñek praktika dezake-naz.

Arrosario bada bihi larrietan solament misterioak aldatzen direlako da, edo hamabortz bihi larri guztietan aldatzen, dela, edo ez guztietan misterioak eskaz izanez. Konplitzen ezten bada guztietan, edo da lehen herenaren ereduz, edo bigarrenaren, edo ezperen hirugarrenaren.

Leheneko herenaren ereduz konplitzen eztenik ezin daite, zeren edozeiñ gauza sakratutan misterio gehiago baizen ez baita aurkhitzen.

Berze herenaren ereduz, edo nahiz bigarren, edo hirugarrenaren akhabatzeko eskaz direnak konplitu artean subjekt propioak faltatu arren orobat subjekt komunetarik misterioak atherarik konplitu behar dire.

Orain Arrosario hamabortz othoitz, edo bihi prinzipaletan misterioa aldatzen dena, guztietan osoki; edo da iustuki konplitzen dela, edo oraño misterio gehiago goiti gelditzen dela.

Iustuki konplitzen denean azken bihian aitzin-
ñean erran diren misterioak, berriz laburki erran
eta othoitzekik gelditu behar da.

Gehiago goititzen den Arrosarioaren, azken
bihian lehen misterioak berriz erranik, edo berze
Arrosario bat hasi behar da, edo astirik ez bada,
laburki gelditu; eta gero berze aldi batez luzaro
akhabatu.

Goiti diren misterioek Arrosario bat, edo parte
konplitzen ez badute misterio komunez, konplitu
behar da, gorago erran dugun bezala.

BURU IV

Arrosarioaren dibisionea misterioen ereduz

Materiaren ereduzko Arrosarioa da, edo egun hartako sujetaren araukoa, edo borondatez, edo debozinezkoa.

Sujetaren ereduzkoa, edo dela ofiziotik, edo Sainduaren bizitik.

Ofiziotik, edo Ebanjeliotik, edo berzetarik.

Debozinezkoa berak nondik nahi duen.

Arrosarioa da oraño lege berriko materiatic hartua, edo zaharrekotik.

Zaharrekotik, edo naturazko legetik, edo eskribuzkotik.

Arrosarioa da oraño othoiztekoa edo esker itzultzekoa.

Gehiago Arrosaia da, edo lainkoari erraten zaiona, edo Sainduari.

BURU V

Iainkoari erraten zaion Arrosario materiaren ereduakoaren exenplua, erran diren gauzen deklarazionearekin

Exenplua

Aitzinean erran behar den othoitza.

O longoiko perfekzione, eta edertasun guztiez bethea, aithortzen dut eznaizela digne zure begietan presentatzeko, bai neure ezteustasun ezin deklaratuaren kausaz, bañan prinzipalki neure bekhatu handien gatik. Barkha dietzkidatzu Eternala, itsuskeria higuñak, zure handitasunak puxantza duen bezala eta miseriordia fin gabea ene aldera erakuts azu, aditzatzu indignearen agotik Arrosarioko othoitzak, konplizazu karitate amulsuaz humillki eskatzen natzaitzuna. Hala egizu Iainko ungi egille handia, eta emozu zeure buruari ohore, kreatura ezteusari othoitza aithortzen diozula.

Iainkoaren Arrosarioaren lehenbiziko herena

Bihi larrian

1. Iainko hirur presuna zarelarik izate batekoa halaber arima, eta gorputz naizelarik egidazu grazia zurekin bat izateko. Iainko hirur presuna zarelarik izate batekoa.

Bihi xeheetan. Hamarretan

1. Iainko hirur presuna zarelarik izate batekoa, halaber arima, eta gorputz naizelarik egidazu grazia zurekin bat izateko.

2. Iainko guztiz egiazkoa, egidazu grazia egiati izateko. Iainko guztiz egiazkoa.

Iainko guztiz egiazkoa egidazu grazia egiati izateko.

3. longoiko guztiz ona, egidazu grazia guztiz on izateko.

longoiko guztiz ona, egidazu grazia on izateko.

4. longoiko lekhu guztietan zarena, esenziaz, presentiaz, eta puxantzaz zaren ene baithan zeure graziez eta ontasunez. longoiko lekhu guztietan zarena.

lainko lekhu guztietan zarena, zaren ene baithan zeure graziez.

5. longoiko egundañotikakoa eta sekulan izanen zarena, egidazu grazia ontasunean irauteko. lainko egundañotikakoa.

lainko bethierekoa egidazu ontasunean irauteko grazia.

Bigarren herena

1. longoiko zeurenez zarena ez berzek eta ez zeronek zeure burua egiña, indazu indar zure

perfektki zerbitzatzeko. longoiko zeurenez zarena.

longoiko zeurenez zarena indazu indar eta grazia zure perfektki zerbitzatzeko.

2. longoiko nihoren ganik dependitzen etzarena, eta bai berze guztiak zure ganik, idukazu ene hagoan idukitzeko ardura. longoiko nihoren ganik dependitzen etzarena.

longoiko nihoren ganik dependitzen etzarena idukazu ene hagoan idukitzeko ardura.

3. longoiko ezin muda eta ganbia zaitezkena egidazu grazia ez zure zerbitzutik mudatzeko. lainko ezin muda zaitezkena.

longoiko ezin muda zaitezkena indazu grazia ez zure zerbitzutik illkhi eta mudatzeko.

4. longoiko zathiz edo partez egina etzarena, bañan guztiz bat zarena egidazu grazia zurekin bat izateko. longoiko zathiz edo partez egina etzarena.

longoiko zathiz edo partez egiña etzarena, bañan guztiz bat zarena egidazu grazia zurekin bat izateko.

5. longoiko adimendu guztiz zuhur eta iratzarria duzuna, indazu ezagutza eta zuhurtzia munduan ungi gobernatzeko. longoiko adimendu guztiz zuhur eta iratzarria duzuna.

longoiko guztiz zuhur eta adimendu iratzarria duzuna indazu ezagutza eta zuhurtzia, ungi gobernatzeko.

Hirurgarren herena

1. longoiko borondate amulsua, parti diezadazu karitatea. longoiko borondate amulsua.

longoiko borondate amulsua, parti diezadazu karitatea.

2. longoiko puxantza guztitakoa defenda nazazu puxantki. longoiko puxantza guztitakoa.

longoiko puxantza guztitakoa defenda nazazu puxantki.

3. longoiko admirablea, indazu grazia zure mirakulluen miretsteke. longoiko admirablea.

longoiko admirablea indazu grazia zure mirakulluen miretsteke.

4. longoiko perfekzione guztiz bethea, egidazu grazia neure ahalaz, zure perfekzioneei iarraitzeko. Iainko perfekzione guztiz bethea.

Iainko perfekzione guztiz bethea egidazu grazia neure ahalaz zure perfekzioneei iarraitzeko.

5. longoiko gloriosoa, egin diezadazu grazia gloriaren ardiatsteke. longoiko gloriosoa.

longoiko gloriosoa, egin diezadazu grazia gloriaren ardiatsteke.

Azken bihian egin behar dena

Azken bihian erran diren misterio guztiak laburki berriz erran behar dire, eta sobrarik baldin bada, halaber hek ere hitz gutitan behin erran behar dire, baldin luzaro berze Arrosario bat hasi nahi ezbaduzu. Baldin berze asti ordu batez erra-

teko gelditzen bazare, laburki solament erranen tutzu.

Misterio sobrak

lainko ezin osoki konzebitua, indazu grazia ene ahalek dirauten bezanbat zure konzebitzeko.

longoiko ezin aski lauda eta aiphatua, indazu grazia, zure ungi lauda eta aiphatzeko.

longoiko kreatzaillea, indazu grazia zure adoratzeko.

lainko begiratzaillea indazu grazia zure ontasunei ihardesteko, eta ezagutza bihurtzeko.

Misterio komunak

Arrosario batentzat misterio aski sobrarik izatu ezbaliz, hauk dituk konplitzeko.

lainko espiritua, libra nazazu haragiaren gutizia gaixtoetarik.

lainko Saindua egidazu prestu izateko grazia.

Eta hunela asmatzak berze misterio komunak, partikularak ahitu direnenan lainkoak eman doroken antze hoberenaz.

Arrosario hunen ondoko othoitza

Iainko handia, ene Arrosarioko othoitza entzun duzu, eta bekhatorearen intenzioea ikhasi: konplizazu haren othoitza, zeñak bere esperantza zure baithan ifiñi baitu. Zeure aberatztasun, eta handigoa konsidera zazu, eta halaber ene gabetasun eta ezteustasuna: nolakoa bainaiz ere, ez naiz neure, ez berzeren, bañan guztiz zure, zeure kreatura behar handian dena urrikal bekizu, eta puxantza duzun legez orain eta bethi fabora zazu.

BURU VI

Edozein Sainduri errateko Arrosario jenerala

Abisua

Edozein Sainduri errateko Arrosarioa da jeneralki edozein Saindu batari, edo berzeari aplikatzen dakikeona.

Perfekzioe eta berthute saindu guztientzat jeneral direnetarik, misterioak atheratu behar dire.

Edozein orduz edozein Sainduri erran ahal dakikeo.

Arrosario hunetan, nola gañerako eskribatzen tugun exenplutan misterio eta othoitza, sinpleki bihi xehean erraten den legez emanen dugu misterio batetan ere doblatu gabe, bihi larrian egiten den legez, fidaturik ezen bihi larrian erraten den misterio doblatzera edozein orhoituko dela, eta bihi xehean ez doblatzera: aitzinago abisua eta exenplua eman dugun bezala.

Sainduen Arrosarioaren aitziñeko

Kortesano Zeruko, eta Saindu glorioso, indigne izanez launen launari nerori mintzatzeko, zu dohatsua neuretzat ararteko hautatu zaitut, ene errekesta presenta diozozun eta zeure merezimendu handiez eske nagoena ardiats ezazun. Arren bada laun aberatsena enetzat ertxa ezazu eta berze dohatsuak halaber khar handirekin othoitz egitera konbidatzatzu, eta fiñean othoitzez dagotzun beharra zeure ahalaz kontentik bidalarazi zazu.

Halabiz

Sainduen Arrosarioaren exenplua

1. Saindu lainkoaren zerbitzari handia, ardiats diezadazu grazia haren ungi zerbitzateko.

Saindu relijionea ungi guardatua, ardiats diezadazu grazia haren ungi begiratzeko.

Saindu debota ardiats diezadazu debozioneerentzen berthutea.

Saindu urrikalmendutsua ardiats diezadazu urrikalmenduaren berthutea.

2. Saindu sinhetste handitakoa, ardiats diezadazu othoi sinhetea.

Saindu esparantzaz bethea, ardiats diezadazu othoi esparantzaren ontasuna.

Saindu amulsua, ardiats diezadazu karitatea.

Saindu prudenta, ardiats diezadazu prudentziaren berthutea.

Saindu tenperatua, ardiats diezadazu tenperanziaren berthutea.

3. Saindu borthitza ardiats diezadazu borthitzetasuna. Saindu iustua, ardiats diezadazu iustutasuna.

Saindu mortifikatua, ardiats diezadazu mortifikazionea.

Saindu mundua gaitzetsia, ardiats diezadazu haren gaitzetsteko grazia.

Saindu Ifernuko etsaiak ez enganatua, ardiats diezadazu grazia hari defendatzeko.

Berze Arrosarioak formatu nahi baduk, kurritzak berze bertute jeneralak, nola zazpi prinzipalak eta berzeak, eta hala nahi bezanbat materia misterioen formatzeko eta othoitz egiteko edirenen duk.

Sainduen Arrosarioaren ondoko othoitz

O Dohatsu gloriuz gozaten zarena, eta lainkoaren adiskide onhetsia, hau da egiteko nuen othoitz eta hau ardiatsi gogo nuen gauza. Arren bada ene errekesta lainkoaren aitzinean presentatu zazu, eta beharra deklaraturik laudarazi zazu, zeure lagun dohatsuak, zurekin batera othoitz dagiten ertxa tzatzu. Bai zuk Iesus arartekoa, nitzaz othoitz egizu, zuk Birjina ama, zuk San Ioseph, zuk Aingeru begiraille iratzarria, Elizako patroñ Saindua, izeneko Saindua, zuek zeñen konfrarietan eskribatua bainaiz, zuek ene ofizioko

dohatsuak, ahaide, adiskide salbatuak, fiñean
zeruetako titxoso guztien billhua, ene beharra
ikhusten duzuela othoitz egizue.

Halabiz

BURU VII

Saindu partikularen Arrosarioaz

Abisua

Arrosario partikulara da saindu seinalatuari izendaturik erraten zaiona.

Arrosario partikulararen misterioak, Sainduaren bizi partikular eta perfekzionetarik athera behar dute, ezen hala konbeniago da, dituztenaz geroztik Sainduak perfezione eta berthute partikularak, nola Dabiten semeek dohain bereziak baitzituzten, nola Salamonek zuhurtzia, Absolonek edertasuna, etc.

Sainduen bizitik gauza espiritualik baizen athera behar ezta misteriotzat, edo bizi espirituarari aplikatu dakikeonik baizen.

Hunek zer erran nahi duen, praktikak aditzera hobeki emanen du.

Arrosario hau saindu bere egunetan, edo bes-tetan erratea da propioenik.

Aitzin eta ondoan othoitz hemen ere egin behar da.

BURU VIII

Jesus Kristen Arrosarioa lehen arartekoarena bezala

1. Jesus lehen arartekoa, zaren bethi Zeruetan berze guztietarik enetzat ararteko lehena.

Jesus Kristo lainko eta gizona, ardiats diezadazu gizon naizelarik Zeruko gisa bizitzeko grazia.

Gizonen hutsen erreparatzaillea, ardiats diezadazu grazia berzeren hutsak neure ahalaz erre-mediatzeko.

Jesus Kristo Profetek agindua zuk ardiats diezadazu grazia sekulako zerbitzua zuri fermuki agintzeko.

Jesus laun Doni loanesez ohoratua, ardiats diezadazu grazia zure ohoratzeko.

2. Jesus muga premiazkoan mundura ethorria, ardiats diezadazu grazia ungi egiteko okasio-nei iarraitzeko.

Espiritu Sainduaz, gizonen obrarik gabe konzebitua, ardiats diezadazu grazia, gogoeta xahuen egiteko.

Jesus atzinetik Ama Birjina Aingeruaz adbertiturik konzebitua, ardiats diezadazu grazia herioa aitziñetik senti eta nabaritzeko.

Iaun Doni Ioanesez amaren sabeletik adoratu eta salbatua, ardiats diezadazu grazia zure ohora eta adoratzeko.

Jesus heian sorthua, ardiats diezadazu grazia pobrezia pazientki suportatzeko.

3. Jesus tenpluan presentatua, ardiats diezadazu grazia neure bizi eta obrak, zuri ofrendatzeko.

Jesus doktoren artean burasoek aurkhitua, ardiats diezadazu grazia prestuen konpañian betiere aurkhitzeko.

Jesus mundukoak irakatsia, ardiats diezadazu grazia zure legearen ikhasteko.

Jesus hamabi Apostolu hautatua. ardiats diezadazu grazia lagun onen hautatzeko.

Jesus Kana Galilean ama obeditua, ardiats diezadazu grazia neure gehienen obeditzeko.

4. Iaun behar orduan zeure propioek abandona-tua, ardiats diezadazu grazia ez sekulan zure abandonatzeko.

Gurutzeko martirioa pazientki sofritua, ardiats diezadazu grazia afruntuak pazienki sofritzeko.

Hilletarik puxantki altxatua, ardiats diezadazu grazia, bekhatuetarik bitzteko.

Iesus Apostoluak mundura predikatzera bidal-dua, ardiats diezadazu grazia, ez iakiñei dakida-netik karitatezki irakasteko.

Iesus triumfantki Zerura igana, ardiats dieza-dazu grazia bizi hunen ondoan harat igateko.

5. Espiritu Saindua Apostoluei bidalarazia, ardiats diezadazu grazia inspirazione onak obre-tan emateko.

Guretzat othoitzez zaudezena, ardiats dieza-dazu grazia zure othoizteko.

Iuiatzera iautsi behar duzuna, ardiats dieza-dazu grazia orduan iustuen partean aurkhitzeko.

Glorioso zaudezena, ardiats diezadazu grazia glori-az gozatzeko.

Berthute guztien exenplu eta mirail klara, ardiats diezadazu grazia berthuteei iarraitzeko.

Aitaren manuak ungi konplitu, ardiats diezadazu grazia manu sainduen konplitzeko.

BURU IX

Andre dona Mariaren Arrosarioa

1. Iainkoaren Ama, ardiats diezadazu grazia longoikoaren maitatzeko.

Bigarren artekoa, ardiats diezadazu grazia, zure eta dohatsu guztien behar legez, eta kortesiaz ertzatzeko.

Mirakulluz konzebitua, ardiats diezadazu grazia sailduki bizitzeko.

Burasoek hirur urthetan Iainkoari ofrendatua, ardiats diezadazu grazia, iaiki bezain sarri bethiere zuri neure burua ofrendatzeko.

Sekulako kastitatea lehenik launari eskaña, ardiats diezadazu grazia kastitatea begiratzeko.

2. Iainkoak Amatzat hautatua, ardiats diezadazu grazia zu neure erregiñatzat hautatzeko.

Aingeruak salutatua, ardiats diezadazu grazia zure maiz saluta, eta othoizteko.

Gizonen obrarik gabe Iesus semea konzebitua, ardiats diezadazu grazia inspirazione sainduen ungi rezebitzeko.

Iosephék gogoan beharrez abandonatu nahi zintuena, ardiats diezadazu grazia suspizione gaixtoen burutik kasatzeko.

Aingeruak Ioseph itzularazi zarotzuna, ardiats diezadazu grazia neure eginbidera itzulzeko.

3. Elisabeth kusina bisitatzera ioana, ardiats diezadazu grazia lekhu sainduak errespeturekin bisitatzeko.

Iaun doni Ioanesen amaren sabelean zegoela sanktifikatzeko okasionea, ardiats diezadazu othoi, sanktifikazionea.

Seme bedinkatuaz erdia, ardiats diezadazu grazia, obra onetan enplega eta trebatzeko.

Ejiptura Herodesek hill zezan beldurrez eramana, ardiats diezadazu grazia, neure etsaien kolerei alde egiteko.

Iesus Semea, Tenpluan Doktorekin ahakan aurkitua, ardiats diezadazu grazia, Iainkoaren billha nabillanean, haren aurkitzeko.

4. Semeari ondotik trabailutan iarraikia, ardiats diezadazu grazia, haren obra onei iarrikitzeko.

Bethi hartzaz orhoitua, eta hura zerbitzatua ardiats diezadazu grazia, halaber hartzaz orhoitzeko, eta hura zerbitzatzeko.

Haren pasione sainduko lekhuak askotan bisitatu debotki, ardiats diezadazu grazia lekhu konsekratuak debotki ikhusteko.

Hill baño lehen arimako egitekoak ungi dispositua, ardiats diezaguzu grazia, halaber azken orenetan nik ere neureak ungi dispositzeko.

5. Apostoluen artean azken orena ikhusia ardiats diezadazu grazia neureen artean hilltzeko.

Apostoluek ohorez ehortzia, ardiats diezadazu grazia Elizan ehortzteko.

Hirurgarren egunean bitzturik, gorputz eta arima glorioski Zerura altxatua, ardiats diezadazu grazia azken lujamenduaren ondoan gorputz eta arima Zerura igateko.

Gure gatik bethi othoitzez zaudezena ardiats diezadazu grazia zure debotki othoizteko.

Bortzgarren misterioaren konpligarri misterio komuna.

Andre exzellenta, ardiats diezadazu grazia zure, eta zure Semearen exzellenzien admiratze-ko.

BURU X

Berze Arrosario partikularez

Abisua

Berze gañerako Saindu partikularen Arrosarioak, hekin bizia aditu edo irakurri eta misterioak handik formatzen tutzula eramanen tutzu, Ebanjelio sailduak, Epistolak, edo berze meditazione, edo tratatu espirituale manera berean, misterioak pontuetarik atheratzen tutzula bata banaka. Haukin iakiteko aski izanen da Igande, eta bestetan predekari, edo zeure Erretora erneki entzutea.

Orain Sainduak zeñen othoiztera, eta hei Arrosario erratera, gehienik obligatuak baikare dire, Iesu Kristo, Birjina ama, Aingeru begiraillea, Elizako Patroña, izeneko Sainduak, konfrarietan garen sailduak, hain bada maizenik Arrosarioak formatuko daroztetzu.

Hauk dire materiaren ereduko Arrosarioak, orain debozionezko Arrosarioak dire, noiz ere

misterioen ondoan, nahi den gauza materiara behatu gabe galdetzen baita.

Edo nahiz zerbait galdetzen dela, edo izatuaz eskerrak itzultzen.

Arrosarioa erraten duzunean zerbaiten galde-
tzeko, galde hura hunela egiñen duzu. Iainko
handia indazu eske nagoen hunelako gauza, bek-
hatuen barkhamendua, &c.

Eta erraten duzunean eskerren itzultzeko,
erranen duzu, laun puxanta, eskerrak itzultzen
darozkitzut, hau edo hori, horrelako, edo hunela-
ko gauza, osasuna, &c. emanaz. Eta hunela berze
gañerakoak, misterioak erran ondoan.

Sainduei ere manera berean debozinezko
Arrosarioa erran ahal diezekezu.

BURU XI

Arrosario komunari hurbilltzenago zaion berze Arrosario batez

Huneraño egin dugu hitz Arrosario aphur bat Arrosario komunetik urrutzen denaz, dagigun orain hitz berze hurbilltzenago den batez.

Hura izanen da hamabortz misterio iustuki eta ez gutiago eta ez gehiago begiratzen direla.

Gehiago Arrosario hura hirur partetan berez-ten dela.

Lehenbiziko partea hartu behar da, biziaren lehen perfekzione edo berthutetarik, bigarrena ondokoetareik, hirugarrena azkenekoetarik.

Lehenik mintzatuko gare molde hunetako lainkoaren Arrosarioaz, eta gero Sainduenaz.

BURU XII

Iainkoaren Arrosario komunari hurbillzenago zaionaz

Abisua

Nola Iainkoaren baithan perfekzione guztiak elkharrekin baitire ez lehenik ondokorik edo azkenik, baizen gure eredura, hala Arrosarioaren diferenzia hauk, Iainkoaz denaz bezanbatean, gure eredura aditzentut.

Iainkoaren Arrosarioaren exenplua

Lehen Arrosarioa

Iainko zeurenez zarena, indazu grazia zure admiratzeko.

Iainko zeronek ere ez zeure burua egiña, indazu grazia zure laudatzeko.

lainko berzek ere ez egiña, indazu grazia zure ohoratzeko.

lainko nihoren ganik dependitzen etzarena, indazu grazia zure laun handiena bezala zerbitzatzeko.

lainko zeurenez perfeta, indazu grazia, zure perfekzioneei neure ahalaz iarraitzeko.

Ondoko Arrosarioa

lainko sinplea, indazu othoi sinpletasunaren berthutea.

lainko bat zarelarik hirur presunakoa, indazu grazia zure nahiarekin bat izateko.

lainko egiazkoa, indazu grazia egiaren onhetsteko.

lainko ona indazu grazia on izateko.

lainko lekhu guztietan zarena indazu grazia non ere izanen bainaiz zure zerbitzatzeko.

Azkena

lainko ezin ganbia zaitezkena, egidazu grazia ez berthutetik ganbiatzeko.

Iainko ezin hill zaitezkena, indazu grazia bizi guztian, zure grazian irauteko.

Iainko fiñ gabea, egidazu grazia obra onetan ez unhatzeko.

Iainko bekhatuen barkhatzaillea, indazu grazia neure bekhatuez urrikitzeko.

Iainko glorioso zarena, egidazu grazia zure gloriatz gozatzeko.

BURU XIII

Edozein Sainduren Arrosario komunari hurbiltzenago zaionaz

Abisua

Nola Sainduen bizitzean baita hastea, erdia eta fiña, hala hekin Arrosarioak diferentzia hekin eredura, hirur partetan erraxki berez daitezke.

Eta nola biziaren lehen partea deitzen baita gaztetasuna, berzea gizatasuna: Halaber Arro-saio edo misterio gaztetasunekoak, gizatasun edo adin onekoak, eta zahartasunekoak deit daitezke, misterio edo obra on Sainduak egin tuen eta perfekzione izatu tuen denboren ereduz.

Baldin eta gaztetasunean hasi bazen Sainduki bizitzen, nola Iesus Kristo, Birjina Ama, laundoni loanes, &c. Misterio lehenak gaztetasunekoak erranen diren propioki. Baldin eta ia adinetan sarthurik nola Magdalena ez hain propioki.

Guztiarekin metaforaz sainduki eraman zuen denboraren lehen partea, deit daiteke gaztetasuna: ondokoa, adin ona: azkena, zahartasuna, diferenzia hauk Saindu guztien arrosariotan zein bere moldez begiratzeko.

Sainduen Arrosarioaren exenplua

Arrosario lehena

Saindu bizi ona launari agindua, ardiats diezadazu grazia, niri ere halaber bizi ona fermuki hari agintzeko.

Saindu promesen obraz konplizaillea, ardiats diezadazu grazia halaber neure hitzen konplizeko.

Saindu berthuteei iarraikia, ardiats diezadazu grazia, halaber ni ere berthuteei iarraikitzeko.

Saindu bizioa gaitzetsia, ardiats diezadazu grazia, bizioen gaitzetstekoa.

Saindu perfekt errendatua, ardiats diezadazu grazia perfekzioea billhatzeko.

Bigarren Arrosarioa

Saindu mirakulluak obratua, ardiats diezadazu grazia, obra onak egiteko.

Saindu ontasunetan irauna ardiats diezadazu grazia ontasunetan irauteko.

Saindu karitatez munduaren gana usatua, ardiats diezadazu karitatea.

Saindu bizitze espiritualaz arthatsua, ardiats diezadazu halaber grazia ni ere hartzaz arthatsuz izateko.

Saindu berthuteen exenplua, ardiats diezadazu grazia zure imitateko.

Hirurgarren Arrosarioa

Saindu hilltzera ungi preparatua, ardiats diezadazu grazia, hilltzera ungi preparatzeko.

Saindu grazian partitua, ardiats diezadazu grazia halaber grazian partitzeko.

Saindu Zerura igana, ardiats diezadazu grazia Zerura igateko.

Saindu gloriuz gozatzen zarena, ardiats diezadazu grazia halaber ni ere gloriuz gozatzeko.

Saindu lurrekoen arartekoa, ardiats diezadazu
grazia zure digneki othoizteko.

BURU XIV

Jesus Kristoren Arrosarioaren exenplua

Lehen Arrosarioa

Jesus mirakuilluz formatua, ardiats diezadazu grazia, zure mirakuilluen admiratzeko.

Jesus heian probeki sorthua, ardiats diezadazu grazia, miseria eta pobrezien suportatzeko.

Jesus Tenpluan presentatua, ardiats diezadazu grazia, neure bihotza zuri xahuki presentatzeko.

Jesus burasoak haur danik obeditua, ardiats diezadazu grazia, ene gañean esku dutenak humillki obeditzeko.

Doktorak disputan bentzutua ardiats diezadazu grazia hirur arimaren etsaien bentzutzeko.

Bigarren Arrosarioa

Jesus lege graziazkoaren ifintzaillea ardiats diezadazu grazia haren konplitzeko.

Jesus berthuteen predikatzailea, eta bizioen desterratzaillea, ardiats diezadazu grazia berthuteen onhesteko, eta bizioen gaitzesteko.

Jesus inbidiaz gaitzetsia, ardiats diezadazu grazia ez inbidios izateko.

Jesus luduek penaturik hillarazia, ardiats diezadazu grazia bizitzea ungi fiñatzeko.

Jesus Patriarken arimak Linbotik atheratua, ardiats diezaguzu grazia usantza gaixtoetarik illkhitzeko.

Hirurgarren Arrosarioa

Jesus hiletarik biztua, ardiats diezadazu grazia bekhatuen heriotzetik altxatzeko.

Jesus Zerura triumfantki igana, ardiats diezadazu grazia azken fiñean Zerura igateko.

Espiritu Saindua bidalarazia, ardiats diezadazu grazia haren dohañez arimaren bistatzeko.

Munduaren iuiatzera iautsiko zarena, ardiats diezadazu grazia orduan eskunekoetarik gerthatzeko.

Iesus gizonen ararteko lehena, eta berthi hekintzat othoitzez zaudezena, ardiats diezadazu grazia, lainkoaren eta zure digneki othoitzteko.

BURU XV

Andre dona Mariaren Arrosarioaren exenplua

Lehen Arrosarioa

Andre burasoen bekhatuaren narrio gabe konzebitua, ardiats diezadazu grazia gogoeta xahuen egiteko.

Andre munduaren probetxutako iaioa, ardiats dezadazu grazia lainkoaren aitziñean bekhatu gabe aurkhitzeko.

Andre Tenpluan lehenbiziko urtheak Aingeruak bezala iragana, ardiats diezadazu grazia, bizi hau prestuki eramateko.

Andre Tenpluan presentatua, ardiats diezadazu grazia lainkoaren aitziñean bekhatu gabe aurkhitzeko.

Andre birjinitatea lehenik launari ofrendatua, ardiats diezadazu grazia kastitatea begiratzeko.

Bigarren Arrosarioa

Andre lainkoak bere Semearen Amatzat hautatua, ardiats diezadazu grazia hark berak ni zeruetakotz hautatzeko.

Andre Elisabeth bisitatu, ardiats diezadazu grazia obra miserikordiazkoen konplitzeko.

Andre Seme onaz erdia, ardiats diezadazu grazia obra onen egoteko.

Andre semea galdurik ziñabilltzala Dotoren artean disputan aurkhitua, ardiats diezadazu grazia, lainkoa bekhatuz galdu dudanean, urriki-memdu handi batekin aurkhitzeko.

Andre doloretan iarraikia, ardiats diezadazu grazia tribulazionetan ez lainkoa abandonatzeko.

Hirurgarren Arrosarioa

Andre Semearen bizteaz boztua, ardiats diezadazu grazia lainkoaren ohoreaz bozteko.

Andre Zerura igatean Semeak salutatu, ardiats diezadazu grazia behar den agurra, eta errespetua, zuri eta zure Semeari ekhartzeko.

Andre alharguntza prestuki eramana, ardiats diezadazu grazia neure estatuan ungi gobernatzeko.

Andre zeruetan Semeak khorotua, ardiats diezadazu grazia glorizako burutearen ardiatsteko.

Andre gurezat othoitzez zaudezena, ardiats diezadazu grazia, lainkoaren eta zure faborea digneki eskatzeko.

BURU XVI

Arrosario komunaz

Orain daraño erran tugun guztiak, Arrosarioaren errateko fazoñ berriak dire: ethorri gare orain Arrosario komunaz hitz egiteko denborara.

Arrosario hark misterioak Iesus Kristo eta Birjina Amaren bizien gañean atheratuak ditu.

Misterio hek hamabortz dire beherago ageriden bezala.

Misterio hek edo Arrosario oso hura hirur partetan berezten da.

Berezte hura Iesus Kristen, eta Birjiña Amaren hirur adiñen eredura egiten da.

Eta nola hekin adiñak hirur denbora izatu baitzituen, gaztetasuna, adin ona, eta zaharzea, edo azken adina, hetan gerthatu gauza Sainduetarik, Arrosario haik atheratuak dire.

Gehiago nola hirur denboren arauera, hirur gauza mota gerthatu bitziren hekin bizian. Gaztetasunarekin, gauza gozoso edo allegeranziazkoak; adiñetakoarekin dolorosak; eta zahartze edo

azken denborarekin gloriosoak, hala Arrosario haren lehen partea deitzen da gozoso, edo allegeranziazkoa, berzea dolorosoa, eta berzea glorioso.

Arrosaio komunaren lehen partea zein baita Misterio gozosen gañean

Aingeruaren salutazionea. Elisabethen bisita. Iesus Kristoren sortzea. Tenpluan presentatzea. Doktoren disputa.

Bigarren parteko misterioak

Baratzean preso hartzea. Pilatusen etxean azotatzea, khorroatzea. Kalbariara gurutzearen eramatea. Han gurutzefikatzea.

Hirur garren partekoak

Iesus-Kristen biztea. Zerurat igatea. Espiritu Sainduaren bidaltzea. Andre dona Mariaren Zerurat igatea. Haren khorroatzea.

Arrosario hau lehen erran dugun legez, Iesus Kristo eta Birjinaren bizien gañean fundatua da eta hei biei ukitzen zaie.

Hartarakotz misterio hautarik bi Arrosario athera daitezke, bata Iesus launaren izenean, eta berzea Birjina Amarenean, guk egiñ tugun bezala, eta edozeñek hobeki daidizken bezala.

Eta nola Arrosario hau Iesus-Kristo eta Birjina Amaren bizien gañena egiña baita hekin biziko gauzen ereduz, hala berze Sainduen bizien gañean berzeak egin daitezke hekin bizitik haukin eredura misterioak atheratuz.

Hau da ordean lehenbiziko Arrosarioa, eta berze guztien egiteko okasione eman duena.

Duela berza ohore hunen asmatzailleak, zein baitzen San Dominiko, duela Iesus Kristok, halaber Birjina Amak, zeñen bizien gañean egin baitzuen.

Halabiz

**KIRIELEISONEZ
EDO BERZELA LITANIEZ**

BURU I

Litaniez abisu jenerala

Hunenberzez mintzaturik Arrosarioaz, orain mintza gaiten Litania, edo Kirieleisonez.

Berze nazione Kathotikak mintzatu direnaz geroztik bere hitzkuntzaz, mintza gaiten gu ere geureaz.

Litaniak bada lehen erran dugun bezala, dire othoitz doblatuak, othoitzen kontua begiratzen eztela.

Hauk ere Arrosarioa egiten den bezala, perfekzione eta berthutetarik athera behar dute.

Litaniak dire hala nola Arrosarioa, materiaren ereduakoa, edo debozione, edo borondatezkoak.

Dire oraño othoiztekoak edo esker itzultzekoak.

Gehiago lainkoari edo Sainduei erranak.

Halaber dire Litaniak, edo ontasun galdetzeko, edo gaitzak gibelatzeko.

Edo presuna batek erraten tuela edo batak erran eta berzeak ihardasten.

BURU II

Litanien hasteko abisua

Nola hastetik othoitz a ungi moldatu behar baita, hala hastean abisuak emanen tugu.

Litanien ihardasteak gauzen eta erraten zaiztenen eredura, diferenziatu behar dute.

Ontasuna galdetzean erran behar zaio lainkoari, Arren othoi indazu, edo berze, hau erran nahi duen hitzik. Eta Sainduari Arren ardiats azu, Arren othoitz egizu, &c. Gaitzen gibelatzeko, lainkoari, Arren gibela zazu, &c. Sainduari, Gibelara zi zazu, &c. Esker itzultzeko lainkoari, bai Sainduei, milla esker hartatzu, eta presuna bat edo hanitz mintzo bada, galdez nagoena edo gaudezena, Kirieleisonen lehenbiziko hitzaren ondoan ematen dela.

Orain ontasun galdetzekoak, eta gaitz gibelatzekoak dire espiritualak, edo korporalak.

Zein diren hek presunak ikhasi behartu.

Kirieleisonak hasi baño lehen zer galdegiñen duen gogoan iragan behar du, edo zertzaz eske-

rrak itzuli behar dituen, eta gero lehenbiziko Kirieleisonen hitzaren ondoan gauza hura aipatu, eta espezifikatu behar du.

BURU III

Litaniak lainkoari

lainko handia.

Hemen galdezak.

Edo eskerrak itzul.

Eske nagoena,

Edo gaudezena.

Arren othoi indazu.

Edo iguzu.

Beldur naizena.

Edo garena.

Arren gibela zazu.

Bekhatutan erortzea, &c.

Arren gibela zazu.

Ontasun isuriez.

Milla esker hartzatzu.

Hilltzetik guardatuaz, &c.

Milla esker hartzatzu.

Iainko Aita.

Iainko Semea.

Iainko Espiritua.

Iainko izatebatekoa.

Iainko hirur presunakoa.

Iainko egiazkoa.

Iainko ona.

Iainko haste gabea.

Iainko fiñik izanen eztuzuna.

Iainko ezin ganbia zaitena.

Nihork ez egiña.

Zeurenez zarena.

Nihoren ganik dependitzen etzarena.

Kreatura guztiak dependitzen zaizkitzuna.

Lekhu guztietan zarena.

Adimendu bethi iratzarria.

Borondate amulsua.

Iaun ahal guztitakoa.

Sendo guztien sendoena.

Lehoñen garaitzaillea.

Mendien aldarazitaillea.

Itsasoan agortzaillea.

Iainko adoratzekoa.

Lehenbiziko obraria.

Munduaren kreatzaillea.
Aingeruen burasoa.
Gizonen formatzaillea.
Zeruen zuziz bistatzaillea.
Izarren egillea.
Iguzkiaren higitzaillea.
Elementen arrimatzaillea.
Hedoiien gidatzaillea.
Uriaren isurtzaillea.
Marearen eragillea.
Guaiaren gelditzaillea.
Haizeen aitzintzailea.
Kreaturen begiraillea.
Hagoan idukitzaillea.
Aita hatzaillea.
Buraso arthatsua.
Egunaren formatzaillea.
Emaxurtxen habea.
Belatxen asetzaillea.
Abreen beztitzaillea.
Zuhaitzen landatzaillea.
Erregeen erregea.
Munduaren gobernatzaillea.
Munduaren salbatzaillea.

Glorifikatzaillea.

Onen rekompensatzaillea.

Gaixtoen punitzaillea.

Iainko iustua.

Iainko urrikalmendutsua.

Bekhatuen barkhatzaillea.

Ontasunen ithurria.

Munduaren gloria.

Iainko dohaingillea.

Iainko gloriosoa.

Iainko exzellenta.

Iainko perfekzioez bethea.

Zeure perfekzioeen gatik.

Ontasuna gatik.

Ohorea gatik.

Puxatzaren gatik.

BURU IV

Edozein Sainduren litaniez

Abisu jenerala

Saindu dohatsuak gure ararteko direnaz geroztik, eta dohain, eta grazien ardiatsailleak, eta ez emailleak, zeren lainko puxantak ematen dituen: hartarakotz bitartekoei bezala hitz egin behar zaie, eta ez lainkoari legez, nola orain hekin Litanien aitzinean exenplua emanen baitugu.

Litania hautan Sainduen berthute jeneralak eman behar dire ahal bezanbat.

Edo Saindu bati, edo guztiei, edo nahi bezanbati hekin izenak aitzinean aiphaturik, eta nonbrea hañtzera ganbiaturik, erran ahal dakizkete.

BURU V

Edozein Sainduren Litaniak

Saindu arartekoa,

Arren ardiats azu.

Nitzaz othoitz egizu,

Edo gutzaz othoitz egizu:

Edo arren entzun nazazu.

Edo arren entzun gaitzatzu.

Ezperen milla esker hartzatzu.

Eske nagoena.

Edo gaudezena.

Arren ardiats azu, &c.

Kastitatea arren ardiats azu, &c.

Beldur naizena edo garena, &c.

Apartarazi zazu, &c.

Gibelarazi zazu.

Ontasun isuriez,

Milla esker hartzatzu.

Perilletik guardaraziaz.

Milla esker hartzatzu, &c.

Saindu bitartekoa.

Adbokat leiala.
Nigarren aditzaillea.
Othoitzen aditzaillea.
Hekin presentatzaillea.
Lurrekoen defenza.
Ontasun arbuiatzaillea.
Gaitzen gibelatzaillea.
Tristeen konsolatzaillea.
Bihotz gurentzaillea.
Bekhatoreen errezibitzaillea.
Exituen ezportzua.
Penatuen faborea.
Doloratuen ihes lekhua.
Lurrekoen maitatzaillea.
Saindu ungi egillea.
Saindu berthutetsua.
Saindu launa obeditua.
Saindu imitatzekoa.
Bizitzearen miraila.
Obra onen exenplua.
Usantza onen gloria.
Merezien berretzaillea.
Iainkoaren doktriñaren forma.
Saindu glorioso.

Kortesano Zerukoa.

Saindu onhetstekoa.

Saindu ohoratzekoa.

Saindu laudatzekoa.

Saindu famatzekoa.

Zeure perfekzioeen gatik.

Merezien gatik.

Kreditaren gatik.

Bihotz beragatik.

Ontasuna gatik.

BURU VI

Saindu partikularen Litaniez

Abisua

Litania partikularetan ahal bezain berthute partikularak aipatu behar dire.

BURU VII

Jesus Kristoren litaniak

Jesus noblea.

*Hemen da eskatzeko,
edo esker itzulteko lekua.*

Kristo erregua.

Kristo Profetek agindua.

Xahuki konzebitua.

Mirakulluz iaioa.

Iainkoaren Semea.

Birjinaren umea.

Iainko eta gizona.

Jesus Aingeruek koplatua.

Artzañek ohoratua.

Erregeek adoratua.

Jesus Tenpluan presentatua.

Jesus Ejiptura eramana.

Doktorak disputan bentzutua.

Apostoluak hautatua.

Jesus Iuduek penatua.

Gurutzean hillarazia.

Guretzat osoki satisfatua.

Zeruak idekia.

Linboak hutstua.

Ifernuak izitua.

Iesus Idolak mututua.

Iesus gure etsaiak bentzutua.

Iesus hilletarik biztua.

Zerurat triunfantki igana.

Sainduen bidaldua.

Iesus guretzat othoitzez zaudezena.

Iesus gure lehen arartekoa.

Bakea ekhartzaillea.

Graziaren Itsaso ondargabea.

Bekhatoreen medikua.

Iesus zeruko athea.

Zeruko giltza.

Zeruko eskalera.

Kaptibuen libratzaillea.

Libertatearen titulua.

Denbora ioanen saria.

Gure allegeranzien kausa.

Zeure perfekzionen gatik, &c.

Gorago diren bezala.

BURU VIII

Berze Iesu Kristoren Litaniak

Iesus munduaren iguzkia.

Berzean bezala.

Profeten inspiratzaillea.

Apostoluen nausia.

Ebanjelisten Doktora.

Giristinoen irakastzaillea.

Jentillen argia.

Graziazko legearen zuzia.

Zuhurtziaren kadira.

Iakintasunaren etxea.

Sainduen eskola.

Liburu urrezkoa.

Kofesoren gidaria.

Predikarien mihia.

Doktoren doktora.

Elizaren zimendua.

Aphezen konsekratzaillea.

Martirien khoroa.

Birjinen esposa.

Sainduen atsegiña.
Aingeruen bozkarioa.
Patriarken esportzua.
Iesus biziaren fruitua.
Iesus ongi konsekratua.
Ithurri ezitia.
Ontasunen erroa.
Nekeen golardoa.
Iesus bihotz bera.
Iesus besoak zabaldurik zagozkiguna.
Iesus Kanan ungi egiña.
Desertuak probeditua.
Iesus Ama obeditua.
Iesus Ioseph burasoa ohoratua.
Iesus probezia onhetsia.
Kastitatearen bandera.
Iesus perfeta.
Munduari garaitua.
Haragia mezprezatua.
Etsaiak bentzutua.
Aitaren eskuñean zaudena.
Iesus gloriosoa.
Zeure perfekzionen gatik,
Merezien gatik, &c.

BURU IX

Ama Birjinaren Litaniak

Maria Saindua.

Hemen galdezazu.

Edo esker itzul.

Egundañotik ordenatua.

Profetek aiphatua.

Moisek figuratua.

Sibillek famatua.

Iainkoak agindua.

Mirakuilluz konzebitua.

Bozkarioz iaioa.

Sainduki hazia.

Tenpluan presentatua.

Sekulako birjinitateaz lehenik botu egiña.

Iainkoak Amatzat hautatua.

Gizonek gogoan baharrik etzuten.

Ioseph Iainkoaren manuz esposatua.

Gabrielek salutatua.

Elisabethek begitartez rezebitua.

Birjinarik erdia.

Semea onhetsia.

Maitero hazia.

Iainkoaren Ama.

Herodesen ihesi Semea Ejiptura eramana.

Zeure Semeaz arthatsua.

Hirur egunez Hierusalamen haren billha
ibillia.

Doloretan ondotik iarraikia.

Haren penez damu hartua.

Haren hilltzeaz tristetua.

Bitzteaz boztua.

Zeruetara igaterakoan salutatu zintuena.

Hura Zerurat geroztik lurrean egona.

Alharguntza prestuki eramana.

Obra onei iarraikia.

Andre barurdiarra.

Andre erromerietan oñez ibillia.

Semea ibilli zen lekhuak maiz bisitatua.

Hilltzera ungi preparatua.

Azken orenaz Aingeruak adbertitua.

Apostoluak mundu guztitik mirakulluz
ethoririk hekin hilla.

Ohorez ehortzia.

Hirurgarren egunean.

lainkoaren puxantzaz bitztua.
Aingeruak triumfantki Zerura gorputz eta
 arima iasana.
Semeak bozkarioz rezebitua.
Izarrezko khoroz khorotua.
Eskuñean ohorez iararazia.
Zeruko korte guztiaz ohoratua.
Zeure perfekzionen gatik.
Merezien gatik, &c.

BURU X

Berze Ama Birjinaren Litaniak

Birjina garbia.

Ama mansoa.

Andre urrikalmendutsua.

Andre guretzat othoitzez zaudena.

Semearen guretzat ertxatzaillea.

Lurrekoen habea.

Bi-garren arartekoa.

Kristauen defenza.

Daviten dorrea.

Borma kobrezkoa.

Gaztelu gogorra.

Hiri armatua.

Armada ordenatua.

Gure thresora.

Elizaren harrobia.

Urre horia.

Tristeen konsolatzaillea.

Gogatuen esparantza.

Bozkarioen hastera.

Allegeranzien bidea.
Kontentamenduaren partea.
Arimaren desira.
Zeruetako isuria.
Ihintz goizekoa.
Urbiziaren putzua.
Iturri xahua.
Erien osasuna.
Erremedioen denda.
Begitarte argia.
Kristallaren baldea.
Zuzi arraitsua.
Lanpa airekoa.
Arizar goiztiarra.
Argi etzin gabea.
Planeta klara.
Norteko izarra.
Albaren kidea.
Illhargi xuria.
Iguzki klara.
Kandeler urrezkoa.
Lehor agindua.
Zelhai loratua.
Baratze zarratua.

Salbatzaillearen alhorra.
Ordoki Manaduna.
Landa egia iasana.
Lore usain ona.
Lili xuria.
Arrosaren baldea.
Biziaren sagar ondoa.
Oliba fruitutsua.
Xertho ezta.
Zeruko landarea.
Zuhaitz itzaltsua.
Zuhaitz lerdena.
Kadezko palma.
Libango alzifrea.
Zeure perfekzioneeren gatik.
Berthuteen gatik.
Merezien gatik.
Ahalaren gatik.
Amatasuna gatik.

BURU XI

Ama Birjinaren hirurgarren Litaniak

Andre emea.

Andre ahalketia.

Birjen birjina.

Tortolla kastoia.

Andre begitarte klara.

Andre Birjinarik ornatua.

launaren esposa.

Esposaren ohea.

Espiritu Sainduaren Thronua.

Salomonen Tenplua.

Iainkoaren Eliza.

Sanktuario Saindua.

Ardiantxa emea.

Miserikordiaren ugatza.

Aingeruen Erregiña.

Patriarkena,

Profetena,

Apostoluena,

Martirena,
Konfesorena,
Saindu guztiena,
Birjen ohorea.
Alhargunen bozkarioa.
Nekhatuen pausua.
Andre tatxa gabea.
Andre aratza.
Zeruko alaba.
Insensuaren parea.
Nardoaren hurbilla.
Ollio isuria.
Kofoñ idekia.
Balsamu urriñ ona.
Salbatzaillearen emaillea.
Etxe urrezkoa.
lauregi hautatua.
Noeren arka.
Iainkoaren gela.
Semearen kadira.
Salomonen etzantza.
Emazteen hautuena.
Perfekzione guztien usain ezin agortua.
Munduaren gloria.

Bekhatu egin gabea.

Untzi hoztekoa.

Untzi hautatua.

Untzi baliosa.

Espiritu Sainduak moldatua.

Zeure perfekzioeen gatik.

Merezien gatik.

Amatasuna gatik. &c.

MANUALA LABURKI

Huneraño ikhusi duk Manuala luzeki,
Orain gogoan hartzeko ikhus ezak laburki.

Exortazionea

Giristiñoa ikhas ezak salbatzeko artea,
Gañerako zuhurtzien zeña baita Andrea.
Hartarakotz hirur gauzaz behar duk seguratu,
Sinhets obra behar dela, longoikoa othoiztu.

BURU I

Sinhetsi behar diren gauzak

Sinhetstekoz gauzetan duk lehen eta bizia,
Hamabi Apostoluek Kredo irakatsia.

Kredoa Eskaraz

Sinhetsten dut longoiko bat ahal guztitakoa,
Izate bat duelarik hirur presunakoa.
Sinhetsten dut lainko Aita gauzen kreatora.
Zeru, lur, eta Itsaso guztien egilea,
Gehiago aithortzen dut haren Seme bakharra,
Zeñak estali baitzuen gizonaren beharra.
Espiritu Sainduak zuen mirakuilluz formatu,
Eta Birjinaren baithan harrarazi ostatu.
Baita Pilatus iujeak kondenatu habera,
Heriotze penos batez bizia fiñatzera.
Ioseph Arimathiako ixill adiskideak,
Egin zituen ordean hillaren ohoreak.
Hirur garren egunean, luduek uste kabarik,
Hilletarik altxatu zen Majestategen betherik.

Gero Zerura igan zen mendi baten gañetik,
Eta Aitak iarrarazi zuen eskuñ aldetik.
Handik ephe iakinetan iauntsiko da lurrera,
Iosaphatko larrañean mundua iuiatzera.
Sinhetsten dut gehiago Espiritu Saindua,
Kofesetzen Eliza Ama mundura banatua,
Halaberki sinhetsten dut hillak oñen gañean,
Altxaturen diradela munduaren fiñean.
Iustuen partaletasun aithortzen dut Saindua,
Ezin ukha ere dezaket hutsen barkhamendua.
Bethiko biziak darot ordean bozten gogoa,
Zeñetzaz baitut esportzu noizbait gozatzekoa.

BURU II

Konplitu behar diren manuak

Sinhetsteaz berze alde lainkoaren legeak,
Iduki beharko dituk errespetuz gordeak.
Hemen bada irakurtzak hitz gutitan laburki,
Zein baitire Kathexisman deklaraten anpleki.

Giristiñoaren legea laburki

Lege bat xoillki idukak Giristiño aizena,
Eta hura Eliz Amak besarkatzen duena.
Gehiago konplitzak bi prinzipal manuak,
Zeñetara baitirade berze guztiak billduak.
Hirur berthute ardiats etzak Theologalak,
Eta lauda hirur botu halaber prinzipalak
Bañan hirur gaitzets etzak bizio handienak,
Gerla aspreena egin ohi darokutenak.
Onhets etzak ordean laur Kardinal berthuteak,
Eta gaitzetz lau bizio bendeku eskailleak.
Orhoitu ere behar duk gizonaren lau fiñez,
Bai eta lau Kristauaren obra prinzipalenez.

Eliz-amaren ere boz manamendu Sainduak,
Errespetuz beharko tuk iduki guardatuak.
Espiritu Sainduaren halaber kontrakoei,
Ihes eginen daroek sei hoben itsusiei.
Bañan guztiz ohoratzak zazpi Sakramenduak,
Eta Espirituaren galde zazpi donuak.
Gehiago treba adi zazpi berthuteetan,
Eta ez har atsegiñik kontrako gaizkietan.
Urrikalmenduzko obra praktikatzak zazpiak,
Gorputzarenak bezala arimaren zazpiak.
Gutiziatzeko zortzi duk dohatsutasunez,
Nola azaketen egin tixoso ontasunez.
Bihotz guztiaz gaitzeskik bederatzi hobenak,
Falta handitan eragotz ahal azaketenak.
Eta fiñean obratzak hamar manamenduak,
longoikoak Israeli hanbat gomendatuak.

Iainkoaren hamar manamenenduak

longoiko bat onhets ezak eta adora debotki,
Eta haren izenaz ez ziñik egin banoki,
Gehiago begirazak igandea sainduki.
Eta burasoak ondra bizi adin luzeki,
Nihor hill eztezakela, ez bihotzez gaitzetsi,

Ezen bengantzen lainkoa ni behar nauk sinhetsi.
Paillardiza iguñari egiokek ihesa,
Gutziz ere ez desira lagunaren esposa.
Berzeren ona hain guti beharko duk iduki,
Bañan guttiz hauzoaren ontasuna ez uki.
Fiñean mihiari emok guardia ezten gezurti,
Eta aizen falseria irauztera beldurti.

Elizaren manamenduak

Igande eta bestetan largazakek nekea,
Eta Zerukoei eman merezi ohorea.
Meza beraz adizakek egun hekin goizean,
Eta gañerako eguna enplega obra onean.
Ezen berze egunak launak emantik nekhatzeko,
Bañan Igandeak eta bestak othoitzetako.
Aphezei ekhar diezek behar errespetua,
Zeren idukitzen duten lainkoaren lekhua.
Eztiezela iduki zor daroen fioa,
Zerbi dezaten biziaz artha gabe lainkoa.
Suiekt errendatzekotzat haragi gudutsua,
Abstinenzia begira albaiteza saindua.
Hartarakotz barurezak Garizuma guztia,
Halaber lau denborekin, Sainduen bijilia.

Eztezakela haragi ian aiphatu mugetan,
Ez hain guti Orzirale, eta Larunbatetan.
Gehiago lauda etzak, Saindu zeremoniak,
Kandelero eguneko nola biztu zuziak.
Eta hautsterriz hautsaren burura ematea,
Orhoitzeko hauts bihurtzen dela gorputz maitea.
Baita are arramua eskuan ekhartzea,
Herstu denean arramu sainduko Igandea,
Gañerako Elizaren berze zeremoniak,
Lauda etzak eta onhets haren athun guztiak.
Ezen eztik aitziañatzen deusik progotxu gabe,
Hekin beraz guardatzera eztukela herabe.

Gizonaren lau azken fiñez

Ene erranak konplitzeko duen griña gogoan,
Gau eta egun idukitzat hautxek memorioan.
Orhoit adi herioaz orhoit luiamenduaz,
Ifernuko doloreez, bai gloria Sainduaz.
Idukitzak gizonaren lau fiñak bihotzean,
Eta huts egiñen eztuk munduko bizitzean.

BURU III

Othoitzez

Othoitz perfekt jenerala lainkoari

Sartzea

laun puxanta ausartzen naiz zure suplikatzera,
Burua ezazula itzul arren berze aldera.

Othoitza

Zertaz ertxatzen baitzaitut ahal bezain debotki.
Arren esku aberatsaz isur azu frankoki.

Egin-bide ordañak

Ordañez bortxaturen naiz ematera ohore,
Gura ganik hura duzu galdetzen bethiere.

Eskerrak

Milla esker ditutzula hartarakotz graziez,
Lehenekoez bezala berriro isuriez.

Adorazionea

Hekien bada aldera lurrerarik humillki,
Neure podoreaz zaitut adoratzen debotki.

Laudorioa

Gehiago dudan antze hoberenaz laudatzen,
Zeren on guztiak diren zure baithan zarratzen.

Gonbidatzea

Berze kreaturak ditut gonbidatzen hartara,
Biribilla daitezentzat laudorioen kantara.

Ofrenda

Ofrendatzen dorozkitzut arima eta lohia.
Eta guztiz iaioz gero egin obra on guztia.

Agintza

Gehiago egiteko darotzut prometatzen,
Baldin eta bizitza goiz ezpazait faltatzen.

Othoitz dobla

Haukin ordain adizazu arren ene othoitz,
Eta ezazula bidal triste epe bihotza.

Iaikitzea

Hala egizu emateaz gloriatzen zarena,
Eta adizazu ene bihotzeko auhena.

Halabiz

Pater noster eskaraz

Gure Aita Zeruetan glorioso zarena,
Errespetuz aipha beki lurrean zure izena.
Egiguzu Zeruairen ardiesteko grazia,

Eta bethi konpli bedi nahi duzun guztia.
Egunoro behar gare, iguzu hazmendua,
Eta guk berzeri legez hutsen barkamendua.
Eztezazula permeti tenta gaiten borthizki,
Bañan gaitzatzu kaltetik hastanduak iduki.

Othoitz perfet jenerala edozein Sainduri

Sartzea

Saindu handia hurbilltzen naiz zure begitartera,
Ahalkesunez betherik humillki othoiztera.

Othoitzza

Duzun kreditaz, Puxanta ertxa zazu enetzat,
Eske nagoen dohaña lauda diezadantzat.

Eginbide ordañak

Ordain eskaintzen darotzut neure ahal guztia,
Zein dagotzun eredura baita gauza gutia.

Eskerrak

Esker itzultzen darotzut lehengo ontasunez,
Eta guztiz azkenenik ardiatsi tutzunez.

Ohorea

Ohoratzen zaitut ere lainkoaren maitea,
Zergatik bistatzen duzun dohatsuen kortea.

Laudorioa

Laudorio eta ohore dagozkitzu handiak,
Zeren azpira dituzun hirur izterbegiak.

Gonbidatzea

Zuek ere kratura lehor zabalekoak,
Hitz ederrak erratzitzue, bai zuek urekoak.

Ofrenda

Arima eta gorputzaren osoki zerbitzua,
Ofrendatzen darotzut hek errenda ahalekoa.

Agintza

Hunekin egun eta sekulako agintzak,
Zure faborean baizen ez naitekela mintza.

Othoitza dobla

Hartarakotz dohatsua arren entzun nazazu,
Eta galdea ardiats othoi diezadazu.

Iaikitzea

Zure baithan egundañoz izatu dut fidantza,
Enganatzen ez naizela ere dut esparantza.

Halabiz.

Edozein Sainduri othoitz laburra

O Merezi handiz bethi Saindu glorioso,
Arren adizazu ene galde premiazkoa.
Eta belhauriko zaude tronuaren oñean,

lainko puxantak fabora nazan behar neurean.
Hartarakotz ertxa zazu ikhusirik beharra,
Eta haren gana ene hel ezazu nigarra.

Abe Maria eskaraz

Agur erregiña andre garaziaz bethea,
Ezen zurekin da lainko gure salbatzaillea.
Hautatua zu zarade berze emasteen artean,
Nola zure semea baita gizon guztien gañean.
O Maria lainkoaren ama bedinkatua,
Eta Adamen kutsutik garbi konzebitua.
Oren oro zuk dakizu zeren dudan premia,
Orain eta azkenean zu zakizkit balia.

Aingeru begiralleari othoitza

O Aingeru ene gatik bethi gerlan zarena,
Eta ni iaioaz gerostik unhatu etzarena.
Zuk gida eta defenda nazazu bizitzean,
Ene eskerrak zeruetan dituzketzun artean.

Halabiz